

EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN  
EGITURAK ETA ISLAK  
1975-2015

EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN  
EGITURAK ETA ISLAK  
1975-2015



EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN  
EGITURAK ETA ISLAK  
1975-2015

EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN  
EGITURAK ETA ISLAK  
1975-2015

**iker - 38**



**MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN**

**EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN  
EGITURAK ETA ISLAK  
1975-2015**

**IKER-38**

EUSKALZAINDIA  
2020

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

eman ta zabal zazu



**Universidad del País Vasco** **Euskal Herriko Unibertsitatea**

Argitalpen hau Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanaren emaitza da.

© Miren Ibarluzea Santisteban

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V / A.L.B

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Testuaren hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA) eta UPV/EHUko Euskara Zerbitzua (Iñigo Roque Egusquiza).

Maketazioa: Composiciones RALI, S.A.  
Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.

ISBN (Euskaltzaindia): 978-84-121889-2-9

ISBN (UPV/EHU): 978-84-1319-243-7

Lege-gordailua: BI 01379-2020

# AURKIBIDEA

1. HITZAURREGILEAREN ESKER ONEKO HITZAK (Mari Jose Olaziregi) . . . . .	1
2. SARRERA-HITZAK: LAN HONEN NONDIK NORAKOEZ (Miren Ibarluzea) . . . . .	3
3. ITZULPEN EREMUA AZTERTZEKO OINARRIAK: EGITURAK, DINAMIKAK ETA IRUDIKATZEAK . . . . .	7
3.1. Bira soziologikoa: itzulpenaren soziologiaren ekarpenak . . . . .	7
3.2. Bourdieuren soziologia: eremuen teoriaren oinarritzko kontzeptuak . . . . .	9
3.2.1. Eremua ( <i>Champ</i> ) . . . . .	9
3.2.2. Habitusa ( <i>Habitus</i> ) . . . . .	14
3.2.3. Kapitala ( <i>Capital</i> ) . . . . .	17
3.3. Nola sortzen diren (azpi)eremuak edo eremuen autonomizazioa . . . . .	21
3.4. Eremuen arteko elkarreraginak: aitortzak eta islak . . . . .	25
4. EUSKAL LITERATURA ITZULIA BARNE-EREMU BAT DA: DEFINIZIOA ETA ABIAPUNTUA . . . . .	37
5. EUSKAL LITERATURA ITZULIA: (BARNE-)EREMU BATEN BILAKABIDEA . . . . .	45
5.1. 1975-1985: literatura itzuliaren ekoizpena eta prestakuntza-beharra handitzea . . . . .	48
5.2. 1985-1990: kolektibo profesionalaren kontzientzia hartzea eta egiturak egonkortzea eta eskualdatzea . . . . .	60
5.3. 1990-2000: saretzea, bistartzea, metaforizatzea eta parodiatzea . . . . .	78
5.4. 2000-2015: unibertsitate-ikasketak sendotzea, nazioartekotze-politikak sistematizatzea eta fikziozko itzultzaileak biderkatzea . . . . .	100

*AURKIBIDEA*

6. GOGOETA BAT EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN FUNTZIOEN INGURUAN .....	167
7. AZKEN HITZA .....	181
8. BIBLIOGRAFIA .....	185

Lan hau MHLI (IT1047-16 Eusko Jaurlaritza) ikertaldearen US17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen parte da.





Ez dira urte asko euskal itzulpengintzari ganoraz ekin zitzaiola. Alegia, profesionaltasunez; modu organizatu batean; bata bestearen anparoen arituz. Senez. Izen hori bera daraman aldizkaria lekuko. Nekez uler daiteke aurreratu den guztia talde-lanik gabe. Euskal literaturaren loraldiaz mintzatzen gara, baina loraldirik bikainena, itzulpengintzaren miraria, bai praktikan –itzuliz– eta bai teorian –itzulpengintzari buruzko hausnarketan sakonduz–.

Anjel Lertxundi, *Itzuliz usu begiak* (2019: 73)

Itzulpenik ez genuen garaian, beste hizkuntza batzuetakoak ziren nire erreferente estilistiko asko –gehienak–. Gaztelaniazkoak batez ere. Eta idazten ari nintzelarik, erdal erreferentzia horiek baliatzen ziren eta egokitzen nituen.

Beste hizkuntza batetik neurera txango etengabea egitea zen, neurri handi batean, idaztea. Orain, ordea, askoz ere sarriago egiten dut txango neure hizkuntzatik neure hizkuntzara, eta ez da soilik euskal idazleen –eta obren– panoramika zabaldu delako. Bada beste hizkuntzetako idazle asko *euskaradun* egin dugulako ere.

Anjel Lertxundi, *Eskarmentuaren paperak* (2009: 58)

Mila eratan esan diot horixe, aldarte neurritsuan bezala jardun natzaio hordi-puntu txoroan ere, zenbat modu erabili ote dut Marta konbentzitzeko itzulpena dela herri bateko literaturaren hazia eta ongarrria, alfa eta omega. *Xuxen* eta *Txorrotx*, ispilua eta ifrentzua, letania eta amen. Mila eratan esan diot itzulpenak indartzen eta bazkatzen duela hizkuntza bateko literatura, itzulpena dela hizkuntza bati atek irekitzen dizkion giltza, aire estetiko berriei leihoak zabaltzen dizkien maratila, tradizio ederrenen *turris eburnea* bezala letra-zopa abangoardisten pertza. Mila aldiz esan diot niri ere gustatzen zaizkidala nire lanaren onarpena eta txalo-poza.

Anjel Lertxundi, *Horma* (2017: 112)



## 1. HITZAURREGILEAREN ESKER ONEKO HITZAK

Esku artean duzun ikerlan honen irakurketari ekiten diozunean, segituan ohartuko zara Miren Ibarluzearen ekarpenaren garrantziaz. Eta ez naiz liburu honen ernamuinean dagoen doktore-tesi bikainarengatik bakarrik ari, testuak berak duen indarrarengatik baizik. Irakurleak erraz antzemango dio liburuak azalpen eta analisisetan egileari darion literaturzaletasunari. 2018-2019 ikasurteko doktoregoko sari berezia eman zitzaion Humanitateen arloan, 2018ko edizioko Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena VI. Saria irabazi zuen, eta harrotasun puntuarekin gogoratzen dut, ez tesiaren zuzendari izatea egokitu zitzaidalako, Ibarluzearen lan berritzaileak merezitako aitortpena izan zuelako baizik. Zuzendari gisara esker oneko hitzak besterik ez ditut, elkarrekin lanean pasatako urteetan, doktore-tesi onekin gertatzen den bezala, asko ikasi bainuen eta nire lana, finean, neurrigabe haziz zihoan tesiari amaiera ematen laguntzea izan baitzen batik bat.

Ikerlan honek euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren bilakaera du hizpide eta ikuspuntu soziologikotik abiatzen da, Pierre Bourdieuren eta haren ikasle Gisèle Sapiroren esanak gurea ekarriz. Berritasuna, beraz, bistakoa da, euskal itzulpen ikasketa akademikoetan lehenengoz erabiltzen baita itzulpena gizarte-jarduera gisara aztertzen duen ikerlerro hori. Horregatik aztertzen dira 1975-2015 epean, itzulpengintzari lotutako hezkuntza-egiturak, profesionalen erakundeak, erreferentzia berezituak, kontsakrazio-agenziak, kanpo-harremanak, itzulpen-politikak, itzultzaileen eta idazleen eremuarekiko jarrerak... etab., euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren deskribapena seriotasunez burutzeko. Euskal literatura itzuliak gurean bete dituen funtzio sinboliko, ekonomiko eta bestelakoak iruzkintzen dituzten atalek osatzen dute hurbilpen soziologikoa. Gainera, aurrekoaren osagarri, euskal literatura-instituzioak itzulpenaz egin duen irakurketa eskaintzen zaigu, gure

literaturaren historiografian itzulpengintzak izan duen lekua aztertuz, edo euskal idazleen fikziozko lanetan itzultzaileek izan duten gero eta protagonismo handiagoaz hausnarketa eginez. Esango nuke itzultzaileen eskuzabaltasunaz jokatu duela Ibarluzeak ikerlan honetan ere, itzultzea sortzea dela oroitaraziz... edo, nahiago baduzue, sortzea, literatura idaztea, itzultzea dela gogoraziz. Iruditzen zait Ibarluzeak irekitako bidea funtsezkoa dugula Euskal Itzulpen Ikasketak eguneratzen eta osatzen joateko, bereziki esparru akademikoan. Itzulpenak euskal literaturari egindako ekarpen funtsezkoa inork gutxik auzitan jartzen duen honetan, ezinbestekoa dugu itzulpenaren beraren alderdi askotarikoez, bere eragin eta gizarte-proiektzioaz seriotasunez hausnartuko duten lanak ugaltzen joatea. Finean, eleaniztasuna mundu populazioaren % 90k bizi duen errealitatea izanik, itzulpenak egiten duen zubi-lana gure eguneroko bizitzan txertatuta dagoen gertakaria dugu. Umberto Eco-rentzat itzulpena Europako hizkuntza bazen, gaur egunean haratago joango ginatke eta gero eta globalagoa den mundu osoarena dela esan beharko genuke, eta merezi duela unibertsitate, gizarte-erakunde eta eragileengandik arreta handiagoa. Baita gurean ere. Horregatik iruditzen zait Ibarluzearen ikerlan honen emaitza hain interesgarria, euskal unibertsitate esparruan aspaldian ezagunak diren ikerketa-moduak aberastera datorrelako, eta euskal literatura itzulpenari begi nahiz tresna berriekin begiratu beharraz ohartarazi gaituelako.

Mari Jose Olaziregi  
(UPV/EHU, MHLI ikertaldea)

## **2. SARRERA-HITZAK: LAN HONEN NONDIK NORAKOEZ**

Liburu honen abiapuntua 2017an defendatutako tesi-lana da, baina liburu honetarako orduko lan hura moldatu eta berregituratu egin da. Lan luzeago hartako gakoak hautatu dira, eta orduan gaika eta bereiz emandako kapituluetan aztertutakoa denboraren ardatzean kokatuta eta harilkatuta dakargu oraingoan, euskal literatura itzuliaren bilakaeraren historiaren bertsio baten kronika bat eskaintzeko.

Honaino ekarri gaituen lanaren abiapuntu izan zen ohartzea euskal itzulpengintzaren inguruan sortutako zenbait erakundek, kanpo-erakundeetako eraginek, ekoizle, bitartekari eta hartzaileek eta merkatuak, besteak beste, egitura gero eta egonkorragoa eta eraginkorragoa osatzen zutela, eta egitura hori hazten eta hedatzen ari zela, eta, oro har, egiturak gero eta onespren handiagoa zuela gizartean. Bada, egitura haren eta egiturako partaideen irudiek, harremanek eta tentsioek sortzen ziguten interesa. Argi genuen itzulpen-zerrendez eta katalogoz harago, itzulpengintzaren eraginen eta horiei buruzko gogoeten bilketa eta bilakaeraren interpretazioa egin nahi genuela eta, hala, itzulpena erdigunean paraturik, itzulpena ardatz duten itzulpen-ikasketen diziplinatik abiatu beharrari funtsezko iritzi genion. Ezinbestekoa zitzaigun, halaber, kontuan hartzea euskal itzulpengintzaren historia erabat lotuta dagoela euskal letren historiarekin eta euskararen historiarekin eta estatusarekin, eta horrek bete-betean eragiten diola esku artean darabilgun gizarte-egiturari; izan ere, elkarri eragiten diote egitura batzuek eta besteek. Hortaz, itzulpenaren eta gizarteko bestelako arlo batzuekiko korrelazioa aintzatesteko moduko ildo teoriko-metodologikoa behar genuen, ezinbestez.

Ildo horretan, batetik, itzulpena gizarte-esparruen artean egiten dela onartuta (Wolf, 2011: 24), gizarte-jarduera balitz bezala definitu behar

genuen, eta, bestetik, balio objektiboak (produkzioa, gertakariak...) eta sinbolikoak (jarrerak, harrera, pertzepzioak, ideologia...) artikulatu behar genituen. Horiek guztiak lotzeko eta deskribatzeko kontzeptu-sare bat behar genuen, hain zuzen ere hainbat teoriak eta metodologiak «testuinguru» esaten dioten hori deskribatzeko eta «itzulpenak gizartean izandako eraginaren eta irudiaren bilakabidea» ikertzeko. Hala iritsi ginen itzulpenaren soziologiaren esparrura, eta bide horretatik azaldu genuen euskal literatura itzulia autonomizazio erlatiboaren bidean zela, eta hala deskribatu genuen zer-nolako funtzioak betetzen zituen euskal literatur itzulpengintzak literaturaren espazio garaikidean.

Eta hala iritsi gara liburu honetara, horiek guztiak datozen kapituluetan laburtu nahian. Literaturaren eremuaren eta itzulpenaren eremuaren bitarteko esparrua dugu aztergai, eta biek ere biek elkarri nola eragiten dioten ikusarazi nahi dugu.

Itzulpenaren soziologiaren markoan itzulpena gizarte-jarduera bat da, eta guk horrelaxe ulertzen dugu itzulpena lan honen argitan. Ildo horretan, gizarte-eragileek ezaugarritzen dute itzulpena, eta balio komunikatiboaz gain, balio soziala ere badu (Wolf, 2007: 1). Itzulpenaren ezaugarriak eta balio soziala aztertzeko, testuen egileei, transferentziaz arduratzen diren agentziei zein testuak hartzaileekin kontaktuan jartzen dituzten eragileei jarri behar zaie arreta, besteak beste. Hortaz, eremuko eragileen posizioa, botere-indarrak, parte-hartzaileen jarrera kognitiboak eta sozialak, eta dagozkigun eremuaren barne- eta kanpo-eraginak, eta funtzioak kontuan hartzeak dira eremu sozial jakin bat deskribatzeko. Deskribapen hori egiteko oinarriak zehaztuko ditugu lehenbizi.

Ondoren, 1975-2015 urte-tartean euskal literatura itzuliaren barne-eremuak bizi izandako 40 urteko bilakabideari begiratuko diogu. Hain zuzen ere, bilakabidez aritzean euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizazio-prozesuaz ariko gara. Oharrak egingo ditugu eremu horren barruko literatura itzuliaren barne-eremuari dagozkion elementuen inguruan; halaber, eremuaren egitura, harreraren eta errepresentazioaren eragiten duten zenbait harreman eta sare deskribatuko ditugu. Funtsean, itzulpengintzari lotutako hezkuntza-egiturak, profesionalen erakundeak, erreferentzia berezituak, kontsakrazio-agentziak, kanpo-harremanak, itzulpen-politikak, itzultzaileen eta idazleen eremuarekiko jarrerak, eremuaren beraren irismena, errepresentazio historiografikoak eta fikzionalak izango ditugu hizpide. Bereziki, horien arteko loturak bistaratu nahi genituzke, gertakariak ez direlako isolatuak.

Azkenik, euskal literatur itzulpenaren barne-eremuak euskal literaturaren espazioan betetzen dituen funtzioen inguruko hausnarketa ekarriko dugu, literatura itzuliak osatzen duen barne-eremuaren zenbait eragin ideologiko, ekonomiko eta kultural ikusaraziz eta agertuz.





### **3. ITZULPEN EREMUA AZTERTZEKO OINARRIAK: EGITURAK, DINAMIKAK ETA IRUDIKATZEAK**

#### **3.1. BIRA SOZIOLOGIKOA: ITZULPENAREN SOZIOLOGIAREN EKARPENAK**

Itzulpena testuinguru historiko eta soziokultural jakin batean gertatzen eta egituratzen dela nabarmendu izan dute hainbat itzulpen-teoriak, eta bide horretatik iritsi ziren itzulpen-ikasketetara, besteak beste, ikuspegi feminista, postkoloniala eta etnografikoa. Nolanahi ere den, delako «testuinguru» hori kontzeptualizatzeko, zehazteko eta deskribatzeko metodologia-ildo berriak ireki dira soziologiaren ekarpenari esker. Hala, itzulpen-ikasketek ikuspegi-aniztasunaren aberastasunetik elikatzen jarraitzen dute, eta kultur biratik haratago, ikuspegi soziologikoaren arabera itzulpena baldintzatzen duten faktoreen inguruan eztabaidatzeko grinatik bira soziologikoa egin dutela esan izan dute Wolfek (2011: 2) eta beste aditu batzuek. Grutmanen hitzetan: «Un vent sociologique souffle sur les études de la traduction ou, comme on dit dans le milieu, sur la traductologie» (2009: 135). Hain zuzen ere, esaldi horrekin hasten du Grutmanek «Le virage social dans les études sur la traduction, une rupture sur le fond de continuité» izeneko artikulua (2009), eta izenburuak berak aurreratzen du edukia: itzulpen-ikasketek aurretik bizi izandako paradigma-aldaketei beste bat gehitu zaie, bira soziologikoa, aurretik beste jakintza-arlo batzuek utzitako sedimentuen gainean eraikitakoa, kultur birak lurra prest-prest utzi ostean metatutakoa (2009: 136).

Garrantzitsua da azken ideia hori, ezin baita deskribatu teoria polisistemikoen eta soziologikoen arteko harremana norgehiagoka gisa, ezpada bata besteari gehitzen zaizkion sedimentu-geruza gisa, edo, bestela esateko, bata

bestearen luzapen gisa. 1985-1995 tartean itzulpen-ikasketak eta Touryk itzulpengintzara ekarritako Even-Zoharren polisistemen teoriaren eredia parekatuta zeudela ematen zuen arren, hots, itzulpen-ikasketak eta polisistemen teoria bat zirela, askorentzat bereizezinak (Grutman, 2009: 137), ikuspegi polisistemikoaren ezaugarrietako bat da beste eredu sistemiko batzuekin lotzeko eta integratzeko ahalmena. Horrek ez du esan nahi, nolana ere den, ezberdintasun epistemologikorik ez dagoenik eredu polisistemiko eta soziologikoen artean: ezin dugu, esaterako, Bourdieu sistemen teorizatzaile bihurtu, ez eta Even-Zohar soziologo ere (Grutman, 2009: 142-143). Halere, bi ereduak badituzte antzekotasunak, eta, adibidez, «sistema» eta «eremu» kontzeptuak biak ala biak dira erlazionalak eta agonistikoak edo borrokakoak (Grutman, 2009: 144-147): bi kontzeptuek deskribatzen dituzte gatazka-unibertsoak. Baina, bata bestetik bereizte aldera, Chestermanen hitzak ekarrita, kultur ikerketak fokua ideietan jartzen du, eta ikerketa soziologikoak, aldiz, pertsonen jarrera behagarrian (2006: 9): «The sociologists focus more on the actions, and the cultural studies people on the ideas» (Chesterman, 2006: 11). Hiru testuinguru mota bereizten ditu Chestermanek: a) kultur testuingurua: balioak, ideiak, ideologiak, tradizioak... dira fokua; b) testuinguru soziologikoa: pertsonak dira fokua; pertsonen jarrerak, jarduteko moduak, pertsonen osatutako taldeak...; eta c) testuinguru kognitiboa: prozesu mentalak, erabakiak hartzeko prozesuak... dira fokua. Hala ere, kontuan hartu beharrekoa da itzulpen-ikasketetan aztertzen eta deskribatzen diren hainbat testuinguru mugetan kokatzen direla, pluralak direla (Chesterman, 2006: 11). Hortaz, testuinguruak mugatzeko eta sailkatzeko ezintasunak bestelako beharrianak sortzen ditu, eta, hein handi batean, polisistemen teoriak modu teorikoan azal ezin ditzakeen hutsuneak betetzera dator itzulpenaren soziologia. Nolabait esateko, itzulpenaren soziologia teoria sistemikoei egotzitako determinismotik harago doa (Munday, 2008: 158-159). Wolfek (2007) azaltzen duen moduan, tradizioaren eta nortasunaren ikuspegi estatikoa atzean utzi eta ikuspegi-aldaketa dakar itzulpenaren soziologiak. Wolfen (2007: 6) arabera, kulturaren eta gizartearen arteko elkarreraginean enfasia jartzeak lagundu egin dezake dikotomizazioa saihesten eta ikuspegi deterministak ekiditen. Autore beraren ustez (*idem*), baina, ezin liteke *sociological turn* delako batez aritu, ez daudelako kultur eta gizarte-praktikak (ez eta haiei buruzko kontzeptualizazio teoriko eta metodologikoak ere) banatzerik.

Gauzak horrela, itzulpenaren inplikazio sozialak oposizio bitarretatik harago aztertu beharrez eta sistemaren dinamika zer indarrek eragiten duten azaleratu beharrez (Wolf, 2007: 6-7), itzulpengintzaren soziologiaren bidean

egindako ikerketek Pierre Bourdieu etnografo eta soziologoaren «eremu», «habitus», «kapital» eta «ilusio» kontzeptuak baliatzen dituzte, zer eta itzulpengintzan parte hartzen duten eragileen posizioa, botere-harremanak, jarrera kognitibo eta sozialak, inplikazioa eta funtzioak aletzeko, eta baldintza horien arabera testuak nola eraikitzen eta proiektatzen diren aztertzeko, besteak beste. Itzulpenaren soziologiak itzulpena gizarteak araututako jarduera gisa definitzen du, itzulitako testuak gizarte-ezaugarri jakinek zehaztutako eragileekin egiten du bat, eta balio soziokomunikatibo jakin bat eta funtzio jakin bat ditu (Wolf, 2007: 1). Itzulpenen ezaugarri horiek testuaren egilearen, transferentzia-agentzien, testuaren eta publikoaren artean dauden harremanak deskribatuta azter daitezke. Hala, itzulpenaren soziologiak argi egin diezaieke gisa honetako gai: zein da itzulpenen inpaktua gizarte-aldaketan, eremuaren egituraketan eta hautaketan? Zer eragin dute aurreko horietan indarrean diren faktore sozialek? Ildo horretan, eragileen soziologia, itzulpen-prozesuaren soziologia eta produktuaren soziologia erabil daitezke metodo gisa aurreko gaiak aztertzeko (Chesterman, 2006: 12). Halaber, itzulpen-ikasketen soziologia egitea ere beharrezkoa da, ikasketa-arloa bera aztertzeak, esate baterako, argi egin baitiezaieke itzulpenaren instituzionalizazioarekin eta historiarekin lotutako alderdiei (Wolf, 2007: 25-27). Bourdieuren oinarritzko kontzeptuak baliatuko ditugu euskal literatura itzuliari erreparatzeko; hortaz, horiei buruzko zenbait jakingarriren berri emanez ekingo diogu hurrengo atalari.

### 3.2. BOURDIEUREN SOZIOLOGIA: EREMUEN TEORIAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK

#### 3.2.1. *Eremua (Champ)*

Eremu magnetikoaren edo gerra-zelaiaren metaforaz gainera, karta-jokoarena ere erabil daiteke Bourdieuren «eremu» kontzeptua azaltzeko: eremuak joko-esparruak dira; joko-esparru horietan dabilzan jokalariek karta jakinak dituzte; karteak balio zehatza dute; errespetatu beharreko joko-arauak ezartzen dira, eta, erronka zehatz bat tarteko, kolaborazioa eta gatazka, biak gertatzen dira (Bourdieu & Wacquant, 1992: 73-74).

Eremua, beraz, espazio sozial egituratua da, hierarkia, indar-harreman, arau eta egitura jakinak dituena, eta, era berean, egituratzailea ere bada: alegia, hierarkiak, indar-harremanak, arauak eta egiturak sorrarazten dituena. Eremua erakundeek, eragileek eta praktikek osatzen dute. Eremuak sendoak edo

ahulak izan daitezke, eta eremuko logikak agerikoak edo ezkutukoak. Egitura osatzen duten erakundeek eta eragileek mundua ikusteko euren modu propioa sortzen dute, dinamikak sortzen dituzte, eta eremuaren egitura bera aldatzeko gai ere badira askotan. Gizartea osatzen duten askotariko eremuaren egiturak ez daude maila berean, ezberdinak dira elkarren artean. Horrez gain, eremuak dinamikoak dira, aldatu egiten dira, espezializatu, zabaldu, lausotu, desagertu... Espazio multidimentsionalak dira eremuak, eta alderdi sinbolikoak garrantzi sortzaile handia du, erronka eta imajinario kolektiboak sor baititzake. Eremua kapital komunek osatzen dute, baita kapitalak eskuratzeko borroka-estrategiek ere. Hala, eremuak autonomia erlatiboa du, bizi izandako garapen historikoaren arabera, erakundeen eta eragileen kidezaren eta boterearen arabera zein norbanakoen eta taldeen lehia-mekanismoaren arabera. Eremuak indar-harremanak dira, eremuaren beraren funtzionamenduaren inguruan borrokan dabilzan eragileen gunea. Hierarkiak gertatzen dira eremuan, eta hierarkia horiek mantentzean edo aldatzean dautza eragileen arteko borrokak. Oro har, boterea dutenek estrategia kontserbatzaileak darabiltzate, eta, ostera, eragile ahulagoek eremua eraldatzeko joera izaten dute. Eremuari berari dagozkion problematikak dira eremu-kideak definitzen dituztenak, eta eremuaren egiturak berak agerian uzten du zein izaten den eremu-kideen posizioa (Vizcarra, 2002).

Bourdieuaren arabera, unibertso soziala osatzen duten egiturek izaera edo objektibitate bikoitza dute, maila biko: lehen mailako objektibitatean kokatzen dira, adibidez, baliabide materialak eta horien banaketa; bigarren mailako objektibitatean, aldiz, eskema mentalak kokatzen dira. Eragileen ikuspegiak eta interpretazioak ere errealitate sozialaren parte dira, hortaz. Hala, giza zientziek objektuen irakurketa bikoitza egin behar dute (ikuspegi estrukturalista eta konstruktibista bildu behar dira, nolabait): lehen pausoa posizioen espazioa deskribatzea da, alegia, egitura objektiboak sortzea; bigarrena, eragileen esperientzia aztertzea, jarrerak, joerak edo haute-mate-kategoriak deskribatzea, posizioak nola hartzen diren deskribatu ahal izateko. Bi une horiek, edonola ere, lotuta daude: aipatutako bi mailen artean korrespondentzia dago, eta zientziak, hortaz, bi objektibitate mailen arteko artikulazioak kartografiatu behar lituzke, egitura sozialen eta sistema sinbolikoaren arteko korrelazioek funtzio politiko zehatzak izaten baitituzte: menderakuntza-tresnak dira. Sistema sinbolikoak, beraz, harreman soziala irudikatzeaz gainera, egituratu edo sortu ere egiten du, eta, hein batean, esan liteke mundua eraldatu ere egin daitekeela munduaren beraren errepresentazioa aldatuz gero (Bourdieu & Wacquant, 1992: 16-22). Hala, metodologikoki banaezinak dira posizioen banaketa, batetik, eta

posizio-hartzeak, bestetik: «Les champs de positions est méthodologiquement inséparable du champ des prises de position, entendu comme le système structuré des pratiques et des expressions des agents» dio Bourdieuk (Bourdieu & Wacquant, 1992: 81). Hain zuzen ere bi objektibitate maila horiek bildu nahirik, «eremu», «habitus» eta «kapital» kontzeptuak darabiltza Bourdieuk, kultur praktiken eszenarioak definitzeko eta boterearen (botere sinbolikoaren eta ekonomikoaren) arteko banaketa-harremanen ordena-eskema ezartzeko (Vizcarra, 2002: 56-57). Arestian esan dugunez, Bourdieuren kontzeptu horiek elkarri lotuta daude, sistema bat osatzen dute, eta elkarrekin baino ezin daitezke ulertu eta erabili. Ezin dugu kontzeptu batez aritu besteak erabili gabe:

(...) les concepts n'ont d'autre définition que systémique et sont conçus pour être mis en œuvre empiriquement de façon systématique. Des notions telles qu'habitus, champ et capital peuvent être définies, mais seulement à l'intérieur du système théorique qu'elles constituent, jamais à l'état isolé.

(Bourdieu & Wacquant, 1992: 71)

Botere-forma edo kapital jakinen arabera posizioen arteko harreman historiko objektiboek osatzen dute eremua, eta botere-forma horien pisualde batera edo bestera egin, eremuaren beraren egitura aldatu egiten da. Eremua, beraz, dinamikoa da; aldatu egiten da historian zehar (Bourdieu & Wacquant, 1992: 24-25). Eremuaren dinamikaren hatsarrea egituraren beraren konfigurazioa da, eremu barruko indarren arteko distantzia (Bourdieu & Wacquant, 1992: 77). Botere-posizioen arabera jokatzeko eremu barruko eragileek: «les stratégies des agents dépendent de leur position dans le champ, c'est-à-dire dans la distribution du capital spécifique, et de la perception qu'ils ont du champ, c'est-à-dire de leur point de vue *sur* le champ en tant que vue prise à partir d'un point *dans* le champ» (Bourdieu & Wacquant, 1992: 78). Eragileen ikuspuntua da gakoa, eragileek eremuan duten posizioaren arabera baitarabiltzate estrategiak:

(...) les agents sociaux ne sont pas des «particules» mécaniquement tirées et poussées par des forces extérieures. Ce sont plutôt des porteurs de capital et, selon leur trajectoire et la position qu'ils occupent dans le champ en vertu de leur dotation en capital (volume et structure), ils ont une propension à s'orienter activement, soit vers la conservation de la distribution du capital, soit vers la subversion de cette distribution.

(Bourdieu & Wacquant, 1992: 84)

Halaber, eragileek eurek definitzen dute zein diren eremuko kideak eta zein diren eremuaren mugak. Horrenbestez, esan daiteke eremua eremu-kideek eta erronka komunek definitzen dutela:

Les participants d'un champ, par exemple les entreprises économiques, les grands couturiers ou les romanciers, travaillent constamment à se différencier de leurs rivaux les plus proches, afin de réduire la concurrence et d'établir un monopole sur un sous-secteur particulier du champ (...); ils travaillent aussi à exclure du champ une partie des participants actuels ou potentiels, notamment en élevant le droit d'entrée ou en imposant une certaine définition de l'appartenance (...).

(Bourdieu & Wackquant, 1992: 75-76)

Beste hitz batzuetan esateko, eremuak berak definitzen du eremuaren esparrua, eremuak eragindako efektuaren mugak dira eremuaren mugak. Hala, eremuaren eraginaren mende dagoen espazioa bera da eremua: «un espace dans lequel s'exerce un effet du champ» dio Bourdieuk (Bourdieu & Wackquant, 1992: 76), eta «la limite d'un champ est la limite de ses effets, ou, dans l'autre sens, un agent ou une institution fait partie d'un champ dans la mesure où il subit et y produit des effets» (Bourdieu & Wackquant, 1992: 203-204).

Eremuaren mugak ez dira finkoak, ez dira betierekoak. Borroken objektu dira mugak, ezen eremuak ez dira kutxa itxiak: banatu egiten dira, mugetan borrokak gertatzen dira, trukea gertatzen da, batzuk besteen barruan gordezten dira (Bourdieu, 2013: 17).

Aipatu berri dugunez, eremuen mugen inguruan borrokak gertatzen dira, eta, askotan, mugako borroka horiek bihurtzen dira zentral:

Dans ces luttes, il s'agit d'imposer et de faire reconnaître une définition de l'appartenance, tel ou tel critère de compétence (un seuil de capital spécifique, les dispositions requises): ainsi, pour exclure du champ des participants potentiels, on s'enforcera d'élever «le droit d'entrée». Ces barrières à l'entrée peuvent être informelles (processus de cooptation et de consécration multiples) ou institutionnalisées (le «*numerus clausus*» est délimité par des frontières juridiques).

(Mauger, 2004: 66-67)

Eremuen mugei buruzko galderak egitea eremuak autonomizatzearen arazoiei buruz galdetzea da azken finean (Bourdieu, 2013: 18). Izan ere, eremu-kideek interes edo erronka zehatzak izaten dituzte, eta erronka horiek ere-

muaren ezaugarri dira, interes eta erronkak ez baitira berak eremu guztietan. Erronkei ekiteko borrokatzen dira eremu-kideak, eta eremuaren barruan dinamikak sortzen dituzte. Mugen azterketaren egitekoa, zentzu batean, muga horien hauskortasunari edo nabarmentasunari erreparatzea da: «une des propriétés fondamentales réside précisément dans le type de frontières sensibles pertinentes, dans le degré auquel ces frontières sont stables et auquel elles ont à être défendues» (Bourdieu, 2013: 18).

Eremuaren azterketan hiru analisi-garai daude. Lehenik, eremu jakin batek eremu handiago baten barruan zer posizio duen aztertu behar da; bigarrenik, eremu jakin horren egitura deskribatu behar da (zein diren eragileak, zein den kapitalaren banaketa...); eta, hirugarrenik, eragileen dispozizioak aztertu behar dira (gizarteratzea, aintzatespena, kontsakrazioa...). Honela dio Bourdieuk berak hitzez hitz:

Premièrement, on doit analyser la position du champ par rapport au champ du pouvoir. On découvre ainsi que le champ littéraire, par exemple, est inclus dans le champ du pouvoir (1983c), où il occupe une position dominée. (Ou dans un langage moins adéquat: les artistes et les écrivains, ou les intellectuels plus généralement, sont une «fraction dominée de la classe dominante».) Deuxièmement, on doit établir la structure objective des relations entre les positions occupées par les agents ou les institutions qui sont en concurrence dans ce champ. Troisièmement, on doit analyser les habitus des agents, les différents systèmes de dispositions qu'ils ont acquis à travers l'intériorisation d'un type déterminé de conditions sociales et économiques et qui trouvent dans une trajectoire définie à l'intérieur du champ considéré une occasion plus ou moins favorable de s'actualiser.

(Bourdieu & Wackquant, 1992: 80)

Azterketa-garai horiek igarota, eremuen funtzionamenduan homologia funtzionalak eta egiturazkoak ikus daitezkeela dio Bourdieuk. Hala, eremuen arabera pentsatzeak modu konparatibistan jardutea ahalbidetzen du. Izan ere, eremu orok menderatzaileak eta menderatuak baditu ere, kontserbaziorako edo subertsiorako borrokak baditu ere, birsorkuntzarako mekanismoak baditu ere... ezaugarri bakoitzak forma espezifiko bat hartzen du eremu bakoitzean, eta, hala, ikerketaren egitekoa, kapital espezifikoaren forma zein diren aztertzea da (Bourdieu & Wackquant, 1992: 82-83). Hala ere, eremua botere-harremanen esparrua den aldetik, eremuetan borrokak gertatzen dira, erresistentziari aurre egin behar dioten menderatzaileak daude, menderatuek gururiak dituzte... Beraz, eremuek historia dutela esan

dezakegu (Mauger, 2004: 65), eta eremuen arabera pentsatuta historia ere egin daitekeela, zer eta eremuaren bilakaera deskribatuta.

Funtsean, eremua mikrokosmos espezifikoa da, unibertso partikularra, sarea, non egitura eta jarduerak harremanetan gertatzen diren. Hain zuzen ere horiek definitzen duten sarea bera. Eremuak erlatiboki autonomoak dira, funtzionamendu espezifikoa dute, baina, era berean, bestelako eremuen mende ere badaude. Eremuaren inguruko zalantzek eta eremuaren inguruko galderak akuitlatzen dute eremu jakin baten ikerketa: eragile bat egoteak eremu bat badela esan gura ote du? Edo beste eremuren baten barruan dago? Azpieremu bat ote da? Zer eragin dute autonomizazio-prozesuek eremuaren barruan? Gisa horretako galderak egiteak (alegia, eremuen arabera pentsatzeak) modu konparatiboan eta kontrastiboan pentsatzea ahalbidetzen du, bai eta eraldaketen berri ematea ere. Horrenbestez, eremuen ezaugarrirei erreparatzeak ikerketa-programa bat definitzea ahalbidetzen du: halako eragilek eta erakundek eremu bat osatzen al dute? Nola definitu azpieremu bat eremu nagusiago baten barruan? Zer-nola kokatzen da aztertzen ari garen eremua gainerako eremuekiko, eta, batez ere, boterearen eremuarekiko? Nola azaldu eremu berrien sorrera: autonomizazio-edo ezberdintze-prozesuen bidez ala menderakuntza-prozesuen bidez? Zein da aztertutako eremuaren autonomia? Nolakoa da eremuaren barruko harreman-sarearen egitura? Zein dira eremuan sartzeko baldintzak? Zein dira eremuaren kapital espezifikoak? Zer balio dute gainerako kapitalek? Zein dira eragileek darabiltzaten estrategia eta jarrerak? (Mauger, 2004: 67).

Bada, aldez edo moldez, gisa horretako galderetako batzuei erantzuteko saioa egiten da liburu honetan, eta, horretarako, euskal literatura itzulia kokatzen da eremu mugakideekiko duen tokia ikusarazteko, euskal literatura itzuliaren egitura osatzen duten eragile, kapital, dinamika... batzuk deskribatzen dira, eta egitura horren barruan literatur eta itzulpen dinamiketan parte hartzen duten eragileek itzulpenari egiten dioten aitortzari ere erreparatzen zaio.

### 3.2.2. *Habitus* (Habitus)

L'habitus peut se comprendre comme une "situation sédimentée" virtuelle, logée au plus profond du corps, qui attend d'être réactivée.

(Bourdieu & Wacquant, 1992: 28)

Gramatika unibertsal moduko bat da habitusa. Norbanakoen pertzepzioarekin, pentsamenduarekin, diskurtsoarekin, ekintzekin eta praktikekin



zerikusia duena; eta, hain zuzen ere, horiek denek (praktikek, ekintzek, diskurtsoek...) zedarritzen dute, besteak beste, eremuaren egitura.

Vizcarrak laburbiltzen duenez, jabeakuntza esplizituaren edo inplizituaren arabera barneratutako jarrera-sistema irudikatzen du Bourdieuren «habitus» kontzeptuak, eta sistema horrek eskema sortzaile bezala funtzionatzen du. Habitusa norbanakoen desira eta erronken, eta eremuaren beraren eskarien arteko doitze-sistema da. Habitusa hautemate-, balioespen- eta egintza-prozesuek osatzen dute, eta, habitusaren bidez, subjektua munduarekin engaiatuta dago; barneratutako zentzu praktikoaren arabera jokatzeko saiatzeko da, zalantza zalantza, koherentziari men eginez. Habitusa eguneratu egiten da esperientzien bitartez, batzuetan norbanakoa konturatu ere egiten ez dela, eta aldaketa hori balio, jarduera eta ikuspegi berariazkoetan baino ez da ikusten. Hautematen dena zentzu praktikoaren ondorioa da: erronka, beharrez, guraria, plana, potentzialtasuna, gaitasuna, gauzak egiteko abilezia edo instrumentuak erabiltzeko trebetasuna daude tartean; gainera, habitusa diziplinarekiko egokitze-prozedurari ere lotuta dago, eta, batzuetan, entrenamendu metodikoa eskatzen du, eremuaren egitura ezarritakoaren arabera. Habitusaren espezializazio mailaren arabera, eta gainerako eragileekiko harreman-estrategien arabera, subjektuen posizioa aldatu egin daiteke eremuaren barruan, eta horrek eremuaren beraren egitura alda dezake (Vizcarra, 2002).

Harreman historikoek norbanakoengan utzitako eskema mentalek, hautemate-eskemek eta jarduera-eskemek osatzen dute, beraz, habitusa. Kanpo-egituren barneratzea da, nolabait. Halaber, barneratutakoak kanporatzeko estrategien sortzaile ere bada: askotariko egoeren aurrean modu batera edo bestera jokarazten duena. Habituari lotzen zaizkio bai ohiturak, bai bat-bateko praktika edo erantzunak:

L'habitus est un mécanisme structurant qui opère de l'intérieur des agents, bien qu'il ne soit à proprement parler ni strictement individuel ni à soi seul complètement déterminant des conduites. L'habitus est, selon Bourdieu, le principe générateur des stratégies qui permet aux agents d'affronter des situations très diverses. Produit de l'intériorisation des structures externes, l'habitus réagit aux sollicitations du champ d'une manière grossièrement cohérente et systématique.

(Bourdieu & Wacquant, 1992: 25-26)

Bikoitza da habitusa, barneratu eta kanporatu egiten da, eta bi fase ditu: objektiboa eta subjektiboa. Bourdieuren hitzetan, «Parler d'habitus, c'est

poser que l'individuel, et même le personnel, le subjectif, est social et collectif. L'habitus est une subjectivité socialisée» (Bourdieu & Wacquant, 1992: 101). Bestela adierazteko, habitusak eragileen izaera bikoitza artikulatzen du, norbanakotasuna eta gizartetetasuna:

La notion d'habitus rend compte du fait que les agents sociaux ne sont ni des particules de matière déterminées par des causes externes, ni de petites monades guidées exclusivement par des raisons internes, et exécutant une sorte de programme d'action parfaitement rationnel. Les agents sociaux sont le produit de l'histoire, de l'histoire de tout le champ social et de l'expérience accumulée au cours d'une trajectoire déterminée dans le sous champ considéré. (...) Pour dire les choses autrement, les agents sociaux déterminent activement, par l'intermédiaire de catégories de perception et d'appréciation socialement et historiquement constituées, la situation qui les détermine. On peut même dire que les agents sociaux sont déterminés seulement dans la mesure où ils *se* déterminent; mais les catégories de perception et d'appréciation qui sont au principe de cette (auto)détermination sont elles-mêmes en grande partie déterminées par les conditions économiques et sociales de leur constitution.

(Bourdieu & Wacquant, 1992: 110-111)

Habitusa aztertzeo, ikertzaileak ez dio soilik norbanakoaren une jakin bateko habitusari erreparatu behar, ibilbideari baizik (bestela esateko, habitusaren eraikitze-prozesuari). Hasierako esperientziek (adibidez, familia-habitusak eta haurtzaroko heziketak) garrantzi handia dute habitusaren eraikuntzan; azken finean, norbanakoek babesa bilatzen dute, oro har, sortu diren eremuaren barruan. Baina, arestian aipatu legez, habitusa bestelako esperientziek ere eratzen dute, eta aldatu egiten da denboran zehar, norbanakoek gizarte-ibilbidea eta ibilbide pertsonala egiten duten heinean. Norberaren ibilbidea bakarra izanagatik, oro har, klase berekoek joera berdintsuak izaten dituztela ere kontuan hartzekoa da: «Les personnes participant à une même groupe social ont des probabilités de faire une série d'expériences communes. L'ensemble des expériences probablement communes à un groupe, c'est justement l'habitus de class de groupe» (Corcuff, 2004: 165). Horregatik esaten da habitusak, aldagai pertsonalaz gainera, aldagai soziala ere baduela; alegia, habitus kolektibo bat ere badagoela. Ez du horrek esan gura, inola ere, habitus guztiak koherenteak direnik gizarte klase baten barruan: ibilbide beste habitus daude, eta habitus indibiduala norbanakoen ibilbidean datza. Produktuen (pentsamendu, pertzepzio, adierazpide, ekintza...) askatasun baldintzatu etengabea da habitusa, hain zuzen ere historiak eta gizarteak baldintzatzen dutena (Corcuff, 2004: 71).

Funtsean, habitusa aztertzeke, garrantzitsuena da habitusaren maila biak kontuan hartzea; alegia, habitusa indibiduala eta kolektiboa dela ulertzea. Halaber, kontuan hartzekeak dira habitusa sortzen duten gizarte-baldintzak, bai eta habitusa agertzen den eremuko baldintzak ere. Horrela, norbanakoen praktikak habitusari eta eremuari (biei) lotzen zaizkie. Beste behin ere, nabarmena da bi kontzeptuen arteko elkarreragina. Bada, habitusa eremuari loturik dagoen aldetik, egokitze (edo desegokitze) zein birsortze hatsarre ere bada (Mauger, 2004: 70-72). Bourdieuren hitzetan esateko, habitusa ez da historiaz kanpoko esentzia bat edo patua definiturik duen existentzia bat:

Les ajustements qui sont sans cesse imposées par les nécessités d'adaptation à des situations nouvelles et imprévues, peuvent déterminer des transformations durables de l'habitus, mais qui demeurent dans certaines limites: entre autres raisons parce que l'habitus définit la perception de la situation qui le détermine.

(Accardo & Corcuff, 1986: 70)

Eremuaren eta habitusaren arteko artikulazioan, Bourdieuk «*illusio*» kontzeptua darabil, hain zuzen ere eremu jakin baten erronkekiko atxikimendua adierazteko. Ilusioa, hortaz, eremuak norberaren habitusaren barruan eragiten duen erronka kontzienteari edo inkontzienteari dagokio; ilusioa eremuen arabera aldatzen da, bai eta norberak eremuan duen posizioaren arabera zein posizio horretara eraman duen ibilbidearen arabera ere (Bourdieu & Wacquant, 1992: 91-93).

Lan honetan, habitusari dagokionez, itzultzaileek euren lanbideei lotutako jarrerari erreparatuko diegu, batetik, eta idazleek itzulpen-jardunean darabiltzaten ohiturei eta diskurtsoei, bestetik.

### 3.2.3. *Kapitala (Capital)*

El capital es la riqueza del campo y su apropiación y control es el objeto de la lucha.

(Vizcarra, 2002: 62)

Bourdieuren kontzeptuak laburbiltzen dituen artikuluan, Vizcarrak (2002) hauxe dio kapitalari buruz: eremu bakoitzaren sendotasuna eta ahultasuna kapital jakinetan datza; hain zuzen ere, kapitalen ekoizpenean eta zabal-kundean, eta kapitalak eremuaren barruan gordetzeko ahalmenean. Zenbait

kapital hainbat eremutan dira baliodunak (baldintza zehatzen mendean), eta ez soilik eremu bakar baten barruan. Hiru kapital mota daude: kapital ekonomikoa, kapital soziala eta kapital kulturala. Kapital kulturalaren barruan, kapital objektibizatua, subjektibizatua eta instituzionalizatua bereiz daitezke. Kapital guztiek ere, botere sozialak direla medio, dimentsio sinbolikoa hartzen dute hautematen direnean eta zilegitzat jotzen direnean. Subjektuek eremuan duten posizioa kapitalaren arabera da: kapital ekonomikoaren arabera (dirua, ondarea, inbertsioak...), kapital sozialaren arabera (harremanak, kontaktuak, ahaidetasuna...) eta kapital kulturalaren arabera (informazioa, jakintza, ikasketak...). Kapital kulturalaren barruko sailkapenean zehaztutako kapital motek ere definitzen dute, noski, subjektuaren posizioa: kapital kultural objektibizatuak (liburuak, hemerografia, artxiboak, musika, arte-objektuak...), kapital kultural subjektibizatuak (kontsumoa, apropiazioa, kapital kultural objektibizatuaren barneratze-maila...) eta kapital kultural instituzionalizatuak (tituluak, ziurtagiriak, diplomak...). Nabarmentzekoa da kapitalak ez direla zein bere bidetik eraikitzen: kapital jakin batek eragin biderkatzailea izan dezake besteetan. Bada kapital guztiek betetzen duten hatsarre bat: dimentsio sinbolikoa dute. Bestalde, eremu bakoitzaren barruan erabakitzen da zein diren eremuari dagozkion oinarriak, kapitalak balioesteko, ekoizteko, transmititzeko eta kontserbatzeko. Hala, eremu jakin batean balio jakin bat duen kapitalak ez du balio bera beste eremu batean (Vizcarra, 2002). Esan bezala, kapitalen balioa eta hierarkia eremurik eremu aldatzen da, eta, arestian azaldu dugunez, kapital jakin batzuek eremua zehatzen dute, eremu barneko borroka-gai bihurtzen dira edo eremuko partaide izateko baldintza dira. Eremuaren barnean, eragileek kapital jakinen inbertsioak egiten dituzte dagokien habitusaren arabera (Mauger, 2004: 62-64).

Azal ditzagun zehatzago Bourdieuk bereizten dituen kapitalak: kapital ekonomikoa, soziala, kulturala eta sinbolikoa.

Kapital ekonomikoa da gizarte kapitalistak ustiapen ekonomikotik ateratzen duen mozkin oro (BPI, 2004: 273). Kapital soziala, ostera, pertsona edo talde batek duen baliabide multzo erreala eta birtuala da, gizarte-harremanetatik eta ezagutzetatik datorkiona:

Le capital social est l'ensemble des ressources actuelles ou potentielles qui sont liées à la possession d'un réseau durable de réactions plus ou moins institutionnalisées d'interconnaissance et d'inter-reconnaissance; ou en d'autres termes, à l'appartenance à un groupe, comme ensemble d'agents qui ne sont pas seulement dotés de propriétés communes (susceptibles d'être perçues par l'observateur, par les autres ou par eux-mêmes) mais sont aussi unis par des liaisons

permanentes et utiles. Ces liaisons sont irréductibles aux relations objectives de proximité dans l'espace physique (géographique) ou même dans l'espace économique et social parce qu'elles sont fondées sur des échanges inséparablement matériels et symboliques dont l'instauration et la perpétuation supposent la ré-connaissance de cette proximité. Le volume du capital social que possède un agent particulier dépend donc de l'étendue du réseau des liaisons qu'il peut effectivement mobiliser et du volume du capital (économique, culturel ou symbolique) possédée en propre par chacun de ceux auxquels il est lié.

(Bourdieu, 1980: 2)

Kapital soziala ez da guztiz independentea: gainerako kapitalei lotuta dago. Harreman-sarearen tamainaren arabera eta sareak mobilizatu dezakeen kapitalaren arabera da. Kapital soziala ez dator emana: estrategiaren eta inbertsio berariazkoaren arabera da (dela nahita egindako inbertsioa, dela nahigabeko inbertsioa). Kapital soziala, bestela esateko, pertsona edo eragile batek, talde bateko kide izanagatik, talde horretan duen aintzatespena da, norberak landutakoa edo oinordetzan hartutakoa (Bourdieu, 1980).

Kapital kulturala kapital objektibizatua, subjektibizatua eta instituzionalizatua izan daitekeela esan dugu lehen. Bada, Bourdieuk kapital kulturalaren hiru formak honela izendatzen ditu: «objektibizatutakoa», «barneratutakoa» eta «instituzionalizatutakoa». Zehazki, honela azaltzen ditu:

Le capital culturel peut exister sous trois formes: à l'état incorporé, c'est-à-dire sous la forme de dispositions durables de l'organisme; à l'état objectif, sous la forme de biens culturels, tableaux, livres, dictionnaires, instruments, machines, qui sont la trace ou la réalisation de théories ou de critiques de ces théories, de problématiques, etc.; et enfin à l'état institutionnalisé, forme d'objectivation qu'il faut mettre à part parce que comme on le voit avec le titre scolaire, elle confère au capital culturel qu'elle est censée garantir des propriétés tout à fait originales.

(Bourdieu, 1979: 3)

Kapital kulturala barneratzeak eta metatzeak gaitasunak indartzeko eta bereganatzeko prozesu jakin bat eskatzen du, eta horrek denbora-inbertsioa dakar. Alegia, gaitasunak ez dira berez, bat-batean edo unean-unean barneratzen, transmititzen, trukutzen edo oinordetzan jasotzen; nolabait esateko, kapital pertsonala da kapital kulturala, gorpuztutako jakintza, pertsonaren zati integratzailea. Hala ere, norbanakoa zein eremu sozialetan bizi den, inbertsioa eta barneratzea egiteko baldintza egokiagoak edo ezegokiagoak izango ditu. Denbora da kapital kultural barneratua kapital ekonomiko bihurtzeko

bitartekaria. Kapital kultural objektibizatua bestelakoa da aurrekoaren aldean; izan ere, kapital kultural materiala (pinturak, liburuak eta abar) eta jabetza juridikoa, bai, trukatu edo transmititu daitezke, balio ekonomikoak legetxe:

Mais ce qui est transmissible, c'est la propriété juridique et non pas (ou pas nécessairement) ce qui constitue la condition de l'appropriation spécifique, c'est-à-dire la possession des instruments qui permettent de consommer un tableau ou d'utiliser une machine et qui, n'étant autre chose que du capital incorporé, sont soumis aux mêmes lois de transmission.

Ainsi, les biens culturels peuvent faire l'objet d'une appropriation matérielle, qui suppose le capital économique, et d'une appropriation symbolique, qui suppose le capital culturel.

(Bourdieu, 1979: 5)

Kapital ekonomikoaren antzera funtzionatzen duen eta transferi daitekeen kapital kulturala egonagatik, bestelako kapital kulturala ere ezinbestekoa da askotan: kapital kultural materiala baliatzeko, kapital barneratu bat ere behar da (esaterako, oinordetzan jaso daiteke makina bat; baina, makina hori erabiltzen ikasi ezean, jai du erabiltzaileak). Kapital kultural instituzionalizatuak neutralizatzen du, hein batean, aurreko bi kapitalen arteko lotura:

L'objectivation du capital culturel sous forme de titres est une des façons de neutraliser certaines des propriétés qu'il doit au fait que, étant incorporé, il a les mêmes limites biologiques que son support. Avec le titre scolaire, ce brevet de compétence culturelle qui confère à son porteur une valeur conventionnelle, constante et juridiquement garantie sous le rapport de la culture, l'alchimie sociale produit une forme de capital culturel qui a une autonomie relative par rapport à son porteur et même par rapport au capital culturel qu'il possède effectivement à un moment donné du temps (...).

(Bourdieu, 1979: 5)

Kapital sinbolikoaz denaz bezainbatean, esan dezagun kapital ekonomi-koari, sozialari eta kulturalari gizarteak zer balio ematen dien, kapital horiek kapital sinboliko bihurtzen direla. Gizartearen legitimazioarekin, prestigioarekin, ospe on edo txarrarekin, balioespenarekin lotuta dago kapital sinbolikoa: «le capital symbolique c'est l'autorité que confère à un agent (individu ou groupe) la reconnaissance par les autres de l'éminente valeur de ses propriétés, que celles-ci soient réelles ou imaginaires» (Accardo, 1997: 81). Zerbaitetan sinesteak duen garrantzia azpimarratzen du Bourdieuk gaiaren harira: «socia-

lement parlant, une chose existe dès lors qu'on croit qu'elle existe» (Accardo, 1997: 81); hala, adibidez, artista jakin baten talentuak ez du baliorik, talentu hori balioesten ez bada. Ildo horretatik, kapital sinbolikoa sinesmen bat dela ere esan daiteke (Accardo, 1997: 82). Balio sinbolikoaren edo legitimazioaren oinarrian sorrera-mitoak, erlijioa, zuzenbidea, arrazoa eta zientzia, konpetentziak, interes orokorrak edo menderakuntza-harremanen naturalizazioa egon daitezke, eta, hain zuzen ere, azken horri lotzen zaio Bourdieuren «biolentzia sinbolikoa» nozioa: menderatuek euren «menderatu-egoera» barneratzeak eremuan duen eraginaren multzoa (BPI, 2004: 33). Azkenik, aipa dezagun kapital sinbolikoaren indar zirkularra, «zenbat eta maiteago, orduan eta ederrago; zenbat eta ederrago, orduan eta maiteago» legea betetzen du-eta hein batean. Kapital sinbolikoak menderakuntza zein aldaketa eragin dezake eremu jakin baten dinamikan (Accardo, 1997: 84).

Euskal literatura itzuliaren historia egitea, hein batean, euskal literatura itzuliari dagozkion kapitalen bilakabidearen nondik norakoak deskribatzea da. Bada, bilakabide hori islatzeko saioa egingo dugu lan honetan.

### 3.3. NOLA SORTZEN DIREN (AZPI)EREMUAK EDO EREMUEN AUTONOMIZAZIOA

Arestian adierazi dugunez, eremuak ez dira finakoak, dinamikoak baizik, eta denboraren ardatzak ere garrantzi handia du eremuen azterketan. Bada, eremuen dinamikak zein eremuak sortzeko eta desagertzeko prozesuak aldaketa sozialen ispilu izaten dira, hain zuzen ere historia kontzeptualizatzeko tresnak.

Prozesuez eta denboran zehar gertatzen diren aldaketek ari garela, gogoratu dezagun Bourdieuk soziologia eta historia lotzen dituela, eta biak banatzea ezinezkoa dela dioela. Gainera, Bourdieuk proposatutako eremuen teoriaren funtzioetako bat birsorkuntzaren eta eraldatzearen, estatikoaren eta dinamikoaren edo egituraren eta historiaren arteko oposizioa ezabatzea da (Bourdieu & Wackquant, 1992: 67).

Halaber, jardun indibidualaz gain, jardun kolektiboa azaldu gura du Bourdieuk, bai eta aldaketa soziala deskribatu ere. Bourdieuren hitzetan, halako edo bestelako artista ez da berez existitzen eremu artistikoa egonagatik; hala balitz, erraz konpon zitekeen eremuen azterketaren auzia: aski litzateke ekoizlea artisau izendatzetik artista izendatzera igaro gineneko garai historikoa identifikatzea (eta eremua orduantxe sortu zela esatea). Baina gauzak ez dira

horrela gertatzen, trantsizioak progresiboak dira, denboran zehar gertatzen dira (Bourdieu & Wackquant, 1992: 80). Binomioak ezabatzeko ahaleginean, krisi- edo aldaketa-garaiak eta egonkortasun-garaiak bereiz aztertzeari uko eginda, denak biltzen dituen teoria da Bourdieurena, eremuen dinamika azaltzen duena menderakuntzaren birsorkuntzan edo eraldatzean oinarrituta (Roussel, 2004: 135). Barne- eta kanpo-arrazoiak egon daitezke aldaketarako: adibidez, eragile berriek jarrera berriak sor ditzakete eremu batean; edo, beste adibide bat emateko, eremuaren barneko gatazkek edo posizio-aldaketek eremua bera aldaraz dezakete (Roussel, 2004: 140-141). Nola sortzen da, baina, eremua? Nola sortzen da talde bat? Esate baterako, talde ordezkatu, erakundetu eta balioetsiak mobilizazioen eta forma-emate sinbolikoen fruitu dira Geayren ustez (2004), eta lotura dute, ez bairik gabe, gizarte- eta ekonomia-baldintzekin; alabaina, prozesu bakoitzak eragin zehatzak ditu talde zehatzetan eta gizartean. Talde profesionalen sorreraz ari garel, adibidez, estatutuak gehitzeak edo inposatzeak dakartzan ondorioak aztertu behar dira, edo hierarkiaren antolaketa eta unibertso profesionalaren egitura (Geay, 2004: 110). Estetika berriak sortzeak ere lotura zuzena du eremuaren egitura aldatzearekin, jarduera artistiko jakin batzuetan inplikatzan diren pertsonen engaiamendurekin edo, bestela esanda, posizio berriak sortzearekin. Eta, hain zuzen ere, horrela autonomizatzen dira azpierrekuak, edo horrela hedatzen dira lehendik zeuden eremuak. Gauzei horrela begiratu gero, eremu artistikoaren aldaketa artista berrien sorrerarekin lot daiteke, edo posizio berrietan sortzen diren interes berrieekin (Despres, 2015: 51). Eremuan integratu ahala, posizio horietako interesak ere aldatuz doaz (Despres, 2015: 67).

Lehenago ere esana dugunez, eremuen mugei buruzko galderak egitea eremuak autonomizatzearen arrazoiei buruz galdetzea da: Zerk bereizarazten du, esate baterako, unibertsitate-diziplina jakin bat beste batetik? Zerk eragiten du diziplina jakin bateko talde bat talde nagusi batetik bereiztea? Nola gertatzen da bereizketa hori? Zein da helburua? Zer kapital mota eskuratzeko egiten dute borroka eremu horietako kideek? (Bourdieu, 2013: 18). Edo: zergatik ez da bereizketarik gertatzen? Zergatik birsortzen da eremua dagoen-dagoenean?

Eremuen mugetan borroka gertatzen dira, bai eta eremuaren barruan ere: kapital jakin baten monopolioa izateko borroka gertatzen da: «conservatisme» esaten dio Bourdieuk, eta kontserbatismo modu ezberdinak daude eremuz eremu eta garaiz garai (2013: 21). Menderakuntza mantendu nahian gertatzen dira borroka: batetik, ez-pribilegiatuekiko borroka; eta, bestetik, pribilegiatuen artekoak. Borroka horietan, adibidez, ideologia-aldaketen bide-tik gertatzen dira estrategia-aldaketak (Bourdieu, 2013: 26). Pentsamoldeak



eta ideologiak ulertzeko, haien sorrera ulertu behar da, eta hortik abiatu azalpen-irizpideak (Bourdieu, 2013: 32). Gauzak horrela, borrokaren erronkak, borrokaren helburuak eta borrokarako tresna legitimoak eremu bakoitzaren ezaugarri bereziak dira, eta horiek aldatu ahala eremua bera aldatzen da, eta eremu barnean kapitalaren banaketa aldatzen da (Bourdieu, 2013: 37).

*The Field of Cultural Production: Essays on Art and Literature* (1984) liburuko lehenbiziko kapituluan azaltzen du Bourdieuk eremuaren autonomizazio-prozesua, eta eremuaren independentziarako bidea hiru faktorekin lotzen du: a) gizarte-aniztasunarekin batera kontsumitzaile potentzialak handitu izanarekin; b) produktu sinbolikoen sortzaile eta merkatarien kopurua handituta independentzia ekonomikoa lortu ahal izanarekin; eta c) kultur legitimazioa lortzeko lehian, kontsakrazio-agentziak (akademiak, azokak, difusio-erakundeak...) dibertsifikatu izanarekin.

Beraz, ekoizpen intelektualaren eta artistikoaren autonomizazioa, eta artista eta intelektuaren profesionalizazioa korrelazioan daude; halaber, korrelazio hori bat dator produktuak kanpoko eraginetatik (zentsura morala, botere politikoa-ren kontrol akademikoa...) askatu gura izanarekin. Autonomizazio-prozesu horretan, artisten arteko zein artisten eta ez-artisten arteko harremanak aldatu egiten dira, eta kultur ekoizpenaren garapena dator, publikoaren aniztasunak eragindako berezitasunekin bat eginda, ezen produktu sinbolikoek bi aurpegi dituzte: bata da kultur balioa, eta bestea balio komertziala. Horrez gain, eremuaren autonomizazio-prozesuan eremuari dagozkion teoriak sortzen dira. Eremua autonomo izateak eta eremuaren barruan arauak sortzeak, baina, ez du eremua guztiz autonomo egiten: besteren legeen mende egotetik eremuko produktu sinbolikoen merkatuaren legeen mende egotera igarotzen da eremua: hau da, eremu berri bateko legeen mende egotera. Eremuko produktuak balioesteko indarrak ematen du, hain zuzen ere, autonomizazioaren neurria, eta eremuaren sendotasunak eta isolamenduak ekartzen diote, hortaz, gainerako eremuen eraginekiko askatasuna. Artisten eremuari dagokion beste ezaugarri garrantzitsu bat eremu-kideek eremuaren barruan duten irudiaren garrantzia da; hots, kultur ekoizpenak kultur eremuaren legitimazioa eskatzen du. Legitimazioa bat dator produktuaren eta ekoizlearen ordezkazintasunarekin. Horrez gainera, eremuaren espezifikotasunaren adierazpena hizkuntzan bertan ere gertatzen da, eremuaren barruan dialektika espezifikoa sortzen da. Hala, eremu bakoitzak adierazpen-eskema zehatzak dituela esan dezakegu. Kultur eremuan sortzen diren produktuek, bestalde, ezaugarri jakinak dituzte. Hartzailearen aldetik jarrera estetiko jakin bat eskatzen dute, eta esan daiteke kode jakin bat (praktikoa eta teorikoa) menderatzea eskatzen dutela, ikasketa bat eskatzen dutela. Produk-

tuez eta ekoizpen-sistemaz gain, ekoizpen kontsakrazioa lortzeko lehia gertatzen da, eta, era berean, kontsakrazioa lortzeko sistema bat diseinatzen da. Eremua bera berritzen duten erakundeak daude. Izan ere, askotariko erakundeak daude eremuetan: batzuek kapitala gordetzen dute; gisa horretakoak dira, adibidez, museoak edo hezkuntza-sistema. Hezkuntza-sistemak, gainera, birsorkuntza-funtzioa ere badu, bertan erabakitzen baita zer gorde, zer transmititu eta zer ikasi. Beste erakunde batzuek, ekoizpenaz gain, eragileen birsorkuntza bermatzen dute, jarduera, adierazpen, sormen, pertzepzio edo jarrera zehatzei lotuta. Eragileen arteko harremanak eta eragileen eta euren obren arteko harremanak ere erakundeen bitartekaritzaren araberakoak izaten dira (Bourdieu, 1984: 123). Hierarkia bat dago eragileen artean, eragile jakin batzuek autoritatea izaten dute, botere sinbolikoa izaten dute. Hala, badira legitimazioa markatzen duten eragile eta erakundeak (akademiak, museoak, sozietateak, hezkuntza-sistema), eta onespen sinbolikoa haien mende egoten da, nolabait. Kooptazioa baliatzen da eremuan autoritateak eta pertsona jakitunak izendatzeko: sariak, izendapenak, akademiako kide bihurtzea, unibertsitate zein batzorde zientifikoetako partaide bihurtzea, antologietan, ikerketa-aldizkarietan edo historia-liburuetan agertzea... Horiek dira, besteak beste, kooptazio-moduak.

Betiere Bourdieuri jarraikiz, batzuetan erakunde bakarra izaten da kontsakrazio-erakundea; baina beti ez du zertan hala izan, eta badira kontsakrazio-funtzioa betetzen duten bestelako zirkuluak ere: zirkulu literario jakinak, kritikariak, saloiak, autore jakin baten inguruan sortzen diren zirkuluak, argitaletxe jakin baten inguruan sortzen diren taldeak, aldizkariak, etab. Kontsakrazio-funtzioa hainbat erakunderen artean egiten da sarri, ez du erakunde bakarrak egiten: hezkuntza-sistema, akademiak, erakunde ofizialak edo erdi ofizialak, zabalkunderako erakundeak... Gainera, batzuen kasuan, xedea kanonaren aurka egitea izaten da. Oro har, abangoardiako kritikariak joera berriak izaten dituzte jomugan; museoek eta erakustokiek, ostera, joera berriak zein tradizionalak, biak uztartzen dituzte; akademiak, ostera, joera klasikoaren alde egiten du gehienbat. Kanonizazio-denbora ezberdina da aurreko hiruretan, eta, esate baterako, hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat izaten da bila-kaera oso astiro gertatzen dela: denbora-tartea luzea izaten da ekoizpenaren eta kontsakrazio eskolastikoaren artean. Hala, oposizio bat gertatzen da kultura eskolastikoaren eta eremuko kultura garaikidearen artean, edo, beste hitz batzuetan esateko, eskolaren eta arte biziaren artean. Edonola ere, artistek autonomia lortu ahala, ekoizleek, sortzaileek, intelektualtzat jotzen dituzte euren buruak, egiletza eta autoritatea onartzen dizkiete euren lanei, inoren kanonizazioaren mende egon gabe. Hala ere, ekoizleak ezin dira guztiz aldentu unibertsitate-erakundeen judiziotik, azken finean, orain arte horiek izan bai-

tute azken hitza. Kontsakrazio-erakundeei dagokienez, halaber, aztertzekoa da estatuak kontrolatzen dituenetz; azken finean, estatuaren boterea nabarmena da dirulaguntzetan, izendapenetan, promozioan, ohorezko postuetan, sarietan eta abarrean (Bourdieu, 1984: 112-128).

Literaturaren eremuan arreta jarriz gero, autonomiak obretan ere badu eragina, forman, estiloan, eremuaren historiarako erreferentziak markatzean, obraren beraren helburuan, sortzen dituen eskandaluetan:

Le processus d'autonomisation de la littérature s'inscrit non seulement dans les combats pour la liberté d'expression et pour la liberté de création, mais aussi dans les œuvres, à travers l'attention croissante portée à la forme et au style, ainsi qu'à travers l'autotélisme, c'est-à-dire l'inscription de la référence à l'histoire du champ en leur sein. Surtout, l'œuvre devient sa propre fin. Cette conception même appelle une éthique de l'esthétique, qui a pu faire scandale en son temps.

(Sapiro, 2010: 55)

Bi motatako eskandaluak bereizi behar dira: autoreak eta editoreak beren-beregi bilatzen dituztenak eta berrikuntza formala dakartenak. Biak bereizten dituen ezaugarria autorearen etika da. Edonola ere, kontuan hartu behar da hauste edo transgresio hutsak ez duela artelan bat egiten (Sapiro, 2010: 55).

Euskal literatura itzuliari dagokionez, badira zantzuak esan ahal izateko autonomizazio-prozesu bat bizi izaten ari dela: kontsumitzaileen kopurua handitu da, kontsakrazio-agentziak dibertsifikatu dira, eragileen arteko harremanak aldatuz doaz, euskal literatura itzuliari berari dagozkion teoria eta material propioak gero eta gehiago eta berezituagoak dira, eta legitimazioa ere handituz doala nabari da. Lan honen helburuetako bat da autonomizazio-prozesu horren ezaugarrietako batzuk aletzea eta ikusaraztea.

### 3.4. EREMUEN ARTEKO ELKARRERAGINAK: AITORTZAK ETA ISLAK

Espazio sozialaren barruan eta, era berean, kultur ekoizpenaren barruan, ekoizpen handiko eta ekoizpen urriko eremuak bereizten ditu Bourdieuk kultur eremuaren posizioa, eremuko indarrak eta eremuko eragileen joerak aztertzen jarrita.

Bourdieu proposatzen duen oinarrizko eskeman (1991: 11) ekoizpen urriko eremuetako indarrak kultur eremuetako eta botere-eremuetako inda-

rren eraginen mende daude. Nolanahi ere den, eremuen arteko mugak marra ez-jarraituen bidez irudikatu beharrekoak dira, ez dagozkielako inolaz ere muga juridikoei, ez bada muga estatistikoei (1991: 11). Horrexegatik ariko gara uneoro posizioez eta joerez, eta ez sailkapenez.

Kultur ekoizpeneko eremuek posizio menderatua izan ohi dute botere-eremuaren barruan, eta botere-eremuetako beharrek eta eraginek zeharkatu eta moldatu egiten dituzte ekoizpen urriko eremuen egiturak (Bourdieu, 1991: 6). Bi joera nagusi egon ohi dira kultur ekoizpenaren eremuan: joera heteronomoa eta joera autonomoa.

Joera heteronomoa eremuaz kanpoko botere politikoaren eta ekonomiakoaren beharriaz men egiteko joera da, eta hortik dator arte industrialari lotutako ekoizpen handiko eremuen dinamika. Bestalde, ekoizpen-eremu urrirako joera autonomoa legoke. Joera autonomoaren ondorio izaten da ekoizpen urriko eremu jakinaren balio sinboliko espezifikoak indar gehiago hartzea balio ekonomikoaren eta politikoaren aldean, eta eremu barruko eragileek ekoizpen-, kontsakrazio-, merkatu- eta zabalkunde-baldintza zehatzak ezartzeko autonomia izatea. Eremu bakoitzaren barruan indar kontserbatzaileak eta berritzaileak ere egon ohi dira. Legitimitatearen monopolioa izaten da eremuko borroka nagusia. Halaber, eremuaren definizioa izaten da auzi nagusietako bat (Bourdieu, 1992: 13), eta generoak zein diziplinak mugatzea izaten da askotan xedea (*idem*: 14).

Ekoizpen handiko eremua ekoizpenaren eta zabalkundearen mende dago, irabaziek eta inbertsioek baldintzatzen dute, kontsumoa handitzea da xedea, eta, hein handi batean, hartzaileek zehazten dute produktua eta publikoa orokortu egiten da. Produktuen izaeraz gain (probatutako teknikak, plagioak eta parodiak dira nagusi erdi-mailako artean), ideologia politikoei eta jarrera estetikoek bereizten dituzte ekoizpen urriko eremuko eta ekoizpen handiko eremuko ekoizleak eta hartzaileak. Ideologia profesionalak ere badu garrantzia bien arteko oposizioan: sormen-askatasuna eta merkatuaren legearen arteko talka gertatzen da ekoizpen urriko eta ekoizpen handiko eremuen artean; lehenengoan, publiko jakina sortzen duten obrak dira xede; bigarrenean, ostera, publikoak berak sortzen ditu obrak. Baina, aldeak alde, bi eremuek elkarrekin dihardute, biak existitzen dira aldi berean, eta eremu biak lotuta ere badaude: esaterako, Bourdieuren esanetan, erdi-mailako arteak edo ekoizpen handiko arteak, eskuarki, goi-mailako artetik hartzen ditu teknika berriak (Bourdieu, 1984: 128-132).

Berezko merkatudun eta hezkuntza-sistemak legitimatutako ekoizpen urriko eremuaren aldean, kanpoko eskarien arabera jokatzen duen merkatua

da ekoizpen handiko eremua, eta, oro har, maila txikiagokotzat jotzen da. Horrek eragina du ekoizlearen xedean eta ekoizleak edo artistak bere buruaz duen irudian. Masa handientzat ekoizten duten ekoizleek euren ibilbideari eta lanari buruzko desengainua agertzen dute zenbaitetan. Oro har, esan daiteke artisau intelektuala langile bihurtzea dakarrela profesionalizatzeak eta ekoizpen-unitate handiak sortzeak (irradi, telebista, kazetaritza, zinema zein ikerketarako, esaterako). Bada, horrexek artelanaren beraren desmitifikazioa ere badakar, nolabait esateko. Ekoizlearen eta haren obraren arteko harremana aldatu egiten da, bai eta norberaren funtzio, posizio eta ideologia politiko eta estetikoaren pertzepzioa ere (Bourdieu, 1984: 133-134).

Kultur eremuko eragileen arteko harremanak eremuan duten posizioaren arabekoak dira; hots, eremuaren beraren egituraren edo hierarkiaren arabekoak. Posizio bakoitzari harreman jakinak dagozkio, anbiziokoak edo etsipenekoak. Esate baterako, halako argitaratzaileak halako idazleaz duen irudia edo idazle batek argialetxe jakin batean publikatzeari ematen dion garrantzia (edo garrantzirik eza) funtsezkoa da sortzailearen eta argitaratzailearen arteko harremanean eta ekoizpenari emandako balioan. Hala, hautuek, bokazioek, argitaratzailearen markek, hitzaurregileek... balio eta posizio jakin bat esleitzen diote lan jakin bati (Bourdieu, 1984: 134-139).

Kode espezifikokoak ere bereizten ditu ekoizpen handiko eremua eta ekoizpen urriko eremua: lehenbizikoa gutxi gorabehera independentea da hezkuntza-sistemarekiko; bigarrena, ordea, oso lotuta dago hezkuntza-sistemarekin, eta, oro har, hantxe ikasten dira arestian aipatutako kode estetikoak (Bourdieu, 1984: 122).

Ekoizpen urriko eremuak aztertzeke metodologiari dagokionez, posizioen interpretazio bikoitzetik abiatu behar da. Batetik, kultur eremuari dagozkion posizio-hartzeen unibertsoa hartu behar da kontuan, eta, bestetik, eremu aliatuen edo etsaien posizioekiko harremanen multzoa. Munta berezia du, gainera, eremu mugakideekiko posizioak aztertzeak, eremuaren beraren existentziari buruzko hainbat auzi interpretatzeko balio bailezake (Bourdieu, 1984: 141). Ekoizpen urriko eremuko eragileen posizioen arabera esleitzen diren funtzioak ere bikoitzak dira: kanpo-funtzioak edo barne-funtzioak izan daitezke; hots, eremuaren barruan betetzen direnak edo eremutik kanpo betetzen direnak (Bourdieu, 1984: 145).

Kanpo-eragina eta azken horrek barne-egituran duen ondorioa kontuan hartuta, ekoizpen urriko eremuaren azterketa hiru analisi-mailaren arabera egin behar da lehenago aurreratu dugunez:

La ciencia de un hecho intelectual o artístico encierra tres momentos necesarios y necesariamente ligados que es importante distinguir con claridad, aunque se inscriben en una relación de estricta implicación: primero, un análisis de la posición del campo literario o del campo artístico en el campo del poder; segundo, un análisis de la estructura de las relaciones objetivas entre las posiciones que ocupan en el campo de producción cultural de los individuos o de los grupos colocados en situación de competencia por la legitimidad intelectual o artística; tercero, un análisis de los habitus, sistemas de disposiciones que son el producto de la interiorización de un tipo determinado de condición económica y social y a las que una posición y una trayectoria determinadas dentro de un campo de producción cultural que ocupa una posición determinada en la estructura de las clases dominantes les proporcionan una ocasión más o menos favorables de actualizarse.

(Bourdieu, 1990: 1)

Lehenik, eremu artistikoa kokatu behar da botere-eremuarekiko; bigarrenik, eremu artistikoaren egitura deskribatu behar da, posizioak eta harremanak zein diren zehaztuta; eta, hirugarrenik, eremuko eragileen habitusa aztertu behar da (alegia, ibilbideek eta posizioek eragindako jarrerak, pentsamoldeak eta jarduteko moduak deskribatu behar dira).

Bourdieu dioenez, «El campo literario y artístico está englobado en el campo del poder, al mismo tiempo que dispone de una autonomía relativa con respecto a él (...)» (1990: 15), baina autonomizazio mailaren arabera, zenbait egitura har ditzake:

(...) mientras más autónomo es el campo literario y artístico, más suspendida se halla en él la eficacia del principio de jerarquización dominante, es decir, el económico y político; pero, por más liberado que esté, sigue estando atravesado por las leyes del campo englobante, las del provecho económico y político. Mientras más grande es la autonomía del campo, más favorable a los productores más autónomos es la correlación de fuerzas simbólicas y más tiende a marcarse el corte entre el campo de producción restringida, en el que los productores sólo tienen por clientes (o mercado) a los otros productores, y el campo de gran producción, que se ve simbólicamente excluido y desacreditado (esta definición simbólicamente dominante es la que adoptan inconscientemente los historiadores del arte y de la literatura cuando excluyen de su objeto de estudio a los escritores y los artistas que producían para el mercado y que a menudo han caído en el olvido).

(Bourdieu, 1990: 16)

Alegia, eremu jakin bat botere-eremuarekiko zenbat eta autonomoagoa izan, orduan eta indar handiagoa izango du eremu jakin horrek bere logika

propioak ezartzeko edo bere ekoizpen propioak eta bere historia propioa inposatzeko (Bourdieu, 1990: 2). Izan ere, «eremu» kontzeptuaren funtzioetako bat eremuaren beraren historiaren berri ematea da: «una de las funciones de la noción de campo relativamente autónomo y dotado de una historia propia es rendir cuenta de ella» (Bourdieu, 1990: 7).

Artearen eremuko azterketa baterako metodologiari gagozkiolarik, produktuz gain, produktuaren balioa ere bada ikerketa-gai, bai eta produktuen balioaren sortzaileak eta produktuaren ekoizpen-espazioak eta baldintzak ere:

(...) la sociología del arte y de la literatura tiene como objeto no sólo la producción material de la obra, sino también la producción del valor de la obra, o, lo que es lo mismo, de la creencia en el valor de la obra; por consiguiente, debe considerarse como contribuyentes a la producción no sólo a los productores directos de la obra en su materialidad (artista, escritor, etc.), sino también a los productores del sentido y del valor de la obra –críticos, editores, directores de galerías, miembros de las instancias de consagración, academias, salones, jurados, etc.– y a todo el conjunto de los agentes que concurren a la producción de consumidores aptos para conocer y reconocer la obra de arte como tal, es decir, como valor, empezando por los profesores (y también las familias, etc.). Ella debe, pues, tomar en cuenta no sólo –como hace habitualmente la historia social del arte– las condiciones sociales de producción de los artistas, de los críticos de arte, de los marchands, de los mecenas, etc., tal como pueden ser aprehendidas a través de los indicios como el origen social, los estudios cursados o los diplomas obtenidos, sino también las condiciones sociales de producción de un conjunto de objetos socialmente constituidos como obras de arte, es decir, las condiciones de producción del campo de los agentes sociales (museos, galerías, academias, etc.) que contribuyen a definir y a producir el valor de las obras de arte.

(Bourdieu, 1990: 10-11)

Laburbilduz, artelana dagokion eremuaren manifestazio gisa ulertzea da eremu bidezko ikerketaren egitekoa, eta manifestazio horretan bertan daude barneratuta eremuaren indarrak, eremuaren egiturak xedatutako ezaugarriak eta eremuaren funtzionamenduaren islak (Bourdieu, 1990: 11).

Obraren edo produktuaren ezaugarri, balio eta ekoizpen-baldintzak ez eze, ekoizlearenak ere kontuan hartzekoak dira; gainera, ekoizle jakin batek egin duena ez ezik, ekoizle izan dena ekoizle izatera nola iritsi den ere galdetu behar dio ikertzaileak bere buruari (Bourdieu, 1990: 14). Gisa horretan, «Comprender las prácticas de los escritores y de los artistas, empezando por sus producciones, es comprender que son la resultante del encuentro de dos historias: la historia de la

posición, del puesto que ocupan, y la historia de sus disposiciones» (Bourdieu, 1990: 23). Artearen eremuan eta literaturaren eremuan ekoizleen posizioak, oro har, ez dira instituzionalizazio maila handikoak; kalteberak dira, sinbolismoa etengabe jartzen delako zalantzan; eta, sarri, posizioa etengabe birdefinitzen da (Bourdieu, 1990: 23-24). Beste eremu batzuetan ez bezala, “bokazio” deritzon jarrera horrek balio berezia du dagozkigun ekoizpen urriko eremuotan: «el `sentido de la colocación´ más o menos adecuado que cada agente aplica, se presenta como una especie de `lugar natural´ que solicita y llama (vocación) a los que se sienten hechos para ella, o, por el contrario, como un destino imposible, inaccesible o, por el contrario, inaceptable, o aceptable sólo como refugio provisional o como posición secundaria y accesoria» (Bourdieu, 1990: 24-25).

Beraz, ekoizpen urriko eremuetako eragileen habitusa aztertzeko metodo ona da, azken paragrafootan aletutako ideiak kontuan hartzen dituen, hurrengo aipu honetan ondo laburbiltzen den gisan:

Se sigue que, en buen método, sólo se podría dar la explicación completa de la relación que se establece en un momento dado entre el espacio de las posiciones y el espacio de las disposiciones a condición que se tome en cuenta, a la vez, lo que eran, en ese momento, y también en los diferentes momentos críticos de viraje de cada una de las carreras, el espacio de las posibilidades ofrecidas –y en particular la jerarquía económica y simbólica de los géneros, escuelas, estilos, maneras, asuntos, etc.–, el valor social atribuido a cada una de ellas, y también la significación y el valor que las diferentes posiciones recibían para los diferentes agentes o clases de agentes en función de las categorías de percepción y de apreciación socialmente constituidas que ellos les aplicaban.

(Bourdieu, 1990: 25)

Aintzat hartzekoa da, gainera, posizio-aniztasuna ere ageri dela eremuko kideen artean:

Les analyses consacrées aux trajectoires des écrivains indiquent qu’il ne suffit pas de considérer la position qu’ils occupent dans le champ de la production, car la multipositionnalité est un cas très fréquent: bien des auteurs relèvent de plusieurs inscriptions, géographiques et sociales, et sont donc situés successivement ou simultanément dans plusieurs jeux sociaux, relativement indépendants.

(Boschetti, 2010: 110)

Alegia: literaturaren eremuko eragileek ekoizpen-eremuan posizio jakin bat izanagatik, beste hainbat posizio dituzte hainbat esparru sozialetan, posi-



zioaniztunak izan daitezke; sarri hizkuntzari lotuta ere egon daitezke. Izan ere, literatur eremu jakin batean lanak ez dira hizkuntza bakar batean sortzen. Gisa horretan: «The existence of a literary field in which foreign literary works can circulate in translation is a key element of the 'translation' (in the mathematical sense) of these works» (Gouanvic, 2005: 154). Zenbaitetan, gainera, literaturaren eremuko zenbait eragilek itzulitako literatura baino ez dute argitaratzen. Badira bestelako posizio-aniztasunak literaturaren eremuetan, hala nola idazle-itzultzaileak.

Literatur itzulpena literaturaren eremuaren arabera kokatzeko ahaleginetan, genero bereizitzat har ote daitekeen galdetu dezakegu. Gouanvicek 2010eko artikulua batean dionez, «It is the distribution of texts according to specific traits that contributes to define fields. In literature, fields are defined as: realistic fiction, science fiction, detective novel, youth fiction, etc.» (122). Bada, generoak «azpieren» gisa definituz gero, esan ote dezakegu literatura itzuliaren eremua literaturaren eremuaren azpieren bat dela? Edo eremu autonomoa eta apartekoa al da literatura itzuliaren esparrua? Era horretako galderei erantzuteko saiakera egiten dute itzulpen-ikasketetan itzulpenaren soziologiaren bidetik egindako hainbat ikerketak, eta guk ere hein batean gisa horretako galderei erantzun nahi diegu lan honen bidez.

Eremuen bidezko azterketak literatur lanen barne- eta kanpo-analisiaren arteko oposizio tradizionala gainditzea dakar (Sapiro, 2010: 46). Literatur lanez ari garela, literaturaren eremuko idazleen aukera estetikoa eremuaren barruan duten posizioaren arabera izan ohi da, idazleek lortu duten balio sinbolikoaren arabera, idazle gisa hartu duten aitoren arabera (Sapiro, 2010: 46).

Nola azal daitezke literatur ekoizpenaren alderdi espezifikoaren (kanonak, generoak, formak, estiloak) eraldatzeak eta bariazioak sasoi ezberdinen, lekuen edo autoreen ibilbidearen sasoiaren arabera? Galdera horri erantzuten saiatzen da Boschetti «L'explication du changement» artikuluan (2010). Bourdieuk gizarte-eremuak deskribatzeko eskaintzen dituen ereduak hainbat faktore hartzen ditu kontuan; zein bere aldetik adieraztea komeni da, eragin ditzaketen ondorio espezifikoak azpimarratu ahal izateko, baina aldaketa-prozesu osoa ulertzeko faktoreen konbinazio eta artikulazio guztiak berreraikitzea komeni da (Boschetti, 2010: 95).

Boschettiren ideiak ekarrita, lau multzotan sailka daitezke literatur ekoizpenari eragiten dioten kanpo-baldintzak: erregimen politikoa, merkatua, prentsa eta lanaren banaketaren bilakaeratik jaiotako gizarte-mikrokosmosak, batez ere

jarduera intelektualen eremuak. Eragin politikoak direla eta, eragin batzuk zuzen-zuzenak izan daitezke, baina beste batzuk zeharkakoak. Ekoizpen-baldintzetan ondorioak izateaz gain, idazleen hautu formal eta tematikoetan ere izan ditzakete ondorioak. Hiru adibide ematen ditu Boschettik, poesiarako eta teatro-rako joera gizarte-esparru jakin batzuetan, herrialde sobietarretako kultur ekoizpenaren funtzionamendua eta migrazioak. Politikaren eragin horiek guztiek funtsezko papera izan dute kultur tradizioak aldatzeko eta berritzeko prozesuetan. Merkatuaren eraginari dagokionez, ekoizleak publikotik eta argitaletxeetatik bereiztea eta gizarte-talde jakinek hezkuntzara sarbidea izatea; esaterako, literaturaren eremuaren autonomizazioan eta eremuaren berregituraketan funtsezkoak izan dira, eta hargatik bereizten dira ekoizpen komertziala eta abangoardiakoa, adibidez. Boschettik prentsaren eragina ere nabarmentzen du; izan ere, prentsa lanbide hartu dute hainbat eta hainbat idazlek, eta baliteke horrek euren idazteko moduan eta idazketa hautemateko moduan ondorioak eragin izana; bestalde, prentsako kritika funtsezko pieza da, adibidez, idazleak kontsaktatzeko. Azkenik, literaturaren eremuaren inguruko ekoizpen intelektualeko edo artistikoko eremuen eragina aipatzen du Boschettik: bada, eremuen arteko harremanak ere literaturaren eremuko zati dira, eta eragiten diote egiturari eta eremuaren erre-presentazioari (Boschetti, 2010: 99-109).

Autonomizazio-prozesua, eremuen arteko egitura-aldaketak, eragileen posizio-aniztasuna, eragileen jarduteko espazioak eta dinamikak... izango ditugu guk hizpide euskal literatura itzuliaren bilakabideaz aritzeko, eta, hain zuzen ere eremuaren erre-presentazioaren gaiari helduta, literatur historiografietan itzulpena nola baliatu izan den eta euskarazko obra literarioetan itzulzailea fikzio pertsonaiatzat duten lanetako irudikatzea nolakoa izan den hartuko dugu hizpide. Izan ere, mugakide diren eta elkarri eragioten dioten eremuak diren aldetik, eremu bateko eragileek ondoko eremuko eragileak eta dinamikak islatzen edo antzeratzen baitituzte.

Historia, literatura eta itzulpena aztergai duten askotariko lanak arakatuta Joaquín Rubio Tobar katedradun espainiarrak egindako gogoeten arabera, itzulpenak ospe txarra izan du oro har, eta bigarren mailako jardueratzat jo izan dute hainbat sortzailek eta ikertzailek literaturaren historiaren alorrean: hainbat testu aztertu gabe geratu dira oraintsura arte itzulpenak zirelako, egokitzapen baldarrak zirelakoan (Rubio Tobar, 2013: 61). Edonola ere, literatura nazionalen sorkuntzan eta garapenean funtsezko egitekoa izan du itzulpenak Rubio Tobarren iritziz, eta literaturen berrikuntza zein hainbat generoren sorkuntza eta garapena atzerriko literaturetako testuak ekartzeko prozeduren bidez gertatu da hainbat kulturatan (2013: 251).

Garairik garai itzulpenak egon diren arren eta funtzio jakina bete duten arren, garai bakoitzean eta hizkuntza-komunitate bakoitzean modu batean balioetsi izan dira itzulpenak, eta gizarte bakoitzak molde batera edo bestera hartu ditu aintzat (Rubio Tobar, 2013: 298). Horri erreparatzeko, hainbat iturri balia daitezke; besteak beste, itzultzaileen gutuneria, kritikak, hizkuntzak irakasteko metodoak, eta itzulpenari buruzko tratatuak; izan ere, «Elles peuvent éclairer la conceptualisation historique, la lisibilité, la diffusion des textes, les contraintes institutionnelles, voire la censure, ainsi que la part individuelle ou “biographique” d’une pensée en mouvement» dio D’Hulstek (1995: 17). Literaturaren historiografiak ere iturri aberatsak dira. Bada, euskal literaturari buruzko historiografetan itzulpena ageri, agertzen da, eta errepresentazioa (hots, itzulpenari eskaintzen zaion tartea eta diskurtsoa) lantzen den literatur aroaren eta historiografia egiten den ikuspegi metodologikoaren arabera da. Halaber, nork bere ikuspegitik, nork bere habitusari eutsita, historiografoek itzulpenaren askotariko funtzioak agerrarazi dituzte.

Literaturaren eremuan itzulpenari buruzko irudikatzeak egiteko beste esparru bat fikzioa da, eta «bira fikzionala» deritzon ikerketa-ildoak ere ireki da itzulpen-ikasketetan. Itzultzailearen fikzionalizazioaren azterketa lotuta dago literaturaren eta gizartearen arteko loturak bilatzeko joerarekin, eta literatur ikasketetan iterologiak aztertzen duen «mugimendua» ikertzeko joerarekin (*idem*). Halaber, itzulpen-ikasketetan hainbat ikertzailek hartu duten jarrerak lagundu egin du dagokigun ikerketa-esparrua garatzen (Kaindl, 2014: 3): itzulpena kultur eta historia-fenomeno gisa aztertzen delarik, besteak beste, itzulpenari buruzko diskurtso aurre-zientifikoak erreskatatu dituzte askok. Bada, fikziozko errepresentazioak diskurtso aurre-zientifiko horren luzapenak lirateke (*idem*). Era berean, aspaldion arreta handiagoa jartzen zaie gertakarien berezitasunari, gertakarien alderdi esperientzialari, konkretuari, emozionalari, inkontzienteari, psikosomatikoari; alegia, gertakarien eta esperientzien zentzu politikoari eta etikoari (*idem*). Venutiren itzultzailea ikusgai egiteko aldarria eta Pymek itzulpenaren historia humanizatzeko defentsa (1998), hain zuzen ere, arreta horrekin lot daitezke (Pegenaute, 2012). Ildo horretan, itzultzaile eta interpreteek fikzioan duten presentziak euren lana ikusgai bihurtzeko balio izan du, Ben-Ari (2010) irakasleak dioen moduan. Funtsean, Ben-Arik bira fikzionala lotzen du mundu globalizatuan itzultzaileek duten funtsezko egitekoarekin, itzulpen-ikasketetan itzultzaileari jarritako arretarekin eta itzultzaileek historian izandako garrantziarekin, itzultzaileek testuan egindako esku-hartzeak eta interferentziak azalarazi behararekin zein sorkuntza eta itzulpena parekatu eta autoretzaren kontzeptua birdefinitzeko behararekin. Horrez gain, Maierek (2007) dioenez, itzultzailearen jarduera esku-hartzai-

learen efektuetan sakontzeko iturri baliagarriak dira fikziozko lanetako erre-presentazioak (filmak eta literatura), material autobiografikoa (memoriak edo langintzari buruzko testuak), eta, azkenik, dokumentu ez-fikziozkoak (prentsa-dosierak, ikerketa biografikoak...); eta Pegenautek (2012) proposatzen du material horiek gizarteak itzultzaileez sortzen duen irudi orokorra zehazteko ere baliagarriak direla. Izan ere, Delislek (2002: 3) berak dioenez, itzultzaileak, idazleak legetxe, gizartearen erre-presentazio sinbolikoak dramatzatza berarekin. Gisa horretan, itzulpenaren eta itzulpengintzaren iruditeriaren bilakaera herrialde zehatz bateko literatur eta itzulpen-sistema zehatz baten bilakabidearekin eta historiarekin lot daiteke, eta hala egiten dute hainbat ikertzailek.

Fikzionalizatu izan diren itzultzaileei dagokienez, errepikatu egiten dira haiekin lottutako zenbait rol eta ezaugarri (Siouda, 2012: 23), eta paperezko itzultzaileek antzeko eszenaratzeak izaten dituzte. Laburbilduz, esan daiteke fikzioan agertu zaizkigun itzultzailearen antsietateak hauek direla: lanbidearekiko erantzun afektiboak, isolamendua edo bakartasuna, sustrairik eza, autoretza-onespenaren eta aintzatespenaren guraria, alderdi ekonomikoak eta lanarekiko obsesioa. Aurrekoei gehitzekoak dira Mihalachek (2005: 139-154) zerrendatzen dituen itzultzaileen inguruko irudi eta estereotipoak: ideien kontaminatzailearena, itzultzaile terroristarena, itzultzaile antropofagoarena, mendeko zerbitzariarena, itzultzaile paranoiko eta obsesiboarena, exorzista edo mediumarena, autorearekin edo pertsonaiekin identifikatzen den itzultzailearena, lapurrarena, desleialarena, pobrearena, bidaiariarena, bere baitara biltzen denarena, inoren hitzak erre-zitatzen dituenarena, birsortzailearena. Itzultzailearen irudi horiek lotuta daude, batetik, gizartean itzultzaileari buruz zabal dabilzan ideiekin eta, bestetik, idazle eta itzultzaileek itzulpenaren langintzarekiko duten jarrerarekin. Kaindek (2014: 1-26) *Transfiction* liburuari egindako hitzaurrean azaltzen duenez, Ost irakasleak gaika sailkatzen ditu fikziozko itzulpen eta itzultzaileen agerpenak, eta zazpi arlo tematiko bereizi: hizkuntzen unitatea eta aniztasuna; itzulpen intralinguistikoa; esanahiaren transferentzia itzulpenean; jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko harremana; traizioa eta leialtasuna; itzulpen-etika; itzulpena metafora gisa.

Simenonik (2004: 24) nabarmentzen du narrazio berrietan itzultzaileari funtzio berriak esleitzen zaizkiola, eta, erre-alak zein mitikoak izan, itzultzaileek amets egiten dutela, negar egin, erail zein osatu. Funtsean, itzultzaileek euren erantzukizuna aldarrikatzen dute erre-presentazioaren eszenan, eta lehenagoko itzultzaile ikusezinen aldean, gero eta agerikoagoak dira. Bada, hain-

bat kulturatan eta literaturatan gertatzen denarekin bat, fikziozko itzultzailea gero eta agerikoagoa da baita euskal literatura garaikidean ere, eta badirudi itzulpen-eremua bera ikusgai egiten ari den heinean eszenaratzen ari dela itzultzailea literatur pertsonaia gisa euskal letretan, hurrengo ataletako batzuetan ikusiko dugunez.



#### **4. EUSKAL LITERATURA ITZULIA BARNE-EREMU BAT DA: DEFINIZIOA ETA ABIAPUNTUA**

Euskal literatura itzulia eremu gisa definitzea eta euskal literatura itzuliak bestelako eremu edo espazio batzuen aldean duen kokapena ezaugarritzea izango da xede nagusia atal honetan, hori izango baita abiapuntua hurrengo atalean euskal literatura itzuliaren 1975-2015 urteen bitarteko 40 urteko bilakabideari begiratzeko.

Aurreko ataletan laburbildutako Bourdiuren teoria soziologikoak kontzeptu sendoak eskaintzen dizkio itzulpen-ikasketak diziplinari eremuan gertatzen den itzulpen-prozesuari, sortzen den produktuari, eta eremuaren beraren egiturari eta beste eremu batzuei eragiten dieten gizarte-baldintzak (sinboliko, ideologiko, kultural eta ekonomikoak) deskribatzeko. Gainera, eta atal teorikoan azaldutakoari eutsita, Bourdieuren ordena-eskema baliatuta sailkapen deterministak eta sinplistik gairatzeko modua dago, Munday-k (2008: 158-159) edo Wolf-ek (2007: 6-7) azaldu izan duten moduan. Mundayren arabera, Touryren metodologia sistemikoa soilik aplikatuz gero, oharkabean igarotzen dira zenbait faktore politiko eta ideologiko; esaterako, jatorrizko kulturaren estatusa, jatorrizko kulturatik itzulpenak sustatzea zein esportatutako literaturak jatorrizko literaturan eragitea (2008: 115). Wolfek, bere aldetik, defendatzen du elkarreragin kultural eta sozialetan jarri behar dela arreta, eta azpimarratzen du, halaber, itzulpengintzan jarduten duten eragileak eta sortzen diren itzulpenak ez daudela isolatuta (2007: 6-7). Gisa horretako testuinguruko baldintzak ere kontuan hartzea dugu xede, eremuaren, habitusaren eta kapitalaren kontzeptuen barruan bildurik dauden aldetik.

1. irudia. **Testuingurua osatzen duten askotariko baldintzak jaso daitezke Bourdieuren oinarrizko kontzeptuen bidez**

**Testuingurua**

- Boterea
- Ideologia, ikuskerak, irudia...
- Akademia, kritika, prentsa...
- Zentsura
- Edizioa
- Estatusa
- Kulturartekotasuna
- Hizkuntza-aniztasuna
- Merkatua, ekonomia...
- (...)


**Bourdieuren kontzeptu-sarea**

- Eremua
- Habitusa
- Kapitala



Euskal literatura itzuliak osatzen duen barne-eremua<sup>1</sup> gizarte-espazio egituratua eta egituratzailea da, erakundeek, eragileek eta praktikek osatutakoa. Barne-eremua egituratuta dago, arau esplizitu eta inplizituak existitzen diren aldetik eta eremuaren barneko eta kanpoko eragileen artean harreman logikoak sortzen diren aldetik (Vizcarra, 2002).

2. irudia. **Eremu baten oinarrizko eskema (geziek eraginak adierazten dituzte, lerro etenez markatua dago eragin-esparrua, aldakorra baita)**




<sup>1</sup> Literatura itzuliaren eremua, literaturaren eta itzulpenaren eremuen barruan kokatzen den aldetik, barne-eremu bat dela diogu. Bourdieuk «eremu» eta «azpierrez» kontzeptuak baliatu zituen eskema moduan gizarte-errealitateak ordenatzeko, baina, terminologiari dagokionez, «eremu» eta «barne-eremu» darabiltzagu guk, «azpi» aurrizkiaren menderakuntza-kutsua ekidin nahian.




Euskal literatura itzuliari beste eremu batzuek eragiten diote, eta, hortaz, ez da erabat beregaina. Beraz, hauxe da gure lanaren abiapuntua: euskal literatura itzulia autonomia erlatiboko barne-eremu bat da, euskal itzulpen-eremuaren eta literatur eremuaren barruan koka daitekeena.

3. irudia. **Euskal literatura itzuliaren barne-eremua: euskal itzulpengintzaren eta euskal literaturaren gurutzatzea**



Halaber, euskal kultur eremuaren barruan (dagozkion eragin soziopolitiko eta ekonomikoen indarren mende) koka daitekeen euskal literatura itzuliaren barne-eremuak nazioarteko literaturaren espazioaren parte bat hartzen du, euskaraz sortutako literatura nazioartera itzultzen den aldetik eta nazioarteko literatura euskarara itzultzen den aldetik.

4. irudia. **Euskal literatura itzuliaren eremua literaturaren nazioarteko espazioan**



Bourdieuren kontzeptu teorikoei oratuta, beraz, honela ulertzen dugu euskal literatura itzuliak ardaztutako barne-eremua: gizarte-espazio erlatiboki autonomoa da, ekoizpen urrikoa, norabide anitzekoa eta transnazionala, non prozedura konplexuak gertatzen diren; dimamikia da, eta aldatu egiten da denboran zehar; izan ere, unean-unean elkarri eragiten dioten indar-sareek egituratzen dute barne-eremua, eta, aldi berean, barne-eremuko indarrek albo-eremuetan (itzulpen-eremua eta literatur eremua, esaterako) eragiten dute, beste albo-eremuetakoek euskal literatur itzulpenaren barne-eremuan eragiten duten bezala. Halaber, dagokigun eremua autonomizatzen ari da, Bourdieuk (1984) zehaztutako (azpi)eremuen edo eremu berrien sorrera-bal-dintzak betetzen dituen aldetik: a) kontsumitzaile potentzialak hazi izana, b) produktu sinbolikoen, ekoizleen eta bitartekarien kopurua handitu izana eta c) eremuari berezko zaizkion kotsakrazio-agentziak sortu izana. Horrez gainera, Sapirorek dioena (2014) euskal eremura aplikatuz, euskal literatur itzulpenaren autonomizazio erlatiboa loturik dago aditu talde bat sortzearekin, aditu talde horrek eremuaren jabetza eta eremuan sartzeko kontrola aldarrikatzearekin, eremuari berezko zaizkion produktuak bereiztearekin eta eremuaren berezko historia bat sortzeko ahaleginarekin.

Euskal literatura itzuliaren eremuko parte eta partaide da eremuak eragiten dion oro eta eremuan eragiten duen oro; hortaz, eremuak berak definitzen du eremuaren esparrua, eremuak eragindako efektuaren irismen-mugak dira eremuaren mugak (Bourdieu & Wackquant, 1992: 75-76). Hala, euskal literatura itzuliaren (barne-) eremuko parte dira, nola euskaratik euskarara egindako itzulpen intralinguistikoko edo interdialektalak, hala dialekto jakin batera egindakoak eta horiek sustatu dituzten agente eta eragileak; nola euskarara itzultzen diren bildumak, hala euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko ematen diren laguntzak; nola editorial jakin baten bildumakoak, hala idazle batek ariketa legez egiten dituenak; halaber, euskal literatura itzuliaren (barne-)eremuko partaide dira itzultzaile profesionalen elkarteak, enpresak, langile autonomoak, erakundeak, argitaletxeak, hizkuntza- eta kultur politikak, edizioaren merkatuari lotutako arau eta legeak... Horrenbestez, garaian garaiko ezaugarri-konbinazioek zehazten dute zer-nolakoa den (barne-)eremua sasoirik sasoi eta nolakoa izan den halako edo bestelako eraginen araberrako bilakabidea. Euskal letren historian ez da eremu beregaina izan euskal itzulpenarena, ezta literatur itzulpenarena ere, eta beste eremu batzuekiko (erlijiosoa, politikoa...) harremanean deskribatu behar da nahitaez.

Euskal literatura itzuliaren barne-eremua erlatiboki autonomoa dela diogu: ez dago kanpo-indarretatik libre, eta ez da erabat beregaina; ez da erabat espe-

zifkoa ez eragileen ehundurari dagokionez, ez eta ehunduraren posizioari dagokionez ere. Ikusiko dugunez, euskal itzulpen-eremuan erakundetzea gertatzen ari da, bai eta itzulpen-eremuaren berezko erreferentziak ugaltzen ere; baina, literatura itzuliaren barne-eremuari dagokionez, zehazki profesionalizazioa ez da erabatekoa, ez alderdi ekonomikoari dagokionez, ez jardueraren eskusibotasunari dagokionez. Literatur itzulpenari lotutako erakundeak edo agentziak inoiz gutxitan dira soilik itzulitako literaturari dagozkionak, nahiz eta literatura ardatz nagusietako bat izaten den gehientsuenetan eta literatur itzulpena izan ospe handiena jasotzen duena, fikziozko itzultzaileen ahotan ikusi daitekeenez, esaterako. Profesionalizazioa ere ez da erabatekoa: ezagun da oraindik ere ez dagoela ia literatur itzulpenetik soilik bizibidea ateratzeko modurik duen itzultzaile profesionalik, literaturatik soilik bizi diren profesionalak ere gutxi diren modu bertsuan. Izan ere, autonomizatzen ari den eremua bada ere, euskal literatura itzuliarena autonomia erlatiboko barne-eremua da, ekoizpen urrikoa, egitura, eragile eta balioak partekatzen dituena, nahitaez, hizkuntza txiki bateko literaturaren eta itzulpengintzaren eremuekin; euskara eta euskal kultura da eremua ardatzen duen kapital sinbolikoa; kapital ekonomikoa baino balio handiagokoa egoera askotan, Bourdieuk (1991) adierazi bezala, eta horrek ezaugarritzen du, halaber, eremua bera.

Euskal literatura itzuliaren barne-eremua norabide anitzekoa dela diogu: barne-eremuaren parte dira bai euskaratik egindako itzulpenak, bai euskarara egindakoak, bai eta euskara zubi-hizkuntza edo bitarteko dela egindakoak ere. Euskara da, nolabait, barne-eremua eta hura kokatzen den euskal itzulpenaren eremua ardatzen duen kapital sinbolikoa, eta norabide batean zein bestean egindako itzulpenek, bi-biek, eragiten dute bai euskal literatur itzulpenaren barne-eremuan, bai eremu horrek eragiten dion euskal literaturaren eremuan, bai literaturaren nazioarteko espazioan oro har.

Bide beretik, euskal literatura itzuliaren barne-eremua espazio transnaziionala balitz bezala definitu dugu (Heilbron & Sapiro, 2002: 3-5). Bada, espazio horretan, hainbat esparru geografikotako merkatu- eta kultura-politikek eta ideia eta balioek eragiten diote barne-eremuari, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako kultur eta hizkuntza-politikek, lurraldeotan baita euskara hizkuntza koofiziala; baina, kontuan hartzekoak dira, halaber, euskarak ukitzen dituen gainerako espazioetako eragile, erakunde eta sareak, hala nola Ipar Euskal Herrikoak eta Diasporakoak edo euskarari eta euskal kulturari buruzko interesa agertzen duten beste eremu batzuetakoak, kasurako, euskaratik egindako itzulpenak jasotzen dituzten gizarte-egituretakoak. Orobat, euskal literatura itzuliaren eremuak nazioarteko literatur espa-

zioan ere badu bere tokia, besteak beste, euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenaren bidez eta nazioarteko azoketan eta jardunaldietan hartutako posizioen bidez. Hargatik deritzogu «barne-eremu transnazional» euskal literatura itzuliaren eremuari, muga nazionalak edo geografikoak ez direlako eremu baten mugak; izan ere, (barne-)eremuek ez dute muga zehatzik, eta unean uneko indarren proiektzioaren arabera izaten da (barne-)eremuaren irismena.

Espazioaren ardatza loturik dago, ezinbestean, denboraren ardatzarekin. Espazioa aldatu egiten da denborak aurrera egin ahala, hargatik diogu eremua dinamikoa dela, ez soilik espazioan, baita denboran ere. Gisa horretan, aurretik emandako irudia etengabe aldatuko litzateke, eta aztertzen den garairen arabera berregin, itzulpen-norabideak edo eremuen posizioa aldatu, etab. Adibidez, sasoi batean bat izan daitezke literatur eta itzulpen-eremuak, edota beste sasoi batean hizkuntza-norabide bateko itzulpenak izan nagusi; inoiz itzulpen intralinguistikoak nagusitu izana ere gerta daiteke... Hala, baliteke garai jakin batean literatur itzulpenen hizkuntzei dagozkien norabideak eta kulturen arteko trukeak era batekoak izatea eta beste garai batean bestelakoak, etab. Garai batean edo bestean itzulpenari ematen zaion balioa, kapitala (kultural, ekonomiko, sinbolikoa...) aldatu egin daitezke, hori da eremuen dinamotasunaren eta bilakabidearen funtsetako bat.

Euskal literatura itzuliaren aro garaikideaz ari garelarik, barne-eremuaren autonomizazioa abiarazteko, garrantzi handikoak izan dira hizkuntzaren eta literaturaren garapenean eragin duten baldintza historikoak; zehazki, hizkuntzaren estandarizazioaz eta elebitasuna kudeatzeko legeez ari gara. Lasagabasterren esanetan (2007: 244-245), euskal literaturaren autonomizazioa zeharo baldintzatu duten une historikoak dira 1975az geroztiko Hego Euskal Herriko demokrazia-aroa, 1982ko EAEko Euskarari Erabilera Normalizatzeko Legea eta 1986an Nafarroan Euskarari Buruzko Legea. Horiek guztiek ezarri zituzten euskal literatur sorkuntza eta edizioa laguntzeko eta indartzeko oinarriak, eta bide horretatik indartu zen euskal literaturaren autonomizazio-prozesua.

Bada, literaturaren autonomizazioaren eskutik, edo beste hitz batzuetan esateko, modu paraleloan gertatu da, gure ustez, euskal literatura itzuliak osatzen duen barne-eremuaren autonomizazio erlatiboaren prozesua, itzulpen-eremuaren beraren autonomizazio erlatiboaren eskutik. Hortaz, bai literatura garaikideaz, bai itzulpengintza garaikideaz ari garenean, autonomizazio-prozesua hasiz geroztiko literaturaz eta literatura itzuliaz ari gara baitezpada.

Euskal literatura itzuliaren eremuaren bilakabidearen berri emateko, gure ustez soziologikoki aro garaikidea ezaugarritzen duen erakundetzean (profesionalen elkarretaratzea, akademia eta legitimazio-agentziak) egingo dugu argi, eta, horrez gainera, euskal literatura itzuliaren eremuak literaturaren espazioan hartutako dimentsio soziala eta sinbolikoa balioetsi nahi ditugunez gero, euskal literatur historiografien eraikuntzan itzulpenak hartutako tamainari eta idazle garaikideen diskurtsoei ere erreparatuko diegu.



## 5. EUSKAL LITERATURA ITZULIA: (BARNE-)EREMU BATEN BILAKABIDEA

López Gasenik «Demokrazia lehengoratzea eta itzulpengintzaren urrezko aroa» errubrikapean biltzen du<sup>2</sup> guk «autonomizazio erlatiboaren garaia» izendatu duguna, eta bi ataletan bereizten du aroa: «Literatura itzulpengintza 70eko eta 80ko urteetan» eta «Ametsa egia bihurtuta: mende bat balio duten hogeita bost urte (1985-2005)». Guk, ostera, lau etapatan banaturik emango dugu euskal literatura itzuliaren autonomizazioaren garaia bilakabidearen berri, betiere jakinik etapa horiek gure narrazioaren haria laguntzeko balio dutela baina egin daitezkeela bestelako denbora-sailkapenak, fokua non jarzen den.

Gu euskal literatur eremuaren eta euskal itzulpengintzaren eremuak partekatzen duten euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren dimentsio sozialaz arituko gara barne-eremuaren bilakaeraren narrazioa egiteko. Lehenago ere esan dugu euskal itzulpengintzaren irudikatzeek arduratzen gintuztela; bada, hiru planoko irudikatzea bistaratzen ahaleginduko gara atal honetan. Batetik, itzulpengintzaren gizarte egitura irudikatzen ahaleginduko gara, eta, horretarako, autonomizazioaren garaia deitu dugun horretan etapaz etapa itzulpenari dagozkion erakunde legitimatzaile nagusien sareak gizarte-eremuaren mapan kokatzeko saioa egingo dugu, itzulpen-eremuaren sorrerak eta autonomizazioak albo-eremuetan, zehazki, literaturarenean, eragindako irudi-aldaketak bistartzeko. Hala, bigarren planoan, euskal literatura itzuliari euskal literaturaren eraikuntzan aitortu zaion lekuaz arituko gara, eta hor ere etapaz etapa euskal literatur historiografien egileek itzulpena zein neurritan eta nola irudi-

---

<sup>2</sup> Ikusi [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com) atariko «Literatura itzulia» errubrika.

katu duten ikusiko dugu. Itzulpenari buruzko diskurtsoan arreta jarrita, historiografien bilakabidean itzulpengintzaz jarduteko modua aldatu dela ikusiko dugu, eta, oro har esanik, itzulpen-ikasketek egindako bideari lotutako joerak nabari direla diskurtsoen bilakabidean. Horrez gain, etapaz etapa euskal idazle garaikideen itzulpenari buruzko pertzepzioez, jarrerez eta itzulpena irudikatzeke moduez jardungo dugu, eta ikusiko dugu zer nolako irudia jasotzen eta ematen duten euskal idazleek itzulpenaz eta itzultzaileez euren diskurtsoetan eta fikzio-lanetan.

Arestian ere esan dugu: gauza jakina da euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren bilakaerari eragiten dioten gertakariak ez direla isolatuak, elkarri loturik daudela, hots, eremuaren beraren bilakaera botere-hartze eta botere-uzte jakinen bidez gauzatzen dela, eta eremutik kanpo zein eremu barruan gertatutako posizio-aldatzeek eragin dutela autonomizazioa. Esate baterako, estatus edo eskumen jakin batzuk lortzeko, bestelako eskumen zein botere edo aginte-esparru batzuk galdu dituzte itzulpengintzari lotutako zenbait eragilek 1970eko hamarkadaz geroztik; alegia, erakunde eta akademiak ez dira ezerezetik sortu, eta egonkortu eta profesionalizatu gura zuten itzultzaileek egindako hautu eta hartutako erabakiekin lotzekoak dira, besteak beste, itzulpenari lotutako gizarte-gertakariak eta jarrerak. Bada, bilakaera horren arrazoiak ikusarazten ahaleginduko gara.

Horiek gogoan ekingo diogu gure narrazioari, hasierako abiapuntutzat hartuta gurean, zehazki, hizkuntzaren eta literaturaren garapenean eragin duten baldintza historikoak izan zirela autonomizazio-prozesuaren abiarazle nagusiak: hizkuntzaren estandarizazioa eta elebitasun legeak, 1975az geroztiko Hego Euskal Herriko demokrazia-aroa, EAEko 1982ko Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko legea eta Nafarroako 1986ko Euskarari buruzko Foru Legea.

Eremua dinamikoa denez gero (Bourdieu & Wackquant, 1992: 24-25), praktikak, erakundeak, posizio-hartzeak, jarrerak, harremanak, esku-hartzeak, elkarreraginak eta tentsioak... aldatuz doaz; izan ere, eremuaren dinamikaren printzipioa egituraren beraren konfigurazioa da, eremu barruko indarren arteko distantzia (*idem*: 77). Bada, hain zuzen ere, dinamikan parte hartzen duten elementuen konbinazioak zehazten du garaian garaiko euskal literatura itzuliaren (barne-)eremua. Itzulpengintzaren historia egiteko, beraz, eremuaren kokapena, egitura, agenteak, erlazioak, balioak eta eraginak aztertu behar dira, eta arian-arian nola aldatzen diren ere bai. Bada, gurean argi dago literaturaren autonomizazioaren eskutik eta itzulpen-eremuaren beraren autonomizazio erlatiboarekin bat gertatutako euskal literatura itzuliaren bilakaerak eragina izan duela literatur eremuko partaideengan. Adibidez, idazleengan



eragin duela esan dezakegu, Harkaitz Canoren hitzak ekarrita, idazleak ere «gero eta itzultzaileago» (2013) izateko joera nabari delako, itzulpena eta sorkuntza-jarduerak gero eta gehiago bereiztekoa, alegia. Halaber, itzulpen eremuko partaideengan, itzultzaileengan, ere eragina izan du, noski, bilakabideak: gero eta gehiago baitira eremuari berezko zaizkion esparruak arautzeko eta koordinatzeko aldarriak eta ekintzak.

Euskal literatura itzuliaren historiari dagokionez, eta, aurrekariak labur ekarri beharrez, azpimarratzekoa da itzulpenak rol garrantzitsua izan duela euskal testuen historian (Jaka, 2005): euskal testuak ezagutzen ditugunetik egin izan dira euskarazko itzulpenak. Gainera, zenbait ikertzaileen lumatik ezagun da itzulpenek zenbait arotan «erdiguneko posizioak bete dituztela euskal literatura-sisteman, hau da, testu kanonikoak izan direla» (López Gaseni, 2010: 845-846). XVIII. mendea baino lehenago, euskal itzulpenaren eta literaturaren eremua biak bat zirela esan dezakegu, darabiltzagun kontzeptuak aplikatuta (alegia, eragileak, erakundeak, praktikak, eraginak, pertzepzioak... denak bat ziren, gaur egun itzulpenaz eta literaturaz dugun ikuspegia aplikatuz gero). Auzia, gizarte-egiturekin ez eze, itzulpena eta literatura hautemateko moduarekin dago lotuta; izan ere, «literatura» hitzaren jatorrizko esanahira joz gero, latinez literaturak `instrukzio´ esan gura zuen; beraz, literaturaren eduki semantikoa loturik zegoen jakintzarekin, idaztearen eta irakurtzearen artearekin, gramatikarekin, alfabetoarekin, erudizioarekin... (Aguiar e Silva, 1972: 11). Horrenbestez, idatzitako oro zen literatura (itzulpena barne).<sup>3</sup> XVIII. mendetik aurrera, literaturak sorkuntza estetikoaren esangura duenetik aurrera, apurka-apurka, itzulpenarekin eta literatur sorkuntza estetikoarekin lotutako eragileak, praktikak eta pertzepzioak bereizten hasi zirela esan dezakegu. XIX. mendetik aurrera, literatur itzulpena barne-eremu gisa egituratzen hasteko lehenbiziko aztarnak aurki ditzakegu, eta XX. mende erditik aurrera hasitako itzulpen-eremuaren autonomizazioa, nolabait, literaturaren autonomizazioarekin batera etorri da gure ustez.

Ikus dezagun, beraz, etapaz etapa, euskal letren historiaren hasieratik gertatu den itzulpen-jarduera hori nola bihurtu den, beste eremu batzuen garapenaren eta dinamikaren ondorioz, gizarte-entitadedun barne-eremu erlatiboki autonomo berri literaturaren espazio garaikidean.

---

<sup>3</sup> Oso kontuan hartu behar da hori, batez ere, euskal literaturaren hasierako testuetan. Esaterako, esan genezake Lazarragaren eta Axularren lanetan sormenaren eta itzulpenaren muga oso lausoa dela, eta kontuan hartu behar da orduko literaturaz eta itzulpenaz ari garenean orduan itzulpena eta sormena ulertzeko beste modu bat zegoela. Beraz, eremuen arteko interrelazioa bai literatur itzulpenaren bai literaturaren historia berrirakurtzeko modu bat da.

## 5.1. 1975-1985: LITERATURA ITZULIAREN EKOIZPENA ETA PRESTAKUNTZA-BEHARRA HANDITZEA

Beste sorkuntza-eremu batzuen kasuan gertatu bezala, adibidez, Lasagabasterrek deskribatutako literatur eremuaren autonomizazioaren kasuan gertatu bezala (2007: 237-248), euskal literatura itzuliaren eremuaren autonomizazioa Hego Euskal Herriko 1975az geroztiko aro demokratikoarekin hasi zen, EAEko eta Nafarroako hizkuntza-legeei loturik. Hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan euskara legez txertatu beharrak eta gizartean hazitako itzulpen-beharrek handitu egin zuten itzultzaileentzako lan-eskaria, eta, hortaz, baita itzultzaile profesionalen autonomia ekonomikorako bidea ere.<sup>4</sup> Nolanahi ere den, orduko itzultzaileak ez ziren profesionalak, beste esparru batzuetako eragileak batu ziren itzulpen-lantzara. Nolabait, eskariak eta jardunak berak irudikatu zuten eremua, eremuko eragile espezifikoen beharra eta eremuan aritzeko prestakuntza-beharra: 1970eko hamarkadan itzulpengintzari lotutako ikastaro solteak jasotzeko aukera izan zuten eremuko partaideek, eta 1980ko hamarkadan hasi ziren prestakuntzarako ikastaro egituratuagoak. Sona txarra dute, oro har, garai hartako literatur itzulpenek, eta horrek arrastoa utzi du orduetik aurrerako euskal gizartearen imajinarioan. Orduantxe hasten da igartzen literatura itzuliak historiografia literarioetan hartu beharreko tarteari buruzko gogoeta, eta idazleek ere egingo zuten garaian euren gogoeta, nahiz eta ez zuten, guk dakigula, halakorik fikziora eraman.

1970eko eta 1980ko hamarkadetako itzulpen-eskariari erantzunez hasi zen euskal literatura itzuliaren produkzio-eskaria handitzen, eta orduan hasi ziren, halaber, zenbait kontsakarzio-agentzia (sariak, bekak eta dirulaguntzak, esaterako) modu sistematikoan sortzen, bai eta zenbait eragile euskarazko produktuen merkatuan itzulpena merkatu horretako gaketzat jotzen. López Gasenik 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Lur eta Gero-Mensajero argitaletxeak, Eusko Jaurlaritzaren Antzerti Zerbitzua eta Klasikoak itzuli zituzten eragileak aipatzen ditu, besteak beste, literatur itzulpenari bide eman zioten eragileen artean.<sup>5</sup> Beste adibide bat aipatzearen, Elkar argitaletxea modu sistematikoan hasi zen itzulpenak plazaratzen 1983an.

---

<sup>4</sup> Uneoro ari gara autonomia erlatiboaz, eta kasu honetan «itzultzaile» diogu, «literatur itzultzaile» esan ordez; izan ere, «literatur itzulpenetik» bizibidea egin duten profesionalak oso gutxi izan dira oraindaino.

<sup>5</sup> Ikusi: <http://www.basqueliterature.com/basque/historia/itzulia>

Baina, esan bezala, euskal literatur itzulpenen kopurua nabarmen hazi bazen ere, bestelako usteak dira kalitatearen ingurukoak:

Itzulpen-kopuruaren igoerak, ordea, ez zuen itzulpenen kalitatea hobetu, kontrakoa baizik: itzultako testuen eskariak gora egitean, itzultzaile kualifikatu gutxi egotearekin batera, lantzean behingo zenbait itzultzaile erakarri zituen, batez ere hezkuntzaren arlokoak (Filologiako eta Kazetaritzako ikasleak, irakasleak...); izan ere, borondatea bai baina testu on gutxi eman zituzten oro har.

(López Gaseni: <http://www.basqueliterature.com/basque/historia/itzulia>)

Nolabait, eskariak eta jardunak berak irudikatu zuten eremua bera, eremuko eragile espezifikoek beharra eta eremuan aritzeko prestakuntza-beharra: 1970eko hamarkadan itzulpengintzari lotutako ikastaro solteak jasotzeko aukera izan zuten, eta 1980ko hamarkadan hasi ziren prestakuntzarako ikastaro egituratuagoak.

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, batez ere idazleek, hizkuntzalariek, filologoek, irakasleek, kazetariak... egin zituzten literatur itzulpenak, kasu asko eta askotan modu desinteresatu eta militantean. Bada, militantziak, berriazko prestakuntzarik ezak, egitekoaren urgentziak... eta gisakoek eragindakoa izan daiteke orduko lanen kalitate eskasa, eta hortik dator zenbaiten artean euskal itzulpenek urteetan izandako ospe txarra. Ospe txar horren erakusgarri da, adibidez, itzulpenik irakurtzen ote zuen galdetuta, Arantxa Urretabizkaia idazleak emandako erantzun hau: «Ez, apenas. Nahiago frantsesez edo gazteleraz irakurri. Are ingelesez. Egin izan nuen bolada batez, aspalditxo, baina iruditzen zitzaidan itzulpena nahiko ortopedikoa zela» (Urretabizkaia, 2013). Orduan itzulpen-lanetan aritu zirenak «erabat autodidaktak eta inolako prestakuntza teorikorik gabeak» zirela ondorioztatu zuen Zabaletak (1989: 15) itzultzaileen artean egindako inkesta baten harira.

Edonola ere, garai hartan bertan hasi ziren itzultzaileak profesionalizazio-beharrari buruzko kontzientzia hartzen, eta horri erantzunez etorri ziren zenbait ikastaro: Mendiguren Bereziartuk azaltzen duenez: «1976an hasi eta 1980ko urrira bitarteko epean, hau da, Itzultzaile Eskolak bere ateak zabaldu arte, bost ikastaldi antolatu ziren Euskal Herriaren gune desberdinetan itzulpengintzaren inguruan kontzientzia sortzeko eta lehen ezagupen teorikoak eskaintzeko» (Mendiguren Bereziartu, 1984: 20). 1976ko lehenbiziko ikastaroa hiru ardatzen inguruan antolatu zuten:

Ikastaldi teoriko-praktiko hartako irakasleak hiru izan zirelarik, hiru sailetan banatu zen gaia:

a) Sarrera, literatur testuen itzulpena, kazetaritzako testuen itzulpena eta Orixeren itzultze-modua (X. Mendiguren).

b) Testu didaktikoen itzulpena, «Bilboko Eskola» eta hizkuntzaren finkapena, morfologia (aurrizki-atzizkiak) eta lexikologia (X. Kintana).

c) Testu teknikoen itzulpena eta analisi sintaktikoa (J.R. Etxebarria)

(Mendiguren Bereziartu, 1984: 20)

Mendiguren Bereziarturen beraren ikasgaietan ikus daitekeenez, literatur itzulpenak leku nabarmena izan zuen.

Ondoren emandako ikastaroak ildo beretik zein ardatz bakarren batean sakonduta egin ziren; bestalde, 1977ko irailean Bibliaren itzulpenari buruzko ikastaro berezi bat eman zuten Arantzazun, Eliza Ebanjelikoak euskara batura ekarri gura zuela-eta Bibliaren itzulpena (Mendiguren Bereziartu, 1984: 21). Ikastaro horien ondoren, Euskaltzaindiaren eskariz, Mendiguren Bereziartuk aurretikosten bat prestatu zuen, Itzultzaile Eskola bat sortzeko (*idem*), eta 1980an jarri zuen txosten hori Euskaltzaindiaren eskuetan: «Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola» (*Euskera*, 26, 1981-2). Bestalde, IVAPek lege-alorrerako itzultzaile-eskola ere sortu zuen Gasteizen (Zabaleta, 1989: 61).<sup>6</sup>

Orain arte esandakoak laburtuta, hortaz, esan daiteke 1980ko hamarkadako lehenbiziko erdira arte itzulpen- eta itzultzaile-eskaria handitu egin zela, eta profesioaren kontzientzia hartzen hasi zirela zenbait eragile. Bada, gero deskribatuko dugun bigarren etapan, hamarkadaren bigarren erditik aurrera hasi zen euskal itzulpenaren eremua erakundetzen, eremuko praktikak eta eragileak profesionalizatzen, profesionalentzako hezkuntza berezitua sistemizatzen eta eremuaren erreferentzia espezifikoak eta kontsakrazio-agentziak sortzen.

Baina, noski, horren aurrekariak etapa honetan aurki daitezke. 1980an ireki zituen atea Donostian Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskolak (EIOPE). Honelaxe azaltzen du Mendiguren Bereziartuk eskolako programa (1984: 23):

Dossier-Aurre projektua aurkeztu eta berehala eman zuen ontzat Euskaltzaindiak Eskola sortzea eta urte berean, 1980an ireki zituen bere atea, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak behin-behingo Arbideko Dorreetan utzi

---

<sup>6</sup> Eskola horretan literatur gaiak lantzen ez zirela-eta aipamen hau besterik ez dugu egingo lan honetan.

zizkion geletan. Hona hemen 30 pertsonetako lehen ikaslego hark lau irakasleren eskutik ikasi zituen ikasgaien zerrenda:

- Euskara eta Euskal Literatura.
- Gaztelania eta Erdal Literatura.
- Linguistika Orokorra eta Estilistika.
- Itzulpen Teoria eta Praktika.
- Euskal-Itzulpenaren historia eta testu-konparaketarako metodologia.

(Mendiguren Bereziartu, 1984: 23)

Nabarmentzekoa da bost ardatzetako bi literaturari eskainiak izatea, eta, uste izatekoa da teoria eta praktika lantzeko ardatzean ere literatur itzulpena landuko zela. Irakaskuntza-programa horren arabera lehenbiziko urte hura experimental samarra izan zen (Mendiguren Bereziartu, 1984: 23-24), eta lehenbiziko bi urteko ikastaldiaz (1981/1982) geroztiko ikastaroak berregituratu egin ziren bai gaiei zegokienez, bai eskolaren antolamenduari zegokionez ere (Mendiguren Bereziartu, 1984; Urzelai & Auzmendi, 1989; Zabaleta, 1989; Zabalondo, 1988). Edonola ere, eskolaren asmoa ez zen soilik urtean hogeiren bat profesional merkaturatzea: «Aitzitik, langune desberdinetan barreiatu beharko lituzke bere indarrak, eta itzulpenarekin zerikusia duen guztiaren zentru dinamizatzaile izan beharko luke» zioen Koro Navarrok eskola abiarazi eta bost urtera egindako gogoetan (Navarro, 1984: 27-28). Hala, haien zereginen artean zeuden honako hauek: «a) dagoeneko lanean ari diren profesional-mota desberdinei birprestakuntza eskaini arratseko eta asteburutako ikastaldien bitartez; b) itzulpen teoria eta praktikaren ikerketa eta zabal-kundea burutu eta bultzatu; c) bigarren horri begira argitalpen sail bat eta aldizkaria sortu» (Navarro, 1984: 28). Ildo horretan abiarazi zuen eskolak berak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin itzulpengintzari buruzko liburu-sail bat. Honako hau izan zen emaitza, Koro Navarroren beraren hitzak ekarrita:

Hau dela eta, eta bereziki eskolako ikasleei laguntzeko asmotan argitalpen sail bat sortu du Itzultzaile Eskolak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren diru laguntzaz, hiru liburu argitaratuak dira jadanik, eta beste bi ari gara prestatzen une honetan. Hauetariko batzu bereziki Eskolako ikasleentzat zuzenduak daude, hala nola Itzulgaiak (*Textu literario eta pragmatikoak*. K. Navarro eta X. Mendiguren). Besteak berriz gai hauetan interesaturik legokeen irakurleko zabalago batentzat gerta litezke baliagarri: *Euskal Itzulpenaren Antologia I* Jesus Zabaleta; bigarren alea laster argitaratuko da), eta *Itzulpen teoriatzko ezagupenak* (K. Mendiguren). Boskarren liburu bat ere datorren urte hasieran azalduko da, hizkuntzalaritzaz, *Linguistika Orokorrezko Ezagupenak* (K. Navarro).

(Navarro, 1984: 30)

Beatriz Zabalondok zehaztu zuenez, «liburu eta materialen garrantzia ere ez da gutxiestekoa, orain arte batere landu gabe zegoen euskal traduktologia-rena bezalako alor batean» (1988: linean). Mendiguren Bereziartuk (1989: 23-24) Itzultzaile Eskolako bibliotekan bildutako erreferentziazko lanak ere goraiatu izan ditu. Eremuari propioa zitzaion materiala sortzeko eta pila-tzeko ekimen horren ildotik sortu zuten, halaber, itzulpen-gaiei buruzko *Senex* aldizkaria, 1984ko abenduaz geroztik argitaratu izan dena eta egun EIZIE elkarteak kudeatzen duena. Zabalondoren hitzetan, aldizkariak garai hartan eragin nabarmena izan zuen: «ideien zabalkunde eta sentiberatasunaren gara-tze nabaria eragin du itzulpen profesioaren eta teorizazioaren inguruan» (1988: linean). Zabalondok dioen moduan, *Senex* aldizkarian jaso ziren itzul-tzaileak prestatzeko euskarazko tresnak, falta zituzten teoriak eta kontzeptuak ikasteko zein tresna linguistikoak eskuratzeko. Azken batean, sortu zen garaian, hezkuntza formalaren egiturak falta zituen guztiz osatu gabeko eremu batean, eta aldizkaria hezkuntza-hutsuneak betetzera etorri zen. EIZIE elkarte profesionalak hartu zuen prestakuntzaren erantzukizuna, nolabait, eta euskal itzulpenaren eremua sendotu eta hezkuntza formala sendotu ahala (gerora, masterren eta lizentziaturaren bidez), esparruen banaketa handiagoa gertatu da, eta, konparazio baterako, egun, maila teorikoko eta kontzeptualeko arti-kuluek leku gutxiago dute *Senex* aldizkarian, eta tarte gehiago egiten zaie itzul-pen-praktikari eta langintzari buruzko idatziei.

Itzultzaile Eskolako bigarren promoziorako (1981/1984), bi urtetik hiru urtera aldatu zen ikastaldia, eta egoitza ere aldatu egin zen: Martuteneko Lanbide Hezkuntzako Ikastetxera eraman zituzten eskolak (Urzelai & Auzmendi, 1989: 28); hain zuzen ere, hortik datorkio izena Martuteneko Itzultzaile Eskolari. Bigar-ren eta hirugarren promozioetan (1983/1986) ikasgai berberak eman ziren, eta literatur gaiak ere jorratzen ziren, ikasturteen antolamenduan ikus daitekeenez:

Lehenengo ikasturtea.- Ingelesa, Gaztelania, Euskara, Itzulpen Teoria, Itzul-pen Historia eta Itzulpen Praktikak.

Bigarren ikasturtea.- Ingelesa, Euskara, Literatura (teoria eta praktika), Itzul-pen Teoria, Itzulpen Praktika eta Itzulpen Historia.

Hirugarren ikasturtea.- Ingelesa, Euskal Literatura, Erdal Literatura eta Itzulpen Praktika.

Itzulpen konparaketa, hizkuntz sakonketa eta beste gai batzuk ere tarteka-tzen ziren ikasketa hauetan. Programa zabala zen, ezin zitekeen bestelakoa izan Euskal Herrian hastapenetan aurkitzen zen Itzulpen-ikasketentzat.

(Urzelai & Auzmendi, 1989: 29)

Urzelairen eta Auzmendiren ustez, bigarren, hirugarren eta laugarren promozioak (1985/1988) izan ziren normalizatuenak,<sup>7</sup> eta arazo nagusiak eskolaren azpiegiturarekin, eskolaren egoerari berarekin eta itzulpen-titulua ezin lortu izatearekin egon ziren lotuta. Izan ere, eginahalak eginda ere, ez zuten lortu Martuteneko Itzultzaile Eskolako ikasleek ziurtagiri ofizialik jasotzerik:

Ikasketak amaitu ondoren besapean ziurtagiri bat genuela atera ginen, ziurtagiri honek balio akademikorik ez du, baina halere esan behar da Euskal Herrian lizentziatura izatea modan jarri zen arte zenbait lanpostutara aurkezteko eta gainera lanpostua lortzeko merituen artean aintzakotzat hartua izaten zela.

(Urzelai & Auzmendi, 1989: 30)

Alde horretatik, esan daiteke ikasketak abiarazi eta denbora batera etorri zela, nolabait, ikasketen eta profesioaren aintzatespena. Zenbait alorretan lan egiteko aintzatespen sinbolikoa izanagatik, itzultzaileek ez zuten titulu ofizialik.

Itzultzaile profesionalen jarrerari eta diskurtsoari dagokionez, Zabaletak 1986an egindako inkestaren emaitzen txostenean azaltzen zuenez, apurka-apurka igotzen ari zen euren burua itzultzaile profesionaltzat jotzen zuten itzultzaileen kopurua, bai eta langintzarako unibertsitate-ikasketak beharrezko zirela uste zutenena ere: kasurako, 1981ean itzultzaile izateko unibertsitate ikasketak behar zirela uste zuten inkestatuak % 15 ziren, eta 1986an, ostera, % 55,10 (Zabaleta, 1986). Ez dugu gaur egungo daturik; edonola ere, oro har Itzulpengintza Ikasketak edo Filologiakoak eskatzen zaizkie langintzan hasi nahi duten gazteei. Literatur itzulpenari dagokionez ere, ez dago datu zehatzik, baina literatur praktika berezitu horretarako sarbidea bestelakoa delakoan gaude; izan ere, literatur jakintza metatu izana, literatur erregistroak menderatzea eta kultura orokorra izatea nabarmendu ohi dira literatur itzultzaileek izan behar dituzten gaitasunen artean. Halaxe zen 1980ko hamarkadan:

Ezaguera mailaz ematen diren erantzunei dagokienez, bestalde, erlazio esanguratsurik ez zaie ikusten ez adinarekin, ez lan harremeri buruz eman diren erantzunekin, ez erabili ohi diren testu moduckin, ezpada besteren artean edo bakarrik itzulpen literarioak egiten dituztela erantzuten dutenek gaiari buruz ongi informatuta egon ohi direla erantzuten dutela ia guztiek (84,60 %).

(Zabaleta, 1986: linean)

---

<sup>7</sup> Horregatik eman dugu lehenengo etaparen muga 1985ean.

Literatur itzulpenari dagokionez ere ez dago gaiaren inguruko datu eguneraturik, ez eta ikerketarik ere, baina gure ustea da orduko ideia hura oraindik ere indarrean dagoela; alegia, esperientziak emandako bestelako gaitasun literarioak eskatzen zaizkiola literatur itzultzaileari oro har, eta ez hainbeste uni-bertsitate-gradu jakin bat.

Itzulpenak literatur historiografietan izandako errepresentazioari dagokionez, nabarmentzekoa da ordura arte idatzitako Orixeren (1927) eta Mitxele-naren (1960) literatur historiografietan, aldeak alde, itzulpenari buruz egindako irizpenak linguistikoak izan zirela oro har. 1970eko hamarkadan idatzitako historiografietan, ostera, hein batean aurreko ildoari jarraitzen bazaio ere (bereziki XX. mendea baino lehenagoko literaturaz aritzeko), itzulpenen balio literarioari buruzko gogoeta esplizitua agertzen hasten da. Adibidez, Sarasolaren *Historia social de la literatura vasca* (1976) lanean itzulpenen kopuruak aintzatesten dira, eta itzulpenek literatur testu gisa duten balioari buruzko gogoeta egiten da.

1976ko lan hori 1971n emandako *Euskal literaturaren historia* (Lur) lanaren gaztelaniazko bertsioa da, Jesús Antonio Cid-ek gaztelaniaz jarria eta Sarasolak zuzendua eta gainbegiratua, erdal irakurleak ezagutuko ez dituen alderdiak argitzearren (1976: 11-12). Bada, Cidek Sarasolaren gaztelaniazko lanari egindako hitzaurrean gaztelaniazko bertsioa beharrezkotzat jotzen du, euskal literaturaren ezaugarriak eta bilakabidea bestelakoak direlako gaztelaniazko literaturaren aldean, eta haren hitzetan, bertakoei dagokielako tokian tokiko literaturaren berri ematea (1976: 8). Cidek jarraian adierazten du gaztelaniazko irakurleak lehenago ere Mitxelenaren eta Villasanteren (1979) lanak bazituela, baina Sarasolak lan honetan euskal literaturaren bilakabidea euskal gizartearen bilakabidearekin lotzeko saioa egiten duela, eta hargatik dela interesgarri (1976: 8-9). Bada, liburuaren mamiari dagokionez, ordura arteko historiografietan garrantzitsutzat jotako hainbat testuri balio literarioa kentzea eta ordura arteko historiografietan literatur ikuspegitik balioetsi ez ziren testuak goratzea da Sarasolaren asmoa. Izan ere, haren ustez, literaturaren eta euskal testuen historia biak bat ziren ordura arte, eta irizpide linguistikoaren arabera aztertu izan ziren testu guztiak (1976: 31). Gisa berean, literatur eremuaren autonomizazioa dagokigun historia-lan hau idazten duen garaian gertatzen ari zela adierazten du, eta jakitun zen berak idatzitakoa autonomizazio horren eragile edo emaitza zela, alde edo moldez. Literaturaren historia egiteko irizpide literarioak aintzat hartu behar direla uste zuen, ordura arte egin ez bezala (1976: 57).

Ildo horretan, hainbat berrikuntza zor zaizkio Sarasolaren lanari. Aipatu dugu lehenago literaturaren ikuspegi soziala baliatzea. Casenavek hausturaren



kontzeptua baliatu izana ere aipatzen du (2012: 94): «Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, aldez edo moldez gertakizun politiko biri lotzen zaizkie» (Casenave, 2012: 94). Azkenik, literatur ekoizpena zenbatestea ere berrikuntza da; izan ere, argitalpenen kopuruak ematen ditu Sarasolak hitzaurrean txertatutako taula batean.<sup>8</sup> Bertan, itzulitako obrak ere zenbatzen ditu literatur ekoizpenaren barruan, nahiz eta ez duen irakurketa zehatzik egiten itzulpenek literatur ekoizpenean izandako lekuaz. Hala ere, ekoizpena kuantifikatzen eta sailkatzen aritu zeneko zailtasun baten berri ematen du Sarasolak laugarren kapituluaren bukaera aldera: «Otra de las clasificaciones fue obras originales/traduccionen. También esta clasificación presentó dificultades, debido al gran número de adaptaciones de obras escritas en otras lenguas que presenta la literatura religiosa vasca» (1976: 179-180). Bada, egokitzapenak literatur ekoizpenaren barruan jatorrizko sorkuntza-lanen edo itzulpenen artean sailkatzeko zailtasuna ageri zaigu pasarte horretan, eta, hortaz, hor ere sormenaren eta itzulpenaren artean definitzeko behar halako bat ageri da.

Berariaz aipatzen du Sarasolak badakiela euskal literaturaren historiografian itzulpen lanak sartu dituela, eta nolabait justifikatu egiten du, esanez gure literaturaren ezaugarriekin lotu beharrekoa dela, baina beste literatura batzuetan albo batera utziko lirakekeela egokitzapenak eta itzulpenak literatur historiografia batean (1976: 39). Ildo horretan, ordura arte literatur historiografietan kontuan hartutako zenbait lanen literatur balioa ukatzen du. Hain zuzen ere, itzulpenak direlako ezin dira sorkuntzarekin parekatu.<sup>9</sup>

Sarasolaren ustez, ez dago itzulpen-lanak eta sorkuntza-lanak zaku berean sartzerik, baina, fenomeno bitxi bat dakar ondoren: itzulpena bera baliatzen da lanen literaturtasuna balioesteko, lan bat itzultzea lan horren

<sup>8</sup> 1976ko gaztelaniazko bertsiorako, Ciden hitzaurreaz gainera, Sarasolak beste hitzaurre bat gehitu zion 1971ko lanari. Hitzaurre horretan hizpide ditu izenburuak eta autoreak izendatzeko baliatutako moldeak, «Euskal Herria» kontzeptu geografikoari buruzko azalpenak, euskal hitzun-kopuruen araberrako zonen sailkapena, dialektoei buruzko argibideak, literatur ekoizpenari, idazleen profilei zein euskal irakurleei buruzko datuak, Euskara Batuen historiari buruzko jakingarriak eta hizkuntza-molde hori darabilten obren eta idazleen joerak. Datu horietako asko (besteak beste, itzulpenen zenbatekoa) Sarasolak hitzaurrean bertan zehazten duenez, 1975eko *Euskal literatura numerotan* lanetik ekarriak dira.

<sup>9</sup> Hara zer dioen Leizarragaren lanez ari dela: «(...) no contienen apenas una página que no sea traducción. Por este motivo, no se puede comparar al escritor Leizarraga con el escritor Axular, como ahora algunos pretenden hacer, pues en la labor de traducción que realiza Leizarraga no existen posibilidades para la creación literaria. Otra cosa muy distinta es comparar la lengua de Leizarraga con la de Axular» (1976: 40-41).

legitimazio-bide da: «La obra de Axular ha podido ser traducida a otra lengua, como sucede con las obras maestras de todas las literaturas, lo cual no tendría sentido en el caso de Leizarraga» (Sarasola, 1976: 41). Beraz, lan bat itzuli egiten da balio literarioa duelako baina, era berean, testuak literaturtasuna galtzen du xede-eremuan txertatzen denez gero.<sup>10</sup> Are gehiago, itzulpenean ere agertzen diren zenbait auzi, sormen-testuetan estetikoki balioets daitezke Sarasolaren ustez; ez, ostera, itzulpenen kasuan. Halaxe egiten ditu Leizarragari buruzko zenbait irizpen,<sup>11</sup> edo Orixeren itzulpenei buruzkoak.<sup>12</sup> Ideia bera berresten du lanaren hirugarren kapituluan, euskal literaturaren ikuspegi eta planteamendu berriak azaltzen dituenean, itzulpenaren aipamenik egiten ez duen heinean. Betiere Sarasolaren jarrerari jarraikiz, beraz, literaturtasuna jatorrizko lanetan gordetzen da, eta ez itzulpenetan. Horrek ez du kentzen, ostera, itzulpen-testuak balio linguistikoa izatea eta hizkuntza lantzeko tresna izatea: «En lo que toca a la lengua, en cambio, no sucede lo mismo; “Orixé” conocía admirablemente el euskera y lo manejaba con igual maestría en las traducciones que en sus obras originales» (1976: 91).

Beraz, Sarasolak itzulpena bera baliatzen du itzultako obrek xede-eremuko literatur lan gisa izan dezaketen balio literarioa ukatzeko. Bada, azken hori paradoxikoa gerta daiteke, literatur lanen legitimazio-bidetzat ere jotzen duelako itzulpena;<sup>13</sup> halere, nolabait, behin lan bat itzulita, balio linguistikoa besterik ez du itzuli den eremuan Sarasolarentzat.

---

<sup>10</sup> Hona hemen beste adibide bat: «Desde un punto de vista estrictamente lingüístico, la obra de Leizarraga y otros autores está, en realidad, más lograda en algunos aspectos que la de Axular. No puede, en cambio, decirse lo mismo en cuanto al valor literario; desde este ángulo el caso del autor de *Guero* es excepcional dentro de la literatura vasca» (1976: 45).

<sup>11</sup> «Como Leizarraga, Axular era consciente del problema de la falta de unidad lingüística, y en este sentido se expresa en su prólogo «Irakurtzaileari». Pero Axular ha sido el primero, y último hasta ahora, en nuestra literatura, que ha sabido convertir este problema en un valor estilístico» (1976: 45).

<sup>12</sup> El escritor más importante de este período, lo que no quiere decir que sea el mejor, es Nikolas Ormaetxea «Orixé». En esa opinión concurren todos los críticos. Cuando se habla de «Orixé» es obligado decir que se trata de «el escritor más representativo de su tiempo» o que es «el mejor de los prosistas vascos»; pero, aunque muchos piensen lo contrario, no es serio atreverse a afirmar que es «el mejor autor de la literatura vasca». El caso de «Orixé» se asemeja en mucho al de Leizarraga. Si se analiza su obra con un criterio literario, sólo pueden tenerse en cuenta sus poemas y algún trabajo en prosa, porque todo el resto de su producción son traducciones. (Sarasola, 1976: 90).

<sup>13</sup> Loidiren obra katalanera itzuli izana legitimazio-bidea dela-eta aipatzen duelakoan gaude. Ideia hori Loidiren lana aipatzean errepikatzen da: berariaz zehazten da Loidiren

Itzulpenei buruzko gainerako aipamenak literatur ekoizpena kokatzeko darabiltza. Halaber, zenbait testu fundazionalen berri emateko egiten dira aipamen batzuk; esaterako, modu esplizituan ez badio ere, eleberrigintzaren lehen pausoez ari dela haxe dio:

Tras la traducción de una obra de J.B. Dasconaguerre, que apareció en 1870 con el título *Atheka Gaitzeko Ohiartunek* (=Ecos del paso malo), el ensayo novelístico de Elissanburu antes citado y la adaptación por A. Apaolaza de un relato de A. Trueba. *Pachito Txerren* (1890), la actividad novelística comienza con el siglo.

(Sarasola, 1976: 146)

Itzulpenak eleberrigintzaren bilakaeran izandako tartea ikusarazten du, eta antzeko zerbait gertatzen da saiakerari dagokionez. Hara zer dioen «La literatura actual» azpiatalean, saiakera hizpide hartuta: «Índice significativo de este proceso constituyen las traducciones de las obras de clásicos marxistas que comenzaron a publicarse a finales de los años 60» (1976: 175). Genero horretarako sarbide izan ziren, hortaz, itzulpenak.

Garai berean argitaratu zen Luis Maria Mujikaren *Historia de la literatura euskerika* Haranburu argitaletxearen eskutik. Mujikarenak, bere gainerako lanen artean,<sup>14</sup> ez du oihartzun handirik izan euskal ikasketetan. Badirudi kritikak eta ikerketak ez diotela lan horri tarte askorik eskaini, baina guk tarte bat eman nahi diogu hemen, aldez edo moldez itzulpengintzari buruzko aipamen sistematikotasunik gabekoen, zehaztugabeen zein gaitzesleen erakusgarri baita. Izan ere, kontraesanezkoa da, gure ustez, esaterako, Mujikak xedetzat jotzea «itzulpen baino» ez direnak ez aipatzea, baina itzulpenak sarri izatea hizpide.

---

obra jakin bat beste hizkuntza batera itzuli izana, obraren harrera onaren adierazle gisa: «José Antonio Loidi (1916). Farmacéutico. *Hamabost egun Urgain'en* (=Quince días en Urgain) (1955) novela policíaca bien estructurada de original desenlace, muy bien acogida por crítica y público. Ha sido traducida al catalán, *Quinze dies à Urgain* (1961)» (Sarasola, 1976: 158).

<sup>14</sup> Besteak beste, harenak dira *Diccionario General y Técnico* (Ediciones Vascas, 1977) gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania hiztegia eta Gipuzkoako hainbat herritako toponimia biltzeko lanak. 1982an, *Latina eta erromanikoaren eragina euskarari* (Sendoa) argitaratu zuen; 1985ean, *Euskal lirika tradizionala* (Haranburu); 1983an, *Lizardiren lirika bideak* (Haranburu); 1984an, *Miranderen poesigintza* (Haranburu). Literatur sorkuntzan ere oparoa izan da Mujika: eleberriak, poesia- eta ipuin-liburuak argitaratu ditu 1963az geroztik gaur arte. 1990eko hamarkadaren erdialdean, *Egan* aldizkariaren koordinazioa hartu zuen.

Oro har, itzulpenaren balio literarioa ukatu egiten da Mujikaren historio-grafian ere, eta sarreran itzulpenei tarterik egingo ez diela dioen arren («Nos parece impropio el nombrar a una gran cantidad de autores, que en realidad no son sino traductores de obras extranjeras o bien simples acomodadores de temarios religiosos», 8-9), eskaini eskaintzen die tarterik. Sarri aurki ditza-kegu itzulpeni buruzko adierazpide gutxiesleak; Sarako Etxeberriz ari dene-koa,<sup>15</sup> adibidez, non sorkuntza-literatura goratzeko, itzulpena ukatzen den. Xurioren lanak ere ildo berean iruzkintzen ditu,<sup>16</sup> «itzulpenak baino» ez direla esanez, bertako estiloan egindakoak «badira ere». Bestelako balioa esleitzen dio itzulpenari Mujikak, linguistikoa,<sup>17</sup> eta itzulpena ez igartzea goratzen da.<sup>18</sup> Nolabait, itzulpena hizkuntza zorrozteko tresna da, euskara lantzeko bidea, ez sormen-ariketa literarioa.

Hizkuntzazko ekarpena positiboa da kasu batzuetan: «Con todo, el hecho mismo de escribir supone, a veces, aportaciones positivas al cultivo del euskara, como en el caso de Pierre D'Urte o de Xurio» (1979: 179),<sup>19</sup> eta negati-boa beste batzuetan: «Muestra de ese idioma de “laboratorio” es esta traducción *indigesta e ininteligible* del “Padre nuestro”» (1979: 331) edo «Traduce a un euskara tortuoso esa obra, tantas veces vertida a nuestro idioma, de Kempis (...)» (1979: 338) dioenean, adibidez. Itzulpenen alderdi positibora igarota, poesian, esaterako, itzulpenek berrikuntzak ere ekarri dituztela ondoriozta daiteke Gazteluzarrez ari delarik eta itzulpenaren bidez metrika berriak landu direla dioenean.<sup>20</sup> Bestalde, «El “utilitarismo religioso” impulsa a los autores a

<sup>15</sup> «La obra euskérica de Etxeberri de Sara tiene valores intrínsecos. No se trata, como en algunos otros casos, de una producción de mera traducción o acomodación, su obra es original» (1979: 170).

<sup>16</sup> «Xurio es de destacar, junto a otros autores labortano-suletinos, por su estilo castizo, aunque sus obras solo constituyen traducciones» (1979: 177).

<sup>17</sup> Hemen argi ikus daiteke: «Aunque la producción literaria de Leizarraga (por ser traducción) no alcanza las cotas de la obra de Axular, tenemos en él un ejemplo válido de forjador del idioma, en situaciones más difíciles que hoy respecto a la validez *literaria* del euskera» (1979: 104).

<sup>18</sup> Adibidez: «El estilo de Xurio es natural, rico y transparente; no se notan forcejeos en su euskara» (1979: 178).

<sup>19</sup> Bide beretik egina da Ubillosen katiximaren izenburuari jarraitzen dion honako zehaz-tapen hau: «que no es sino la versión del catecismo de Fleury» (1979: 205); bada, esateko mo-duak garrantzia duela eta, kasu honetan bertsio hustzat jotzen du Mujikak, beste hizkuntza batetik ekarritako lanaren egokitzapena dela.

<sup>20</sup> «Sin duda, Gazteluzar es un poeta superior a Argiñarats, Harizmendi y Joanes de Etxe-berri, especialmente, por la variedad de sus ritmos. Tal variedad hace que la tendencia a la monotonía de las estrofas de Etxeberri, Argiñarats y de otros se vea en Gazteluzar remozada de

trabajos de versión o de simple acomodación» (1979: 179) bezalako aipamenetarik onduz geroz, egokitzapenak ere horixe dira, bertsiok edo moldaketa sinpleak. Etxekotzea gozatu da testu bat hizkuntzaz aldatzean, baina, era berean, egokitzapenak itzulpenetara lerratzen ditu, ez sormen-tesuetara.

Oro har esan dezakegu, hortaz, etapa honetan itzulpenaren balio linguistikoa balioesten dutela modu positiboan batik bat, baina zalantzak ageri dituztela, eremuaren beraren nolakotasunaren ondorioz, euskarara ekarritako testuen estatusaz eta kalitateaz. Izan ere, itzulpenak berak ukatuko luke literatura lan bat xede-hizkuntzako sistemakotzat ezin jotzea, eta hortaz, itzultitako obrak izan dezakeen balio literarioa. Edonola ere, itzulpenak legitimazio-bide dira sorburu-hizkuntzako testuen sistemarentzat, alegia, balio literarioa dutelako itzultzen dira literatura lanak, Sarasolak etapa honetako bere historiografian agertzen duenez.

Hasiak dira, beraz, literatura itzulpenari buruzko gogoetak literatura esparruan ere; ez, ordea, modu sistematikoan (paraleloan, baina, itzultzaileak ari dira beren esparruan diskurtso teorikoa lantzen). Besteak beste, gogoeta egiten dute itzulpenak literatura historiaren partetzat jo behar ote diren, eta zailtasunak ageri dituzte historiografoek itzulpenen eta sormen-lanen arteko mugak ezartzeko.

Ordea, azpierreuari buruzko eztabaidak agerian jartzen badira ere eta beste eremu batzuen aldean zer-nolako egitura duten adierazteko saioak egiten hasten diren arren, eta horrek pentsarazten digu literatura historiografien esparruan literatura itzuliaren azpierreuak bere eragina baduela, ez dago islarik oraindik paperezko pertsonailetan, eta jarraian dakargun etapara arte ez dago itzultzaile fikzionalik euskal literaturako lanetan.

---

mayor movimiento y claridad. Si bien en el origen de los muchos de los ritmos de Gazteluzar está el *latín litúrgico* de cantos e himnos, el hecho de salir de uno a dos modelos rítmicos hace que su poesía sea más espontánea y variada.

En el trasfondo de ciertos cuartetos, sextetos, etc. de Gazteluzar hay que ver una influencia (directa o indirecta) de cantos e himnos latinos. La misma labor de traducir los himnos latinos ha conducido a ciertos autores a seguir la métrica del original. En efecto, himnos como "*Pange Lingua*", "*Dies Irae*", "*Veni creator spiritus*", "*Jesus corona celsior*", "*Ave maris stela*" y otros han dejado impronta próxima, tanto en Gazteluzar, como en Aguiñarats (al menos, en parte). No se ha de olvidar que una buena parte de la poesía románica de España, Italia, Francia etc. comporta una influencia de los cantos litúrgicos latinos. Tampoco nuestra poesía, más tradicional, es ajena a tal influencia» (1979: 149).

## 5.2. 1985-1990: KOLEKTIBO PROFESIONALAREN KONTZIENTZIA HARTZEA ETA EGITURAK EGONKORTZEA ETA ESKUALDATZEA

Ekoi zen aurre egiteko antolatzearekin eta prestakuntza behararekin lotutako aurreko etapari jarraikiz, 1985-1990 bitartean hasi zen itzultzaile profesionalen kolektiboa sortzearen kontzientzia eta profesioaren estatusa goratu beharra. Orduantxe hasi zen euskal itzulpenaren eremua erakundetzen, eremuko praktikak eta eragileak profesionalizatzen, profesionalentzako hezkuntza berezitua sistemizatzen eta eremuaren erreferentzia espezifikoa eta kontsakrazio-agentziak sortzen. 1980an sortutako Itzultzaileen Eskola izan zen erakundetzearen abiarazlea: formazio-erakunde gisa sortu zen, eta gerora bertatik jaio zen 1987an EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreten Elkarte, eta bertan sortu ziren lehenbiziko itzulpen- eta ikerketa-proiektuak eta produktu espezifikoa sustatzeko proiektu sistematizatuak eta erakunde-sareak. Igela argitaletxea 1989az geroztik hasi zen itzulpenez soilik osatutako bere katalogoa eskaintzen. Nabarmenezkoa da, orduantxe hasi zela igartzeko euskal itzulpenaren pertzepzio sistemiko, soziologiko eta konparatistarako joera euskal literaturaren historiaren aritzean: adibidez, itzulpen-prozedurak Europako joerarekin lotzen dira, itzulpenek generoen bilakaeran izandako garrantziari buruzko gogoeta hasi zen, eta itzulpenen harreraz aritzean arrazoi soziologikoa aipatzen ziren Juaristiren historiografia literarioan (1987). Halaber, garaiko fikzioan eszenaritzen da itzultzailea: sasi-itzultzaileen forman Sarrionandiarenean (1985), hots, existitu ez arren agerrarazi egiten da; eta linbo antzeko batean kokatuta Joxe Agustin Arrietarenean, *Manu Militari* eleberraren sortze-prozesuaren berri ematen duten narratzaile polifazetiko gisa. Bestela esateko: «literaturarik ez bada, itzulpenaren bidez sortuko dugu» da, hein batean, idazlearen gogoan legokeena.

Zabalondok Itzultzaile Eskolak egindako ekarpenak zerrendatu zituen «Itzultzaile eskolen berri» dokumentuan (1988), eta komunikabideetan, administrazioan eta argitaletxeetan lanean dabiltzan profesionalak prestatu izanaz gain, honako hauek nabarmendu zituen:

Martuteneko Eskolak euskal gizartean izan duen eragina zabalagoa izan dela aitortu beharra dago alde batetik, lotura eta harreman estuak ezarri ditu, Galizia, Katalunia eta Madrilera itzultzaile elkarteekin, eta zenbait urrats eman ere egin du atzerrikoekin gauza bera egiteko; eta guzti honen ondorioz eta atergabe gure artean goraka joan den kontzientziaren eskariz, orain urte bete inguru EIZIE

(Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte) sortzeko beharrezko oinegituren parterik handiena atondu du.

(Zabalondo, 1988: linean)

Itzultzaile Eskola sortu izanak, hortaz, erakunde-sare bat sortzeko eta osatzeko bidea ireki zuen: horren argigarri da 1987an eskolako kideen ekimenez sortu izana EIZIE Euskal Itzultzaileen Zuzentzaileen eta Interpreteen Elkarte (Zabaleta, 1989: 64). Del Olmok azaltzen duenez:

Martuteneko esperientziatik abiatu, 1987. urtean Lurdes Auzmendik, Juan Mari Lekuonak, Xabier Mendigurenek eta Josu Zabaletak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte abian jartzeko akta sinatu zuten. «Urrezko Aroa» izendatu dugun aldia ezin uler liteke elkartearen eragintzarik gabe.

(Del Olmo, 2012: linean)

1988an egin zen elkartearen fundazio-biltzarra, eta 60 itzultzaile inguruk parte hartu zuten bertan; bada, bederatzi hilabetegarrenera 130 bazkide ziren «lau arlo nagusitan banatuak: administrazioa, komunikabideak, literatura eta interpretazioa» (Auzmendi, 1988: 237). Elkartearen lau ardatzetako bat zen literatura, hortaz. Hauexek ziren elkartearen hasierako helburuak: a) euskal itzultzaileei babes juridikoa eskaintzea eta lan-baldintzak hobetzea; b) euskarara eta euskaratik egindako itzulpenen kalitatearen alde egitea; c) askotariko literatur lanak euskarara itzultzea sustatzea; d) itzultzaileen prestakuntza hobetzea. Halaber, elkarteak bere egin zituen UNESCOren Biltzar Nagusiak itzultzaileen babes juridikorako 1976an egindako gomendioak. Gisa berean, EIZIE elkarteak garrantzitsu zeritzon beste elkarte batzuekiko harreman-sareak sortzeari:

EIZIE Elkarte bezala eratu aurretik, zenbait euskal itzultzailek bazituzten harremanak beste Elkarte batzuekin. Elkarteak harreman hauek duten garrantzia ahaztu gabe, harreman horiek sendotzea erabaki zuen eta pauso batzuk eman dira.

Beste Elkarteekiko harremanei dagokionez ekintzarik inportanteena Madril-en maiatzaren 6 eta 7an burututakoa da. Estatuko hizkuntzen arteko literatur itzulpenari buruzko jardunaldiak ospatu ziren APETI, APTC/LC, ATG eta gure partaidetzarekin, literatur itzulpengintzaren iragana, oraina eta etorkizuna aztertu zirelarik.

Estatuko Itzultzaileen Elkarteekin dauden harremanetaz gain, Europako beste zenbait Itzultzaile Elkarteekin ere harremanetan gaude, batez ere Europako Itzultzaileen Etxeen bitartez.

Puntu honetan aipatu behar da baita ere FIT edo Itzultzaileen Nazioarteko Federazioa. Izenak adierazten duen bezala, munduko itzultzaileen elkartearen Federazioa da hau eta gaur arte Estatu espainoletik ordezkari bat dago, APETI elkartekoa hain zuzen. Estatu espainolari bi ordezkari dagozkio federakundean eta bertan hizkuntzen ordezkari buruzko planteamendu berri eta zabalago bat egiten ez den bitartean, birekin jarraituko da, beraz urte honen buruan konpondu beharko da Estatu Espainoletik zein Elkartetako ordezkariak joango diren FITera.

(Auzmendi, 1988: 238-239)

EIZIE elkartearen bazkideen banaketa eta elkartearen helburuak ikusita, esan dezakegu literatur itzulpena hasiera-hasieratik izan dela ardatz garrantzitsua elkartearen egitekoetan, eta, esaterako, literatur itzulpenen bilduma abiaraztea izan zen proiektu estrategikoetako bat:

Edozein herrik bere hizkuntzaren eta kulturaren normalkuntza lortu nahi badu, ezinbestekoa da ondare unibertsala itzultzea. Zentzu honetan EIZIEk proiektu bat aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari ondare hori itzultzeko eta argitaratzeko. Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusi zuen proiektua eta denbora gutxian asko aurreratu dela esan behar da.

(Auzmendi, 1988: 239)

Halaxe sortu zen, hain zuzen ere, EIZIE elkartearen eta euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren zein euskal itzulpen-eremuaren, erdigunean kokatu beharreko *Literatura Unibertsala* bilduma.<sup>21</sup> Bada, sortu zen une bere-tik itzulpenen kalitatea eta itzultzaileen lan-baldintzak zaintzea izan du helburu EIZIE elkarteak bildumaren bidez; besteak beste, itzultzaileen izenak paratestuetan agerrarazita, zuzenketa-prozedurak ezarrita eta tarifa duinak ordainduta. Onura nabarmenak ekarri dizkio bildumak euskal literatura itzuliaren barne-eremuari, EIZIE elkartearen hitzetan:

Estas medidas han conseguido garantizar un elevado nivel de calidad en las traducciones de esta colección, y ello ha redundado en beneficio de los propios traductores, que han visto incluso prestigiados personalmente, de manera que otras editoriales vascas cuentan ya con un buen referente de calidad para las traducciones que quieren publicar, hasta el punto de que se puede afirmar que en la actualidad las traducciones literarias en lengua vasca están aportando un nivel reconocido tanto por los lectores como por muchos escritores en lengua vasca.

(EIZIEk utzitako barne-dokumentua)

---

<sup>21</sup> Bildumari buruzko jakingarriak jasota daude artikulu honetan: Ibarluzea (2013).



Sortu zenez geroztik, EIZIE elkarte euskal itzulpengintzaren eragile nagusia izan da, eta, dagoeneko aipatu dugunez, literatur itzulpena izan du ardatz nagusietako bat. Hala ikus daiteke, esaterako, elkartearen proiektuetan eta antolatuan dituen ikastaroetan. Besteak beste, literatur itzulpenen kalitatea zaintzea izan du xede, eta ildo horretan EIZIE elkarte beste eragile, agentzia, erakunde edo instantzia batzuekiko bitartekari, bidelagun eta aholkulari ere izan da literatur itzulpenari buruzko gaietan.

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren egituratzea erakundetzen eta sarea sortzen hasi zen itzulpen-eremu hartan kokatzekoa da, hortaz. Edonola ere, erakundetzeak beste erakunde batzuen mende egotea ere badakar, eta erakunde-aldaketa bat tarteko, Euskaltzaindiaren eskuetatik Eusko Jaurlaritzaren eskuetara aldatu zen Martuteneko Itzultzaile Eskola, eta, administrazioarekiko tentsioak eta gobernu-aldaketa bat gertatu zirelarik (Mendiguren Bereziartu, 1989: 20), eskola ez-ofizial hark antolamendua aldatu behar izan zuen:

Balantze bat egiteko orduan, fruitu guzti hauek ekipo lan emankorrari zor zaizkiola aitortu behar da, zenbait unetan lanerako indarrak eta ilusioak moteldurik geratu badira ere bultzatzaile izan beharko zuketean arduradun eta politikarien ulermen gabeziak eta zurrunkeriak, nahiz eta gerora hazirik erein gabeko sorotik uzta biltzeko prest agertu izan diren. Baina nekeak neke eta oztopoak oztopo, Martuteneko Itzultzaile Eskolak aro historiko bat bete eta burutu du, Gasteizen administrazio eta lege arloko itzultzaile-eskola bat nola sortu den ikusi du eta hasieratik bertatik esaten zenaren arabera, itzultzaileen prestakuntza bere gain hartu beharko lukeen Unibertsitate ekimenaren erantzunaren zain geratzen den bitartean, urteroko birtziklai edo prestakuntzaldiak antolatzeari hobetsi dio.

(Zabalondo, 1988: linean)

Eskolaren proiektu garatua aurrera atera ezinda (Mendiguren Bereziartu, 1989: 21), ordutik aurrerakoan, eskolaren azken urteetan (1988-1989) urtebeteko «Idazketa-eta Itzulpen Ikasturteak» eskaini zituen: UBI eta EGA ikasketak mailak gairatuta zeuzkatenentzako ikastaroak ziren, eta «ikastaldiaren helburua euskara sakontzea eta aberastea da lehenik, testu mota desberdinak idazteko erraztasuna lortzea eta gaztelaniazko testu pragmatiko eta literarioak itzultzen ikastea, horretarako beharrezkoa den hornidura teorikoa ere eskeinitz» (Zabalondo, 1988: linean). Mendiguren Bereziarturen hitzetan, ikastaro haietan «hizkuntza eta idazketari buruzko sarreraren ondoren, ikasturtearen gainerakoa testu pragmatiko eta literario mailakatuak itzultzeak eta zuzentzeak hartzen du denborarik gehiena» (1989: 23); bidenabar, orduko ikastaldi haietan ere bazuen tartea literatur itzulpenak.

Aurrerantzean, baina, ez zuen eskolak bide luzeagorik egin: itzultzaileen prestakuntza ez-ofizialean hainbat urteko bidea eginda, Martuteneko Itzultzaile Eskolak atek zituen, eta itzultzaileen prestakuntzarako bideak beste batzuk izan ziren orduz geroztik. Nolanahi ere den, eskolak sustapen-lanak egin zituen EIZIE elkarte sortu berriarekin batera, eta elkarriketak abiarazi zituen, esaterako, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, itzultzaile-ikasketak arautzeko aurreproiektuei ekiteko (Zabaleta, 1989: 62). Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez zuen lankidetzarik eskaini; UPV/EHUarekin, ostera, lankidetzari hasi zuten EIZIEko, Itzultzaile Eskolako eta HAEEko Itzultzaile Eskolako ordezkariak: «Itzultzaile ikasketen diseinua. Euskal Herriko Unibertsitateari Proposamendua» ikasketadiseinua ondu zuten (EIZIE *et al.*, 1989: 77-100). Euskarazko itzultzaile-ikasketak hizkuntzaren beraren testuinguru soziolinguistikoa kontuan harturik beste hizkuntzetako itzulpen-ikasketak ez bezala antolatu beharra aldarrikatzen zuten (*idem*).

Martuteneko Itzultzaile Eskolaren itzulpen-irakaskuntzarako ahaleginek emandako fruituez ari da Zabaleta 1989an: «Gaur arteko ikasketa eta irakaskuntza ahaleginek fruitua izan dutela dudarik ez dago. Itzultzaile ikasketak Euskaltzaindiaren eraginez formalizatzen hasi zirenetik hona euskal itzulpen-gintzak, fenomeno sozial bezala, berebiziko aldea egin bait du» (Zabaleta, 1989: 63). Itzultzaileen Eskola zein bestelako ikastaroak «elkarrekiko topagune eta bakartasunaren hausle, itzultzaile kolektiboaren egituratzaile» izan zirela ere badiu (*idem*: 64). «Kolektibo» bat sortu izanaren kontzientzia zuten, beraz, eskola hartako parte-hartzaileek, eta hori euskal itzulpen-eremuaren egiturak sortzen hasi eta autonomizatzen hasi izanaren zantzu gisa interpreta daiteke. Horrez gain, Zabaletak berak loturik dakusa ikasketak eta profesioaren estatusa:

Itzultzaile statusaren duintasunari dagokionez, ikasketa mailarekin lotura estua du, zalantzarik gabe. Hain zuzen ere, euskal itzultzaileen artean egin diren inkestetan puntu honi buruz galdetu izan denean, eman izan zaizkion erantzunetan ikasketak lotuago agertu izan dira statusarekin prestamenarekin baino, ikasketen definizioak baino titulazioa eskatzen bait zen lehenago: lizentzia edo diploma titulua. Tituluaren latria bultzatzen den gizarte honetan, euskaldungoaren gehiengoak elebidun delarik, hizkuntz ereduaren zalantza eta definiziorik ezarekin uneoro topo egiten dela, ez da harritzekoa itzultzaileen artean halako gora nahi bat, bere statusa zalantzak uki lezakeen sailetik ateratzeko nahi bat somatzea.

(Zabaleta, 1989: 71)

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizazio erlatiboaren beste adierazle bat berariazko kontsakrazio-agentziak agertu izana da. Bada, 1989an Garmendiak aurreratzen zigunez: «Ugalduz doaz azken urteotan Euskal Herrian itzulpengintzaren inguruko sariketak, beka, dirulaguntza eta honelakoak» (Garmendia, 1989: 237): Euskadi Saria, Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa, Orixe Saria, Bizkaiko Aldundiaren saria, Eusko Jaurlaritzaren bekak eta Literatur ondare unibertsala euskaratzeko proiektua zerrendatu eta azaldu zituen (Garmendia, 1989).<sup>22</sup> Horiek guztiak modu sistematiko samarrean antolatutako sariketak izan ziren (batzuek gaur egunera arte iraun izana da horren adibide).

Talde-kontzientziak zein kontsakrazio-agentzien jardunak balioa ematen diote eremu baten kapitalari, eta kapital horren balioespena egiten du, hein handi batean, literaturaren soziologiak. Bada, hain zuzen ere ildo horretan idatzitakoa da Juaristiren 1987ko *Literatura Vasca*, zeinak ikuspegi konparatista eta Mitxelenaren hautu historiko-soziologikoak darabiltzan eta Sarasolaren lanean oinarritzen baita (Casenave, 2012: 72). Izan ere, Sarasolaren esanei lotzen zaie Juaristi hainbat eta hainbat iruzkin kritiko egiteko. Sarasolaren historiografia ikuspegi soziologikoa aplikatzen duen historiografia-eredutzat jotzen du Juaristik, eta hala adierazten du zehazki bere lanaren amaieran (Juaristi, 1977: 148). Sarasolak egin bezala, Juaristik euskal literaturaren barruko hausturak eta eztabaida-uneak baliatzen ditu bere historiografia ardazteko.<sup>23</sup> Horrez gain, nabarmentzekoa da XX. mendeko ekoizpenari egiten diola arreta batez ere (Casenave, 2012: 72-73).<sup>24</sup>

Idazleen ideiak eta ideologia dira ardatz Juaristiren historiografian, eta historiografoak gogoeta egiten du testuetan islatzen ote den autoreen ideologia, eta, gainera, kontuan hartzen du idazleen posizio soziologikoak eta ideologikoak obraren harreran izandako eragina.<sup>25</sup> Ildo horretatik egindakoak dira

<sup>22</sup> Hurrengo etapetan etorriko ziren Gasteizko Udalak Haur eta Gazte Literaturaren alorreko itzulpenak saritzeko abian jarritakoa eta UPV/EHUko Letren Fakultatean ikasleentzat antolatzen zen Félix Ugarte itzulpen-leihaketa.

<sup>23</sup> XVI. mendeko sorginen errepresioa, XVIII. mende bukaerako eta XIX. mende hasierako kontserbadoreen eta progresisten arteko haustura, eta, azkenik, XIX. mende bukaerako Unamunoren eta Aranaren arteko borroka ideologikoa.

<sup>24</sup> Izan ere, XX. mendeari buruzko kapitulua 94. orrialdean abiatzen da. Kontuan harturik «Historia» atalak 13-134 orrialde-tartea hartzen duela, euskal literaturaren historia osoaren herena hartzen du XX. mendeak (bi heren, oster, XVI.-XX. mendeak).

<sup>25</sup> Adibidez, Odon Apraizen itzulpenaz egindako aipamen hau: «La tendencia representada por *Arrats-beran*, que intentaba conservar el nivel de autonomía de la lengua poética alcanzado por los poetas nacionalistas sin renunciar a nutrirse de fuentes tradicionales, no tuvo se-

itzulpenei buruzko aipamenak ere;<sup>26</sup> izan ere, Juaristik itzultitako lanen harreari erreparatzen dio, eta itzulpen-prozedurei buruzko gertakariak beste mugimendu literario batzuekin erkatzen ditu. Juaristik bereizi egiten ditu egokitzapenak, itzulpenak eta sorkuntza-lanak. Juaristirenean ageri zaizkigu, halaber, gaur arte iraun duten itzulpenari buruzko hainbat ideia: batetik, itzultzaileen egoera periferikoa agertzen digu zenbait itzultzaileekin lotuta,<sup>27</sup> eta, gainera, arrazoi soziologikoak ematen ditu harrera-urritasuna azaltzeko. Bestalde, poesia poetek itzuli behar dutelako ideia ere agertzen da Juaristirenean. Zalantzan jartzen du Juaristik ordura arte jatorrizkotzat jotako hainbat testuren orijinaltasuna, eta, euskal literaturako gertakariak Europako eta Espainiako literatur mugimenduekin lotzeko edo ezberdintzeko saiakeran, ahozko literaturaren kapituluan ahozko testu batzuk itzulpenak izan daitezkeela aipatzen du.<sup>28</sup> Hargatik, baina, ez die itzulpenei balio literarioa ukatzen, eta euskal literaturaren historiako testu fundazionaltzat jotzen ditu hainbat. Literatur eremu beraren barruan sortu eta gaztelaniatik euskarara isuritako lanak ere aintzat hartzen ditu,<sup>29</sup> bai eta berritzulpenak edo porrot egin duten itzulpenak ere.

Beraz, Juaristik itzulpenei buruz egindako aipamenak aurreko historiografetako aipamenekin erkatuta esan dezakegu itzulpenari buruzko ideia sistemikoagoa (baita soziologikoagoa ere) ageri duela, oro har.

---

guidores. Como no tuvo tampoco el acercamiento iniciado por “Lauaxeta” a la poesía de expresión castellana: únicamente –y como dato curioso– merece mencionarse, en esa misma línea, la traducción que el alavés Odon Apraiz hizo del poema de Alberti *Un fantasma recorre Europa* (1933), el mismo año de la publicación de *Arrats-Beran*. Pero Apraiz no era un poeta; por otra parte, el hecho de militar en un sector disidente del nacionalismo y situarse en un contexto marginal respecto a los circuitos de difusión de la literatura euskérica impidieron que su iniciativa tuviera continuidad alguna» (104).

<sup>26</sup> Begiratu, adibidez, itzulpen bibliko europarren eta euskaldunen kokatzea eta erkatzea 39-43. orrialdeetan.

<sup>27</sup> XIX. mende bukaerako euskal literaturaren pizkundeaz ari dela, prosa-idazleen kokagune subalternoa gogorarazten digu Juaristik, eta zehatzago, Klaudio Otaegi itzultzailearen kasua.

<sup>28</sup> Baladez ari dela («Hiru Kapitainak», «Ura ixuririk», «Bordatzen ari nintzen»), itzulpenak izan daitezkeela proposatzen du: «se parecen sospechosamente a los temas correspondientes de la baladística francesa y sugieren la posibilidad de que se trate de traducciones tardías, realizadas probablemente en pleno siglo XIX» (1987: 20). Aurrerago ere proposatzen du halakorik Barrutiak idatzitako *Acto para la Nochebuena* (ca. 1710-1750) antzerki-lanaz ari dela: «Las discalías y los nombres de los personajes, en especial los de los papeles típicos o *empleos* (criado, mesonero, gracioso, etc.), van en castellano, lo que sugiere que, en parte al menos, pueda tratarse de una adaptación de alguna obra escrita en esta lengua» (61).

<sup>29</sup> Aranak gaztelaniatza idatzi eta euskarara itzularazitako kondairak aipatzen dira 88. orrialdean, esaterako.

Itzulpenari lotutako eragileen talde-kontzientziak, eremuaren beraren eraikuntza gero eta agerikoagoa eta albo-eremu baten historian itzulpenak egindako ekarpena gero eta gehiago aitortzen den modu berean, gero eta ikusgarriago bihurtzen da itzultzailea euskal idazleek paperera eramandako pertsonailetan. Dena den, oraindik ere muga lausoa denez gero, itzulpenarekin lotura estu-estua duten idazleen artean ageri da, eta pertsonaien izaera lausoa da oraindik. Halaxe gertatzen da, esaterako, Sarrionandiaren eta Arrietaren literatur lanetan.

Sarrionandiaren itzulpenarekiko atxikimendua, jarduna eta usteak ezin uler daitezke idazlearen gainerako jardunarekin eta bizi izandako gizarte-egoera historikoarekin, politikoarekin eta kulturalarekin lotu gabe, eta, batez ere, bere literatur ibilbidea ulertu gabe. Izan ere, literatura ulertzeko eta egiteko moduarekin lotzen du itzulpena Sarrionandiak, eta, beraz, garai jakin bateko gizarte-beharrizan bati erantzuteko bidea izateaz gain, jolas gisa ere erabili izan ditu sormenaren eta itzulpenaren arteko muga, itzulpen apokrifoa eta fikziozko itzultzaileak. Gainera, autoretzaz gogoeta egiteko bidea jorratu du bere itzulpen-esperientzietatik abiatuta. Idazle garaikideenean gertatu ohi den moduan (Ibarluzea, 2015), arrazoi literarioengatik hautatu izan ditu euskararako itzulgaiak Sarrionandiak (enkarguz euskarazko itzulpen bakanen bat argitaratu du Iurretakoak, eta ez da hala izaten itzultzaile profesional gehienen kasuan, enkarguz aritzen baitira). Baina bestelakoa izan da haren jardunbidea beste hizkuntza batzuetako itzulpen-eremuetan: ogibidetzat jo izan du beste hizkuntza batzuetan egindako itzulpena (Ibarluzea, 2016: 164).

Gorago genioenez, jolas literario gisa ulertzekoak dira, beraz, autorearen itzulpenaren fikziozko errepresentazioak. *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* Sarrionandiak irakurri eta itzultitako olerkien bilduma unibertsala da, hainbat hizkuntza eta garaitako testuak biltzen dituena, munduko poesiaren katalogo pertsonal halako bat; baina egiazko itzulpenekin asmatutako idazleei egozten zaizkien asmatutako itzulpenak ere tartekatzen dira. Jolas egiten du idazleak irakurlearekin, eta horixe aitortzen du autoreak berak 2013an erantzun zigun galdetegian, eta bat dator Jakak (2012) idazle iurretarraren itzulpen-jardunaren eta gogoetaren inguruan egindako tesian azaldu eta ondorioztatutakoarekin:

*Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* eta *Hezurrezko xirulak* liburuetan, oster, halako pertsonaia asmatu batzuk agertzen dira. Nahualtetik euskaratutako testu baten itzultzailea, esate baterako, Jose Ramon Negrete. Autoretzaren kontzeptua apur bat urtzeaz batera, oraindik ere erbestean dagoen lagun bati bere

izena eta ezizena baliatuta adarra jotzeko. Bestalde, itzultzea bera fikzio gai gisa erabili dut batzuetan, *Kartzelako poemak* liburuan esate baterako, hiru poema ematen dira testu txino baten hiru bertzio zeharo diferente emanez.

(Sarrionandia, 2013)

Arestian aipatutako tesi-lanean Jakak Sarrionandiaren sasi-itzulpenak eta sasi-itzultzaileak agerrarazi zizkigun, eta aztergai dugun *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* bilduman badira horietarik zenbait; batetik, Mohammed Al-Kali ustezko poeta bati egozten zaizkionak, eta, bestetik, Apollinaire Babiol izeneko poetari egozten zaizkionak:

Liburuaren hitzaurrean bertan aitortzen du Sarrionandiak poema itzulien artean apokrifo batzuk ere badaudela, baina lehen begiratuan behintzat ez da erraza sasi-itzulpenak benetako itzulpenetatik bereiztea. Mohammed Al-Kali ustezko poeta afrikarraren hiru poemak, adibidez, ez dira beste hizkuntza batean idatzitako sorburu-testu baten itzulpenak, Sarrionandiak berak asmatutako poemak baizik. Testu horiek, ordea, beste poema itzuli batzuen artean aurkezten ditu, itzulpenak balira bezala, eta fikziozko autoreari buruz ematen duen informazioa benetako autore batzuen inguruan ematen duena bezain sinesgarria denez, benetako autore baten poemen itzulpenen aurrean dagoela sinetsarazten dio irakurleari. Beste liburu batean aitortzen du Sarrionandiak Mohammed Al-Kaliri egotzitako poemak apokrifoak direla, *Gartzelako poemak* (1992) liburuan, hain zuzen. Izenburu desberdinez eta zenbait gauzatxo aldatuta bada ere, *Izkiriaturiken* argitaratutako Al-Kaliren hirugarren poema ematen du *Gartzelako poemak* liburuan, eta bertan aitortzen apokrifoak dela: «Apokrifoak, Mohammed Al-Kali poetari atxekia» (Sarrionandia 2003: 39).

Apollinaire Babiol da *Izkiriaturiken* ageri den beste poeta apokrifo bat.

Kasu honetan, Sarrionandiak ez du autoreari buruzko inolako argibiderik eskaintzen. Badirudi Guillaume Apollinaire eta Apolinar Bilbao izenak nahastuta sortu duela Sarrionandiak autore apokrifo hau.

(Jaka, 2012: 263-264)

Batetik, eta Jakak azaltzen duenez, itzultitako poemen artean sasi-itzulpenak txertatzearen motibazioa jolas literarioa da Sarrionandiarenean; hain zuzen ere, «sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa garbiaren ideia tradizionala hankaz gora jartzeko erabiltzen dituen jolasetariko bat dela baieztatzen ausartuko ginatke» dio Jakak (2012: 264), eta «Horrela, gogorazten du 'poema orok aurreko poemagintzan du[ela] erroa' (Sarrionandia, 1981: 6), poema original oro jadanik itzulpena dela, alegia, itzulpen oro

beste testu baten birsorkuntza originala den bezala» (Jaka, 2012: 265). Sarrionandiak Jakaren ustea berretsi zigun; alegia, fikziozko itzultzaileen funtzio literarioa, nolabait, goragoko aipuan aitortzen duenez, «autoretzaren kontzeptua urtzeko» eta «lagunari adarra jotzeko» darabilela (Sarrionandia, 2013).

Bestalde, nabarmentzekoa da autorearen joko literario hori ez dela liburu bakarrera mugatzen, Sarrionandiak liburuen segidan ematen ditu pistak, nolabait, bere obra osoari jarraitutasuna emanez eta lan bat besterekin lotuz. Hain zuzen ere Sarrionandiaren habitusari buruzko artikulu xeheagoan azaltzen genuenez (Ibarluzea, 2016: 157), konstante bat da itzulpena iurretarraren literatura ibilbidean, ez soilik unean uneko jarduera: «Nik literaturarekin lotuta egin ditut itzulpen ahalegin asko. Irakurtzeko edo idazteko modu bat izan da niretzat itzulpena. Itzultzea lan moduan hartu ez arren, orain egindako itzulpenen zerrendari begiratzuz konturatzen naiz asko direla» dio (Sarrionandia, 2013).

Jolas literarioa izateaz gain, itzulpena «behar sozial bati erantzuteko» bide gisa ere bizi izan du Sarrionandiak, eta, beste hainbat autorearenean gertatu bezala, itzulpenaren praktikan eta funtzioetan hainbat aro bizi izan dituela esan dezakegu, literatur eremuaren eta itzulpen-eremuaren autonomizazioari loturik:

Laurogeiko hamarkadan batez ere euskal literaturari gorputza emateko xedeak bultzatzen ninduela esango nuke: idazlanak, itzulpenak, apokrifikoak eta abar, horretarako ziren. Ez dadila hori sakrifizio moduan ulertu, zeren batzuek dikotomia moduan planteatzen dituzte zeregin sozialak eta dibertsioa. Nik, ostera, oso ondo pasatu nuen, esate baterako, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* prestatzen: «hau euskal literatura da» proposatuz testu itzuliak eta apokrifikoak ere atontzen nituen artean.

(Sarrionandia, 2013)

1980ko hamarkadaz geroztik, beraz, aldatuz joan da itzulpenari buruzko praktika (itzultzaile zein koitzultzaile gisa), gogoeta eta errepresentazioa iurretarrarenean.<sup>30</sup>

Sarrionandiak bezalaxe, harreman luzea izan du Joxe Agustin Arrietak (1949) itzulpenarekin, «bai lantokian ofizioz, bai etxean afizioz» (Arrieta, 2013). Idazletzan etengabe jardun izan du 1979az geroztik gaur arte, baina

---

<sup>30</sup> Ikusi Sarrionandiaren itzulpen-habitusari buruzko xehetasun gehigarriak: Ibarluzea (2016).

baita itzulpenean ere: oparoa da hark itzulitakoen zerrenda.<sup>31</sup> Idazle-itzultzaile ziklikotzat jotzen du bere burua, sormena eta itzulpena tartekatatu ditu bere ibilbidean, ia-ia txandaka:

Nik uste dut neure bizitza ia guztian barrena idazle-itzultzaile eta itzultzaile-idazle izan naizela beti, ziklikoki. Erabat lotuta daude eginkizun biak nire kasuan, bata bestetik ezin bereizi ahal izateraino ia. Literatur itzulpengintzari dagokionez behintzat liburu bat itzuli, liburu bat egin, itzuli, egin... horrela ibili izan naiz beti, txandaka.

(Arrieta, 2013)

Genioenez, Arrietak 1982az geroztik eta erretiroa hartu arte itzultzaile jardun du lanbidez, eta honela azaltzen du bere itzulpen-jarduna:

Itzultzaile profesional gisa (nahiz eta, berez, «gestore administratibo» kategoria profesionalarekin) eman ditudan hogeita hamar urteetan milaka orri eta ehunka liburuxka euskaratu ditut, alor, erregistro eta estilo askotarikoak: txosten juridiko nahiz ekonomikoak, marketin-kanpainak, gutun komertzialak, haur eta gaztetxoentzako album-bildumak, eta abar. Horietako batzuk azaltzen dira, hain zuzen, Interneten ere eskuragarri dagoela uste dudan nire itzultzaile-fitxa teknikoan (...), nire izena datorrelako espreski adierazita Aurrezki Kutxaren argitalpen jakin horietan; baina «Kutxako Euskara Zerbitzua» aipatzen den gainerako liburu, memoria eta abarretan ere nire lana dago hor azpian, itzultzaile eta zuzentzaile modura. Literaturaren alorrean, berriz, neure kabuz eta gogoz, honako obra hauek itzuli ditut: *Hadrianoren oroitzapenak* (Marguerite Yourcenar), *Eulien ugazaba* (William Golding), *Homo Faber* (Max Frisch), *Beirazko giltzak* (Jaume Fuster) eta *Denbora galduaren bila-Swann-enetik* (Marcel Proust).

(Arrieta, 2013)

Hortaz, itzultzaile ziharduen *Manu Militari* eleberria plazaratu zuenean. Hainbat narrazio-mailatan ematen du Joxe Agustin Arrietak *Manu Militari* eleberria (eta horixe nabarmendu izan du kritikak batez ere): Iñakiren (soldaduska egiten ari da) eta Izaskunen (Donostian dago, ikasle) arteko gutunak ditugu oinarrian, eta horien bitartez ematen da Euskal Herriko diktadura-sa-

---

<sup>31</sup> Ikusi Arrietaren itzulpen-uzta «Nor da Nor» katalogoan: <http://nordanor.eus/nor?id=331>. Bestalde, bere lanak autoitzuli edo koitzuli ditu, baina autoitzulpenaren langintza ez du batere gustuko: «Neure testuak nik neuk itzultzea ez dut batere gogoko: arbuiaipen moduko bat sentitzen dut neure baitan horrekiko... Gaztelaniaz oso ondo dakit, noski, baina... ez, ez dut neure burua hor ispalatuta ezagutzen» (Arrieta, 2013).



soia bizi izan zuen gazte-belaunaldiaren berri (1970eko hamarkadakoak dira gutunok). Gutunak, baina, beste narrazio-maila batean agertzen diren pertsonaiek transkribatzen, ematen edo kontatzen dituzte.

Olaziregik azaltzen duen moduan, «narratzeko ekintzari buruzko gogoeta planteatzen du. Horregatik esan genezake metanobela bat dugula aurrean, hots, kontatzea bera kontatzen duen eleberria» eta «oinarri autobiografiko ukazina du». Horrez gain, «eleberriak intertestualitate zabala du, hainbat *collage* eta *pastichez* osatua» (Olaziregi, 2002: 102-103). Aukera narratiboak sortzen ditu intertestualitateak, eta, hala, «narratzailea eraldatu egiten da, eta hurrenez hurren bilakatu zinema zuzendari, Erdi Aroko monasterio bateko eskribau, telefilm poliziako bateko detektibe..., eta testuinguru horietako bakoitzean Iñakiren eta haren neska-lagunaren arteko gutunak transkribatzen ditu» (*idem*). Arrietak darabiltzan narrazio-mailei esleitu izan zizkien funtzioak laburbiltzen ditu J. Rojok:

Bi maila horien presentzia, bestalde, zenbait erataro agertzen da liburuaz aritu direnek argitaratu duten bibliografian. Batzuetan, anekdotaren atala liris-moarekin lotzen da, eta idazketaren kontraera, ostera, metaliteraturarekin (Kortazar 1987); beste batzuetan, esaten zaigu maila bitan ematen dela normalean irakurleari batera ematen zaion diskurtsoa: bi mailen bidez «zer esaten den» eta «nola esaten den» zeharo desberdintzen dela (Lasagabaster, 1987).

(Rojo, 2008: linean)

Nolabait, narratzaileak pertsonaia metaliterarioak dira, eta eleberriaren sortze-prozesuaren berri ematen dute; halaber, gutunen testuingurua argitzen eta zehazten dute. Esaterako, zinema-zuzendari gisa agertzen diren narratzaileek eurek definitzen dute, autoreak eleberri hau eraikitzeke edo literatura egiteko duen modua:

–Zeren-eta literatura, adiskideok, lehen esan dizuedan bezala, historia bakar batean baitan korapilaturiko sub-historien intra-historiak atxekitzeko ahalegin zoroa bait da. Edo, beste era batera esanda, ontogenia bat, inexistenziatik existentziarako iragaite neketsu bat; konbentzionalkiago esanda: kontzientzi hartze bat. Ulertzen al duzue, ene arimakide konsustantzialok? Ulertzen al duk hik, Fallini, voyeur inpenitente horrek? Eta hik, Fillini, Hitzaren amorrante ozar harrosko horrek? Eta hik, Fullini, tunel-egile etsi-erraz ohore-gose horrek? Eta hik, Follini, Eros eta Eroaren arteko erroitz hondargabeen gaindi ibilzale horrek?

(Arrieta, 1987: 355-356)

Eta zehazki Fallini, Fillini, Follini, Fullini... narratzaileak, eleberriaren sormen-prozesuaren berri ematen duten narratzaile horiek, interesatzen zaizkigu, autoreak berak azaldu zigunez, narratzaile imaginario horiek baitira sormen-prozesuan itzulpen-lanak ere egiten dituztenak: «*Manu militari* izeneko nire nobela hartan (1987), fantasiako zenbait pertsonaia-edo azaltzen ziren jatorrizko testu batzuk transkribatzen... eta itzultzen: jatorrizkoa beste hizkuntza batean baitzegoen» (Arrieta, 2013).

Edonola ere, narratzaileok ez dira «itzultzaile» izendatzen; zinema-zuzendaria dira, eta «idazkari» (21. or.), «textuen arduradun» (25. or.) eta «kopista» (26. or.) esaten diete elkarri, besteak beste. Gure ustez, bada hor garaiko itzultzailearen profilaren isla: askotariko lanbideetan jardundakoak lotu zitzaizkion itzulpenari; bestalde, itzulpenaren «definizioarik ezaren eta ikusezintasunaren» zantzua ere azaleratzen da, hurrengo pasarte honetan are nabarmenagoa dena:

–Mesedez eta faborez, Fillini, ez hadi berriro hasi heure intransigentziekin. Iritsiko duk hire txanda, hago lasai. Gainera, heuk ere baduk partea bai esena honetan baita zita textualak aipatuko ditugun guztietan ere, arraioa; filmearen hasierako errotulazioan garbi asko esana diagu nor den textuen arduraduna, ez al duk ikusi? Ba ezin nabarmenago ziagoan, gizona, letra handiz idatzia: «Textuen itzultzailea: Cesare Fillini». Ez a duk aski, eh? Ez al deritzok behar adinako ohorea? Edo zer? Nire izena baino letra handiagotan azaltzea nahi huelako al habil muxinka? Hori al duk arraioa, eh?

–E. Baina, egia esan, ez duk oso bidezkoa izan hire jokabidea. Ni ez nauk «itzultzailea» bakarrik, «textuen hautatzaile-moldatzaile-egokitzaila» baizik.

–Baina nola nahi duk holako disparate hutsezko titulua jar dezagun? Hi burutik al hago?

(Arrieta, 1987: 21)

Itzultzailearen estatusa onartu beharraren antsietatea islatzen da, beraz, pasarte horretan. Itzulpenaren indefinizioari gagozkiolarik, ez da soilik jarduera edo produktua izendatzean ageri, itzulpena bera definitzeko ezintasuna maila teorikoan ere ageri da, idazleak gaiaz gogoetatu duelako seinale:

–Mesedez, mesedez, ez dezagun patxada galdu. Batzarre eraikitzaile bat izan dadila honako hau eta ez elkarri destainak egoztekoa. Oraindik garaiz gabiltzak: gidoia badiagu, bitarteko teknikoak ere bai. Itzulpen-problema bat da, jaunak; ez itzulpen linguistikoa, zeren alderdi hori soluzionaturik bait dago; itzulpen-problema bat, egitura epistolar batetik egitura narratibo batera...

(Arrieta, 1987: 18)

Transkribatuz, itzuliz, itzulpenaren definizioa auzitan jarritz... argi dago narratzaileek eleberriaren beraren sorkuntza-prozesuaren berri ematen dutela, eta sormen-prozesu hori itzulpen-prozesua ere badela hein handi batean: lehenbizi, autorearen barrenean gertatzen den itzulpen-prozesua (kontatu gura den hori literatur testu bihurtzekoa); bigarrenik, gutunetatik eleberrirako itzulpena, narratzaileek eurek egiten dutena; eta, azkenik, baita hizkuntzen arteko itzulpen-prozesua ere, idazketarekin berarekin zerikusia duena eta egoera diglosikoan are nabarmenagoa dena.

Izan ere, hizkuntzaren egoera diglosikoa da eleberriaren ardatzetako bat, eta hizkuntzen arteko interakzioa etengabea da. Gaiarekin lotuta, Rojo kritikariak dio «nobela hau diglosiatik idatzitako nobela dela, eta idazleak ez du egoera hori ezkutatzeko saiorik egiten. Are gehiago diglosia bera erabili egiten du nobela eraikitzean» (Rojo, 2008: linean). Ez dira, ordea, euskara eta gaztelania eleberrian agertzen zaizkigun hizkuntza bakarrak, frantsesez, ingelesez zein alemanez tartekatzen dira esamoldeak, testu zatiak, olerkiak, kantak...<sup>32</sup> Hizkuntza-aniztasuna egonagatik, baina, hizkuntzari buruzko gogoetak euskarari buruzkoak dira oro har: herri-etimologiak (263. or.), esamolde jakinei buruzko gogoetak («Hi eta biok»: kurioa duk gure hizkuntza, hi eta biok hiru gaituk-eta», 358. or.), garbizaletasunari buruzkoak (408. or.); «h»-aren erabileraren auziarekin lotutakoak (426. or.)...

Eleberriak jasotzen duen garaiko gizartearen egoera diglosikoari gagozkio-larik, batzuetan, narratzaileek eurek ematen dute egoeraren berri. Jarraian dakargun adibidean, esaterako, G. Grassen eleberri batetik *Manu Militarira* ekarritako pertsonaia danbor-jotzailea ari da narratzaile-lanetan:

–Ah, deus ez, nahastu egin naizela hizkuntzaz. Izan ere, hain herrialde txiki nimiñoa zarete, hiru hizkuntza izan, bat «mini» eta beste biak «maxi», eta ez dakizue ganoraz mintzatzen ez batean, ez bestean eta ez bestean. Danborra tajuz jotzen bazenekite sikira...

(Arrieta, 1987: 174)

Beste batzuetan, ostera, narratzaileek idazketa-prozesuan sortzen zaizkien hizkuntza-zalantzen bidez ematen digute egoera diglosikoaren berri. «Ez dakizula zenbaterainoko pozten den zure amaginarreba litekeenarekin (K.O.: originalean «futurible» dio) hainbesteko konfidantza hartzen ari zarela ikusita, (...)» (67. or.) edo «grazia dik, «comuna» nola kristo esango genuke hori eus-

<sup>32</sup> Ikusi zenbait adibide honako orrialde hauetan: 30, 34, 107, 295, 433 eta 434.

karaz? (...)» (262. or.) gisako esaldiek argi uzten dute narratzaileak itzulpenean ari direla, eta gaztelaniaz pentsatzen dutela. Halaber, euskara zuzenean zein jatorrean idatzi beharraz, sarri egiten dituzte zuzenketak eta oharrak; batetik, hizkuntzaren normatibizazioarekin lotutakoa adibideak aurki ditzakegu:

Baina... zer da hori? Alarma aereoko sirenak («aire-alarmako sirenak» esango nikek nik, Fullini.– Ixooo! Ez duk ikusten errodutzen ari garela, ala?...), eta bada-  
toz hegazkin ingelesak («ingelesak» esaten da euskaraz), eta badatoz hegazkin  
ingelesak: (...)

(Arrieta, 1987: 16)

Frai Ignatiusi: «idatzi nik diktatuko dizudana» esan eta horrako hori idatze-  
razi zion: «handik aurrerakúa»; frai Ignatiusek, «barkatu, Jauna, «aurrerakúa» ez  
da mintzaira batua, zeren Monastzaindiaren arauk diotenez...» (...)

(Arrieta, 1987: 73-74)

Bestetik, erdal esapideak ekidin nahiarekin lot daitezkeenak:

(...) (–hitz horren aurrean protesta egin zuen gutako batek, Eminentzia, «deses-  
perantea» beharrean «etsigarria» beharko lukeela esanaz; asko luzatu zen eztabaida),  
eta izutzeko modukoa ere badela bere buruarengan nozitzen ari den eboluzioa (–  
gauza bera, Eminentzia, batzu «bilakaera» idaztearen alde azaldu ziren), (...)

(Arrieta, 1987: 65)

–(...) Hala egin baduk, Giovanni, ikusiko duk: hire hileroko soldatetik erdia  
deskontatu egingo diat. Desde luego, zuekin koadrilako tesoreroa izatea izan lite-  
keen ofiziorik okerreña duk

–Bai, hik sar itzak gonbertsazioan «desde luego» eta gisa horretako esaldi arro-  
tzak eta ikusiko duk Cesarek nolako bronkak botako dizkian.

–Bai hiri ere, caro Enrico, «bronkak» eta holakoak esanez (...)

(Arrieta, 1987: 229)

Narratzaileen hizkuntza-arduraren erakusgarri da, era berean, zenbaitetan  
hiztegiko kontsulten berri ematea: «(...) lehendabiziko errantxua (halaxe dio  
Hiztegia-2000 delakoak, guk geuk «gudal egosari»-edo agian gogokoago  
genukeen arren» (25. or.),<sup>33</sup> edo:

<sup>33</sup> Gisa bereko adibide gehiago daude 371., 380., 381., 392. eta 458. orrialdeetan.

–Hara, Oskar! Hementxe dago soluzioa. Begira zer dioen beste hiztegi honek, euskara-euskarazko lehen hiztegiaren bigarren aleak: «burutsu». *Izond. (1817). I. (G. Er.). Ardo burutsua: erraz horditzen duena. 2. (1818) (Pertsona) zentzuduna... (adibidez) Erkinak eta kankailuak, burutsuak eta burugabeak... 3. (1897). Asmotsua, burutazio egokiak dituena... (adibidez) Pernando Amezketarraren ateraldi burutsuak... Ikusten, Oskar, nola ez garen gu zuk diozun bezain herri traketsa? Bigarrena da, noski, nik adierazi nahi nuen adiera: «burutsua = zentzuduna».*

(Arrieta, 1987: 393)

Kopista-narratzaileek ez dute, ordea, euren beharrak asetzeko irtenbiderik aurkitzen beti, eta itzulezintasunaren auzia agerrarazten dute zenbaitetan, halako edo delako esamoldea euskaraz eman ezina agertzean:

(...) eta goraintziak eman zizkiola zuretzat, beno, zehazki besarkada bat emateko esan zidan, beraz «*date por abrazado*» K.O.: kopista xume honek umilki aitortzen du ez dakiela azken esaldi misterioitsu hori gure mintzaira eskuarrera itzultzen).

(Arrieta, 1987: 62)

(K.O.: originalean «*reminiscencias*» dio, baina kopista xume honek berriro aitortzen du ez dakiela hitz erromantze horren ordain juxtua zein den gure mintzairan eta horregatik desenkusak aurkezten dizkio inoiz kronika zirtzil hau irakur dezan irakurleko prestuari, berez bat besterik ez dagoen lekuan, bi hitz, erran nahi baita: «*zantzuak*» eta «*kutsuak*», jarri izanagatik).

(Arrieta, 1987: 64)

Eskuarki, esan dezakegu narratzaileen gogoan, itzulpenarekin lotutako auzirik nabarmenena zuzentasun eta jatortasun linguistikoa dela, eta horixe izan liteke, agian, garaiko euskal itzultzailearen antsietate nagusiaren isla; edo nola ere, itzulpenari buruzko auzi teorikoak ere islatzen direla ikusi dugu.

Narrazioaren mailatik haratago, kontakizunean ere agertzen da auzi linguistikoa. Esaterako, gaztelaniaz mintzo dira Iñaki pertsonaiaren inguruko soldaduak, nagusiak... baita etxeko eta inguruko hainbat lagun ere. Iñakik berak ematen dizkie euskara eskolak gertuko lagun batzuei, eta ikasleek darabilten mintzoa irudikatzen da lantzean (adib. 342. edo 344. or.). Halaber, badago pasarte bat garaiko itzulpen-sistemaren (edo itzulpen-sistemarik ezaren) berri ematen duena:

Hura ere bahren, bada. Ze tipo gorrotagarria iruditu zitzaidan bat-batean. Juan Mari Silloniz, jaun arkeologo prestua. Oso katxondo mentala hura ere,

baina bilbotar unamunianoa ezin gehiagoan. Euskarak ez omen zuen ezertarako balio. Eta barre egiten zian gure hizkuntzaz, Pello Kirten edo Txomin del Regato-ren kastellano-modu trakets nazkagarri hori erabiliz. «*El otro día me dijeron cómo era la traducción al euskera del sublime «to be or not to be» shakespeariano: «izan ala ez izan, hor dago arloa», ja, ja, ja», «uy, pues suena muy bien, tan bien como en castellano o en inglés»* erantzun zion atzera Xabierrek, «*por qué va a ser sublime en una lengua y en otra no?»* nik ostera. Ez huen, baina, bat ere kikildu, ez: «*pero, hombre, no, es inútil: la Historia nunca se detiene; es mejor, como decía Unamuno, hacerle los honores funerarios como monumento arqueológico que es, y a otra cosa, mariposa»*,

(...)

«*Hi, Xabier, datorren kurtsoan asignatura guztietako apunteak euskaraz egin behar dizkiagu, zer iruditzen?»*, «*bai, eta batez ere Biología asignaturakoak»*, «*hori duk, eta bukatutakoan ale bat bidaliko zioagu, «la ontogenia es la recapitulación de la filogenia» delakoaren itzulpena azpimarraturik»*, «*konforme, baina hik ba al dakik nola esan daitekeen hori?»*», «*ez, puta idearik ere ez, baina asmatuko diagu zeozer...*».

(Arrieta, 1987: 309-310)

Azken paragrafo horretan irakur daitekeenez, ikasten ari diren euskaltzaleak dira orduko itzultzaile; garaiko egoerari erantzuteko egiten dituzte itzulpenak, euskaraz beste hizkuntzetan bezalaxe gai oroz idatz daitekeela erakusteko. Hortaz, Arrietak eleberraren narrazio-mailan itzulpen-prozesuaren antzeratzea egiten du oro har, eta kontakizun-mailan aurreko etapan deskribatu dugun itzulpen-eremuko egoera eta eragileen antzeratzea, ekarri dugun pasarte horretan ikusi bezalaxe: garaian ez zegoen itzultzaile profesionalik, beharrei eta kanpoko erasoei erantzuteko modua zen euskaltzaleek itzulpenak egitera jotzea.

Grutmanek (2002) literaturan eleaniztasuna erabiltzearekin lotuta azaltzen dituen hiru motibazioei<sup>34</sup> lot dakioke Arrietaren asmoa: batetik, islatu

---

<sup>34</sup> Grutman (2002) literatur eleaniztasunaz ari da «Les motivations de l'heterolinguisme: réalisme, composition, esthétique» izeneko artikuluan, eta, bertan azaltzen duenez, eleaniztasun literarioa ez da egungo fenomeno, mugimendu estetikoaren arabera aldatzen da, eta, gainera, genero jakinei loturik agertu izan da sarriren (prosan xurgatze linguistikoko handiagoko gertatu izan da). Boris Tomachevski-k proposatutako eta Genettek jarraitutako «motibazio» terminoa dabil Grutmanek eleaniztasunaren «arrazoiak» definitzeko. Hala, eleaniztasunaren erabileran motibazio errealistak, egiturazkoak eta estetikoak ikusten ditu. Gaia landu duten euskal ikertzaileen artean Lasagabaster (1982) eta Toledo (2009) aipa daitezke, eta Toledok, esaterako, hizkuntza-aniztasuna baliatzeari lotuta funtzio bi aipatzen ditu: batetik, ilusio erreferentziala

gura duen garaian Euskal Herriak bizi duen hizkuntza-egoera antzeratu gura du; bestetik, pertsonaia jakinen hizkuntza-erabilerek pertsonaiak eurak kokatzen eta karakterizatzen laguntzen dute, eta hemen ere, Toledok aztertutako zenbait lanetan bezala (Toledo, 2009), elkarrekin lehian dauden pertsonaien arteko mugarri bihurtzen da muga linguistikoa; eta, azkenik, beste hizkuntza batzuetan ematen diren kanta eta olerki zatiek testuartekotasuna islatzea dute helburu.<sup>35</sup>

Esan dezakegu Arrietak itzulpen-eremuko eragileen inguruko imajinarioa islatzen duela, eta aurreko etapako itzultzailearen profila irudikatzen duela bere testuan. Islatze horren arrazoa, gaur egungo talaiatik begiratuta, zera izan daiteke: orduantxe profesio zehatz batean itzultzailearen figura gero eta beharrezkoagoa eta agerikoagoa izaten hasi zela. Nolanahi ere den, ez da guztiz «erreal» itzultzaile hori oraindik, narratzailea da, fantasma bat, irudia aldatzen duen pertsonaia bat. Are muturreragoko irudikatu daiteke itzultzailearen mugaldekotasun edo ikusezintasun hori Sarrionandiarenean, hortxe dagoen arren, denik ere aipatzen ez delako. Izan ere, oraindik egonkortzen ari dira itzulpenarekin lotutako egiturak, dinamikak, indarrak eta eraginak.

---

sorrarazi nahia (errealitatearen ilusia sorraraztea, hots, errealitatea antzeratzea); eta, bestetik, kontatzen den istorioak eraikitako barne-legeen eskakizunei erantzutea (idazlanaren barne-koherenziari erantzutea) (2009); Grutmanek adierazitako funtzioetako lehenbiziko biak dira, alegia: erreferentziala eta egiturazkoa.

<sup>35</sup> A. Gandararen «*Latorrizko danborra vs Manu militari*: transtestualitatea hizpide» artikulua (2016), esaterako, argigarria da zentzu horretan. Halaber ikusi Gandara & Ibarluzea (2018) artikulua *Fontes* aldizkarian: «Representaciones transtextuales y heterolingües (para la memoria) en la novela “Manu militari”».

### 5.3. 1990-2000: SARETZEA, BISTARATZEA, METAFORIZATZEA ETA PARODIATZEA

1990eko hamarkadatik milurteko berrirako tartean aro berri baterako prestatzen hasi zen eremua, eta, posizio-aldaketa eta eskumen-galtze eta -emate zenbaiten bidez, erakundeen arteko lankidetzeta eta saretzea indartu zirela esan daiteke. Lehendik martxan ziren proiektuetako batzuk unibertsitate-ikasketa eta bestelako kultur proiektu bihurtu ziren: itzulpen-masterrak abiatu ziren, itzulpenaren inguruko ikerketaren beharra aldarrikatzen hasi ziren eragileak, eremuko historia eta kapital propioa eraikitzeko hainbat lan argitaratu ziren, bai eta zenbait itzulpen-bilduma abiarazi ere. Garaiko literatur historiografietan aurreko etapako joeraren ildotik jarraitu zuten literatur historiografoek, pauso batzuk aurrera eginda: euskal itzulpenak izandako funtzio dialektologiko, pedagogiko eta fundazionalaz gain, itzulpenaren funtzio kulturala ere nabarmendu zuten, euskal itzulpenak euskal literaturaren historiako garai jakinena adierazle direla esanez, eta munduko beste literatur eremu batzuetan bezalaxe, itzulpenak idazleei luma zorrozten eta hizkuntza aberasten lagundu diela aipatuz. Eremuak fizikiozko literatur testuetan izandako eraginari dagokionez, 1990eko hamarkadan autoretzaren auziarekin jolas egiteko bide izaten jarraitu zuten sasi-itzulpenek Sarrionandiarenean (1991), baina bestelako errepresentazioak ere agertu ziren, esaterako, itzulpen-egoerei buruzko irudikatze parodioak Alonsorenean eta metaforikoak Atxagarenean.

Lizentziatura-ikasketak etorri arteko etapan, 1990eko hamarkadaren hasieran iritsi ziren itzulpengintza-masterrak. Izan ere, Itzultzaileen Eskolak kolektibo-izaera sortzea lortu bazuen ere, eta han trebatutakoek zenbait alorretan lan egiteko aitortza sinbolikoa izanagatik, itzultzaileek oraindik ez zuten agiri ofizialik lortzerik; baina, 1990eko hamarkadako itzultzaileen ikuspegiaren arabera, itzulpengintzarako prestakuntza unibertsitatean egin behar zen eta, hala, kolektiboak zenbait erakunderekiko negoziazioen bidez formazioa unibertsitatean egiteko bideari ekin zion. Ikasketak bideratzeko erabakimena Jaurlaritzaren esku geratu zen, hortaz.

EHUk eta Deustuko Unibertsitateak eskaini zituzten master-ikastaroak, eta horiei buruzko balorazioak jasotzen dira 1992ko *Senex 13* aldizkarian. EIZIE elkarteak, bere aldetik, bestelako ikastaroak ere antolatzen zituen; tartean, literatur itzulpeneko mintegia (Ibarzabal, 1992: linean). Oro har, bai dagokigun eremuan, bai Europako beste herrialde batzuetan, master-eskole-tako ikasgai izaten zen literatur itzulpena, eta sasoi bertsuan, 1991n, abiarazi



zuten Belgikan literatur itzulpenari buruzko graduondoko berezitua (Biguri, 1992: linean), beste hainbat herrialderentzat eredugarri.

1200 ordukoa zen Deustuko Unibertsitateak eskaintzen zuen masterra, 1989az geroztik eskaini zutena. Perezek, Abaituak eta Kaltzakortak sinatzen duten artikuluan (1992: linean) zehazten denez, «lan irtenbiderik seguruenetariko bat, euskal filologian lizentziatuentzat behinik behin, itzulpenarena zen, hain zuzen. Masterraren antolakuntzarako kontutan izan ziren asmo bultzagarrietariko bat lan eskabide hau izan zen» (*idem*). Horrez gainera, masterraren izaera praktikoaz ohar egiten zuten: «Masterrak hasiera-hasieratik eduki nahi izan duen ikuspuntu metodologikoa beti izan da alderdi praktikoak lehentasuna izatea alderdi teorikoaren ikusian» (*idem*). Irakasleen artean aritukoak zirela ere zehazten dute:

Asmo eta beharrian honi erantzun nahirik, irakasleria profesional hauek osatzen dute: Gotzon Lobera eta Joseba Urzelai Bizkaiko Aldundiko itzultzaileak dira, J.A. Sarasola K-2000 bikoizketa entresako itzultzailea, eta Xabier Kaltzakorta eta Xabier Mendiguren *free lance* itzultzaile ospetsuak. Mari Zubirik teknologia berrietan trebatzen laguntzen die ikasleei.

(Perez, Abaitua & Kaltzakorta, 1992: linean)

1992an berrikuntzak aurreikusten zituzten masterrean: sarrera-ikastaroak, tutoretzapean egindako itzulpenak, kanpo-praktikak, klase teorikoak, alor teknologikoari buruzko ikastaro monografikoak eta mintegiak (*idem*).

EHUko masterrari buruzko balantzea Garmendiak egin zuen (1992: linean) aipatu aldizkarian: masterraren lehenbiziko urteen ondoren zenbait alderditan planifikazio beharra sumatzen zuen, eta, bestalde, ikerketa-beharra zegoela nabarmendu. 1990eko hamarkada hartako ikuspegiaren arabera, unibertsitateak behar zuen itzulpengintza irakasteko eta ikertzeko espazioa, eta horri garrantzitsu deritzogu lanbidea hautemateko moduari dagokionez:

(...) gaur egun itzulpen-ikasketak ia erabat Unibertsitatearen ildotik baitoaz, horixe baita seguruenik itzulpen-ikasketen lekua. Ikerketa ere aipatzen da aurreko hitzetan eta, jakina, munduko optimismoak handienak ere ez gaitu libratuko alor horrek zegoen-zegoenean jarraitzen duela esatetik. Halaxe baita, izan ere, eta halaxe jarraituko baitu itzulpen-ikasketen birplanteamendu sakonik egiten ez den artean.

(Garmendia, 1992: linean)

Ikerketa-beharra erabat lotuta dago eremuaren beraren kapitala sortzearekin. Bada, literatura itzulia argitaratzeko eta barne-eremuaren kapital propioa sortzeko eragiletzaz denaz bezainbatean, etapa honetan zenbait argialetzek egindako ahalegina gogoratu behar da: 1992an argitaratu zuen Elkarrek Mendiguren Bereziarturen *Itzulpengintza. Historia eta Teoria*, eta 1995ean *Euskal Itzulpengintzaren historia laburra*.

Halaber, kapital propioa sortzeko eragiletzaren adibide gisa hainbat erakunderen artean sustatutako eta kudeatutako proiektuak nabarmendu daitezke, denak ere 1990eko hamarkadaz geroztikoak. Proiektu horietako bat da «Literatura Unibertsala» bilduma, 1990ean Eusko Jaurlaritzak eta EIZIE elkarteak abiarazitakoa. Lehiaketa bidez esleitzen dira lanak: EIZIEk deitutako batzorde batek (EIZIE, Eusko Jaurlaritza, argialetxea) izenburuen zerrenda hautatzen du. Izenburuen zerrenda badelarik, urtean-urtean, maiatz aldera, itzulgaien zerrenda kaleratu eta lehiaketarako deialdia egiten da. Deialdiari men eginez, itultzailiek itzulgaien laginak prestatzen eta aurkezten dituzte. EIZIEk deitutako epaimahaiak laginak hautatu eta esleipena egiten du. Bildumaren lehenengo aroa 1990-2002 tartean argitaratutako 100 liburuk osatzen dute, eta Ibaizabal argialetxeak plazaratu zituen.<sup>36</sup> Erakundeek sustatutako beste proiektu bat da «Pentsamenduaren klasikoak» bilduma. 1990ean abiarazi zuten BBV Fundazioak (gerora BBVA), Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako kutxek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak. 2010era arteko tartean, 130 liburu argitaratu ziren.<sup>37</sup>

Erakundeen arteko saretzea, baina, ez zen soilik EAEko esparruan gertatu. EIZIEk, kasurako, Espainiako itultzailen eta interpreteen elkarte profesionalarekin, hitzaldi-interpreteen elkartearekin, Galiziako itultzailen elkartearekin... loturak zituen, eta unean-unean zegozkien manifestuetan bat egin zuten elkarteok, langintzaren profesionalizazioaren alde (EIZIE eta beste lau elkarte, 1992: linean). Beste elkarte batzuekiko loturen garrantziaz argi azaltzen dute EIZIEkideek pasarte honetan, adibidez:

Por fin, para terminar queremos hablar de la importancia que EIZIE ha dado siempre a las relaciones con otras asociaciones de traductores. Ya en los primeros años de andadura, EIZIE ha tenido estrechos contactos con las diferentes asociaciones españolas. Igualmente, llevados por la inquietud de estar en contacto con traductores de distintas lenguas y culturas, también entramos en el año 1990 a formar parte de la FIT, cuya comisión de lenguas minoritarias fue presidida

<sup>36</sup> Bildumari buruzko zehaztasun gehiagotarako, ikusi Ibarluzea 2013.

<sup>37</sup> Zehaztasun gehiago linean: <http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/>

durante cuatro años precisamente por un miembro de nuestra asociación. Asimismo, EIZIE es miembro de CEATL desde 1992.

(EIZIEk utzitako barne-dokumentua)

Hain zuzen ere, euskal literatura itzuliaren eremua transnazionala dela esan dugu lehenago, eta pasarte horretan ere argi ikusten da euskal literatura itzuliaren egiturak baduela bere lekua literatura itzuliaren nazioarteko espazioan. Besteak beste, 1992az geroztik, EIZIE elkarteak CEATLeko (Europako literatur itzultzaileen elkarteak biltzen dituen erakundea) kide da. Beraz, esan dezakegu hori euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren erakunde-sarearen adibide dela, bai eta beste herrialde batzuetako eremuekiko kokatu eta parekatu nahia ere; izan ere, sare horren xedea da literatur itzultzaileen itzulpen-jarduna legitimizatzea, negoziazio-espazioez jabetzea eta merkatu-politikekin lotutako gai eta lan-baldintzei buruzko erabakimena lortzea, adibide batzuk aipatzearren.

Garaiko literatur historiografietan itzulpenari aitortutako tarteari dagokionez, ordura arte historiografietan hainbeste parte izan ez zuten generoetako itzulpengintza ere agertzen hasten dela nabari da garaiko historiografietan. Halaxe da, behinik behin, Jean Baptiste Orpustan Michel de Montaigne – Bordeaux 3 unibertsitateko irakaslearen *Précis de littérature basque* (1996) lanean. Haren literatur historiografian Frantziako gertakari historikoak ardatz hartzarekin eta bere bazter geografikoko autoreak ikusgai egin nahi izatearekin batera (Casenave, 2012: 74-76), itzulpenen aipamenei buruz esan daiteke, esaterako, alegia-itzulpenei eskainitako tartea beste historiografia batzuetan baino zabalagoa dela (gogoratzekoa baita Orpustan bera langintza horretan aritu izan dela eta interes berezia duela gai horretan).

Orpustanek berak aitortzen du bi arrazoi direla-eta txertatzen dituela itzulpenak bere historiografian: garai jakin bateko adierazle direlako eta aldaera dialektalen lekukotasunak direlako.<sup>38</sup> Beste historiografo batzuen aldean, aldaketak dakartza itzultitako testuei eskainitako tarteari eta tratamenduari dagokienez; izan ere, saiatzen da ordura arteko ikuspegitik apur bat

---

<sup>38</sup> “Pour que ces traductions ou paraphrases, manuels, recueils prennent place au rang de la littérature au sens où l’entend la critique moderne, il faut ou qu’ils marquent une étape dans la production en prose comme la traduction du Testament de Lissarrague et ses annexes, ou l’apparition originale d’une mode d’écriture et de style plus dialectalement marqué comme le livre de Tartas, ou encore une personnalité d’écrivain de stature exceptionnelle capable de réaliser au plus haut niveau d’expression un projet au départ strictement didactique et apologétique, comme Axular” (Orpustan, 1996: 46).

aldentzen. Esate baterako, testu erlijiosoen itzulpenak aipatu egiten ditu soilik, eta tarte luzeagoa eskaintzen die, oro har, bestelako generoetako testuen itzulpenei. Ildo horretan egiten ditu «praktika interdialektal» izendatzen dituen barne-itzulpenei buruzko aipamenak, hots, hizkuntza beraren barruan aldaera edo dialekto batetik bestera egiten diren itzulpenei buruzko aipamenak: barne-itzulpenak garai jakin batean egiten zirela dio, eta gaur egun halako praktiketarako joerarik ez dagoela gogorarazten digu. Dialektoa eta itzulpena lotuz, gainera, Orpustanen esanetan, itzulpenaren bitartez dialektoen arteko aldeak murrizteko saioak egin izan dituzte zenbait itzultzailek (1996: 2); baina alderantzizkoa ere gertatu da euskal testuen historian: dialektoen arteko aldeak markatzeko ere egin izan dira itzulpenak, eta horren adibidetzat jotzen ditu barne-itzulpenak, dialekto batetik besterako testu-itzulpenak.

Orpustanek argi agertzen du, hortaz, itzulpenak funtzio linguistiko nabarmena izan duela euskal testuen historian. Azpimarratzekoa da, baina, bestelako funtzioak ere esleitzen dizkiola itzulpenari, eta, gainera, aipatzen dituen funtzioak aldatu egiten dira historiografian langai den denbora-aldiak aurrera egin ahala: funtzio dialektologikoa, pedagogikoa eta fundazionala (generoen lehenbiziko lanketa) aipatzen ditu, oro har, XX. mendera arteko testuen kasuan. Bestalde, literatura garaikideaz ari denean dakartza itzulpenaren funtzio kulturalari buruzko aipuak: mundu berrietarako irekidura eta idazleen luma zorrozteko tresna izatea, esaterako. Beren-beregi zehazten du aro garaikidean egindako obra klasikoen eta unibertsalen itzulpenak euskal literaturaren irekiduraren isla direla.

Pourtant l'effort de création, selon des critères renouvelés (la langue basque aura son "nouveau roman"), dans l'ouverture accélérée à la littérature universelle par de nombreuses traductions des grands textes anciens et modernes (de Montaigne et Montesquieu à Yourcenar, pour ne donner que ces exemples français), reste globalement fort dense. Dans cette année 1950 où s'arrête ce précis d'histoire littéraire basque, la littérature de langue basque était loin d'avoir dit, au plûtôt désormais écrit, son dernier mot.

(Orpustan, 1996: 283)

Alegia-itzulpenetan zein teatroan itzulpenak izandako lekuaz gogoeta egiteko darabiltza Orpustanek itzulpenen inguruko aipamenak. Bada, era berean, Urkizuren *Historia de la literatura vasca* (2000) literatur historiografiaren bereizgarritzat jo daiteke euskal itzulpenaren historiarako datu arkeologiko berriak azalarazten dituela, zeren bere historiografian teatro-testuak, kazetari-tza-testuak zein testu politiko-historikoak ere kontuan hartzeak literatur histo-

riografietan ordura arte aipatu gabeko hainbat itzulpen agerrarazteko bidea ematen baitu.

Aipagai dugun historiografiako XX. mendera arteko kapituluak Urkizuk berak idatzitakoak badira ere, XX. mendekoak hainbaten artean idatzitakoak dira. Urkizuren lumakoak dira lehenbiziko kapituluak: generoka banatzen dira kapituluetak azpiatalak, eta, era berean, azpigenerotan azpiatalak. XX. mendeari buruzko kapitulua, hainbaten artean egindakoa da: Chuecak egiten du sarrera historikoa, Garcíaena da «El bersolarismo del siglo XIX al XXI», Aldekoarena «La poesía del XX», Olaziregiren «Un siglo de novela en euskera», Altzibar da «El ensayo del XX» azpiatalaren egilea eta, azkenik, Urkizu bera «Teatro del XX» azpiatalarena. Denbora eta generoak ardatz hartuta egituratutako lana da, hortaz, hitzaurrean bertan justifikatzen denez.<sup>39</sup>

Kapituluen hasieran, sarrera historikoa egiten da, testuinguru egokian uler ditzan irakurleak literatur gertakarien koordinatu sozial, historiko eta politikoak. Alabaina, Lasagabasterrek dioenez, ez dira sarrera horiek behar bezala lotzen kapituluetan ematen diren literatur jakingarriekin (2007: 245-246).<sup>40</sup> Halatan ere, meritua aitortzen dio, eta azaltzen du ez dela bidezkoa lanaren kritika bere horretan utzita alderdi onak ez azpimarratzea:

Es una historia «distinta» que obedece a una visión, más teórica que práctica, si se quiere, de la literatura vasca no sólo diferente, sino superadora de un buen número de las limitaciones que a propósito de otras historias han quedado señaladas. Y esto resulta evidente en los capítulos dedicados a la literatura vasca del siglo XX. Capítulos como «El bersolarismo del siglo XX y XXI», de Joxerra García, o «Un siglo de novela en euskera», de María José Olaciregui son un claro ejemplo de la historia de la literatura vasca que necesitamos seguir haciendo.

(Lasagabaster, 2007: 246)

<sup>39</sup> “Por un lado en el primer capítulo hemos abordado la literatura de tradición oral, y en los siguientes una visión cronológica combinada con la separación por géneros” (2000: 18).

<sup>40</sup> “Es importante, por supuesto, conocer el marco histórico y hasta social y político en que se inscribe la actividad literaria de los escritores vascos, así como las coordenadas culturales que pueden hacer más fácil y completa la comprensión de los textos. Pero el peligro de una yuxtaposición demasiado mecánica de ambos elementos deja lo que es propiamente historia de la literatura reducido a una construcción exhaustiva si se quiere, pero que sigue sin superar suficientemente el nivel empírico de las historias de la literatura vasca tradicionales” (Lasagabaster, 2007: 245-246).

Urkizuren historiografia horretan itzulpenei buruz egiten diren aipamenei mendez mende eta generoz genero erreparatu ostean, ondoriozta deza-kegu, batetik, egilearen ibilbideak eta habitusak taxututako historiografia dela eta, bestalde, historiografia hori bereizten duten ezaugarri nagusi biek, alegia, euskal eremutik kanpora begirakoa ere izateak eta ordura arte sakondu gabeko hainbat generori erreparatzeak, isla dutela Urkizuren itzulpenari buruzko diskurtsoan. Halaber, gogoratu beharrekoa da ikuspegi konparatista darabilela sarri, eta edizioaren ezaugarriari, harrerari eta irismenari errepara-tzen diela. Horrela ulertzekoak dira, hortaz, Urkizuk itzulpenaz egiten dituen aipamenak.

Euskal testuak beste hizkuntza batzuetan eman izan direnean, beste hizkuntza batzuetara itzuli izan direnean, berariaz aipatzen du gertakaria Urki-zuk.<sup>41</sup> Halaber, testu elebidunen eta bertsioren berri emanez, itzulpenaren eta hizkuntzen tratamenduaren inguruko datuak azaleratzen ditu. Bide beretik, testu elebidunen, berredizioen, itzulpenen zein inon txertatutako testu-zatien berri emanez zenbait testuren zergatiaren, harreraren eta irismenaren zantzuak azaleratzen ditu.<sup>42</sup>

Gainera, literatur garai batzuez ari denean, garaia itzulpen-joerekin lotzeko saioa egiten du Urkizuk (batez ere XX. mendeko literaturaren kasuan). Garaikako eta generokako itzulpen-sailen berri emateko eta multzokatzeko zein ezaugarritzeko ahalegina ere nabari da Urkizuren historiografian (edo-nola ere, kapitulugile bakoitzak bere neurrian egiten du).

Bereziki nabarmendu gura dugu, XX. mendeko euskal eleberrigintzaz ari dela, Urkizuren historiografian eleberrigintzaz ari dela Olaziregik egiten duen itzulpenaren tratamendua; izan ere, hainbat aldaketa txertatzen ditu aztertu ditugun gainerako historiografietako egileen joeren aldean: bere kapituluan modu sistematikoan aipatzen ditu euskal idazleek egindako itzulpenak zein izan diren, idazleen jardunari buruzko datuak osatze aldera. Gainera, euskal

---

<sup>41</sup> Hona hemen adibide bat. Bernardo Reziok laudoriozko olerki bat idatzi omen zuen 1757an, Beltzuntzeko kondearen omenez, ingelesez aurka irabazitako gudu baten harira; bada, «Esta canción tuvo gran éxito, y fue editada por P. Lamazou, en una versión con acompañamiento de piano de Henri Weber, miembro del Instituto. El texto vasco fue traducido al francés por Simon Arnaud» (Urkizu, 2000: 251-252).

<sup>42</sup> Adibidez, nabigazio-liburuez ari dela, gisa honetako aipamenak garai jakin bateko itzulpen-beharren zergatia ulertarazteko egindakoak dira: «El que esta obra apareciera en euskera era del todo lógico, teniendo en cuenta que aún en 1790 los marineros de Ziburu y San Juan de Luz piden que los exámenes para capitanes y pilotos fueran traducidos al euskera, pues sólo conocían esa lengua, o era la que más dominaban» (Urkizu, 2000: 212).

idazleak aberasteko tresnatzat jotzen du itzulpena, eta euskarara itzulitako obrek zenbait euskal autoreengan izandako eragina nabarmentzen du.

Beste historiagile batzuek eta Urkizuk berak bezala, Olaziregik ere hainbat generoren testu fundazionaltzat jotzen ditu hainbat itzulpen, eta literatur aldiekin lotzen ditu.<sup>43</sup> Euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenen berri ere ematen du modu sistematikoan, eta iruzkin positiboa egiten die beti, autorearen lana eta legitimazioa goresteke. Horrez gain, euskal sistemaz kanpoko kritikak euren sistemetara iritsitako euskal obra itzuliez nabarmendutakoa ere badakar Olaziregik bere siora. Darabilgun ikuspegia dela eta, garrantzitsu deritzogu «euskal sistema»tik kanpoko kritika euskal literaturaren historian txertatzeari, ezen beste behin ere frogatuta geratzen da Bourdieuren eremuaren kontzeptua baliagarri zaigula euskal literaturaz aritzeko (Ibarluzea, 2017: 181-211). Izan ere, teoria sistemikoen arabera, ingelesera itzulitako obra bat xede-sistemaren parte bihurtuta, xede-sistemako kritikak ez luke lekurik izango jatorrizko literaturaren historian. Eremuaren kontzeptua baliatuta, baina, euskal literaturaren nazioarteko espazioan ingelesez emandako euskal literatura litzateke obra hori, eta, hortaz, Olaziregik egin bezala, nazioarteko kritikak obra horretaz esandakoak ere lekua luke euskal literaturaren eremua aztertzen ari garelarik. Gainera, funtsezko legitimazio-bide bihurtzen da gutxitasun ikuspegi batetik.

Ikusarazi ez ezik, parekatzea lortzen da nazioartekotzearen bidez, eta bide hori berori etxetik kanporakoa, fikzioan ere egiten du itzultzaileak, jarraian ikusiko dugunez. Izan ere, paperezko itzultzaile ikusezin izatetik galera onartzera atzerrira bidaiatzen duen pertsonaia izatera igaroko da etapa honetan.

1990eko hamarkadako euskal fikzioan, Sarrionandiaren eskutik ageri zaigu itzulpena. Lehenago ere eman dio tartea, eta etapa honetan ere bide beretik jarraitzen du sasi-itzulpenarekin eta sasi-itzultzaileekin jolasean. Iurretarrak itzulitako lanen arteko beste bat da *Hezurrezko xirulak*, olerki itzulien

---

<sup>43</sup> «En este sentido, son indicativos del momento de apertura y actualización de la vida literaria vasca de la época, las traducciones literarias que suceden en la década de los 50 (entre otros, se traduce a Shakespeare, Baroja, Homero o Juan Ramón Jiménez), línea que vendrá a ser confirmada con la lenta traducción, en las dos décadas posteriores, de obras de Hemingway, Tagore, Ionesco, Cela, Brecht, Camus, Kafka, Stevenson o Twain» (Olaziregi, 2000: 523). Halaber, geroagoko garaietarako ere antzeko aipuak ditu: «Al igual de lo que ocurriera en el entorno de la literatura española con el surgimiento, a mediados de los ochenta, de la colección «Etiqueta Negra» de la editorial Júcar, el panorama de la novela vasca de finales de los ochenta se enriqueció con las excelentes traducciones de obras de H. MacCoy, J.M. Cain, J. Thomson, R. Chandler, B. Vian, D. Hammet, etc.» (Olaziregi, 2000: 564).

bilduma gisa aurkezten zaiguna. Edozelan ere, han ageri diren olerki itzuli guztiak ez dira itzulpenak: fikziozko itzulpenak, sasi-itzulpenak ere badaude. Jakak identifikatu zituen autorearen itzulpen-jardunari buruzko tesian (2012), eta 2013ko galdetegian berretsi zigun auzia autoreak berak.

Beste kasu batzuen artean,<sup>44</sup> adibidez, ekar dezagun Jeronymo Oliveira da Verdade ustezko idazle portugaldarrarena: Jeronymo Oliveira da Verdade ez da egiazko idazlea, Sarrionandiak asmatua da, eta besteen itzulpen-lanekin osatutako berridazketa bat dakar Sarrionandiak, haren ahotsean jarritako poema bat balitz bezala (Jaka, 2012: 265). Sarrionandiari eskainitako aurreko tartean esan bezala, honetan ere testu orok aurreko testuei erantzuten diela adierazteko jolasa da, Jakaren ustez, Sarrionandiak darabilena: «alegia, ez dagoela testu originalik eta dena dela kopia edo itzulpen, edo ez dagoela kopiarik edo itzulpenik eta dena dela originala» (2012: 268-269); halaber, «errealitatea eta fikzioa nahastuz, zalantzan jartzen ditu sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa, testuaren eta autore bakar baten arteko lotura eta jatorrizkoaren originaltasunaren ideia» (*idem*: 275). Sasi-itzulpenarena joko bat dela egiaztatzen du autoreak egiarekin eta gezurrarekin darabilen olgetarekin: izan ere, sasi-itzulpenak sinesgarri egiteko estrategiak darabiltza, eta, berbarako, benetako pertsonaien ezaugarriak egozten dizkie. Baina, halaber, faltsutasuna iradokitzeke jolasak ere egiten ditu; esaterako, «autore apokrifiko bati Verdade abizena eman izana» (Jaka, 2012: 272). Literatur testu oro autore bakarrarekin lotu ordez, idazlez idazle eta obraz obra sortutako *continuum* bat dela aldarrikatzen du Sarrionandiak, Jakaren hitzetan:

Fikziozko itzultzaileak edo itzultzaile apokrifikoak erabiltzea estuki lotuta dago sasi-itzulpenak tartekatzeke estrategiarekin. Sarrionandiak sortu edo itzuli dituen testuak berak asmatutako itzultzaileei egozten dizkienean, zabaldu egiten du nolabait testu horren eraketan parte hartu duten pertsonen –edo pertsonaien– taldea, testu bat autore bakar batekin lotzeko joera tradizionala salatuz eta literatura partaide ugariren arteko jolas interaktiboa dela gogoraraziz.

(Jaka, 2012: 276)

Halaber, *Hezurrezko xirulak* poema-bilduman badago autore asmatuen (Gudröd Haaleg) testuak itzuli dituen sasi-itzultzailearik (Tomás Gómez) (Jaka, 2012: 276-277), zein benetako testuentzat asmatutako itzultzaile apokriforik: kasurako, nahuatl mintzairatik itzulitako poemien bertsiogile gisa ageri den Jose

---

<sup>44</sup> Badira beste autore apokrifiko batzuk ere, eta, hortaz, sorkuntza hutsa diren itzulpenak (Jaka, 2012: 270).



Ramon Negrete, Jaka ikertzaileak dio ez ote den Sarrionandiaren adiskideren baten izenpean egileak egindako jolasa (2012: 277). Bada, halaxe da bai, egileak berak gerora aitortu izan duenez (Sarrionandia, 2013). Lagunei egindako keinuez gainera, literaturari eta euskal idazleei egindako keinuek ere badaude liburuan: kalevala hizkuntzatik itzultako poemaren itzultzaile gisa Kepa Zenika aurkezten digu Sarrionandiak; hots, Joxemari Iturralde euskal idazlearen *Izua hemen* (1989) eleberriko protagonista (Jaka, 2012: 277). Modu horretan:

Kalevalaren itzulpena Kepa Zenikari egotziz, Iturralderen istorioari jarripena eman nahi izan dio, errealitatea eta fikzioa nahastuz beste behin ere, eta testuen, autoreen eta itzultzaileen arteko loturak are gehiago korapilatuz. Gogoraz dezagun Joxemari Iturralde Pott bandako kideetako bat zela, eta bandako zenbait kideren arteko erreferentzia eta jolasak ohikoak zirela haien testuetan, (...)

(Jaka, 2012: 278)

Autoreari eskainitako aurreko pasartean azaldutakoen ildo berean, Sarrionandiak *Hezurrezko xirulak* bilduman euskal itzulpengintzari buruz ematen duen ideia, nolabait, egiantzekoa baina imajinarioa da; sortzen ari den eremua da euskal literatura itzuliaren eremua, eta, beste eremu batzuetan legetxe, eragileak behar ditu (euskal itzultzaileak, alegia). Beraz, horiek sortuz jostatzen da autorea, eta eremuaren ilusio edo irudikapen halako bat egiten du sasi-itzulpenen eta sasi-itzultzaileen bidez. Halaber, aldarri bat ere egiten du, sorkuntzaren eta itzulpenaren parekotasunaren alde, bien arteko muga lausoak nabarmenduta, bata eta bestea non bukatzen diren definitzeko zailtasunak agerraraziz eta «autoretzaren kontzeptua urtuta» (Sarrionandia, 2013), autoretzaren erantzukizuna arinduta eta (Simon, 2006) eta garrantzia testuari emanetz (Collonbat, 2013).

Itzultzaileen lanbidearen alderdi kolektiboa bistaratzen du, ostera, Jon Alonsok idazle-itzultzaileak *Katebegi galdua* lanean (1995). Itzultzailea da ogibidez Alonso, eta administrazioko itzulpen-lanak ez ezik, Saramago, Cortázar eta Levi-Strauss ekarri ditu euskarara, bai eta Olasagarre eta Serrano-Izko euskal idazleen lanak gaztelaniaz eman ere.<sup>45</sup> Bere lanak itzultzea, ostera, ez du gogoko, eta ez du inoiz halakorik egin, norberaren testuak autoitzultzea aurreko lanaren bertsoak egitea dela iritzita:

<sup>45</sup> Alonsoren itzulpenak EIZIEn webguneko katalogoan daude ikusgai: <http://nordanor.net/nor?id=330&tmp=1400273624905>

Norberak itzultzea, eta are gehiago diglosia egoera batean B hizkuntzatik A hizkuntzara itzultzea, lanaren berridazketa bihurtzen da, eta ateratzen dena bertio bat da, ez itzulpen bat, gehien-gehienetan (...). Bestalde, oso nekagarria da inork hizkuntza batean konpondu dituen arazoez eta norabidetu dituen gaiez berriz interesatzea, beste hizkuntza batean.

(Alonso, 2013)

*Katebegi galduan* (1995) eleberria thriller historiko-politiko da, intri-gazko istorioa, lapurtutako eskuizkribu misteriotsu baten inguruan eraikia. Hainbat mandatarari eta politikari inplikaturik daude eskuizkribuaren bilaketan, eta hilketak ere gertatzen dira. Politikariak, idazleak, kazetariak, abadeak... agertzen dira eszenan. Mendigurenek *Argia* aldizkarian egindako kritikan zioenez: «Intrigaren jakinmina, eskuizkribuen xarma eta Euskal Herriko errealitatearen isla barregarria elkartzen ditu egileak artoski» (*Argia*, 1996-03-10); alegia, Euskal Herriko literatur sistema irrigarri antzeratzen du egileak.

Esan bezala, eleberrian badago itzulpenari eskainitako pasarte bat: «IV kapitulu: In vino disertus» ataleko (139. or.) bigarren zatian, hain zuzen ere (142-145. or.). Edorta Jimenezek bereziki nabarmendu zuen atal hori liburua atera berrikan argitaratutako kritika publikoan: «Egozkue alde batera utzita, beste pasarte antologikorik ere bada liburuan, hala nola, “cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí” perpausaren itzulpenari eskaintzen diona» (*Euskaldunon egunkaria*, 1996-02-24).

Idazleak berak jakinarazi zigunez, lanbidez barre egiteko modua izan zen *Katebegi galduan* itzulzailearen irudia baliatzea. Hauxe zioen hain zuzen ere: «*Katebegi galduan* bada kapitulu bat, zeinean Monterrosoren “El dinosaurio” ipuinaren balizko itzulpen bati buruz (euskarara) mintzatzen baita, lanbidearen katramilen gainean barre/gogoeta egiteko» (Alonso, 2013).

Pasarte horren nondik norakoak aztertzeko, gogora dezagun lehendabizi eleberriaren trama lapurtutako eskuizkribu baten inguruan egituratzen dela, eta, antza denez, pertsonaietako batzuek zalantza egiten dute lapurtutako liburu hori faltsua ote den (Alonso, 1995: 133).<sup>46</sup> Hain zuzen ere, liburua faltsua dela aipatu ostean eta faltsifikazioen izaerari eta prozedurari (papera, filigranak, letra-tipoak, hizkuntza arkaikoa itxuratzea...) buruzko gogoeta baten ostean (Alonso, 1995: 139-142) dator itzulpengintzarekin lotutako pasarte.

---

<sup>46</sup> Aurrerago ezagutarazten da, liburuko 146. orrialdean, lapurtutako liburu hori faltsua dela zalantzarik gabe.

Argialetxe txiki baten kargu zen lagun batentzat ipuin laburren antologia bat egitean jazotakoa kontatzen dio pertsonaietako batek besteari: Monterrosoren «Cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí» itzultzeko eskatzen dio lagun batek itzultzaileari. Itzultzaileak lan zaila dela eta, laguntza beharko duela dio, beraren harridurarako. Lau hilabeteko tartean ekartzen dio itzulpen-aukera askotarikoak jasotzen dituen karpeta handi lodi batekin:

Gogor lan egin dugu, «dugu» diot, zeren, ulertuko duzunez, ez dut neuk bakarrik burutzerik izan, beste seiri eskatu diet laguntza eta aholkua. Gauza uste baino korapilatsuagoa da: begira, hasteko, eman dezagun «despertar» aditza «iratzarri» itzultzen dugula. Denborazko «cuando» hori emateko «-nean», «-larik», «-la», «-n unean» –beste batzuk ere bai, baina ez da komeni arazoa gehiegi nahasterik– izango genituzke (iratzarri zenean, zelarik...eta abar). Beraz, lau aukera ditugu «iratzarri» aditzarekin. Orain, «dinosaurio» sei era diferentziaz eman dezakegula kontuan hartuz, lau bider sei, hogeita lau aukera ditugula konturatuko zara, bider bi –«todavía» horrek beste bi aukera ematen digunez–, berrogeita zortzi. Ez da komeni dialektologia ahaztutzea, are eta gutxiago giroa nola dagoen kontuan hartuz, eta horregatik, erabaki genuen «estaba» aditz nagusia Bonaparteren sailkapenaren arabera hogeita bost tokian-tokiko hizkeren arabera ematea. Eragiketa erraz bat eginez, lehengo 48 aukerak bider 25 hizkera horiek, 1.200, hau da, orain arte, «iratzarri» aditzarekin baditugu 1.200 itzulpen zuzen. Baina, ez da ahaztu behar «despertar» aditza beste zortzi forma gehiagotan ere eman daitekeela. Beraz, egitan daukagun itzulpen zuzenen zenbakia hauxe litzateke, 9 bider 1.200, hau da, 10.800. Eta, jarriz gero gauzak ongi egin behar direlakoan, egoki iritzi diogu Arantzazuko arau ortografikoak baino lehenagoko idazkera ere aintzat hartzea, inori minik ez emateko. Orduan, aise konturatuko zara ditugun itzulpen posibleak berriro bider bi aniztu behar direla, eta, gisa honetan, 21.600 itzulpenetan jartzen gara. Baina kontua ez da hemen bukatzen, hau da, nolabait esan, hau hurbilpen bat besterik ez da, zeren ez baititugu oraindik sintaxiaren arazoari buruzko kuestioak analizatu. Hau da, orpoz orpo segitu behar al genuen Sebero Altuberen ikasbidea, edo, aitzitik, libreago jokatzeko zilegi ote zitzaigun? Eztabaida luzeak izan genituen kuestio interesgarri honi buruz, eta horien fruitu dira 400 orrialdeko txosten batean bildu dizkizudan zazpi itzultzaileok egindako ohar jakingarri eta eruditoak.

(...)

Honekin uste dut lortu dugula ipuinaren esanahia zeharo harrapatzea, eta euskaraz ongi paratzea. 172.800 bider hiru, lau, bost, hamar edo gehiago egitea ere bazegoen, «estaba» hori hitanoko adizkietan jarriz gero, baina, berriz diot, ez dugu itzulpen lana gehiegi zamatzerik nahi izan.

(...)

Eta nik kontu hau berretsi badizut ez da izan zu nekarazteko edo aspertzeko, baina kontura zaitzen Monterrosoren lerro batek halako letra-itsaso bat sortzen badu, ez dela erraza izango beste edozein letra-itsasoren baliagarritasuna ukatzea, endemas orain laurehun eta piko urte idatzita bezala aurkezten badigute, eta hortaz, faltsifikazio lana ahalezkoa dela, doxenerdi koska funtsezkori erreparaturaz gero, lau arau begiraturaz eta zainduz. Eta horregatik kontatu dizut hau guztia. Horregatik eta beste Marqués de Griñón bat atera dezazun eskatu nahi dizudalako.

(Alonso, 1995: 143-145)

Egileak aitortu zigunez, parodia bat da aurreko pasartea, lanbideari irri egiteko asmoz idatzia (Alonso, 2013). Fikziozko itzulpenen eta itzultzaileen iruditeria dela eta, alde batetik, nabarmentzekoa da liburu faltsuekin lotu izana itzulpenaren auzia; izan ere, itzulpengintzaren historian sarri erlazionatu da itzulpena artelan faltsuekin, aurreko atalean azaldu dugun moduan.

Beste alde batetik, badaude txatal horretan azpimarratzeko moduko beste hainbat kontu. Lehenik, itzultzailearen zalantza etengabea islatzen da pasartean: aukerak justifikatu beharra (zazpi itzultzailearen artean eztabaidatutakoak txosten batean biltzen dira); itzulpenaren azken bertsioa edo bakarra lortzeko ezintasuna (milaka aukera ematen dira); lana bukatutzat eman ezinaren obsesio modukoa (itzulpen aukera guztiak argitaratzeko proposamena egiten da); hitz, esamolde edo esaera justua ezin aurkitzea (sinonimia eta sintaxi-aukeren arteko zalantza); irakurle oro asebetetzeko nahiari ezin erantzutea (dialektologia kontuan hartzea zein hizkuntzaren inguruko eztabaidei dagokienez hainbat joeratako arauak kontuan hartu izana). Dagokigun pasarteko itzultzailea jakitun da testua interpretatzen ari dela, eta testuaren interpretazioa hainbat angelutatik egin daitekeela, subjektuaren posiziotik, alegia. Halaber, hartzailearen itxaropen eta aurrejuzguak ere kontuan hartu beharraz ohartzen da itzultzailea. Hala, ezin daiteke interpretazio bakarrera heldu, Hermansek dioen gisan: «En la medida en que deja abierta la posibilidad de emularla y no puede reivindicarse como lectura definitiva que viene a cerrar el círculo de la interpretación, la traducción encarna la diferencia de interpretaciones» (2001: 129). Dagokigun pasartean, hortaz, itzultzaileak, itzulpen erabatekoa lortu ezinda, eta bere inpartzialtasuna onartuta, denboran eta espazioan baliagarri izan litezkeen askotariko itzulpen-aukerak eskaintzen ditu.

Itzultzailearen deskripzioa ere azpimarra daiteke, hauxe baitio itzulpena eskatu zuen pertsonaiak: «konfiantzazko itzultzaile bati pasa, zopilo xamarra berau, baina langilea, zintzoa» (Alonso, 1995: 143). Itzultzaile batenean bilatzen dituen ezaugarriak dira, beraz, zintzotasuna eta konfiantza. Gure ustez,

zuzenean loturik dago itzultzailearen lanari egozten zaion irudi negatiboarekin; itzultzaileak traizioa egiten duen ideia zabalduarekin, alegia.

Azkenik, errepara diezaiogun itzultzailearen lan egiteko moduari: «Gogor lan egin dugu, “dugu” diot, zeren, ulertuko duzunez, ez dut neuk bakarrik burutzerik izan, beste seiri eskatu diet laguntza eta aholkua» (Alonso, 1995: 143) dio dagokigun pasarteko itzultzaileak. Bada, taldean egindako lana agertzea itzultzaileari buruz dugun irudi isolatuarekin eta bakartiarekin hausteko modua edo aldarria izan daiteke.

Kritika publikoak eta autoreak berak itzulpenarekin lotuta aurreko pasartea nabarmendu dugun arren, badaude itzulpengintzari lot dakizkiokeen beselako aipamenak eta aztarnak liburuan. Esate baterako, liburutegi baten historia laburbilduko duten argazkien bila ari direlarik, hiru argazki bertako hiru liburu bereziri egin behar zaizkiela argi du arduradunak:

Ezak ez zuen duda handirik eduki Liburutegiko hiru harribitxiak zeintzuk ziren erabakitzeke orduan: Erasmoren *Encomium moriae*, 1511ko ediziokoa, Machiavelliren 1532ko *Il príncipe* jatorrizko bertsoan eta Joannes Leizarragaren *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* 1571koa eta jatorrizkoa, hau ere.

(Alonso, 1995: 58)

Harribitxien artean liburu bakarra da euskal literaturakoa, Joannes Leizarragarena. Bada, gogorazi dezagun *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* (1571), pasartean «jatorrizkoa» gisa definitzen dena, euskal literaturako lehenbiziko itzulpen argitaratutzat jotzen dela. Pasartearekin lotuta, beraz, bi auzi azpimarratu nahi ditugu: batetik, Euskal Literaturaren Historiako mugarriztat jo izan diren zenbait liburu itzulpenak direla, eta, bestetik, itzulpenak izanagatik «jatorrizkotzat» (Alonso, 1995: 91) jo izan direla edo hala agerrarazi direla. Bada, horrelaxe gertatzen da, hain zuzen ere, euskal literaturaren historiografietan, zenbait garaitan, behinik behin, zenbait itzulpeni eta jatorrizko testuri pareko balioa ematen zaie euskal literaturaren eraikuntzan.

Bada, literaturaren historian egon badaude itzulpenak izan arren itzulpen modura funtzionatu ez duten testuak (Hermans, 2001: 123), eta «Traducciones autenticadas» esaten die Hermansek. Zentzu horretan autoitzulpenekin zerikusi zuzena dute (*idem*: 125): testu jakin bat jatorrizko bertsoa izateak edo ez izateak garrantzia galtzen du, baldin eta itzulpenak bestelako onespena badu, eta itzulpen baliokidetzat jotzen da: «La equivalencia conjura la muerte del traductor y el final de la traducción. Cuando una traducción se sublima hasta el punto de convertirse en un texto equivalente, se autodestruye como traducción» (Her-

mans, 2001: 127). Izan ere: «La equivalencia entre una traducción y su original se establece por un acto de habla performativo, externo e institucional. En lugar de ser una característica inherente a la relación que une a los textos, se proclama» (*idem*: 126). Euskal literaturan ere badaude gisa horretan jardun duten itzulpenak, eta badirudi horrek arrastoa utzi duela Alonsoren habitusean, jakitun dela halako itzulpenak, egon, badaudela, eta horiei buruzko gogoetak, beraren itzulpen praktikak bezalatsu, islaturik ageri dira beraren fikzioan ere.

Itzulpenaren egitekoa giltzarri da Atxagaren hitzetan ere: «gurea bezalako hizkuntza batean, gurea bezalako historia batekin, eta abar, itzulpena zinez harri angeluarra da, benetako giltzarria, funtsezkoa da, eta hortik pasatuko da euskal kulturaren etorkizun guztia. Eta pasako da ez bakarrik itzulpen literario delako horretatik, ezpada itzulpen orokorretik» (Atxaga, 2013). Atxaga bera etengabe ari da itzulpenaren bidez bere burua itzultzen, informazioa hartzen... zeren eta «kulturan egotea da itzulpenean egotea» (*idem*). Autorearen itzulpen-jardunean eta itzulpenarekiko harremana aztertzeko, kronologiari erreparatzea ezinbestekoa da (halaxe azpimarratzen zuen Atxagak berak 2013ko galdetegiari erantzun zionean); bada, «orain dela 30 urte, demagun, ez zegoen inolako itzulpen-sarerik, ez erakunderik, eta itzultzaileak ere oso bakanak ziren» (*idem*):

Demagun 80an hitzaldi bat eman behar zenuela eta aipu batzuk eman; ez zegoenez ezer itzulita, aipuak zeuk zerorrek itzuli behar zenituen. Garai haietatik prozesatu izan dudana da euskaldun izatea lan extra bat dela, eta euskal idazle izatea ere lan extra bat dela. Zenbat aldiz ez ote ditudan itzuli behar izan, hitzaldietan esate baterako, esan behar nituenak.

(Atxaga, 2013)

1980ko hamarkada hartan, beraz, artean itzulpen-eremua eta literatur eremua egituratzen ari zirenean, ezinbestean egin zituen itzulpenak Atxagak, beti beste lan batzuetarako behar zituelako, ateratzeko zein hitzaldiak emateko (*idem*). Dena den, literatur ibilbidearen hasieran egin zuen mandatuzko itzulpenik, autoreta onartu ez zioten arren.<sup>47</sup> Autoitzulpenari dagokionez, *Obabakoak* itzuli zuenean ezinbestekoa zen autoitzulpena; baina, denbora iragan delarik, eremua egituratu delarik eta inguruan itzultzaileak dituelarik, «orain nire autoitzulpena pasatzen da beste itzultzaile batzuen eskutatik aurrena, eta nire lana izugarri arindu da» (*idem*). Sarri eman izan ditu itzulpenari buruzko hitzaldiak Atxagak, eta *Erlea* aldizkarian ere eskaini izan dio tarterik. Bere blo-

---

<sup>47</sup> Ikusi Atxagaren blogeko «Bihotz oneko bi astotxo» izeneko sarrera: <http://www.atxaga.eus/blog/1241601275>

gean ere egin izan ditu itzulpenari buruzko gogoetak, eta sarri plazaratu izan du euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko zailtasun gehigarria: «Oso hizkuntza ezberdina da alde askotatik, ez bakarrik linguistikoki edo gramatikalki, bere historia sozialagatik eta abar. Koska handia da, izugarria euskaratik beste hizkuntza batzuetara» (*idem*). Fikziora ere ekarri du itzultzailea Atxagak, eta «Itzultzaile bat Parisen»<sup>48</sup> izeneko ipuinean pertsonaia «eraginkorra» da (Atxagak 2013ko galdetegian darabilen terminoa baliatuta).

«Itzultzaile bat Parisen» ipuineko protagonista, herren utzi duen ezbeharren ostean eta mutil-laguna galdu ostean, Parisa abiatzen da literatur testu bat itzultzera, Montsouris parketik gertu dagoen apartamentu batera, hogeitau urte lehenago egin bezala. Harako bidea hartzen du psikoterapeutaren aholkuei jarraituta; izan ere, aurreko bidaian Baudelaire itzultzen aritu zen Parisen, eta han bertan bizi izan zituen lehendabiziko maitasun-harreman homosexualak. Protagonista gizon oso negatibo gisa aurkezten zaigu («soy el cojo que quiere correr», 20. or.), ezkorra da bizitzari begiratzen dionean oro har, jasan duen istripuari egozten dio poztasunik eza, gorroto du inguruko enerrukia, jakitun da ingurukoek dagoeneko ez dutela gogoko... Bidenabar, halaxe da: lagunek ez dute gehiago jasaten (22. or.). Arazoaren funtsa, ordea, mutil-lagunak utzi izana da: «Teneís razón, Alberto me ha dejado. Ése es el verdadero problema» (22. or.). Istripuaren osteko orbanak eta herrena ezin eramanda utzi omen zuen Albertok gure protagonista (23-24. or.)<sup>49</sup>.

Nabarmentzekoa da Atxagak Parisa daramala itzultzailea, eta aipagarria da itzulpena egiteko norberarena ez den ingurura bidaia egitearen ideia literatura unibertsaleko beste lan batzuetan ere agertzen dela (ikusi, adibidez, Yoko Tawada idazlearen «St. George and the Translator»; Kaindl, 2014). Itzulpen-prozesua, beraz, bidaia da Atxagarenean.

Beste lan batzuetan agertu izan den irudia da, halaber, itzultzailearen akats fisikoa (Atxagarenean herrena da): «His findings narrowed down to one recurring characteristic: some oddity on the part of the translator, a slight defor-

---

<sup>48</sup> *Cuentos apátridas* liburuko kreditu-orrietan ipuin honen jatorrizko bertsiota «Itzultzaile bat Parisen» dela dakar, eta badakigu Jabier Muguruzarekin batera egindako irakurketa baterako prestatu zuela idazleak 1996an (garaiko egunkarietan halaxe jasotzen denez). Nolanahi ere den, ez dugu euskarazko bertsiarik aurkitu paperean inprimaturik. Hortaz, hemen dakartzagunak *Cuentos apátridas* (1997) bildumatik ateratako pasarteak dira, eta edizio horretako orrialdeen berri ematen da aipuetan.

<sup>49</sup> Gogora dezagun Atxagaren testu honek parekotasun bat baduela Cortázarren «Babas de diablo» ipuinarekin: Cortázarren ipuineko pertsonaia nagusia argazkilaria eta itzultzailea da, eta Parisen gertatzen da istorioa. Erreferentziak ere (erotismoa, parkeak...) bat dira bi ipuinetan.

mity of sorts, spoils a generally handsome image» (Ben-Ari, 2014: 119). Delabastitak eta Grutmanek fikziozko itzultzaileengan behin eta berriz errepikatzen diren elementuen artean zerrendatzen dituzte trauma eta nortasuna (2005); bada, biak ageri dira Atxagaren ipuinean, eta itzulpena, hein batean, sendabide bat balitz bezala ageri zaigu. Protagonistak Parisa egin zuen lehen bidaiari buruz honelaxe diotso psikologoari:

Durante el último curso había leído con frecuencia libros de Baudelaire, y tuve la idea de ir a París a traducir uno de ellos y perfeccionar mi francés. Fue un viaje decisivo. Hasta llegar allí, ni siquiera sabía que era homosexual. O mejor dicho, no lo aceptaba.

(Atxaga, 1997: 24)

Psikologoak bidaia hura errepikatu eta orduko pausoei jarraitzeko gomendioa egiten dio: «sólo será un juego, como los niños cuando van por la playa y se esfuerzan en recorrerla poniendo los pies sobre las huellas que dejaron otros» (26. or.).

Lehenago genioenez, itzulpena bera ere bidaia gisa definitu izan da sarri (Mihalache, 2005), eta horrek, hemen, indartu egiten du itzulpena, bidaia eta terapia lotzeko gure saioa. Itzulpena bidaia terapeutiko gisa irudikatzen da ipuinean, eta nabarmentzekoa da, gainera, protagonistak Parisa egindako bigarren bidaiari, itzulpen-saioak egoera biolentoen ostean agertzen direla. Beraz, gure ustez itzulpena barne-gatazkak onartzeko barne-bidaia sendagarri batekin pareka daiteke «Itzultzaile bat Parisen» ipuinean. Modu esplizituan ere esaten du protagonistak: «Seguí traduciendo hasta el final, sin hacer una pausa, tratando de no pensar en nada más «a modo de terapia», para decirlo con una expresión moderna (Atxaga, 1997: 55). Bada, ipuinaren bukaeran, pertsonaia nagusia konturatu egiten da «galerak» onartzen ikasi behar duela:

Cada vez veía las cosas con más claridad, lo único que ocurría era que buscaba una solución a algo que era lo que no tenía. Sencillamente. O para decirlo de manera más moderna, que no aceptaba el tanto por ciento de pérdida, de pérdida de vida, que implicaba mi nueva situación.

(Atxaga, 1997: 72)

Hain zuzen ere, galeraren auzia oso lotuta dago itzulpenari buruzko teoria eta gogoetekin. Mihalachek (2005) berak esana da analogia egin daitekeela itzulpenaren eta itzultzailearen errepresentazioen eta itzulpen-ikasketetan zirkulatzen duten auzien artean; bada, kasu honetan, aztergai den pertsonaiaren bizimoduan legetxe, itzulpen-teorialari zenbaitek diotenez, itzulpen-jarduna



bera onartuko badugu, itzulpen-jardunean gertatzen diren «galerak» onartu behar ditugu (Venuti, 2004; 2013). Izan ere, galerak edozein izanik ere, itzulpena egitearen irabaziak ere ez dira nolana hikoak. Kontua bestelakoa da Venutiren (2013) ustez: itzulpenak ez dira jatorrizko obrak balira bezala irakurri behar, ez baitira. Lehenago ere esan dugu Atxagak sarri egin izan duela bere lanak beste hizkuntza batzuetan ematean sortzen zaizkion zailtasun eta ezin itzuliez; bada, badirudi antsietate horiek ageri direla, alde edo moldez, aztergai dugun ipuin honetan.

Itzulpen-prozesuan zehar sortzen den zalantza ere ageri da «Itzultzaile bat Parisen» kontakizuneko pertsonaiaren izaeran: zalantzia da (oso ohikoa fikziozko itzultzaileengan), eta arlo linguistikoan ere gertatzen da etengabeko zalantza: Atxagaren fikziozko itzultzaileak sarri egiten du duda adierazpideei buruzko gogoetan:

Si estuviéramos en el siglo XIX –pensaba– mi bienintencionado amigo no habría dicho «negativismo», «agresividad», «deseo de culpabilizar a los demás» sino que se habría referido a la flaqueza, al rencor, a la envidia que el desgraciado siente hacia los que se ríen y parecen vivir felices.

(...)

Porque, para decirlo con una palabra que lo mismo sirve para el XIX que para el XX, la idea de que lo bueno o lo malo dependen de la actitud es una paparucha.

(...)

Una vez, por ejemplo, cuando uno de ellos me repitió por centésima vez lo de que mi vida no podía girar en torno al accidente, mi mente se quedó únicamente con la expresión “girar en torno”, creando a continuación la imagen del molino de un río.

(Atxaga, 1997: 16-17)

Izaera zalantziatiaz gain, izaera ezkorra ere badu pertsonaiak: zail egiten zaizkio gertukoekiko harremanak. Bada, oro har, aztergai dugun itzultzailearen iruditeria hori bat dator Barnettek Salvador Benesdraren *El traductor* eleberriko pertsoniaz dioskunarekin: lanean gaitasun handikoa bada ere, bere eguneroko bizitzako egoera zailak kudeatzeko ezintasuna ageri du; halaber, bat dator Andersonek (2005) deskribatutako Barbara Wilson idazle amerikarraren *Trouble in Transilvania* eleberriko pertsonaia *outsiderrarekin* (bidenabar, homosexuala da hori ere); eta bat dator Feltrin-Morrisek (2005) aurkeztutako *La casa sull lago de la luna*ko Fabricio itzultzaile isolatu, frustratu eta onarpenik gabearrekin.

Itzultzaile isolatu, *outsider* eta frustratuen ideari gaineratu beharrekoa da Mihalachek (2005) zerrendatzen duen beste irudi bat ere: itzultzaile exorzista edo *medium*arena. Honela dio «Itzultzaile bat Parisen» ipuineko protagonistak halako batean:

–¡Vaya! ¡Estabas aquí! –exclamé. La coincidencia entre mi pensamiento y su aparición, más propia de los aficionados a los fenómenos esotéricos que de un traductor de Baudelaire, me hizo reír. Deduje, bromeando conmigo mismo, que a lo mejor ya estábamos otra vez en el maravilloso tiempo de los cuentos, donde todo deseo se cumple.

(Atxaga, 1997: 42)

Ez da Atxaga euskal idazleen artean itzultzaile esoterikoaren ideia agertzen duen bakarra. 2013ko galdetegiari erantzunez euskal idazle garaikideek itzulpenaz aritzeko zerabiltzaten metaforak bildu genituen, eta hauxe zioen Harkaitz Canok: «Itzultzaileak badu ikertzailetik zerbait, ikertzaile intimo bat, inoren larruan sartzen den espezialista da: interprete bat ere bada, idazlearen ahotsa ekartzen digun medium gisakoa...» (2013); eta beste hauxe Itxaro Bordak: «Itzultzailea hizkuntzen bitarteko zubia, *mediuma* edo *chamana* izan daitekeelarik» (2013).

Euskal literaturatik kanpo ere sarri erabilitako metafora da: Susan Bassnettek gogorarazten digu, berbarako, Suzanne Jill Levine itzultzaileak itzulpena deskribatzeko darabiltzan metaforen arteko hauxe: «la traducción como (...) un puente entre los vivos y los muertos, como una resurrección y un sacrilegio a la vez» (Bassnett, 2002b: 62). Walter Benjaminek ere 1923an proposatzen zuen itzulpenaren ideia hori berori: «Benjamin defendía la traducción como continuidad, como el acto que garantiza el renacimiento del texto en un tiempo futuro» (Bassnett, 2002b: 66).

Atxagak Parisera eramandako pertsonaiaren lanbideaz denaz bezainbatean, informazio zehatzik ez zaigu ematen, ez dakigu zein duen profesioa. Ondoko zehaztasunak baino ez daude kontakizunean:

Concertaba citas con todo el mundo: con mis antiguos compañeros de trabajo; (...); con los periodistas que alguna vez me habían pedido un artículo; con los libreros que, justo antes del accidente, me habían hablado de una edición excepcionalmente hermosa de las obras completas de Baudelaire (...).

(Atxaga, 1997: 19)

Hala, ondoriozta dezakegun kontu bakarra hauxe da: literaturatik hurbil (ipuinean zehar idazleez eta haien obraz egiten diren aipamenak oinarritzat hartuta) eta idazketatik hurbil dagoen pertsonaia dela Parisa abiatutako «itzultzailea». Garaiko egoerarekin lot daiteke hori beste behin ere, eta batez ere aurreko etapetako itzultzaileen estatus eta onarpen-profesional ezarekin.

Ipuinean badaude itzultzaile batzuei egindako erreferentziak ere, gure protagonistak (eta autoreak) itzulpengintzari lotutako albo-eremuak ezagutzen eta baliatzen dituen seinale gisa, beharbada:

«El dandy debe aspirar a ser sublime sin interrupción: debe vivir y morir ante un espejo», leí. No era mi traducción, sino la de Antonio Martínez Sarrión, un traductor al que admiraba mucho.

(Atxaga, 1997: 45)<sup>50</sup>

Pero Terry no me dejó solazarme en aquella visión, y, encadenando recuerdos, me susurró las palabras con las que el propio Wilde había comenzado su famosa carta desde la prisión de Reading. O mejor dicho, las palabras que, parafraseando la traducción que de ellas hizo José Emilio Pacheco, yo había escrito a Alberto desde el hospital: «Tras larga y vana espera, me decido a escribirte por tu bien y por el mío. Me desagrada pensar que llevo tres meses de hospital sin recibir jamás una línea tuya, ni siquiera noticias o al menos un recado, excepto aquellos que me causaron dolor».

(Atxaga, 1997: 46)<sup>51</sup>

Lanbidearen eta langintzaren inguruko jakingarriekin jarraituta, badaude garaiko itzulpenaren testuinguruari buruzko jakingarriak deskribatzeko balia daitezkeen bestelako pasarteak ere. Esaterako, pertsonaiak itzulpena egiteko darabiltzan lan-tresnak deskribatzen dira:

En la maleta, aparte de la ropa y algunos objetos personales, sólo llevaba un diccionario, la colección completa de los libros de Baudelaire y varios cuadernos, en uno de los cuales, en una hoja más dibujada que escrita, figuraban los pasos que había dado durante mi primera estancia en la ciudad: el itinerario que, de

---

<sup>50</sup> Antonio Martínez Sarrión idazle, poeta eta itzultzaile espainiarra da, eta itzuli dituen autoreen artean daude Baudelaire, Victor Hugo, Jean Genet, Michel Leiris, Alfred de Musset, Chamfort, Jaccottet eta Arthur Rimbaud.

<sup>51</sup> José Emilio Pacheco ere idazlea eta itzultzailea da: Samuel Beckett, Walter Benjamin, S.M. Eisenstein, Zbigniew Herbert eta Tennessee Williams bezalako autoreak itzuli ditu.

acuerdo con el ceremonial propuesto, debía seguir para alejar de mí el horror al vacío (...). «Compré un ejemplar de *Le Spleen de Paris* en la misma estación. Me costó diez francos» decía la primera línea. «Abandoné la traducción y me dediqué a salir con mis nuevos amigos» decía la última.

(Atxaga, 1997: 27)

Koadernoak eta hiztegiak: horiek dira ipuineko «itzultzaileak» itzulpen-lanerako Parisa eramandako oinarritzko tresnak (urrun dago gaur egungo itzul-tzaile profesionalak darabiltzaten tresna informatiko eta memorietatik, barbarako). Beste pasarte honetan, ostera, itzultzaileak lanerako darabilen inguru-a deskribatzen da:

Acerqué la mesa hasta aquella ventana y coloqué lo que Alberto, al comienzo de nuestra relación, en los días felices, llamaba «el altar del traductor». Primero una pequeña muralla de libros, delimitando el campo donde debía tener lugar la transformación de unas palabras en otras, luego la pluma de tinta azul que iba a trazarlas y la pluma de tinta roja para las correcciones, a continuación mi amuleto, un trozo de ánfora que había encontrado en una playa griega, y por fin el diccionario, el libro y el cuaderno nuevo, los verdaderos protagonistas de la alquimia.

Cuando estaba acabando de vaciar las maletas, recordé una cosa nueva, algo que no había apuntado en mi itinerario. Veinte años antes, al sentarme por primera vez con el diccionario, el libro y el cuaderno nuevo, yo no me había limitado a traducir el primero de los textos de *Le Spleen de Paris*, sino que, antes de nada, en la primerísima hoja, a modo de frontispicio, había copiado aquel texto, *L'étranger*, en la versión original, con las mismas palabras que había utilizado el poeta.

Volví a la mesa, abrí el cuaderno, y, con la mejor letra posible, empecé a copiar el maravilloso diálogo: «Qui aimes – tu le mieux, homme énigmatique, dis? ton père, ta mère, ta soeur, ou ton frère?...».

(Atxaga, 1997: 31-32)

Txatal honetan itzulpenarekin lotutako hainbat interpretazio egin daitezke. Batetik, lan-mahaiaren deskripzioa aztertuta, esan daiteke itzulpen-jarduna zeremonia bat dela; bestetik, protagonistak berak itzulpen-prozesua «hitz batzuek bestelako hitzetan eraldatzeko» prozesu gisa definitzen du; azkenik, bada beste ideia interesgarri bat ere: testua kopiatzeari dagokiona. Itzulpena eta kopia sarri lotu izan diren irudiak dira (Berman, 2012). Badirudi horren guztiaren atzean datzan pentsamendua hau dela: itzultzaileak lor dezakeen bertsiorik fidelena kopia da, baina hizkuntza batetik besterako aldaketa

terapeutikoa izan dadin, atzerriratu, norberaren ingurutik distantzia hartu eta itzulpen-prozesuan gertatzen diren galera nahitaezkoak onartu behar dira, emozionalak zein hizkuntzazkoak izan.

Bada, Atxagaren pertsonaiak egindako bide hori berori egin zuen euskal literatura itzuliaren barne-eremuak alde edo moldez: ikusgai bihurtu eta tokitik aterata beste eremu batzuetako kideekin aritzearekin bat, besteekin parekatzeko pausoak egin eta norberaren egitura besteren egituren isla dela ikusi.

#### 5.4. 2000-2015: UNIBERTSITATE-IKASKETAK SENDOTZEA, NAZIOARTEKOTZE-POLITIKAK SISTEMATIZATZEA ETA FIKZIOZKO ITZULTZAILEAK BIDERKATZEA

2000. urtean abiarazi zen Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioa lizentziatura; beraz, 2000. urtetik aurrerakoa da itzultzaile tituludunen garaian hasiera, itzulpengintza-ikerketaren sendotzearena. Ugariu egin dira, artikuluko zientifikoez gain, baita corpus, unibertsitateko kanpoko ikastaro eta ekitaldiak zein prentsan eta sareetan literatur itzulpenari eskainitako tartek ere. Nolabait, barne-eremuaren berezko erreferentzien pilaketa handitzen eta pluralago bihurtzen hasi da, bai eta itzulpenari loturiko argialetxe eta bilduma espezifikoa sortzen ere. Itzulpen-sariak ere sistematizatu eta erakundetu direla esan dezakegu, eta euskaratik beste hizkuntza batzuetarako itzulpen-politika ere hasi da egituratzen, bai sustapenaren aldetik, bai bildumen sistematizazioari dagokionez. Eremuaren indarra eta eragina, baina, ez da bera euskal literatura itzuliak ukitzen dituen eremu geografiko guztietan: oro har, Ipar Euskal Herrian itzultzaileek ez dute kolektiboaren sentimendurik, itzulpen-politikak falta dira, eta, eragiletza pribatu xumea egonagatik, erakundeek bideratutako proiektu egituraturik ez dago. Itzulpengintzari lotutako egoerak ugariu edo azaleratu diren modu berean, esan daiteke, halaber, itzulpenari buruzko diskurtsoak berritzen eta ugariatzen ari direla, bai itzultzaileei euri dagokienez, bai idazleei dagokienez, bai gizarteko hartzaileei dagokienez ere; bestalde, 2000. urtetik aurrera agertutako Aldekoaren (2004) eta Olaziregiren (2012) literatur historiografietan nabari diren joerez denaz bezainbatean, literaturari ikuspegi sistemikoz begiratzeak genero periferikoetako itzulpen-testigantza berriak agertzeaz gainera, euskal itzulpengintza azpisisistematzat definitzeko saiakera egin da, historiako aro jakinetan izandako zentraltasuna agerraraztekoa, euskal literatur joera eta egile batzuen joerak garaiko itzulpenekin lotzekoa... Oro har, beraz, itzulpenaren literatur eraginei begiratzen diete historiografoek. Baita kanpoko eragileen eraginei ere, eta kanpoko sistemek egindako harrerari buruzko oharak egin dituzte. Itzultzaileen fikziozko agerpenari dagokionez, errealitatean bezalatsu, paperezko idazleak gero eta profesionalagoak dira, eta gero eta gertuago dauzkagu: definitu gabeko geografia batean zebiltzan itzultzaile mamuak *Manu Militari* eleberrian (Arrieta, 1987), Donostian, ostera, *Martutenen* (Saizarbitoria, 2015). Bestalde itzultzailea desleiala izatekotan, autorea bezain desleiala da, baina itzultzaileak onartu egin du zein den bere lekua literaturan eta hizkuntza gutxitu batean aritzeak dakartzan buruhausteak ahaztu ezinik ibili ohi da: idazle-itzultzaile bikoiztasunaren auzia, euskal literatur eremuaren ezaugarriari buruzko gogoeta, hizkuntza-zalantza etengabeak, itzulpenaren eta hizkuntzaren normalizazioa, eta itzulpenari berari lotutako auziak, esaterako, itzulezintasuna, soluzio bakarrera iritsi ezina, eta abar ageri-agerikoak dira euskal idazleek irudikatzen dituzten paperezko itzultzaileengan.

Langidearen estatusa goratu beharrez eta irakaskuntzari eta titulazioari ofizialtasuna eman beharrez, aurreko etapetan itzulpenaren inguruan bildutako profesionalen taldeak berak Jaurlaritzaren esku utzi zuen profesiorako sarbidea arautuko luketen ikasketak bideratzeko erabakimena; edonola ere, bidelagun eta aholkulari izan zen 1989ko dokumentu hartatik aurrera ere, hamar urte geroago EHUko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioa lizentziatura ireki zen arte. 2000. urtean abiarazi zen Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Itzulpengintza lizentziatura (gaur egun gradu-ikasketak dira).

Lakarra dekanor eta Bilbao dekanorde ziren orduan EHUko Filologia eta Geografi Historia Fakultatean, eta Bilbaok 2006ko *Senex 30* aldizkarian eman zuen ikasketen sorreraren, planen eta aldaketen berri, «Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean» artikuluan.

EHUko Gasteizko Letren Fakultateko webgunean zehazten denez, hauxe da ikasketa horietako gradudunek lortzen duten profila:

Graduatuek prestakuntza orokorra eta sendoa izango dute itzulpen eta interpretazioko metodo eta tekniketari. Horri esker, graduatuek itzulpen orokorrak nahiz espezifikokoak egin ahalko dituzte ikasketen diren hizkuntzetan. Graduatuek interpretazio-mota desberdinetarako gaitasunak izango dituzte ikasketen diren hizkuntzetan. Era berean, honako hauek eskatzen dituzten lanak egin ahalko dituzte: datuak landu eta interpretatzea, itzulpen- eta interpretazio-metodoak eta teknikak aplikatzea, ikasitako informazioa hartu eta transmititzea eta informazio bibliografikoa eta tresna informatikoak erabiltzea. Gaitasun horiek ezinbestekoak dira gradu honentzat proiektatu daitezkeen ia jarduerari profesional guztietarako, izan ere, jarduerari horietako gehienek adierazpen zuzena (interpretazioa, irakaskuntza, komunikabideak) edo zeharkakoa (itzulpengintza, kulturaren industria, etab.) eskatzen baitute.<sup>52</sup>

Eta hauexek, iturri beretik, graduatuei aurreikusten zaizkien irtenbide profesionalak:

Itzultzaile orokorra. Itzultzaile espezializatua (arlotan juridikoa, ekonomikoa, ikus-entzunezkoa, literarioa, zientifiko-teknikoa). Interprete: loturazkoa, biltzarretakoa, soziala. Hizkuntza-irakaslea. Testuen edizio eta zuzenketetarako aholkularia. Komunikazio-arduraduna. Harreman publikoak. Kanpo-merkataritza.<sup>53</sup>

---

<sup>52</sup> <https://www.ehu.eus/eu/web/letrak/itzulpengintza-eta-interpretazioko-gradua-aurreko-ikasturtea>

<sup>53</sup> <https://www.ehu.eus/eu/itzulpengintza-eta-interpretazioko-gradua>

Aurreko pasarteetan eta ikasketa-plana jasotzen eta arautzen duen Espainiako Aldizkari Ofizialean<sup>54</sup> zein EHUko Letren Fakultateko webgunean bertan Itzulpengintza eta Interpretazioa graduari buruzko informazioa eta irakaskuntza-eskaintza epigrafean jasotzen denez,<sup>55</sup> literatur itzulpenak berak ez dauka ikasgai propiorik graduko programan: itzulpen-praktikak ikasgaiak orokorrak dira, eta horietan txertatzen da literatur itzulpena. Gaur egun, literaturari lotutako ikasgai espezifiko bakarra 2. mailan eskaintzen da: Literaturaren Teoria. Bestalde, literatur itzulpenari lotutako graduondokorik ez dago EHUko Letren Fakultatean.

Edonola ere, itzulpengintza eta interpretazioa egin izan duten hainbat ikasleek itzulpengintzari lotutako gaiak ikertu dituzte bai Euskal Hizkuntzalari-tza eta Filologia masterrean, bai Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak izeneko masterretan, eta hortik etorri dira, besteak beste, azken urteotan euskal itzulpengintza literarioari (zuzenean eta zeharka) eskainitako zenbait tesi. Halaber egon da, jakina, itzulpen-ikasketak sortu aurretik itzulpenaren ikerketan hasitakoek bideratutako tesi-lanik literatur itzulpenari loturik. Denak ere 2000. urtetik aurrera aurkeztutakoak dira, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren TESEO datu-basean kontsulta daitekeenez.<sup>56</sup>

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuak prestakuntza-erakunde ofizial eta profesionalen erakunde bereziturik eduki ez arren, kokatzen den itzulpen-eremu zabalagoaren barruan badu bere lekua, bai praktikari dagokio-

<sup>54</sup> BOE: <https://www.ehu.es/documents/1690128/1983906/BOE-A-2011-2206.pdf>

<sup>55</sup> <https://www.ehu.es/eu/itzulpengintza-eta-interpretazioko-gradua/kreditu-eta-irakasgaiak-ikasturteka>

<sup>56</sup> 2000. urtekoa da López Gaseniren *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: eraginak, funtzioak eta itzulpen-estrategiak*. Genaro Gómezek 2004an defendatu zuen *Grimm anaien kinder-und hausermärchen euskaraz: itzulpenen eta egokitzapenen azterketa*. Aiora Jakak 2011n aurkeztu zuen *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Elizabete Manterolak 2012an defendatu zuen *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia; Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Naroa Zubillagak 2013an defendatu zuen *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. Lan honetan langai dugun denbora-tartetik aurreragoak dira Koldo Bigurik 2016an irakurritako *Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenaren estilistika konparatu baterako materialak: perpaus erlatibo esplikatiboak euskaratik gaztelaniara eginiko literatura-itzulpenetan* (gaiak: itzulpengintza, estiloa eta erretorika, sintaxia eta analisi sintaktikoa); Miren Ibarluzearen *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan* (2017) eta urte bat geroago Garazi Arrularen *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian*. Ikusi: <https://www.educacion.gob.es/teseo/irGestionarConsulta.do>



nez,<sup>57</sup> bai erreferentziei dagokienez, bai kapital sinbolikoari dagokionez. Azken horri loturik, nabarmentzekoa da azken urteetan euskal literatur itzulpenaren onespina eta balioa handitu egin dutela bai aurretik aipatzen genuen moduko ikerketek, bai itzulpen-praktikak berak, bai erdietsitako kalitateak eta kalitate hori aintzatetsi izanak. Izan ere, estatusa goratzea itzulitako literatur testuek lortutako mailari ere zor zaio; urteek aurrera egin ahala, nola itzultzaileen profesionalizazioak eta espezializazioak hala hizkuntzaren eta literaturaren bilakaerak berak ez dute aurrera alferrik egin: gaur egungo itzulpenak asko hobetu direla egitate bat da, bai eta euskal literatur itzultzaileek ekarpen nabarmena egin dutela euskal literaturaren garapenean ere, literatur espazioko hainbat eragilek azpimarratu izan dutenez (Behinola, 2009: 7-13; Olaziregi, 2012: 160; Ibarluzea, 2015: 69). Estatusa goratzearekin lotuta daude legitimazio-agentziak, esaterako, 2002az geroztik Gasteizko Udalak antolatzen duen Haur eta Gazte Literatura itzuliaren saria.

Barne-eremuaren kapital propioa handitu egin da, eta lehenago ere martxan zen «Literatura Unibertsala» bilduma proiektuak bigarren aroa etapa honetan kokatzekoa da. Izan ere, bigarren aro hori 2002-2010 urte-tartean argitaratutako 52 liburuk osatzen dute; kasu horretan, bildumako obrak kaleratzeko ardura Elkar eta Alberdania etxeena izan zen. Gaur egun, «Literatura Unibertsala» bildumaren hirugarren aroan gaude. 2011n abiatu zen, eta argitalpenaren ardura Erein, Alberdania eta Igela argitaletxeek dute. Horrez gain, lehenengo aroko liburuak agortuta zeudela-eta, «Urrezko Biblioteka» izeneko bilduma ere abiarazi da Elkar argitaletxearen eskutik hautatutako hogeitau obra berrikusi eta kaleratzeko.<sup>58</sup>

Horrez gain, azken urteotan hainbat bilduma eta argitaletxe sortu dira, beren-beregi itzulpenak editatzeko. Pasazaitte argitaletxeak, esaterako, «inportazioko liburuak» argitaratzen ditu, argitaletxearen webgunean zehazten duenez; bildumei dagokienez, Susa argitaletxearen *Munduko Poesia Kaierak* bilduma aipa daiteke, bai eta *Batera* bilduma ere, Erein etxearena.

Argitalpenaren esparruko espezializaziorako joera horrek ere islatzen du, gure ustez, euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizaziorako

<sup>57</sup> EIZIEK gaur egun 363 kide ditu (334 kide aktibo eta 29 ohorezko bazkide). Horien arteko 150 dira liburu-itzultzaileak (EIZIEK utzitako barne-dokumentuen arabera). Horrek esan gura du gero eta gehiago direla kidego berean elkartu gura duten profesionalak.

<sup>58</sup> Bildumari buruzko informazio osagarria nahi izanez gero, ikusi Ibarluzea (2013); linean: <https://lapurdum.revues.org/2418#tocto2n1> & EIZIEren webgunea: [http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Literatura\\_Unibertsala](http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala)

joera: denak ere Boltanskik azaltzen duen fenomeno baten adibide dira; hain zuzen ere, eremuaren produktu espezifikokoaren pilatze sistemiko selektiboaren adibide (1975: 37). Euskal literatura itzuliarekin lotutako artikulu zientifiko, corpus, ikastaro eta ekitaldiak ugaritu izana ere fenomeno beraren erakusle da. Literatur jaialdietan zein azoketan euskal literatur itzulpenari eskainitako mahai-inguruak, lantegiak, prentsan euskal itzulpenari egindako tokiak, itzulpen-praktikari zein itzulpenari buruzko hausnarketari eta gogoetari buruzko postak biltzen dituzten blogak, eta abar eremuaren erreferentzia propioen pilatzeari, eta, hortaz, (barne-)eremuaren autonomizazioari lotzekoak dira. Produktu espezifikokoak pilatzeko joera horretan, esate baterako, EIZIE elkartearen «Nor da Nor» itzulpenen eta itzultzaileen katalogoa aipa daiteke (<http://nordanor.eus/>). Gaur-gaurkoz, euskaratik eta euskarara egindako hainbat literatur generotako itzulpenak daude kontsultagai. Itzultzaileei dagokienez, datu-baseko itzultzailei buruzko datuak ez eze, elkarteko kideen datuak ere jasotzen dira bertan. Datu-basea literatur itzulpenak soilik jasotzeko sortu ez bada ere (ez behintzat itzultzaileen datuei dagokienez, elkarteko kide guztien datuak baitaude bertan), nabarmentzekoa da literatur itzulpenak oraindik ere datu-base horretan duen zentraltasuna (itzulpenen atala literatur itzulpenen katalogoa da), bai eta elkartearen beraren proiektuetan duen zentraltasuna ere.

Bestalde, 2014an Espainiako Itzulpen Sari Nazionala Josu Zabaleta euskal itzultzaileari esleitu izana ere euskal literatur itzulpenaren eremuaren autonomizazioaren islatzat jo daiteke, hain zuzen ere euskal literatur itzulpenaren eremua eremuz kanpoko agentziek balioestearen islatzat.

Barne-eremuaren egitura hori guztiori eta pilatutako kapitala, baina, ez da bera eragin-esparru guztietan. Esan dezakegu euskal literatura itzuliaren barne-eremuak indar-sare ahulagoak dituela Ipar Euskal Herrian: gutxiago dira itzultzaileak eta itzulpenak, eta urriagoa da itzulpenen irismena. Apalategik periferikotasun bikoitza esleitzen dio Ipar Euskal Herriko literaturari: «munduko literatur sistema nazioartekoan arras periferikoa den gure euskal literatur sistema xumearen periferian aurkitzen den azpisistema literario bat da: Iparaldeko euskarazko literatura. Periferiaren periferia beraz» (Apalategi, 2005: linean). Bada, periferikotasun hori itzulpenari eta literatur itzulpenari ere badagokio.

2008an bildu ziren Ipar Euskal Herrian ziharduten zenbait itzultzaile Iparaldeko itzulpenari buruzko mahai-inguru batean,<sup>59</sup> eta, bilerari buruzko

---

<sup>59</sup> Hain zuzen ere, Ipar Euskal Herrian diharduten lau itzultzaile bildu ziren: Kattalin Totorika, Fermin Arkotxa, Nahia Zubeldia eta Edurne Alegria.

aktan jasotzen denez, «mugaz bestaldeko euskal itzultzaileen arteko harreman eta ezagutza eskasa» azpimarratu zuten partaideek (Alegria, 2008: linean). Antza, ez dute kolektiboaren sentimendurik, baina, nonbait kidetzekotan, Hego Euskal Herriko elkarteko kide egiten dira, oro har, ez Frantziako itzultzaileen elkarteetan: «Itzultzaile-elkarteei dagokienez, mahai-inguruan parte hartu genuen denok EIZIEko kideak bagara ere, aitortu behar izan genuen elkarte ezezaguna dela Iparraldean, eta, beraz, lana egin beharko litzatekeela gabezia hori betetzeko» eta «Gutako inor ez da Frantziako itzultzaile-elkarte bateko kide» diote (*idem*).<sup>60</sup>

Prestakuntza-arazoei buruz jardun zuten aipatutako bilera hartan ezen, Iparraldeko itzultzaileen konbinazio-eskari ohikoenak frantsesa-euskara (eskaera hori izaten da Iparraldean) eta euskara-frantsesa (horixe da Hegoaldetik egin ohi den eskaria) badira ere, egun ez dago Frantziar euskara aintzaketzat hartzen duen itzultzaile-eskola edo fakultaterik: «Euskaratik frantsesera eta alderantzizko itzulpenak hizkuntza-ikasketetan soilik landu daitezke, hots, Euskal Filologiako ikasketetan, edozein atzerriko hizkuntza-ikasketetan egiten den moduan» (*idem*). Bestalde, Hego Euskal Herriko prestakuntza-sareak ez die irtenbide erabatekorik ematen beren hizkuntza-norabideetan trebatzeko: «gure mahaikide baten esperientziaren arabera, Gasteizko itzulpen-ikasketetan ez da lantzen euskaratik frantsesera edo gaztelaniatik frantseserako itzulpena, alderantzizkoa baizik» eta «Gainera, jakina da Hegoaldean azken hamarkadetan frantsesaren irakasteari utzi zaiola ingelesaren mesedetan, horrek ekarri dituen ondorio ezin txarragoekin (horien artean frantsesera itzulitako testuen kalitate eskasa)» diote (*idem*). Beraz, euskaratik frantseserako itzulpena suspertzeko premia agerian geratu zen haien solasaldian, bai eta frantsesetik euskarara gutxi itzultzen dela ere. Hara zer aipatu zuten bilera hartan literatur itzulpenaz:

**Itzulpen literarioa.** Mahai-inguruan geunden batzuk Iparraldeko eta Frantziako argitaletxeekin lan egin izan dugu, esate baterako, Gatuzain, Quai Rouge, Castor Astral, Atlantica, Pimientos. Esperientziak desberdinak izan arren, esan daiteke oso gutxi itzultzen dela euskaratik frantsesera eta are gutxiago frantsesetik euskarara. Maila horretan, nabaria da itzulpen-politika baten falta Iparraldean. Aztertu gabe geratu ziren beste lan-esparruak, hala nola, administrazioko beste zerbitzuak, enpresa pribatuak, turismoa eta ostalaritza, hezkuntza mundua, etab.

(Alegria, 2008: linean)

---

<sup>60</sup> Hara hor beste arrazoibide bat euskal literatura itzuliaren eremua nazioz gaindikoa dela esateko.

Mahai-inguruan aipatutakoez gain aipa daitezke, halaber, *Maiatz* aldizkaria bezalako ekimenak: bertan itzulpenak argitaratu izan dituzte hainbat idazlek.<sup>61</sup> Bestalde, arlo akademikoan ere egin dira, UPPA unibertsitateari, Michel Montaigne unibertsitateari eta IKER-UMR5478 ikerketa-laborategiari lotuta, euskal literatura itzuliaren barne-eremuan koka daitezkeen zenbait ikerketatan; batzuk aipatzearen, Aurelie Arcocha-Scarciak, Ur Apalategik, Mirentxu Irigarayk, Natalia Zaikak zein Joana Pocheluk egindakoak, gehienak *Lapurdum* aldizkarian<sup>62</sup> argitaratu direnak. Arlo akademikotik at, baina, euskal literatur itzulpenari lotutako eragileak gutxi eta xumeak dira Ipar Euskal Herrian, egoera soziolinguistikoa dela eta, euskarak ez baitu inongo ofizialtasun-estatusik Frantzian. EIZIEk antolatutako eta aipatu berri dugun mahai-ingurua egin zen garai bertsuan jarri zen martxan Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) erakundea.<sup>63</sup> Hizkuntza-politika ere egiten du erakunde horrek Iparraldean, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan. Erakundearen beraren eta hizkuntza-teknikarien eskariz sortutako itzulpen-beharrez gain, ez da erakundearen txostenetan biltzen literatur itzulpenari eragiten dion politikarik. Hara zer zioen Alegriak aurretik aipatu txostenean:

Hona zer aurreikusten den «Hizkuntza Politika» txosteneko 6. kapitulan: *Europa, Frantzia, Akitania mailan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitalpen alorrean eskumena duten erakundeekin lan harreman iraunkorrak eraiki, laguntza egitura ezberdinekin lotura segurtatuz* (6-1.1). Eta bertan esplizituki aipatzen da: *Euskarazko itzulpengintza lagundu* (6-1.2), *honako hau gehituz: Ekoizpen elebidunen eta frantsesezko liburu klasikoek itzulpenen argitalpena lagundu* (6-1.3).

(...)

Gai honi buruz Jean Claudek esan zigun itzulpen lanak aurkez daitezkeela beste lanekin batera eta hautatu lanak beren laguntzarekin argitaratzen direla. Arlo honetan, beraz, ildo bat ireki daiteke.

(Alegria, 2008: linean)

---

<sup>61</sup> Ikusi, esaterako, Itxaro Bordak bertan argitaratutakoen berri «Itxaro Borda bortxaz itzultzaile» (Jaka, 2015) artikuluan; linean: <http://www.ehu.es/ehg/sarasola/liburua/Sarasola-Gorazarre33.pdf>

<sup>62</sup> Ikusi: <https://lapurdum.revues.org/>

<sup>63</sup> Ikusi: <http://www.mintzaira.fr/>

Eragiletza pribatutik sortutako proiektuak laguntzeko modua badago Ipar Euskal Herrian, modu xumean bada ere, baina ez erakundeek bideratutako proiektu egituraturik.

Erakundeekin jarraituz, EIZIEk aurrerapausoak eman ditu Ipar Euskal Herriko itzulpen-eremuarekiko harremanetan, eta aurreko bileraren haritik, hainbat ekimen sustatu ditu; kasurako, Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan Pauen 2012an egindako «Idazlea itzultzaileen lantegian».<sup>64</sup>

Euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako literatur itzulpenei dagokienez, norabide horretako itzulpenak sustatzeko itzulpen-politikak ere sortu dira: Eusko Jaurlaritzak 2000. urteaz geroztik hainbat laguntza eta poltsa bideratu ditu euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulpenak egiteko. Gaur egun, 2012tik zehazki, Etxepare Euskal Institutuak sustatzen ditu beste hizkuntza batzuetarako itzulpenak eta merkatu-politikak: katalogoak argitaratzen ditu; itzulpenak laguntzeko deialdiak ateratzen ditu; argitaletxe, autore eta itzultzaileentzako bekak eta egonaldiak sustatzen ditu, eta nazioarteko azoketan euskal literaturaren presentzia bultzatzen du. Arlo horretan egindako lanaren beste adibide bat da Etxepare Euskal Institutuaren webgunean txertatutako *basqueliterature.com* ataria, lehenago EIZIEk kudeatzen zuena. Hala ere, 2015ean, Etxepare Euskal Institutuak eta Laboral Kutxak euskararen eta euskal kulturaren sustapenean eta elkarlanean aritzeko Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria sortu zuten, jatorriz euskaraz idatzi eta beste hizkuntza batean argitaratutako obra baten itzulpena saritzeko. Itzulpenaren kalitatea eta argitaletxearen sustapen-plangintza aintzat hartu, eta bi-biak (itzultzailea eta argitaletxea) saritzeko xedea du lehiaketak.<sup>65</sup> Ikusten denez, euskal eremuan egindako literaturaren itzulpenak ezagutzera emateko ahalegina saritu nahi da.

Jarduera horiek guztiek indartu egiten dute euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizazioa eta barne-eremuko produktu espezifikoak sortzea; izan ere, Etxepare Euskal Institutuak nazioartean egindako sustapenak eta zabalkundeak euskal literatura ikusarazteko bestelako bideak zabaldu ditu, eta, nahitaez, itzulpenaren bidetik pasatzen da ikusgaitasun hori. Lehenago ere ematen zituen laguntzak Eusko Jaurlaritzak euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulpenak egiteko, baina Etxepare Euskal Institutua agertu

<sup>64</sup> Argibide gehiago hemen: [http://www.eizie.eus/Jarduerak/idazlea\\_eta\\_itzultzaileak/itzulika12amaiera](http://www.eizie.eus/Jarduerak/idazlea_eta_itzultzaileak/itzulika12amaiera)

<sup>65</sup> Ikusi sariketari buruzkoak EHAAn: <https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/p43a-BOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015002649>

aurretik, esaterako, laguntzek ez zuten biltzen nazioarteko jaialdi eta azoketan aurkezpenak egiteko aukera zein literatur itzulpenetarako prestakuntzan eta zabalkundean ari diren erakunde-sareetan parte hartzeko aukera. Dirulaguntzak ugaltzarekin bat, gero eta handiagoa da euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanen pilatze sistemiko selektiboa ere; besteak beste, honako ekimen hauek aipa daitezke: Atenea argitaletxe madrildarraren «Biblioteca vasca bilingüe»<sup>66</sup>, Nevadako Unibertsitateko William Douglass Center for Basque Studies (Reno) zentroak bideratutako «Basque Literature Series» bilduma (2004-)<sup>67</sup> edota «collane m30» bildumak<sup>68</sup> euskal literaturari eskaintzen dion lekua, esaterako. Azken hori Gran Via Edizioni argitaletxearen bilduma bat da, «Espania pluralaren narratiba»ko zenbait lan biltzen duena; halaber, hortxe dago Malinc argitaletxe esloveniarraren ere, euskal literaturari tartea egin diona, bai eta Holandan (Herbehereak) kokatutako Zirimiri Press<sup>69</sup> edo Moskuko (Errusia) Gernika ere. Horrez gain, elkarteak ere badira, euskal literatura itzuliaren espazioari eusten diotenak; kasurako Euskalema, elkarte euskal-alemaniarrek euskaratik alemanierara itzulitako hainbat lan argitaratu ditu.

Badirudi, beraz, euskal literatura esportatzeko joera handitzen ari dela, eta euskal literaturaren itzulpenean espezializatzen ari diren itzultzaileak (batzuek zuzenean itzultzen dute euskaratik) agertzen ari direla, Etxepare Euskal Institutuak emandako datuen arabera.

Aurreko atalean genioenez, literatur itzulpenen kalitateak gora egin duenez eta kontsakrazio-agentzien bidez langintzaren eta produktuen estatusa goratu direnez, literatur itzultzaileen eta itzulitako literaturaren irudia gero eta positiboagoa da; hala ere, badirudi itzultzaileari berari kosta egiten zaiola agertzea eta lehen planoan ikusgai egotea. Esate baterako, «Literatura Unibertsala» bildumako paratestuak aztertu ondoren frogatu ahal izan genuen itzultzailea bera izan ohi dela hitzaurrea idazten duena (Ibarluzea, 2014), baina bildumako 152 hitzaurreen irakurketak beste ondorio bat ere azaleratzen du: itzultzaileak inportatzen duen literaturaren kontsul gisa jarduten duela, itzulitako autorearen eta lanaren inguruko zehaztasunak ematen dituela oro har, testuinguruan kokatzen duela itzulitako lanaren jatorria eta garrantzia, baina oso gutxitan aipatzen duela itzulpenari buruzko auziren bat. Montorio itzultzaile-

<sup>66</sup> [http://www.editatenea.com/epages/eb7374.sf/es\\_ES/?ObjectPath=/Shops/eb7374/Categories/BIBLIOTECA\\_VASCA\\_BILINGUE](http://www.editatenea.com/epages/eb7374.sf/es_ES/?ObjectPath=/Shops/eb7374/Categories/BIBLIOTECA_VASCA_BILINGUE)

<sup>67</sup> <http://basquebooks.myshopify.com/collections/literature-series>

<sup>68</sup> <http://www.gran-via.it/collane/m30/>

<sup>69</sup> <http://www.zirimiripress.com/>

leak berak jakinarazi zuen fenomeno arrunta dela hori euskal itzultzailearenean, itzultzaileak barneratua baitu testuan arrastorik utzi behar ez duela (Ibarluzea, 2014: 708).

Idazleek euskal itzulpenaz eta itzultzaileez duten pertzepzioaz denaz bezainbatean, badirudi euskal itzulpenaren eta itzultzaileen rolaren irudi positiboa gero eta gehiago ari dela zabaltzen: hala islatzen dute euskal sortzaile garaikideen adierazpen publikoetan zein gaiari buruz egindako elkarrizketetan<sup>70</sup> eta baita idazleek euren fikzio lanetan agertzen duten itzultzaileen errepresentazioetan ere.

Nolabait, esan dezakegu euskal itzulpen-eremuaren bilakabideak eragina izan duela ez soilik itzulpen-praktikan eta diskurtsoan, haien jarduna eta hitzak ere eraldatu egin baitira azken 30 urteotan. Atxagak egiten duen aipamen hau hemen azaltzen ari garen bilakabidearen isla dela esan dezakegu:

Orain dela 30 urte demagun, ez zegoen inolako itzulpen-sarerik, ez erakunderik, eta itzultzaileak ere oso bakanak ziren. Gure aurretik zer itzulpen ezagutzen genituen? Ba Gabriel Arestik Eliot poetarenak itzuli zituen; eta akordatzen naiz Amurizak egin zuela Huxleyren *Bai mundu berria*. Itzulpenak bakan-bakanak ziren. Autoitzulpena: *Obabakoaken* kasua daukat nik garbiena: ezinbestekoa zen autoitzulpena, eta ez bakarrik ezinbestekoa, gainera lan ia-ia ezinezkoa zen. Larra mendik esan zuen, bada, «ezinezkoa gauditua» (bere gramatika da *El Imposible Vencido*), bada, nik *Obabakoak* itzuli nuenenan, inoiz adierazi dudanez, ezinezkoa izan zen ia, osasun asko galdu nuen. Esate baterako, zatitu eta eman nien niretzat irakurle zirenei, lagun batzuei, eta etorri zitzaizkidanean itzulpenak... gaitoxotu egin nintzen ikusita nola zeuden itzulita. Egin behar izan nuen lan oso sakona. Autoitzulpena zen, baina oso baldintza negargarrietan.

Gero, eman dezagun 30 urte geroago, emaztea da Asun Garikano, itzultzaile zoragarria. Orduan, orain nire autoitzulpena pasatzen da beste itzultzaile batzuen eskuetatik aurrena eta nire lana izugarri arindu da.

(Atxaga, 2013)

2013an itzulpen habitusa aztertzeke hamasei idazle garaikideri pasarazi genien galdetegian oinarrituta, esan dezakegu euskal idazle garaikideentzat oso gertuko errealitatea dela literatur itzulpena, are gehiago gizarte eleanitz bateko kide diren aldetik (Ibarluzea, 2015). Futzionatzeko modu bat dela ere

<sup>70</sup> Galdetegien ingurukoak irakurtzeko ikusi Ibarluzea 2015.

badiote, buru-egoera bat dela (Alonso, 2013). Hala, autoitzulpena praktikatu izan dute, itzulpena lanbide izan dute, edo euren lanbidearekin lotutako itzulpenak egin izan dituzte unibertsitatean zein testu-edizioari loturik. Halaber, besteren testuak itzuli izan dituzte, gehienetan balio literarioa zutela-eta, gus-tuz, euren irizpideen arabera hautaturik itzultzailea eta itzulgaia (Ibarluzea, 2015). Badira, baina, enkarguz egin dituzten lanak ere. Batez ere hizkuntza zorroztea, estilistika aberastea eta beste idazle batzuen larruan sartzea aipatzen dituzte arrazoitzat. Bordak (2013) dioenez, «Ariketa eta ikasketa gisa erabil-tzen dut, lehen gaur baino gehiago. Idazteko baliabideak bezain hizkuntza baliabideak garatzeko. Beste idazle baten larruan sartzeko ere». Honela labur-biltzen du auzia, halaber, Gabiriak:

Nire ustez, itzultzailea da idazlearen asmoetara gehien heltzen den irakurlea. Liburu jakin bat irakurrita lortzen duzun sakontasun-maila aise gainditzen du itzultzaileak, testuaren oso barrura heltzen zara; ez, jakina, idazlearen pertzep-zio-mailara, baina bai irakurle arrunta baino urrunago. Beraz, testu baten fun-tzionamendua ulertzeko, testu hori itzultzea oso gauza baliagarria da. Edozein idazlek asko ikasiko luke gustuko duen libururen bat itzuliko balu. Eta literatura-ren mekanismoak ikusteaz eta ikasteaz gain, hizkuntza nola bihurrikatu daitekeen ere ikasten da itzulpenari esker. Oso ariketa ona da horretarako: batetik, hizkun-tzaren aukera ugariak erabiltzera derrigortzen zaitu; eta, bestetik, ariketa lotua denez (beste norbaitek idatzitako testuari lotua, alegia), irakasten dizu sormenean askeagoa izaten, eta itzulpenean erabiliko ez zenituzkeen hitzak sormenean erabil-tzen, adibidez.

(Gabiria, 2013)

Edonola ere, idazleotako gehienek ez dute euren burua itzultzailetzat, ez eta itzultzaileen kolektiboko partetzat ere (itzultzaile profesional gisa lan egin izan duten hiru idazleak kenduta); oro har, ez dute itzulpengintza-pres-takuntzarik jaso, eta ez dituzte ezagutzen eremuko tarifak eta lan-baldin-tzak. Nolabait, literatur itzulpena literatur jarduerarekin eta eleaniztuna izatearekin lotutako zerbait da haientzat, sormenari eta hizkuntzari lotutako jarduna.

Idazleei euren lanak autoitzultzeko arrazoiei buruz galdetuta, arrazoi eko-nomikoak (itzultzaile bat ordaintzeko aurrekonturik ez izatea proiektu zeha-tzetan, adibidez), inori lana bidaltzeko epe estuak, eleaniztunak izatea eta testua berridazteko, hobetzeko zein aldatzeko aukera aipatzen dituzte, bai eta testuaren kontrola ez galtzea ere (Ibarluzea, 2015).



Kasu batzuetan, baina, itzulpena bera sormen-jarduera da (edo izan liteke), idazketa-prozesuan beste pauso bat ematekoa, Apalategik (2013) dioskunez: «Itzulpen literarioak izan dezakeen interes bakarra ekintza kreatibo (edo bir-kreatibo) gisa leukakeena da». Sormenaren bideak jorratzeko ariketa da itzulpena Arkotxarentzat:

Oinarrizko prozedura da literatura-sorkuntzan eta testuek, garaiez gain eta hizkuntza ezberdinez gain, elkarrekin mantentzen dituzten harremanetan. Sorkuntzaren parte da osoki itzulpena enetzat.

(Arkotxa, 2013)

Arkotxak, gainera, ezberdindu egiten ditu frantsesera egin ohi duen autoitzulpena, gaztelaniarako itzulpenetako koitzulpena, eta beste hizkuntza batzuetatik euskarara dakartzan hitzak, azken kasu horretan ere sormen-prozesuko bide gisa:

Ezberdintzen ditut frantsesez egiten dudana «autoitzulpena» (edo «berridaztea» «réécriture»), gazteleraz egin dezakedana «ko-itzulpen» eta oro har euskarara kanpoko hizkuntzetarik egiten ditudana «itzulpenak».

Autoitzulpena frantsesez bakarrik da egiten ene kasuan, frantsesa ene bigarren literatura-hizkuntza delarik. Nolabait, euskarazko jatorrizko testuaren espre-sibitatea zabaltzen da, euskaraz gain frantsesez neronek «berridazten» dudalarik testua. Ko-itzulpena, berriz, gaztelerarekin da egiten ene kasuan, gaztelera ene hirugarren hizkuntza delarik. Hirueleduna bainaiz haurtzarotik. Euskararako itzulpengintza egiten dut ene euskarazko testuetan kanpoko hizkuntzetan idatziak diren zati batzuk sartzen direlarik euskarazko diskurtsuan, sorkuntza prozesuan integraturik.

(Arkotxa, 2013)

Nolanahi ere den, aipatu berri dugun kasua ez dago oso zabaldurik gure idazleen artean eta, oro har, badirudi sormen-jarduera eta itzulpena bereizteko gero eta joera handiagoa dagoela. Hori esateko zantzuak ageri dira Canoren (2013) hitzotan: «Jakina, zerorren testuetan askeago joka zenezake (nahiz eta, lehen esan dudana bezala, neure buruari diziiplina gero eta gehiago eskatzen diodan zentzu horretan)». Halaber, badirudi gero eta gehiago direla euren lanak autoitzultzeari uko egin eta sormen-lanetan zentratu gura duten autoreak. Horixe da, adibidez, Apalategiren kasua. Lanak beste inori itzultzeko emateko arrazoien artean, epe-kontuak ez eze, auto etiko-politikoak ere aipatzen ditu:

Dena den, aukera izanda ere, ez dakit eleberri bat bezalako lan luze baten itzulpenari ekingo niokeen. Printzipioz nahiago dut sortzen igaro denbora, eta ez itzultzen. Eta euskal literaturarentzat kaltegarria iruditzen zait, oro har, autoitzulpen-gintza sistematizatzea. Arazo etiko-politiko dela uste dut. Ez lidake inolako arazorik sortuko beste hizkuntza gutxitu batera autoitzulpena praktikatzek. Kontua da hizkuntzak indar harreman batean daudela eta ez dela gauza bera hizkuntza batera ala beste batera itzultzea. Ondorio edo efektu sistemiko nahiz politikoak ditu autoitzulpen-gintzak.

(Apalategi, 2013)

Canoren kasua ere antzekoa da, eta sormen- eta itzulpen-joerak bereiztera jotzen du:

Neure gogoz, nahiago nuke aukeran nire lanak itzultzaile profesionalen esku utzi, eta horretan saiatzen naiz aspaldion. Osterantzean, jada itxita dagoen istorio bat berriro irekitzera derrigortzen zaitu prozesuak. Nolabait «ralentizatu» egiten du autoitzulpenak euskal idazlearen produkzioa... Ez da derrigorrez txarra agian, baina...

(Cano, 2013)

Aurretik aipatutako galdetegi jarraikiz, euskal idazle garaikideek euskarazko itzulpenak irakurtzeari buruz agertzen dituzten jarrerai dagokienez, badirudi gora egin duela euskarara itzultitako literatur lanak irakurtzeko joerak euskal idazleen artean. Uribek (2013), esaterako, sormen-lanen aldean itzulpen gehiago irakurtzen dituela aitortzen du: «Euskaraz itzulpena sormena baino gehiago irakurtzen dut. Nire irakurketen gehiengoa itzulpena dela esango nuke. Datu inportantea da, horrek badu eragina sormenean ere». Gainera, Jon Alonsok dioskunaren arabera, zenbait autore euskaraz ezagutu ditu zuzen-zuzenean:

Bai, noski. Are, autore batzuk euskarazko itzulpenaren bidez ezagutu ditut (Zweig, esaterako). Zoritxarrez, segurutik inoren prestakuntzan garrantzizkoenak diren lanak gaztelaniaz irakurri ditut, ezinbestean; esaterako, 1975ean Cortázar ez zegoen euskaraz. Frantsesez ere irakurtzen dut.

(Alonso, 2013)

Oro har euskal autoreek txalotu egiten dute itzultzaileek hizkuntza literarioari eta estilistikari egindako ekarpena, eta baten batek aitortzen duenez, sari itzultitako lanak darabiltzate eredutzat:

Gainera, benetan esaten dut, gure belaunaldiko idazleengan, Canorengan esango nuke, eragina izan du, gure hizkuntzan eta gure estiloan. Itzultzaileak lagundu du euskara edertzen eta euskararen maila igotzen. Gure estiloan ere eragina izan du, guk askoz lakarrago idatziko genuke. Itzultzaile batek soluzio asko ematen dizkizu zuk gero idazteko. Ikasi egiten duzu, nola antolatzen dituen esaldiak, esaldi luzeak, erritmoa... Hori dena itzultzaile batek erakusten dizu. Bestela, zaila da.

(Uribe, 2013)

Azkenik, euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenez adierazi behar genuke euskal autore garaikideek «sari»tzat edo «aintzatespen»tzat jotzen dutela euren lana beste hizkuntza batzuetara itzultzea. Zabalkundea itzultzailearen bidezkoa denean, gainera, prosezua askoz ere humanoagoa dela azpimarratzen du Uribek (2013), sare komertzialen bidez eta egiten den zabalkundearen aldean: «itzultzaileen bitartez lor daiteke beste era bateko harremanak izatea, bestelako edizioak, beste zirkuitu batzuk... eta humanoagoak, eta berdin irits zaitezke jende askorengana» diosku.

Arlo afektibotik harago, alderdi ekonomikoari eta profesionalari begirata, Olaziregik zehazten duenez, euskal idazleen profesionalizaziorako bidea ere bada itzulpena: «Only a very limited percentage of writers (not even 10 percent of Basque-language writers) live off writing alone, and they need to get translated into other languages to achieve financial independence» (2012: 161).

Itzulpen-kritikei buruz eskuragarri dugun lan bakarra da oraindik ere guk geuk egindakoa (Ibarluzea, 2011): hainbat komunikabidetan 2000-2009 urte-tartean argitara emanik euskarara itzultitako literatur lanen 511 kritika aztertu ondoren, esan dezakegu euskarara itzultitako literatur lanen ohar kritikoak hertsiki loturik daudela hizkuntzaren normalizazio-prozesuarekin eta euskarara itzultitako literatur lanen sustapenarekin: kasurik gehienetan, hizkuntza-maila goratzen da, hizkuntzaren erabilera ona azpimarratzen, eta beste horrenbeste egiten da irakurtzeko erraztasunarekin. Itzulpeni buruzko oharrik egiten denean, gehienetan ez da itzultitako literatur lanaren ekarpenari edo itzulpen-prozesuari buruzko oharrik egiten, baina hizkuntzari berari lotutako oharren bat egiten da. Aipagai dugun ikerketan ondorioztatu genuenez, garrantzi handia ematen zaie itzultzaileen eta eragileen legitimitateari; hau da, nabarmendu egiten da haien profesionaltasuna, ibilbidea eta esperientzia. Azpimarratzekoa begitantzen zaigu, halaber, euskarara itzultitako lanen kritikak gero eta gehiago izatea,

eta horrek esan gura du euskal literatura itzuliaren eremuaren irismena gero eta handiagoa dela gure egunkarietan, aldizkarietan, blogetan eta literatur-sareetan: 18 kritika zenbatu genituen 2000. urtean, eta 67, aldiz, 2009an. Kontuan hartu behar da, halaber, tartean martxan ipini zela Literatur Itzulpena Hedabideetan ekimena (Ibarluzea, 2011).

Euskal hezkuntza arautuko literatur irakurketen azterketa egin ostean, Idurre Alonsok adierazten du «euskal literaturaren irakaskuntzan ez dela antzematen irizpide pedagogikoetan oinarritutako sailkapenik» (2010: 139) eta, haren ikerketak iradoki bezala, «Eskolak erreproduzitu egiten dituela egon dauden literatur hierarkiak» (*idem*). Bada, literatur itzulpenei dagokienez: «(...) urteko irakurgaietan itzulpen-lanek duten lekua urria da; irakasgaia [Euskara eta Literatura] bideratuta dago literatura nazionala transmititu eta irakurtzera, eta, ondorioz, euskaraz sortutako liburueta mugatzen dira irakurketarik gehienak» (Alonso, 2010: 137). Bestalde, «Literatura Unibertsala» bildumak eskoletan duen harreraren inguruko daturik ez daukagu, baina oro har bildumaren salmentak oso txikiak izan ohi dira han-hemengo mahai-inguruetan esaten denaren arabera. Hala ere, badirudi EIZIE elkartearen sustapenak bere fruituak ere izan dituela; izan ere, EIZIE elkarteak eta Erein argitaletxeak koedizioan Batxilergorako prestatutako *Literatura Unibertsala* testuliburua (2000) zuzendu eta zabaldu egin da berriki, eta badirudi berrargitarapenak (2012) eta Olaziregik eta Aldekoak gaiaz emandako mintegiak literatura itzuliaren irismen gero eta handiagoaren isla direla.

Euskarara itzultitako literatur lanen irakurketa-harrera orokorrari dagokionez, badirudi lan horien onarpena eta irakurketa hazi egin direla; hala ere, irakurketa-klubetan duten lekua oraindik ere txikia da euskaraz sortutako lanen aldean. Euskal Herriko zenbait irakurketa-taldetan irakurtzen diren lanei buruzko datuak kontuan hartuta, badirudi euskaraz idatzitako lanek irakurketen % 70,7 osatzen dutela (Arrula, 2013). Gainera, Iban Zaldia Gasteizko irakurketa-taldea zuzentzen duen idazle eta akuilariak dioenez, irakurgai den liburua itzulpena denean taldearen saiora agertzen diren irakurleen kopurua % 40 jaisten da (Arrula, 2012). Zaldia azaltzen du beharbada autorea bertan ez izateak eragin dezakeela hori (izan ere, euskal autoreak gonbidatu ohi dituzte saioetara); baina, horrez gain, euskararen egoera soziolinguistikoa ere aintzatesten du arrazoibideak bilatzean: irakurle batzuk ez omen daude oraindik ohituta zenbait erregistro euskaraz irakurtzera, eta zenbait euskal idazlek erregistroak sinplifikatzera eta irakurterraztasunera jotzen dute (*idem*).

Ez dago oraindik euskal literaturak atzerrian duen harrerari buruzko ikerketa-lanik (Atxagaren lanen harrerari buruzko Olaziregiren tesiaz lan-

dara, ikusi: Olaziregi, 1998). Edonola ere, badirudi euskal literaturak gero eta onarpen handiagoa duela atzerrian, eta joera hori eskarian nabarmentzeaz gain (gero eta handiagoa da, Etxepare Euskal Institutuak emandako datuen arabera), kritikak oso modu positiboan balioetsi izan ditu itzulitako euskal obrak. Horren adibide dira, esaterako, Olaziregik berak zuzendutako bilduman Gabantxok ingelesera itzulitako *Six Basque Poets* (Arc Publishers, 2006) lanaren kasua,<sup>71</sup> Kaneko japoniarrari Uriberen *Mussche* itzultzeagatik emandako saria (2016), edo *Best European Fiction* bezalako ipuin-antologietan azken urteotan sartu diren Zalduaren, Canoren edo Jaioren ipuinak ere (2015ean, 2016an eta 2017an, hurrenez hurren), Etxepare Euskal Institutuaren sustapena tarteko dela.

Literatur itzuliaren eremuak berak hartzen duen espazioari eta gizartean eragiten duen harrerari erreparatu ostean, aurreko ataletan egin bezala, ikus dezagun zer-nolako errepresentazioa duen literatur itzulpenak etapa honetan literatur historiografien esparruan, zehazki, etapa honetan argitaratutako Aldekoaren ([2004] 2008) eta Olaziregiren (2012) lanetan. Ikusiko dugunez, oro har, genero beregaina baina periferikoa balitz bezala agertzen da, bereiz emandako kapituluetan (XX. mendetik aurrerako literaturan, sorkuntza eta itzulpena bereiz emateko joera nabari da). Halaber, literaturaren historian egindako itzulpenak garaika eta generoka multzokatzeko eta ezaugarritzeko ahalegina ere nabari da, bai eta itzulpenak zenbait garaitan izandako zentraltasuna agerrarazteko nahia ere. Itzulpenak literatur historiako garai jakinetako literatur joeren adierazletzat ere jotzen dira, bai eta molde tradizionalei aurre egiteko literatur tresnatzat ere; eta, literatur eragin orokorrak ez eze, itzulpen jakinek autoreengan utzitako arrastoak nabarmentzeko saiakerak egiten ere hasten dira akademikoak. Orduan hasi dira euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak euskal literatur historiografietan modu sistemati-koan txertatzen eta kanpoko sistemek egindako harrerari buruzko oharrak egiten.

EHUko irakasle katedradun Iñaki Aldekoa euskal kritika literarioaren eguneratze teorikoaren ildoko autoreen artean kokatzen du Casenavek (2012), hau da, euskal literaturaren kritikak legitimitate zientifikoa lortzeko bidean lan egin dutenen artean; izan ere, aurreko kritikariek jarrera defentsiboa zutela dio Casenavek, nolabait, euskal literatura bat bazela aldeztu behar zutela. Alabaina, eta betiere Casenaveren hitzei jarraikiz, bihurgune teorikoaren ondoko auto-

<sup>71</sup> Arc argitaletxearen webgunean daude ikusgai kritika horietako batzuk: <https://www.arcpublishings.co.uk/books/mari-jose-olaziregi-six-basque-poets-359>

reek, Aldekoak barne, borroka ideologikoetatik aterata testura mugatu zituzten euren azterlanak (Casenave, 2012: 77). Gainera, historiagile berriek, batez ere generoen banaketari dagokionez eta periodizazioei dagokienez, aldaketak ekarri dituzte euskal literaturaren historiografietara, eta Aldekoaren *Euskal literaturaren historiak* (2004an argitaratutako 2008ko euskarazko itzulpena darabilgu hemen) berrikuntzak dakartza, hala nola XIX. mendeko herri-poesiaz egindako «balorazio berezia» (idem). Hala ere, Casenaveren hitzak gure eginez, oro har Mitxelenez geroz finkatutako kanon bera darabil Aldekoak berak ere 1970eko hamarkadako idazleatarainoko tartean (Casenave, 2012: 84-86). Bestalde, euskal historiografietan gertatzen ari den joerarekin bat, Aldekoarenak garaikidetasunari ematen dio lehentasuna (Casenave, 2012: 86-87).<sup>72</sup>

Euskal testuetako poetikaren historia egitea du asmo nagusi, eta euskal testuak dagozkien testuinguru historiko, sozial, politiko eta ekonomikoetan kokatzetik harago, Aldekoa ez da mugatzen bere azterketan idazleen biografia-  
ren eta idazleek idatzitako obren zerrenda ematera: autoreak sailkatu egiten ditu; garaian garaiko literatur joeren arabera kokatzeko, autoreen helburuaren berri eman, autoreak eta lanak konparatu, eta autoreen eraginaren eta oihartzunen berri ematen du... Testuei dagokienez, ez du aurreko historietan bezainbesteko arreta jartzen autoreen idaztanceran; testuen gaiak, irudiak, motiboak, irakaspenak... ditu mintzagai nagusi. Ildo horretan, eta euskarara eta euskaratik egindako itzulpenez egiten diren aipamenetatik erauzitakoei erreparatuta, itzulpenak ez dira berariazko aztergai haren historiografian: zeharkako aipamenak egiten dira itzulpenei buruz, beste gai batzuei buruz ari dela txertatzen dira, testuinguruaz zein autore batez esaten dituenak osatzeko.

Euskaratik egindako itzulpenei dagokienez, testuen arrakastaren erakusgarri darabiltza Aldekoak. Esate baterako, Jose Azurmendiren *Espaniolak eta euskaldunak* lanaren harrera onaren (233) zein *100 metro* nobelaren garrantziaren erakusgarri aipatzen ditu bi lan horien gaztelaniazko itzulpenak (233; 261).

Euskarara egindako itzulpenez denaz bezainbatean, interesgarria da Aldekoaren diskurtsoa, itzulpenaren funtzio kulturala agerrarazten hasten delako

---

<sup>72</sup> «Euskal literaturaren historia orokorra aurkezten du, hots, bost mende. Azken berrogeita hamar urteek, Bigarren Gerlatik landa Aresti, Mirande eta Txillardegirekin hasten diren garai moderno eta garaikideek, liburuaren erdia hartzen dute nonbait han. Eta, beti liburu berean, XX. mendeko azken berrogeita hamar urteek bederatzi sartzeko ezberdin badituzte, liburu osoak hogeitamar sartzeko dituelarik. Abantxu sartzeko erdia azken mende laurdenarentzat: aurreko historiekin konparatuz periodizazioa erabat aldatua da eta badirudi literatura garaiki gero eta lasterrago iragaiten direla» (Casenave, 2012: 87).

modu nabarmenagoan aurretik aztertu ditugun historiografien aldean, eta, gainera, erkatu ere egiten duelako beste literatur mugimendu batzuetako itzulpenaren funtzioarekin. Aldekoak, beste hainbat historiografok bezala, literatur joera eta eraginekin lotzen ditu euskarara egindako itzulpenak, eta, halaber, beste historiografo batzuek bezala, genero batzuen testu fundazionaltzat jotzen ditu.<sup>73</sup> Ez hori bakarrik, ordea: genero batzuetako alor eta estilo-aberastasunerako iturritzat ere jotzen ditu (adibidez, 1980ko hamarkadako haur- eta gazte-literaturaz diharduenean).<sup>74</sup> Halaber, esan dugunez, literatur joeren eta joera-aldaketen ildotik aipatzen ditu euskarara egindako itzulpenak, baina ez modu orokorrean soilik, ezen berriaz dio autore jakin baten asmo poetikoen eta haren literatur eraginen ispilu dela autore jakin batek itzulitakoa, beste behin ere itzulpenen funtzio kulturala agerraraziz. Esaterako, Lauaxetak «bere itzulpenen bitartez bere asmo poetikoen berri» (2008: 205) ematen duela aipatzean, itzulpenek agerrarazten dituzten eragin literarioak bistaritzen dira. Autoreek egindako itzulpenak literatur eraginen erakusgarri dira, beraz, Aldekoaren ustez, eta beste adibide bat aipatze aldera, Arestiren literatur eraginak direla eta, bilbotar poetak Blas de Oterorenak itzuli zituela diosku: «*Egan* aldizkariak Blas de Oteroren hamar poema argitaratu zituen, Arestik itzuliak. Blas de Oteroren *Pido la paz y la palabra* (1955) poema-liburuak zirrara handia egin zion *Harri eta herriko* poetari» (2008: 245). Itzulgaien zergatiak eta hautuen zirkuituak arrazoitzeko bidea ematen dute Aldekoaren gisa horretako aipuek. Ildo berean egindako aipamena da Sarrionandiaren itzulpenenez egindakoa, eta itzulpen horiek idazle gazteagoengan izandako eraginaz ere mintzo da:

Atxagaren eta Sarrionandiaren aipamen literarioek lortu dute euskarazko itzulpenen bidez poeta gazteenen sentiberatasuna akuilatzea, eta, kasu batean baino gehiagotan, bete-betean asmatu dute irakurleen barrukotasun sentibera

---

<sup>73</sup> Besteak beste, Isaac López Mendizabal euskal haur literaturan mugarri izan zela aipatu eta segidan, ildo bereko zenbait autore itzuliren berri ematen digu: «Oscar Wilde, Schid, Giulio C. Croce eta Grimm anaien haur ipuinen itzulpenak ere egin ziren garai hartan» (2008: 156). Eta haur eta gazte literaturako zein euskal fikziozko testu fundazional gisa ez eze, antzerki-taldeen suspertzearen harira, itzulitako hainbat obraren eta autoreren zerrenda ere ematen du (157).

<sup>74</sup> «Hainbat alor eta estilotako autoreak itzuli ziren: Giovanni Rodariren fantasia, Christine Nöstlinger-en errealismo kritikoa, Roald Dahlen fantasia edo Marie Gripperen errealismoa. Ez ziren falta izan XIX. mende urrunetik edo XX. mendearen lehenengo erdialdetik fantasia eta irudimena zerien haur literaturako liburuak. *Alicia Lewis* Carrolena; *Pinocho*, Carlo Collodirena, edo *Printze txikia*, Antoine de Saint-Exupéirena. Gerora ekarriko ziren orobat euskarazko haur literaturara Mark Twain, R.L. Stevenson, Julio Verne edo James M. Barrieren obrak» (2008: 376).

hunkitzen. Horrela jarri ziren gurean lehenengo aldiz abian, alegia, euskaraz, Carl Sandburg edo Sylvia Plath bezalako poetak.

(Aldekoa, 2008: 366)

Hala, Aldekoaren historiografiako hainbat pasartetan euskarara egindako itzulpenak euskal idazleen luman izandako eraginari buruzko azalpenak ematen dira, batez ere euskal sortzaileek egindako itzulpenei buruzko datu arkeologikoak (nork, zer, noiz... itzuli duen) ematearekin bat. Euskaratik egindako itzulpenak, berriz, euskaraz sortutako lanek irakurleen artean izandako harrera onari loturik azaltzen dira.

Mari Jose Olaziregiren *Basque Literary Historyn* (2012) ikusiko dugunez, sistematikoki ematen dira euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanen berri, besteak beste, kanpora begira idatzitako literatur historiografia delako eta euskal literatura atzerrian ezagutzera emateko saiakera bat delako. Olaziregi EHUKo literatur irakaslea gurean zein atzerrian ibili izan da literaturaren alorra lantzen eta sustatzen, eta, nolabait, ildo horretan bideak jorratzeko zuzendutako lana da harena, euskal literaturari buruz ingelesez argitaratutako lehenbiziko historiografia. Proiektuaren helburua da mundu anglosaxoiko ikertzaileei euskal autoreei buruzko gaiak eskuragarri jartzea; nolabait, mendeka eta generoka erraz kontsulta zitekeen liburuia egitea bilatu zen (komunikazio pertsonala, 2016/06/10).

Olaziregi editoreak berak zehazten duenez (komunikazio pertsonala, 2016/06/10), talde-lana baino gehiago, lan kolektiboa da; atal bakoitza egile aditu batek idatzi du, nork bere aldetik. Antolaketa horrek literatura munduan dagoen espezializazioari (garaika, generoka...) erantzun nahi zion, arlo zehatz bateko adituari arlo horri dagokion informazioa eskueran jartzeko.

Liburuak bi sarrera ditu: lehenengoan, Olaziregik «Preface» deitu eta sinatzen duenean, egiturazko eta metodologiazko oharra egiten dira. Olaziregik xehetasunez azaltzen ditu liburuaren helburuak, hartzailerik potentzialak nahiz egituraren arazoak. Jarraian datorren sarreran, Lasagabasterrek sinatu eta «Foreword» izenpean datorren horretan, Lasagabasterrek liburuiko atalen oinarrian dagoen marko teoriko-metodologikoa azpimarratzen du, eta euskal literaturaren historiografian kokatzen. Olaziregik zehazten duen bezala, liburuak asko zor dio Even Zoharren polisistemen teoria gidatzen duen funtzionalismo dinamikoari (2012: 9). Bere aldetik, Lasagabasterrek baieztapen hori azaldu egiten du, esanez historiografiako partaideei emandako premisetako



bat hau izan zela: testuak euskal literatur sistemaren barruan txertatzeko eta kontestualizatzeko ahalegina egin zezatela (2012: 13).

Casenavek Aldekoaren historiografiari buruz agertzen dituen ideietako batekin bat eginik (2012: 86-87), historiografia honetan ere garaikidetasunari ematen zaio garrantzia: euskal literatura modernoari eskainitako atalak hartzen du bai espazio handiena, bai historiografia egiteko berrikuntzarako joera; izan ere, lehenagoko historiografietan agertu ez diren kapituluak txertatu ziren historiografia honetan: bat euskarara itzultitako literaturari eskainia, eta beste bat «Beste Euskal Literatura batzuk» deritzenei, hots, euskal idazleek euskararen lurraldeko beste hizkuntzetan idatzitako literaturari eskainia eta diasporan idatzitakoari eskainia (ikuspegi postkolonialak laguntzen dio Estibaliz Ezkerriari, gaztelaniaz eta frantsesez idazten duten euskal idazleez gainera, diasporan ingelesez ari izan direnez jarduteko).

Olaziregik gertutik jarraitu izan du itzulpenaren balioa, eta literatur nazio-naletatik haragoko literaturaren definizio transnazioaletan jarri izan du arreta behin baino gehiagotan. Hain zuzen ere, hori islaturik ageri da historiografia honetan, bai edukietan, bai proiektuan bertan (gogora dezagun kanpora begira ondutako lana dela). Zentzu horretan, azpimarratzekoa da ikerketa sistemikoetan literatura itzuliak funtsezko garrantzia hartzen duela hausnarketa historiografikoetan. Hortik, segur aski, Olaziregiren liburu honetan literatura itzuliak duen ikusgaitasuna.

Hiru atal nagusitan emanik dator euskal literaturaren historia. Lehenik ahozko literaturari eskainitako atala dugu. Etxebarriak emana da baladak, esaera-bildumak, ahozko testuak... hizpide dituen kapitulua, eta Gartzia emana da bertsoaritzaren historiari buruzko kapitulua. Ahozko literaturari buruzko atal horretan ez dago itzulpengintzari lotutako aipamenik. Bigarren atala Euskal Literatura Klasikoari eskainitakoa da, XVII. mendean hasi eta XIX. mendera artekoak jorratzen dituena, hiru azpiataletan. Arcocha-Scarciak eta Oyharçabalek idatziak dira lehenbiziko biak: «The Sixteenth Century: The First Fruits of Basque Literature» eta «The Seventeenth Century: The Publishing and Development of Septentrional Basque Letters», hurrenez hurren. Hirugarren azpiatala, «The Eighteenth and Nineteenth Centuries: Bridge across Borders» Haritschelharrek emana da. Azkenik, hirugarren atala euskal literatura modernoari eskainitakoa da; zehatzagoak izanda, XX. mendeko literaturari. Generoka banatuta dator: Olaziregik lantzen du fikzioa, Otaegik poesia, Urkizuk teatroa, Etxaniz Erlek haur- eta gazte-literatura, Altzibarrek saioa. Azkenik, badira, alde edo moldez, historiografia berezi egiten duten bi azpiatal: euskarara itzultitako literaturari eskainitako azpikapitu-

lua (López Gasenik idatzia) eta «Beste Euskal Literatura batzuk» izenburupean Ezkerrak emandakoa, hain zuzen ere euskararen eremu geografikoan eta diasporan euskara ez beste hizkuntzetan emandako literaturari eskainia.<sup>75</sup> Orain arte aztertutako historiografien aldean, berriro egiten du horrek euskal literaturaren ikuspegia, edo, gutxienez, Ezkerrak berak azaltzen duenez, ordura arte Mitxelenak zein Lasagabasterrek iradokitakoa praktikan jartzen (329-330). Itzulpengintzari dagokionez ere halatsu gertatzen da: orain arteko historiografietan ez zaio kapitulurik eskaini beren-beregi azaltzeko euskal itzulpengintzak euskal literaturaren sisteman izandako tarteari.

Olaziregik zuzendutako historiografiatik erauzitako itzulpenen aipamenei buruzkoak laburbilduta, ondorio gisa esan genezake kanpora begira egindako lan kolektibo hau berritzailea dela, baita itzulpengintzaren tratamenduari dagokionez ere: aurreko historiografietan ez bezala, euskarara itzulitako literaturari eskainitako kapitulu bereizi bat du, eta modu sistematiko samarrean ematen da euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanen berri. Nagusiki, itzulpena euskal literaturaren sistemaren barruko barne-sistematzat jotzeko saioa egiten da, eta historiografiako kapitulugileei euren ataletan itzulpenak ere kontuan hartzeko oharra egin zitzaizen. Horren eraginez, zenbait datu eta ideia errepikatu egiten dira itzulpenen aipamenei dagokienez; baina Olaziregik azaldu bezala (komunikazio pertsonala, 2016/06/10), errepikapen horiek mantentzea erabaki zen, atalen irakurketa soltea eginez gero irakurleak daturik gal ez zezan (eta kapitulukako irakurketa egin ahal izatea da, hain zuzen ere, historiografia honek eskaini nahi zuen aukera).

Kapitulugileen itzulpenari buruzko diskurtsoei erreparatuta, aldea dago itzulpenaren tratamenduari dagokionez.

Arcocha-Scarciak eta Oyharçabalek ahalegin berezia egiten dute jorratzen dituzten itzulpenak dagozkien testuinguruetan kokatzeko, eta beste historio-

---

<sup>75</sup> «It is impossible to avoid the notion that both Castilian and French are seen as markers of non-Basque identity, although there are very few people in the Basque Country who cannot speak at least one of those two languages, depending on the region in which they live. From an essentialist perspective, of course, the Castilian and French languages are not Basque, the native language of Euskal Herria (understood as the territory that hosts the seven Basque provinces). The native language of Euskal Herria, as its name suggests, is Euskara. But this view obviates the reality of Basque citizens, who speak not only Euskara, but other languages as well. In other words, this view portrays a nation that does not correspond with the reality of the subjects who inhabit it; it portrays a reality that is as linguistically plural (and will be even more so in time) as it is linguistically singular» (Ezkerra, 2012: 330).

grafia batzuetan agerrarazi (edo hainbeste nabarmendu) ez diren zenbait ideia plazaratzen dituzte, kritika historikoa eta azalpena eginik: euskal sorkuntza-lanen barruko zatikako itzulpenak, itzulpenak euskal alfabetoa finkatzeko bide izatea, barne-itzulpenak testuak kanonizatzeko bide izatea... Literatur itzulpenen funtzioei buruzko ideia berriak plazaratzen dituzte gisa horretan.

Bestelakoa da, ordea, itzulpenaren tratamendua Haritschelharren kapitulu-  
luan: itzulpena prozedura linguistikotzat jotzen du; ez, ordea, prozedura lite-  
rariotzat. Arcocha-Scarciaren eta Oyharçabalen diskurtsoaren aldean, hortaz,  
bestelakoa da Haritschelharrek itzulpenari begiratzeko duen modua, behar-  
bada ikuspegi klasikoago bati lotua.

Haritschelharrena bestelakoa da, halaber, Olaziregiren ikuspegiaren  
aldean, ezen, azken horrek zenbait itzulpen euskal literaturako testu aitzinda-  
ritzat jotzen ditu, eta euskal idazleen profesionalizazio-bidean kontuan har-  
tzeko jardueratzat jotzen du itzulpengintza: batetik, itzulpenak euskal idazleen  
testuak legitimizatzeko bidea dela aipatzen du; bestalde, euskal idazleak eko-  
nomikoki beregainak izateko tresna dela aitortzen du. Horrez gain, autoreen  
biobibliografiak osatzeko datu gisa aipatzen ditu itzulpenak Olaziregik, eta,  
lantzean, autore batek itzulitako obrak autore horren eragin eta inspiraziorako  
autore-ereduen erakusgarri ere badirela zehazten du. Gainerako autoreengan-  
dik bereizten da Olaziregi itzulpenaren tratamenduan, euskaratik beste hiz-  
kuntza batzuetara egindako itzulpenak aipatzean: modu sistematikoan ematen  
du horien berri (gainerako autoreek ez bezala); gainera, beren-beregi aipatzen  
du euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenen kopurua, eta  
oraindik ere kopuru hori txikia dela salatzen du, kanporako itzulpenak sustatu  
behar direla aldarrikatuz: arestian esan bezala, Olaziregiren ustez, kopurua  
handitzeak ez dakar euskal autoreen ikusgaitasuna soilik, euskal idazleen pro-  
fesionalizaziorako bidea ere bada.

Urkizuk bere historiografian (2000) agertzen zituen joerak agertzen ditu  
historiografia honetan idatzi duen kapitulu-  
luan: itzulpenak kontuan hartzen  
ditu euskal teatroaren osagai gisa; oro har, itzulitako teatroaren harrera eta kri-  
tika gaitzesleei buruzkoak gailentzen dira egiten dituen aipamenetan.

Urkizuk bezala, Etxaniz Erlek ere tokia egiten die itzulpenari buruzko  
aipamenei: zenbait itzulpen giltzarritzat jotzen ditu haur- eta gazte-literatura-  
ren zenbait garaitan, bai testu fundazional izan direlako, bai aniztasuna ber-  
matzeko bide izan direlako.

López Gasenik itzulpenari eskaintzen dio bere kapitulua beren-beregi.  
Lehenago esan bezala, ez dagokio soilik aro garaikideari, baina, edonola ere,

artean euskal literaturari buruzko historiografietan landu ez bezalako alderdiak plazaratzen ditu: euskaraz emandako itzulpenei buruzko kuantifikazioari buruzko zenbait datu dakartza, eta arreta jartzen du itzulpenak euskal literaturan izandako rol nagusietan. Kapitulu honetan datu arkeologikoak interpreta-tzen ditu, eta itzulpenaren historiarako azalpena eta kritika egin. Oro har, beraz, López Gasenirena euskarara egindako itzulpenek euskarazko literatur sisteman izandako lekuaz gogoeta egiteko saioa da, itzulpengintzaren betaurrekoak jantzita, itzulpengintzatik itzulpengintzari begiratzeko saioa. Datu kuantitatiboei erreparatzeko egiten duen lana nabarmentzekoa da, Sarasolaren historiografiaz geroztik ez baita halakorik egin aztergai izan dugun corpuseko historiografietan. Gogoratzekoa da, gainera, Sarasolarenean ez zirela itzulpe-nei buruzko datuak interpretatzen.

Olaziregiren historiografian (2012), oro har, euskal itzulpenak izandako funtzioen artean nabarmendu gura denik baldin bada, literatur generoetako funtzio fundazionala eta itzulpenak literatur joeretan eta autoreengan izan-dako eragina (funtzio kulturala eta profesionala edo ekonomikoa) dira. Hala-ber, euskaraz sortu eta beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak aintzat hartzeko eta euskal literatura itzuliak atzerrian izandako harrera jasotzeko saioa ere egiten da lehenbizikoz modu nahiko sistematikoan euskal historio-grafien historian. Edonola ere, agerian daude oraindik aurretik zetozen histo-riografietan nabarmendutako itzulpenari buruzko jarrera eta pertzepzioen arrastoak zenbait ikertzaileen habitusean.

Lehenago ere esan dugu idazle garaikideek gertu sentitzen dutela itzulpena, eta gertutasun hori fikziora eramaten dute. Mendiguren Elizegik dioenez, bere itzulpenarekiko lotura batez ere editore den aldetik datorkio, bai eta zuzentzaile den aldetik, irakurle den aldetik, eta liburu itzulien kritikak idatzi izan dituen aldetik ere. Lan mordo bat itzultzea egokitu omen zaio, batez ere haur- eta gaz-te-literaturakoak, baina «beti nire lantokiko eginbehar gisa» (2013). Itzulpenak, beraz, «Nire editore-bizitzan parte handi samarra du, irakurle eta zuzentzaile modura; idazle-bizitzan ezetz esango nuke, bi alorrak bereizten erraza ez den arren» (*idem*). Idazle den aldetik, gurago izaten du bere lanak beste norbaitek itzultzea, baina horretarako baliabide ekonomikorik egon izan ez denean, itzul-penak berak egin behar izan dituela onartzen du (*idem*).

Mendigurenen *Bizitza homeopatikokoak* (2008) liburua bi kontakizunek osatzen dute, eta bigarrenean, «Bizitzako garairik onena» deritzon kontakizu-nean, pertsonaia nagusi Mertxe itzultzaile-interpretea da Europako Parlamen-tuan, Bruselan. Hantxe bizi da, baina aitari ebakuntza egin behar diotela eta itzultzen da etxera aldi baterako; kontua da amak orduan erabakitzen duela

aitagandik banatzea, eta, aitaren zaintzaz gainera, iloba jaioberria ere zaindu beharko du tarte batez Mertxek, ama eta koinata espetxean dagoen neba bisitan doazela eta. Honelaxe definitzen du egileak bigarren kontakizuna, *Argia* aldizkariari emandako elkarrizketan: «Bizitzako galdera funtsezkoak agertzen dira bertan. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak, gurasoak zahartzen direnean zer jarrera hartzen duen seme edo alabak... Umeak eduki edo ez edukitzearen inguruko kontuak ere agertzen dira; altruismoa, egoismoa...» (Iparagirre, 2008: linean).

Itzulpengintza edo pertsonaia nagusia interprete izatea ez dira kontaktuzunaren argumentuko pieza garrantzitsuak. Hauxe aitortu zigun Mendiguren Elizegik pertsonaia itzultzailea hautatu izanaz: «Ez zegoen arrazoi berezirik: ondo zetorkidan, pertsonaiaren izaera eta ezaugarriak zirela eta» (Mendiguren Elizegi, 2013).

Mendiguren Elizegiren lanean erreproduzitu egiten dira itzultzaileen inguruan dabilTZan zenbait irudi eta estereotipo. Esate baterako, protagonista ohiturik dago arazo pertsonalak bere golkorako gordetzen, ez du inoren erruririk maite, inoren ahotan ibiltzea gorroto du. Hala ere, barruan gordetakoak barruan darabiltza pol-pol, ezin lasaituta. Aitagandik banatzeko amaren hautua dela eta, ama egoista hutsa dela pentsatzen du, baina, funtsean, auzia norberaren bizitzaren jabe izatea edo ez izatean datza, eta Mertxek badu halako kontraesana bere baitan, bera bakarrik bizi baita, «edozein konpromisotatik aske eta urruti» (Mendiguren Elizegi, 2008: 85). Hain zuzen ere, itzultzaile sartzeko hautua ere etxetik urruntzeko eta ihes egiteko modua izan zen (bai nebaren militantzia politikoaren eraginetatik, bai maitasun-harreman bateko porrotetik ihes egiteko modu bat):

Anaiarekiko betebeharrez libratu sentitu zen Mertxe hortaz, eta pentsatu zuen bere buruaz arduratzen hasi beharko zuela noizbait ere: urte askoan erdizka eta mamitu ezinik eduki zuen istorio sentimentala pikutara joan zen azkenik, eta aldi berean aurkeztu zitzaion Europako Parlamentuan itzultzaile sartzeko aukera, leiho zabaldu baten moduan ikusi zuena, hainbeste rollo txar atzean uzteko eta bizimodu berri bati heltzeko: beste hiri bat, beste herrialde bat, beste zeregin bat, beste hizkuntza batzuk, beste lagunarte bat... baina, bueltaren bueltan, hona hemen atzera: betiko etxean, betiko familiarekin, betiko kaka zaharra eta kaka berriagoak ere irentsi ezinik.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 94-95)

Ikusten denez, familiatik gurata urrundutako pertsonaia bakartia da Mertxe, nahiago dituen harreman hotzak:

Ez da zarata, edo trafikoa, edo kutsadura hirietan hainbeste maite duena, bere lankide hiritarrek hastio duten beste ezaugarri hura baino: harremanen hoztasuna. Izan ere, inork ezagutzen ez duen tokian sentitu ohi da bera gogara, inork agurtuko ez duen kaleetan paseatu ohi du gustura, inork komentariorik egingo ez dion saltokian egin ohi ditu erosketak.

Hirietako anonimotasun topiko baina hala ere maite hori etorri zaio gogora bere sorterriko kaleetan barrena dabilela.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 96)

Halaber, anonimotasunaren ideia itzultzailearen ikusezintasunarekin lot daiteke. Itzultzaileak, zenbaitetan, nahiago izaten du gordeta geratu. Edonola ere, atzerriratuta, anonimotasunean, egon nahi badu ere, itzultzaileekin sarri lotutako «mugaldeko izatea»ren ideia ere badagokio Mertzexeri, eta, esaterako, Bruselarako bidea hartu zuen arren, Euskal Herriarekiko lotura ez du erabat eten: Gasteizko pisua gorde du oraindik (Mendiguren Elizegi, 2008: 87), eta etxeokak bisitatzera etortzen da urtean zenbait alditan. Ez hango, ez hemengo izatearen halako sentimendu bat duela esan genezake, eta itzultzailea atalasean dagoen pertsonaia gisa defini daiteke.

Fikziozko itzultzaileak ageri diren beste lan batzuetan bezalaxe (berbarako, Maspoch Bueno, 1993; De Maeseneer, 2000), itzultzaileengan balioesten den gaitasun linguistikoa nabarmentzen da Mertzexerean. Hala diotso koinatak Mertzexeri, kontakizuneko pasarte batean:

–Hartu lasai –esan du umearen amak–, baina nik uste honek aldatu beharra daukala. Jakingo duzu ume bati pixoihalak aldatzen, ezta?

Aski esanguratsua izan da Mertzexek jarri duen larridura-aurpegia, irri bat atera baitzaio berehala Eguzkiñeri.

–Lasai, ikasi dituzun hizkuntza horiek denak baino errazagoa da-eta.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 117)

Baina, badirudi, itzultzaileak hizkuntzak ikasten trebeak izan arren, «eguneroko egoeretarako» ez direla gai, ideia hori zabal dabil antza gizartean, itzultzaileei buruzko iruditerian.

Beste alde batetik, «inoren kontura bizi diren alfer»tzat ere jotzen dira, administrazioko langile diren neurrian:

(...) gurasoek eskatuta Europako Batasunaren egitura instituzionala azaldu zienean, hara aldegin bezperatan, «hainbeste ixtori» errepikatu zuela amak, eta aitak ondotik marmarrean: «Makina bat alfer bizi da gure kontura», baina gero isildu egin zen, alaba ere alfer haien koadrilan sartu beharko ote zuen beldurrez edo.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 120)

Mertxek bere lanbideari buruz duen iritziari eta jarrerari dagokienez, lanbidearekiko atxikimendurik eza agertzen du Lola lankidearekin solasean ari dela:

–Nahi bai nik neure bizitzaren jabe izan eta nahi dudan lekura joan, baina gaur goizean ere, Bahametara joan ordez hona etorri naiz, egun osoan itzuli eta itzuli aritzeko.

–Nahi duzuna esango duzu, baina gero datorrena beti da okerragoa.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 78)

Hortaz, lanbideak bere garaian emandako «askatasuna» izan baduen arren, pertsonaia ez da guztiz libre sentitzen. Edonola ere, lehenago aipatutako bikoiztasunean, bere lantegiko eta atzerriko ingurunetik atera eta laster du bueltatzeko desira:

Hiru bat egun daramatza etxean eta dagoeneko asper-asper eginda dago Mertxe Oiartzabal, aldegitiko desiratzen, Bruselako bere apartamentu txikira, bere bulego epelera, kafe-makinaren inguruko solasaldietara, eguneroko errutina txepeletara. Bere lankide Lolari deitzeko tentazioa izan du, lantokian zer moduz galdetzeko, etxe santu hartako azken txutxu-mutxuen berri entzuteko. Hango berri galdetu ez ezik, hemengoaz ere erantzun beharko lioke, ordea, eta ez du horretarako gogorik.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 119)

Azken bi pasarteotako ideia bat dator Susan Bassnettek Suzanne Jill Levine itzultzailearen hitzak hartuta itzulpena deskribatzeko darabiltzan metaforen arteko honekin: «la traducción (...) como una esclavitud y al tiempo una liberación» (Bassnett, 2002b: 62). Hala, Mertxeren lanbidea, esklabotza eta liberazioa da aldi berean, hainbat itzultzailek euren lanbideaz duten iritziarekin bat.

Itzultzaile-lanbidearen alde on bat nabarmentzen da pasarteetako batean, hain zuzen ere administrazioko itzultzaileen ordainsari ekonomiko ona. Hara zer dioen narratzaileak Lolaz, Mertxeren lankideaz:

Pertsona alaia zen Lola, Mertxe bera baino zaharragoa, Europako Parlamentuko itzulpen zerbitzu hartan urte asko zeramatzana eta aurki hartu beharreko erretiroa buruan zeukana ia beti, nola bere bihotzeko Cadizera itzuliko zen, eta geldituko zitzaion pentsio ederra nola eta zertan gatatuko zuen. Horregatik harritu zuen mintzaldiaren fatalismoak.

(Mendiguren Elizegi, 2008: 78)

Hemen ere, fikziozko itzultzaileak ageri diren beste zenbait narrazioetan bezalaxe (ikusi: Feltrin-Morris, 2005), lanbidearen alderdi komertziala eta bideragarritasun ekonomikoa azpimarratzen dira.

Gauzak horrela, itzultzailearen karakterizazioari buruzko iruditerian sakontzeko balio digu kontakizun honek, eta nortasun hauskorreko itzultzaile bakarti, isolatu, mugaldeko eta ihes egindakoaren irudia nabarmentzen da. Bikoiztasunean bizi da itzultzailea, lanbidearekiko zein inguruarekiko atxiki-menduan, eta, halaber, gizartean oro har langintzari buruz zabal dabilen irudietako bat ageri zaigu nolabait, administrazioan lan egiten dutenekiko (administraziozko itzultzaileak barne) gutxiespena ere agerian jartzen baita.

Ur Apalategik ere badu paperezko itzultzailearik, zehazki *Fikzioaren izterrak* ipuin-bildumako (2010) «Urrezko vespa» eta «Bernardo eta Ramon» ipuinetan. Bada, harreman «nahiko ezkorra» du Apalategik itzulpenarekin:

Itzulpen literarioak modu neutro eta globalizagarrian hedatzeko moduko testuentzat funtziona lezake eta balio lezake. Baina literatura estandardizatuaren edo best-sellerizatuaren autobideetatik urrunduz gero (poesia, eleberririk kulturalki «kokatua», etab.), bada, frustragarria gertatzen zait emaitza gehienetan, bai idazle, bai irakurle gisa. Dena den, frustragarria izanik ere modu bakarra da zenbait testu ezagutu edo zabaldu ahal izateko.

(Apalategi, 2013)

Apalategik berak dioenez, modu bakarra da zenbait testu ezagutarazteko eta zabaltzeko (eta ideia hori gakoia da fikzioan agertzen duen egoeretako batekin). Beste euskal autore garaikide batzuek bezalaxe, Apalategik ere ez du gogoko bere burua autoitzultzea, eta autoitzulpenaren funtzio ideologikoari erreparatzen dio:

Printzipioz nahiago dut sortzen igaro denbora, eta ez itzultzen. Eta euskal literaturarentzat kaltegarria iruditzen zait, oro har, autoitzulpengintza sistematzatzea. Arazo etiko-politikoak dela uste dut. Ez lidake inolako arazorik sortuko beste hizkuntza gutxitu batera autoitzulpena praktikatzek. Kontua da hizkuntza



tzak indar harreman batean daudela eta ez dela gauza bera hizkuntza batera ala beste batera itzultzea. Ondorio edo efektu sistemiko nahiz politikoak ditu autoitzulpengintzak.

(...)

Itzulpen literarioak izan dezakeen interes bakarra ekintza kreatibo (edo bir-kreatibo) gisa leukakeena da.

(Apalategi, 2013)

Unibertsitateko irakasle-ikertzaile figurarekin lotzen da, batez ere, Apalategiren itzulpenarekiko atxikimendua eta diskurtso kritikoa, eta bide horretan idatzi eta aurkeztu izan ditu itzulpenari buruzko azterketak eta ideiak. Baina, gatozen orain literaturan islatu izan dituenekin, ezen literatura ardatz duen *Fikzioaren izterrak* lanean itzulpena ardatz duten bi ipuin ageri zaizkigu.

Batez ere idazletzaren eta bikote-harremanen inguruan idatzitako kontakizunak dira *Fikzioaren izterrak* ipuin-bilduman jasotzen direnak, eta literatur sistemari erreparatzen zaio:

*Fikzioaren izterrak* honetan bereziki nabaria da, hori bai, hausnarketa literarioako joera, eta nagusiki sistema literarioarekiko begirada zolia. Patetismoz erretratatzeko dira idazle, literatur sari, literatur ikertzaile eta enparauak. Literaturak behiala zuen irudi jaso eta eredu garritik gutxi geratzen da ipuinotan. Jende miseria leku orotara iristen dela iradokitzen digu nolabait idazleak, antiheroiak ere literatur munduan bertan aurkitzen ahal ditugula, urrutirago joan gabe. Alde horretatik, liburu interesgarria da, sarritan suharki hartzen ditugun hainbat kontu distantzia eta eszeptizismo handiagoz hartzeko dei bat-edo.

(Sarasola, 2010: linean)

Egiazko pertsonen eta ipuinetako pertsonaia batzuen arteko bat etortzea ageri-agerikoa da, zenbait kritikariek nabarmendu izan duten bezala (ikusi, barbarako, Sarasolaren zein Zuloagaren iruzkinak). Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugan jauzika, jolasean ari da autorea. Bada, euskal literaturan (eta Apalategi ekarritako fikziozko literatur sistema horretan ere), sarri eskutik doaz idazletza eta itzulpengintza. Apalategi berak dioen moduan, beraz, saihetsezina zen gaia gogoeta metaliterarioa egiten duen fikziozko lan honetan: «Literaturari eta bereziki euskal literaturaren egoera geo-politiko edo sistemikoari buruzko gogoeta bat egiten duten ipuinak izaki, itzultzailearen pertsonaia saihetsezina da. Eta oso erromaneskoa, bidenabar» (Apalategi,

2013). «Urrezko vespa» eta «Bernardo et Ramon» ipuinetan agertzen zaigu islaturik, hain zuzen ere, euskal itzulpengintzaren eremuaren alderdi bat.

«Urrezko Vespa» ipuineko protagonista bolada onean dagoen euskal idazlea da, Penguin argitaletxeak bere obra argitaratu du eta horrek «literaturaren panteoian sartzen zaitu» (132. or.). Alegia, atzerrian argitaratzea, norberaren lanak itzuliak izatea, izan da, nolabait, idazle protagonistaren legitimazio-bidea.

Testuinguru horretan gogoratzen da orain beste emakume batekin ezkondurik dagoen idazlea garai batean maite izan zuen Claraz. Neskak, ordea, ez omen zuen onartu. Honela aitortzen ditu protagonistak Clarari buruzkoak: «Clarak erakutsi zidan desira eta ezinaren arteko muga» (133. or.) eta: «Eta badakit, inolako zalantzarik gabe, Clarak osoki zoriontsu egingo ninduela. Onartu banindu» ere. Bestalde, protagonistaren emaztea ere idazlea da, baina ez omen du gizonak besteko arrakastarik lortu «ez du halako zortetik izan», «agian gaztelaniaz idazten duelako», eta berak bere burua ere idazletzat du, «baina itzulpengintza literariotik bizi da», azken boladan senarraren «liburuak gaztelarizetik, besteak beste» (Apalategi, 2010: 137). Hara hor, bada, idazlearen eta senarraren itzalean bizi den emakume itzultzailea. Bartzelonan, kongresu bat tarteko, ikusten dute elkar ipuineko idazleak eta Clarak, han bizi baita orain garai batean maite izandako neska hura. Elkarrekin afaldu ostean, maite duela diotso Clarak protagonistari telefono-dei batean. Gizona etxera itzultzean, baina, badirudi egoera alderantzikatzen dela bere bizitzan; idazle desleiala itzultzaile bihurtzen da, eta emaztea omen da orain idazle arrakastatsua:

Bere obrak, berrargitarapen eta itzulpen guztiekin, han daude, apal oso bat betetzen dutela. Hain zuzen neureak egon ohi diren apalean. Tokiz aldatuko zituen. Alta, ez dirudi azken aldian mugituak izan direnik liburuak. Hauts mintz bat daukate denek gainaldean. Bila hasi naiz. Ez ditut aurkitzen. Ez dago nire liburuen arrastorik. Aldiz, emaztearen eleberriaren euskarazko bertsioa han dago, *Gizon maitemindua*. Apaletik atera dut. Mugikorra dardarka sentitu dut sakelari.

«Esan?». «Ni naiz». «Clara... itxaron, orain deituko dizut, emaztea inguruan dabil» esan dut ahotsa apalduz, gezurti. Zerbait argitu beharra daukat oraintxe bertan. Ordenagailuan nire izena tekleatu eta susmoa bete da. Apenas dagoen nire izenari asoziatuak estekarik. Wikipediakoa klikatu dut. Idazle gipuzkoarra. 1966, Donostia. Horretara mugatzen da nire biografia. Inoiz idatzi ez ditudan bi libururen izenburuak datoz, ondoren, argitalpen datekin. Aspaldi argitaratuak dira, laurogeiko hamarkadaren amaieran. Badirudi geroztik ez dudala ezertxo ere argitaratu.

Emaztearen izena tekleatu dut Wikipediaren leihoan. Berriro ere lehengo datu oparoak. Emaztea idazle arrakastatsua da. Ni naizenaren –nintzenaren?– pare. Ezin liteke. Penguin Books argitaletxearen webgunera noa. Ez dago nire obren aipamenik. Ez naiz existitzen.

(Apalategi, 2010: 151)

Bartzelonarako bidea hartuta eta hegazkinean emaztearen *Gizon maitemindua* euskarazko bertsioan irakurtzen jarrita, itzulpena berea dela konturatzen da protagonista: «Hitzak ezagunak zaizkit. Ezagunegiak. Normala, neu naiz liburuaren euskaratzailea» (153. or.), eta ipuinari biribiltasun moduko bat emanaz, emazteak bertan kontaktzen duena protagonistak berak kontatutakoaren parekoa da, baina rolak aldatuta, nolabait. Gizon-emakume bion figurak desplazatu egiten dira; batak bestearen lekua hartzen du, itzultzailea idazle bihurtzen da eta alderantziz; estatus-aldaketa gertatzen da. Era berean, irakurleak duda egiten du zein ote den benetako istorioa eta zein ote den fikziozkoa (gizonarena edo emakumearena).

Ipuinaren interpretazio traduktologikoa eginez, nabarmentzekoa da, alde batetik, idazleen eta itzultzaileen estatus-ezberdintasuna islatu izana: sorkuntzatik bizi ezin den idazlea da itzulpen literarioak egiteko bizi behar duena, eta fikziozko beste hainbat itzultzailearen legetxe, baliabide ekonomiko gisa zein norberak egindako lan on baten sari gisa agertzen da itzulpena. Beste alde batetik, Delabastitak eta Grutmanek (2005) zein Ben-Arik (2010) fikziozko itzultzaileen artean errepikatzen diren elementuen artean aipatutako itzultzailearen ikusezintasuna eta autoretza-anbizioa ere azpimarratzekoak begitantzen zaizkigu, bat baitatoz ipuineko emaztearekin: senarraren itzalean bizi da haren itzulpenak egin artean, baina emakumearen anbizioa idaztea da; halaxe da gizona itzultzailearen kasuan ere, egoerak itzulia hartuta bere burua itzultzaile bihurturik ikustean ments du galdutako sortzaile-estatusa. Traizioaren auzia ere ezin daiteke ahantzi: garai bateko maitalearekin harremanetan jarri ostean bihurtzen da gizona itzultzaile, nolabait, emakumearekiko fideltasun-eza onartu ondoren. Azkenik, idazleen eta itzultzaileen arteko inbasioaren irudia, «zua» eta «nia» nahasteari dagokiona, itzulpenaren eta sormen-lanaren arteko borroka eta muga lausoa; sarri errepikatzen den irudia da hori fikzioan agertzen diren itzulpen-auzietan (ikus: Anderson, 2005).

«Bernardo et Ramon» ipuineko gorabeherak azaltzen ditu Zuloagak (2011) *Maiatz* aldizkarian argitaratutako iruzkinean:

Zazpigarren ipuina («Bernardo et Ramon»), azkenik, obrako goraiipatuenetakoa izan da. Testu horretako narratzailea emakumezkoa da, Frantziako kritikari

eta argitaldari ospetsua. Bada, Antso izeneko euskal literatur ikertzailearekin egiten du topo narratzaileak, jardunaldi batzuk tarteko. Antsok, hainbat urte gazteagoa izanagatik, biziki erakartzen du narratzailea, baina ikertzaile euskaldunak eskaintzen dion gauza bakarria proposamen ausart bat besterik ez da: argitara dezala Ramon Saizarbitoriaren lanetako bat, Antsok berak frantsesera itzuli duena narratzaile-kritikari-argitaldariak irakur dezan, bide batez, Saizarbitoria Frantziako literatur sisteman sartzeko.

(Zuloaga, 2011: linean)

Antso gazteak ondo daki jakin emakume frantziar kritikaria Gallimard argitaletxeko *Du monde entier* bildumaren irakurketa-batzordeko partaidea dela (Apalategi, 2010: 171). Antsok gura luke Gisele andreak Saizarbitoriaren lan bat irakurri eta argitara dezan: «Itzulita dago. Gaztelaniara bakarrik. Baina frantsesera neronek itzuli berri dut» (178. or.). Antsok testua hotolean daukalla-eta hara abiatzen dira biak, eta bertan irakurrarazten dio Antsok berak egingdako *Rosettiren obsesioa* obraren *L'Obsession de Rosetti* frantsesezko bertsioa (182. or.): «Istorioan gizon euskaldun batek emakume espainiar bat seduzitzea lortzen zuen, testu erotiko labur bat idatziz (...) Ez dakit Antso ohartua zen *nouvelle*-aren egoera eta gurearen arteko antzekotasunaz» (*idem*). Apalategiren ipuinean antzeraturik dira nola Saizarbitoriaren kontakizuna, hala euskal literatur kritikariak euskal lanak munduan kokatzeko izan dezakeen erantzukizuna eta bide horretan itzulpenak duen ezinbesteko papera.

Kritikariak testuaz egiten duen gogoeta hauxe da: «*Nouvelle*-aren irakurketa bukatu nuen, patxadaz orain, erabat testuan barneraturik, idazkera gozatuz, ona baitzen euskal autore ezaguna, eta egokia, guztiz, Antsoren itzulpena» (186. or.). Itzulpenari buruz egiten den ohar bakarria «egokia» dela esatea da. Bada, itzulpenari buruzko ohar laburrak zabal dabilta itzulpen-kritikak egiten dituztenen artean. Halaxe ondorioztatu genuen 2000-2009 urte-tartean argitaratutako 511 kritika publiko aztertzean: itzulpenaren aipamenarekin batera agertutako «Gehigarriarik ugariena balorazio edo kalifikazio labur bat izaten da, sarri-sarri agertzen dena, baina betiere nahiko orokorra eta anbigua izaten dena, itzulpenaren uretan gehiegi sakondu gabe egiten dena, alegia» genioen (Ibarluzea, 2011: 55). Adibidez, gogora ditzagun kalifikazio horietako zenbait: «itzulpen gogoangarria», «dotorea», «ederra», «dezentekoa», «zilarra», «ona», «txukuna eta zaindua», «egokia eta txalotu beharrekoa», «neurtua, garbi-garbia», «landua»...<sup>76</sup>

---

<sup>76</sup> Balorazio urri hori bat dator Ibon Egañak bere tesian aurkezten digun ideiarekin (ez da itzulpenez ari, euskaraz sortutako lanez baino), euskal literaturaren kritikagintzan oro har, 1975-2005 artea denaz bezainbatean, euskal kritikagintzaz egin izan den salaketa hiru urratse-

Dagokigun ipuina etorrita, eta bertako ideiak laburturik, euskal literatura mundura zabaltzeko beharrezkoa da atzerriko agenteen iragazkietatik pasatzea, eta euskal kritikariak atzerriko agenteak seduzitzea, erakartzea. Ez du horrek esan gura, dena den, lan hori delako kritikariaren herrialdeko merkatura egokitu denik eta salgarri izango denik. Nolanahi ere den, bide horretan itzulpenak funtzio zentrala du, itzulpenaren bidez egiten baitu bidea bere mugetatik kanpo idazle baten testuak. Termino horietan begiratzen dio Apalategik itzulpenari literatur kritikaria den aldetik, eta halaxe agertzen da islaturik bere fikziozko diskurtsioan euskal literaturaren estatusaz eta posizioaz egindako gogoeta.

Bestelako talaia batetik begiratzen dio Harkaitz Canok itzulpenari. Idazle profesionala da, idaztea du ogibide. Idazle den aldetik, itzultzaileei euren lana aitortzen die: «Lan handia dago hor, eta biltegi eta iturri aberatsa da idazle batentzat itzultzaileek erregistroekin eta abarrekin azken urteotan egin duten lana» (Cano, 2013).<sup>77</sup> Itzulpen gitzan ere jardun du, alde batetik, bere lanak autoitzultzten:

Zenbaitetan arrazoi ekonomikoengatik edo denbora-kontuagatik: ez zegoe-lako itzulpena ordaintzeko dirurik edo epea oso estua zelako inori eskatzeko. Beste batzuetan, esperimantazio- edo ikasketa-prozesu bezala ere egin izan dut. Edo zuzenean, berariaz, bertsio bat egitearen plazer hutsagatik (...) Neure gogoz, nahiago nuke aukeran nire lanak itzultzaile profesionalen esku utzi, eta horretan saiatzen naiz aspaldion. Osterantzean, jada itxita dagoen istorio bat berriro irekitzera derrigortzen zaitu prozesuak. Nolabait «ralentizatu» egiten du autoitzulpenak euskal idazlearen produkzioa... Ez da derrigorrez txarra agian, baina...

(Cano, 2013)

Beste alde batetik, ingelesetik eta gaztelaniatik euskararako itzulpenak ere ekarri ditu: Kureishi, Auster, Ginzberg eta Sexton, hain zuzen ere.<sup>78</sup> Canok

---

tan egin izan dela agertzen baitigu: «Hiru urratsetan egindako kritika, beraz, (“kritikarik ez dago”, “kritikak ez du baloratzen”, “balorazio positiboa baizik ez da egiten”) balorazioaren inguruko kritika da funtsean» (Egaña, 2013: 255). Balorazio-kritiken kuantifikazioaz denaz bezainbatean, «egonkorra izan da azken 30 urteotan kritika baloratzaileren ehuneko» diosku euskal literatur kritikez ari dela (*idem*: 257).

<sup>77</sup> Ideia bera plazaratu zuen, 2017ko otsailaren 14an, esaterako, «Eztabaidak Literaturarekin XXI. mendean» ekimenaren baitan, X. Olarrarekin eta U. Urrutikoetxearekin izandako solasaldian. Solasaldia linean ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=GL2RxK9QI-KA>. Canoren hitzetan, hainbat bide, pista, soluzio... ipini dituzte eskura itzultzaileek, «urario aberastua» da itzultzaileek egiten dutena, eta, nolabait, irakurleak homeopatikoki jasotzen du itzultzailearen aberastasuna idazlearen bidez.

<sup>78</sup> Ikusi Harkaitz Canoen itzulpenen fitxa NordaNor datu-basean: [http://nordanor.eus/bilatu?n=l&e\\_or=&e\\_st=&e\\_xt=&e\\_eg=&e\\_it=Harkaitz+Cano&e\\_ar=&e\\_ge=&e\\_sh=&e\\_](http://nordanor.eus/bilatu?n=l&e_or=&e_st=&e_xt=&e_eg=&e_it=Harkaitz+Cano&e_ar=&e_ge=&e_sh=&e_)

aitortu zigunez, kuttun dituen liburuak itzuli izan ditu soilik (*idem*). Bere idazle- eta itzultzaile-jardunari begirada diakronikoarekin erreparatuta, bere lanekin «gero eta itzultzaileago» jarduten duela dio, lehenago ere esan dugun moduan:

Birsorkuntza eta bertsiogintza teknika bezala erabiltzetik itzultzaile neuroago izatera pasatu naizela esango nuke... Jatorrizkoaren akatsak atzemateko modua ere izan liteke itzulpena, kalitate testa. Itzultzen dudanean, gero eta «itzultzaileago» sentitzen naiz. Lehen zaila egiten zitzaidan idazle trajea kentzea.

(Cano, 2013)<sup>79</sup>

Bestalde, Canok berriki aitortu duenez, ez dago idazle izaterik itzultzaile izan gabe, bere gustuko idazle guztiek itzuli izan dute, eta idazleei itzultzaile ere izateko eskatzen dio; bestela, ez omen dira benetako idazleak.<sup>80</sup>

Bada, ildo horretan interpreta daiteke, *Twist* eleberrian (2011) aurkezten digun idazle-itzultzailearen irudia ere. Izan ere:

Twisteko pertsonaia nagusia, Lazkano, idazlea da; baina, idazle izateaz gain, itzultzaile gisara ere aritu izan zen garai batean: Kieveko neska bat ezagutu zuen eta hark erakutsi zion errusiera. Tramaren amaieran garrantzitsua den antzezlan bat itzultzeko atakan aurkituko da pertsonaia: Txekhov-en Platonov, hain zuzen. Eta fikziozko itzulpen-prozesu hori nolakoa izan zen azaltzen dut xumeki. Itzultzaileak badu ikertzailetik zerbait, ikertzaile intimo bat, inoren larruan sartzen espezialista, eta interprete ere bada, idazlearen ahotsa ekartzen digun medium gisakoa... Gainera, jende zorrotza eta diziplinatua, batzuetan obsesiboa, izan ohi da. Horrek oso pertsonaia literario bihurtzen du itzultzailea.

(Cano, 2013)

Harkaitz Canoren *Twist* eleberrian Diego Lazkano da pertsonaia nagusia. Diego Lazkanok bizimodu lasaia dauka egun, baina etengabe berpizten zaizkio 1980ko hamarkadan jazotako hainbat gertakari: gaztea zen orduan, teatro-talde bateko kide; Gloriaz maitemindu zen, taldeko neska artista gazteaz; orduantxe ezagutu zituen bere lagunik onenak: Soto eta Zeberio, gerora Diegok berak torturapean salatu ondoren, harrapatu, torturatu eta erail zituzten

---

xh=&e\_sd1=&e\_sd2=&e\_xd1=&e\_xd2=

<sup>79</sup> Ideia bera plazaratu zuen, 2017ko otsailaren 14an «Eztabaidak Literaturarekin XXI. mendean» ekimenaren baitan. Zehazki, orain hotzagoa dela dio, ez diola bere buruari «hainbeste permititzen» bere burua itzultzen ari denean, urteekin itzultzaile bihurtu dela.

<sup>80</sup> *Idem*.

bi mutil gazteak (Guardia Zibilak 1980ko hamarkadan eraildako Lasa eta Zabala ETako kideen fikziozko errepresentazioa dira).

Diego Lazkanoren ezaugarrien artean bi nabarmendu zituen Zuloagak (2012) *Maiatz* aldizkarian: batetik, zalantzata da, eta, bestetik, bikoiztasunean bizi dela. Bada, bikoiztasun hori ageri da pertsonaiaren lanbidean ere: idazlea eta itzultzailea da. Idazle gisa pertsonaia isolatua balitz bezala antzertzen da Lazkano, denbora eta arreta handiena bere lanari eskaintzen diona; honelaxe definitzen du garai bateko neskalagunak:

«Hain erraza balitz», Idoiak bere artean. Egiaz, apenas elkar ikusten zuten: Idoia etxera iristean lanean izaten zen Diego bulegoan giltzapetuta, idazten. Bakarrik afaltzen zuen. Diego oheratzerako izaten ziren goizeko seiak edo zazpiak. Ordubate elkarrekin ohean egin orduko jaikitzen zen Idoia autobusa hartu eta lanera abiatzeko. Modu sonanbuloan baino ezin larrutan egin horrela.

(Cano, 2011: 94)

Bere burua idazletzat du Diego Lazkanok, eta halaxe aurkezten du bere burua, esaterako, Luis Agirre Sesma abokatuarenean:

–Berbaera berezia daukazu, zein da zure ogibidea?

«Bidean papurrak uztea. Zurea, txoriek papurrekikoak ez egitea, nik uste». Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

–Idazlea naiz.

–A, sortzaile bat...

«Sortzaile bat», esan du, nerabeen buru-ahulezia heldu baten baitan topatzen duenak bezala. «Erromantiko bat», esango balu bezala. Lehenago «gazte» ere deitu dio, berrogeiak oso paseak dituen arren. Aurrera segitu du abokatuak.

(Cano, 2011: 128)

Idazleak erromantikotzat jotzen dira pasarte horretan, baina ez da eleberrian idazleei buruz zabaldutako estereotipo bakarra; idazleak banidosotzat jotzen dira, berbarako, Gloriaren hitzetan (Lazkanok gazte-sasoian desiratzen zuen emakumea da Gloria, eta gerora harekin sexu-harremanak ere baditu):

–Ez diok inoiz galdetu heure buruari zergatik ez dugun sekula larrutan egin?

–Lagun onak garelako.

–Horrexegatik, hain zuzen...

–Bartzelonara etortzen naun etxean emakumeekin asmatzen ez dudalako, eta hirekin oheratzea nahi dun? Norengana joango naun gero ihesi hi nitaz enkaprixtatu eta gainetik kendu ezinda nabilela esateko?

–Hain banidosoa haiz... idazlea ematen duk. Alkoholik gabeko larru pasara batek, ez al hau kitzikatzen?

–Ajea pasatzeko?

(Cano, 2011: 329)

Aurreraxeago, deabruen parekoak balira bezala irudikatzen dira idazleak:

–Ez daukagu zertan ezin errepikatu...

–Eta hirekin maitemintzen banaun?

–Hara, arriskua ni maitemintzea zela uste nian.

–Humanoa naun ni ere.

–Oker hago: idazlea haiz, deabrua beraz. Trena galduko duk. Ondo egin exxerako bidea eta ez deitu iritsitakoan.

(Cano, 2011: 339)

Esan bezala, Diego Lazkano idazlea dugu, eta horixe du, hain zuzen ere, bokazio, betiere, lagunaren memoria berpizteko:

Lazkanori eztarria korapilatu arren sekula oka egitea lortzen ez zuen gauzen zerrenda ez zen urte haietan gizendu: Faulkner, The Doors, Victor Jara. Promesa batzuk: inurririk ez akabatzekoa, gidabaimenik sekula ez ateratzekoa. Nortasun bat: ezagutu zuen jendearekin egindako adabakia. Bokazio ezkutuko bat: idazlearena, Sotoren oroitzapenaren sua bizirik mantenduko zuena.

(Cano, 2011: 164)

Diego Lazkano idazlea, sortzailea, dela esan dugu, baina dena ez da dirudiena, ezen Lazkanok idatzitako guztia Soto lagunaren idatzietatik ateratakoa dela dirudi. Diego Lazkanok lagunak gordetzen ziren pisutik hartu zuen Xabier Sotoren karpeta:

Idoiari kontatu ez ziona, jakina, libre utzi zutenean egin zuena izan zen. Nola joan zen Angelura eta nola topatu zuen Soto eta Zeberio ezkututzen zireneko Moulineou karrikako etxea erdi hutsik, eta nola topatu zituen apopilo zeuzkaten etxearen jabeak kezkatuta, eta nola Ilegorria ondoko bistro batean atezuan zegoen,



fidagaitz, berarengana hurbildu gabe, eta nola, Sotoren paranoia gogoan, haren gelan bakarrik geratu zenean hura goitik behera miatu zuen, Faulknerren liburua aurkituz, Mientras agonizo, eta izokin koloreko karpeta, eta bertan Sotoren original mekanografiatu guztiak, inork ez atzematuko moduan ezkutatuta manta baten azpian, negurako tapakien artean gozo, armairuaren goiko aldean.

(Cano, 2011: 93-94)

Bada, zelatan zuen ilegorri hark Sotoren idazlanen karpeta kopia bat daramakio Diego Lazkanoren editore Federi (262-263. or.). Ilegorri zelatariak badu kopia bat; izan ere, Sotok kalko-orrietan kopiatzen zituen makinaz idatzitako testuak (265 & 419. or.), eta Diegok originalak eskuratu zituen, baina kopiak gelan utzi zituen, eta zelatan zebilen ilegorri hark eskuratu. Hala, idazlearen iruzurra geratzen da agerian, lagunaren testuetan oinarrituta idatzi baititu bereak:

Idazmakinaren aurreko haiek ziren Sotori buruz zeuzkan azken oroitzapenak: Lazkanok ekarri zizkion ikatz-orri haiek, kalko modura erabiltzen zituenak. Tipula orria erabiliz denaren kopia egitea gustatzen zitzaion. Nolatan ez zuen Diegok igarri, izokin koloreko bi karpeta ezberdinetan gordetzen zituenik haiek guztiak, kopiak batean eta originalak bestean? Sotok idazle izan nahi zuen –idazlea zen jarreraz jada, goiztiar, hemeretzi urte zituenetik–, baina zirriborro asko idatziagatik apenas argitaratu zioten ezer bizi zelarik. Gloriak muntatu zuen bere antzezlanak izan zen salbuespenik nabarmenena.

Sotok idatzi ez zituen liburuak etortzen zaizkio Lazkanori burura. Bere liburuak idazten dituenean, hark bezala idazten saiatzen da, baina ezinezkoa suertatzen zaio. Haren ahots xuxurlaria oroitzen saiatzen da, baina jada ahaztua du. Haren irudia gogoan duen arren, ahaztua du erabat Sotoren ahotsa. Ahots berria asmatu dio urteekin, baina badaki ez dela benetakoa. Lazkanok bere buruari galdetzen dienean zergatik bilakatu ote zen idazle, ez dauka zalantzarik: Sotoren eraginez izan zen. Sotok utzitako lana berak hartzea erabaki zuelako, kontzienteki edo ez.

(Cano, 2011: 419)

Faltsifikatzaile eta lapurra da, hortaz, Diego Lazkano idazlea, eta horixe aurpegiatzen dio Fede editoreak: Sotoren bizitza bizi izana, Sotoren larruan sartu izana, haren testuak usurpatu izana, haren memoria profanatu izana... Lazkano, oster, testu horiek abiapuntu hartu dituela esanez defenditzen da, eraldatu egin dituela esanez (265-269. or.):

Izokina izan nahi luke Diego Lazkanok. Denboraren gezia alderantzikatu, atzera egin, damutu. Karpeta hura hartu eta bere lekuan laga. Karpeta hura sekula

ez irekitzeko. Nola ez ote zuen hori kontuan hartu? Denaren kopia egiten zuela Xabier Sotok.

–Bere bizi bizi. Ez zeneukan egin duzuna egiteko eskubiderik.

–Zergatik ez? Ez dut bere bizi bizi, hori ez da egia; izatez, bere apunteak erabili ditut, bere zirriborroak, bere ametsak, besterik ez, Fede...

–Besterik ez? Besterik ez...! Gutxi irudituko zaizu.

–Zirriborro haïetatik abiatu naiz nire obra propioa eraikitzeko, eraldatu egin ditut haren...

–Eraldatu? Zirriborroak? Antzezlan bat hartu eta nobela bihurtu duzu, ederra zirriborro eraldaketa!

–Hura salbuespena izan zen, gainerako ideia gehienak garatu gabe zeuden.

–Ipuinak puztu eta nobela bilakatu dituzu... Sotori zor diozu zeure arrakasta. Oso-osoa!

–Hori ez da zehazki horrela, eta ondo dakizu.

–Banan-banan irakurri ditut paper guztiak, paragrafo osoak daude, hitzez hitz kopiatuak, berdin-berdin... Baina zer diot paragrafo osoak, orrialdeak eta orrialdeak! Zeure uztakoak diren pasarteak dira ahulenak... ala beste norbaiti kopiatuak dira? Ez, zureak dirudite: ez dute piperrik ere balio! Ezin uka gozaldi itzela hartu dudala batak eta besteak konparatzen... Hartu ditudan neke guztiak hartuta, epaileak deituz gero aise egin nezake peritu lana.

–Milaka orrialde idatzi ditut azken hogeï urteotan. Eta Sotoren karpeta ez zeuden berrehun folio ere. Ez daukazu arrazoirik.

–Horregatik ez zaizu inportako egunkariet zure benetako «inspirazio iturrien» berri jakitea...

–Nik ez dut hori esan, Fede... Abiapuntu bezala hartu nuen.

–Jakina, kokreazioa zer den azalduko didazu orain... Picassok esaten zuena: erdipurdiko artistek kopiatu egiten dutela eta benetakoek lapurtu. Edo David Foster Wallacek esana: artista modernoak gustu oneko kleptomanoak direla eta zabor hori guztia, Google, hipertestua, eta abar.

(...)

–Torturatu egin ninduten, hori da egia. Aske dabilta nire torturatzailerik, batek daki non.

–Oraingo zure bekatua egin aurretik ordaindu zenuela esan nahi didazu horrekin? Torturatua izan zinez gero eskubidea duzula zure bekatu errazionamendua aukeratu eta erlikiak profanatzeko? Faborez... Pena eman nahi didazu?

–Lan asko egin dut. Nik... badakit zer den sufritzea.

–Eta merezi duzu sufrimenduaren ordaina: inori bizitza lapurtzea. Lehen-goetan gaude, ulertu dut zure ikuspuntua.

–Ez diot inori bizitzarik...

–Plagiatzaile bat zara, usurpatzaile bat, idazlanak bakarrik ez, larrua lapurtu diozu larrurik ere ez zeukanari.

(...)

–Nik ikusten dudan moduan, zerbait biziduna egin dut bere errautsekin. Hobetu egin ditut bere lanak...

–Zeure apaltasunak ez dauka mugarik, Lazkano.

–Zeudeneantxe argitaratzea arkeologia ariketa fosila egitea izango zen. Ez al zara jabetzen? Nik ez nuen hori nahi.

–Ez, haren lepotik bizi nahi zenuen.

–Haren lepotik ez, harekin bizitzeko modu bat izan da! Larru bereko mami ginen, anaiak bezala...

Ezin imajinatuzko moduan. Bera eta biok. Elkarrekin egin dugu bidea. Urte hauetan guztiotan.

–Bost urte daramatzazu ezer argitaratu gabe. Utzi asmatzen: bulkada agortu zaizu... ala karpetako edukiak dira gehiago ematen ez dutenak?

–Litekeena da Diego Lazkanoren nobela gehiago ez izatea, arrazoi duzu horretan. Kronika bat idatziko dut, hori bai, Soto eta Zeberioaren epaiketaren kronika... laster da hastekoa... lekuko bezala deklaratuko dut.

(Cano, 2011: 265-269)

Diego Lazkanoren itzultzaile alderdiari dagokionez, garai batean izandako Kieveko neskalagun baten eskutik hasi zen errusiera ikasten:

Errusiera eskolak etorri ziren gero: Kurskeko neska hura, Lena. Maitasun posible bat. Lenaren abandonua. Bere iraganaren zati bat berarekin eraman zuen eta errusieraz moldatzeko gaitasuna utzi zion trukean. Irabazten atera zen Diego. Mosku eta Kievekin import-export negozioak zituzten enpresentzat lan egiten zuen tarteka.

(Cano, 2011: 164)

Eleberrian esaten denez, ordutik aurrerako Diegoren biografia itzulitako liburuei lotutakoa da:

Bitxia da zenbait adiskidetasunen oinarrian zer dagoen: zein gai eta zein premisa, eta zein tonu, eta zein arau idatzi gabeko. Gloriarekin arteaz hitz egiten zuen bereziki, ikusitako azken filmez eta irakurritako azken liburuez. «Zer ari haiz itzultzen?», galdetzen zion lehen bisita haietan, eta Diegok kontatu egiten zion zertan ari zen, zer itzuli zuen joan zen urtean eta zer asmo zuen datorrenerako: itzultitako liburuak ziren Diegoren biografia, horixe zen egia. 1987. urtea Tolstoiaren urtea izan zen, 1988a Nikolai Gogolena, Anna Akhmatovarekin bizi eta maiteminduko zen urtea 1989a... Gero, Diego Lazkano bere eleberrri propioak argitaratzen hasi zenean, sekula idatziko ez zituen liburuen gainean aritzen hasi ziren.

(Cano, 2011: 290-291)

Canok berak esan bezala, eleberrian Txekhov-en *Platonov* lanaren itzulpen-prozesua kontatzen zaigu modu xumean, eta obra horretatik ateratako pasarteak ere eskaintzen ditu autoreak, Txekovi egindako omenaldi moduan (Cano, 2011: 357-367). Itzulpen-lan horri buruzko gogoeta da honako hau:

Itzulpena egitea ez zen sobera korapilatsua izan. Ahozko hizkera, finean, baina 1900. urteko diskurtsibitate landua zuena. Txekhov ez zen, ordea, batere erretorikoa. Orbel gutxi haren testuetan. Lazkanok onartu beharra zeukan gustura ari zela zeregin hartan, halako arintasun bat sentitzen zuela aspaldiko partez bere burua sorkuntza utzita itzultzaile bilakaturik, ahots baten bila. Ez zen egia Gloriari esan ziona: tarteka sentitzen zen Platonovekin identifikatuta, eta ez haren Don Juan izaerarekin hain justu, Platonoven bizi ikuspegi fatalistarekin baizik. Ez zen Platonov fatalista bakarra, jakina, gehiago ere bazeuden obra hartan. Fatalistaz josita zegoen, zertan uka. Pasarte asko azpimarratu zituen, itzuli ahala: (...)

(Cano, 2011: 357)

Bi ideia azpimarratu nahi ditugu itzultzaileak bere lanaz dioenaren haritik: batetik, itzultzea ahots bat bilatzearekin parekatzen da; bestetik, itzultzailearen eta autorearen arteko identifikazioen auzia agertzen zaigu. Canok berak esana da itzulpena bestelako idazleen ahotsak bereganatzeko modua dela: «“nola lortu ote du hori?” galdetzen diozu zeure buruari zenbait poetaren lanak irakurrita... Haiek itzultzen saiatzea da horretaz jabetzen hasteko modu bat» (Cano, 2013). Bestalde, itzultzen den autorearekiko identifikazioa dela eta, Canok berak gustuko lanak soilik itzuli izanarekin lot daiteke (*idem*). Bada, *Twisteko* Diego Lazkanok Txekhoven lanarekiko sentitzen duen identifikazioa erabatekoa da:

Diego Lazkanok Platonoven bakarrizketa melodramatikoak itzultzen zituelarik, Txekhoven aurpegia jartzen zion eskola-maisuari lehenbizi, eta, inoren

larruan sartzea zenez kontua, Txekhoven aurpegia berearekin ordezkatzeko orrialdeetan aurrera egin ahala, egun askotako itzulpen lanaren poderioz. Noiz ari zen narratzailea narratzailearen larrutik eta noiz idazlearenetik? Deabruak zurrupatutako narratzaile bilakatzen zenean funtzionatzen zuen ondoen edozein idazle, ondotoxo zekien hori Lazkanok, baina interferentziak saihestezinak ziren, eta egunak pasatu ahala, itzulitako elkarrizketak birpasatzen zituelarik, sendotu egin zitzaion Platonov zen ustea, Platonov Sindromearen pean erori zen erabat, Anna Petrovna Gloriaren ahotsean entzuteko joera sendotu zitzaion bezala.

(Cano, 2011: 360)

Hainbestekoa da identifikazioa, ezen ordezkatzeko gisa ere agertzen baita:

Gau hartan amaitzea erabaki zuen Lazkanok. Nagikeriagatik edo talentu faltagatik itzuli gabe utzi zituen pasarte guztiak itzuliko zituen lehenbizi. Gero, trakets itzuliak zituen ustean gorri azpimarratutako pasarteak zuzenduko. Egunsentiarekin batera azken puntua eman nahi zion bere gau luzeari. Itzulpen lan hura, suplantazio hura, hain gustura hasi zuena, tormentu hutsa bihurtu zitzaion. Munduari Platonoven larrutik eta Txekhoven begietatik begiratzeari utzi nahi zion.

(Cano, 2011: 366)

Itzultzaileak lanerako darabilen estrategia ere agertzen zaigu aurreko pasarteetan; alegia, lehenbiziko zirriborroan itzuli gabeko pasarteak uztea, gorri azpimarratutako pasarteak gerora begiratzea... Beharbada autorearen beraren itzulpen-estrategiaren isla izan daitezke.

Diego Lazkanorenean ageri diren zenbait tasun sarri agertu izan dira, lehenago azaldu dugun moduan, han-hor-hemengo literaturetako fikziozko itzultzaileengan. Esaterako, *Twist* eleberriko Diego Lazkanoren izaeraren erai-kuntza (berea eta desagertutako lagunena) da eleberraren ardatzetako bat,<sup>81</sup> eta arestian zehaztu legez, nortasunaren auzia askotan errepikatzen den moti-boa da fikziozko itzultzaileengan (Delabastita eta Grutman, 2005; Wakabayashi, 2005).

Giza harremanetarako (eta maitasun-harremanetarako) zailtasunak dituzten itzultzaileak ere behin baino gehiagotan agertu izan dira (berbarako, Barnett, 2005). Bada, *Twist* eleberrian «sexu harremanek ere leku garrantzitsua dute narrazioan; izan ere, maiz eta nahiko gordin ageri dira» (Zuloaga, 2012:

<sup>81</sup> Lazkanok sarri irudikatzen du desagertutako lagunena balizko bizimodua, adibidez, 72-73 eta 421-422 orrialdeetan.

linean), baina Diego Lazkanok ez du betiereko maitasunik aurkitu, hainbat emakume egon dira beraren bizitzan (Idoia, Ana, Lena, Gloria...), baina bakarrik dago. Inoren larrutan sartzearen irudia ere ohikoa da fikziozko itzultzaileengan (adibidez, ikusi Logie, 2003). Canoren Diego Lazkano pertsonaiarenean bikoiztuta ageri da irudi hori: batetik, Sotoren larruan sartzen da idazle gisa, eta, bestetik, itzultzen duen autorea suplantatuta sentitzen dela ere esaten da. Zer esanik ez itzultzailea irudikatzeko «traiziogile faltsutzaile»aren irudiaz: eleberriaren muinetako bat da hori. Edonola ere, itzultzailearenak eta idazlearenak alderantzikatuta, edo bat eginda, dakarzkigu Canok: Lazkano «idazlea» da *Twisten* inoren lanak faltsutzen dituena; beti itzultzaileari egotzi izan zaion errua idazlearen lepoan jartzen da honako honetan. Bada, aspaldion itzulpen-ikasketetako hainbat teorilarik eta hainbat itzultzailek egindako aldarriarekin lot daiteke ideia hori, hain zuzen ere itzulpen-testuak eta sormen-testuak parekatzearekin. Itzulpengintzaren teoria modernoek «aurkakotasun teoriko eta kontzeptualetan oinarritzen dituzte beren gogoetak (...) hizketa *versus* idazketa, idazlea *versus* itzultzailea, jatorrizkoa *versus* itzulpena» (Jaka, 2012: 38). Baina postmodernismoaren ezaugarriak pluraltasuna, mugarik eza, errealitatea irudikatzeko ezintasuna, kulturaren dekanonizazioa, eta zalantza, ziurgabetasuna, direnez gero (Jaka, 2012: 39-51), itzulpenaren epistemologia postmodernoa itzulpenaren eta originalaren arteko muga lausotu egiten da (*idem*: 53).

Bada, ideia hori bat dator, Canok berak idazletzaz egindako azken aldarrikapenekin; izan ere, lehenago esan duen moduan, idazleari itzultzaile izateko ere eskatzen dio, itzultzailea bezain falsifikatzailetzat jotzen du idazlea; are gehiago, «falsifikazioa da originala ahalbidetzen duena» esaten du,<sup>82</sup> eta Canok berak, bere pertsonaiak bezalatsu, gero eta itzultzaileago jokutzen du, gainera bere testuak itzultzean.

Irakasle, irakurle, Gasteizko irakurketa-taldeko gidari eta idazle den alde-tik dauka Iban Zalduak itzulpengintzarekiko atxikimendua. Bere lanak autoitzultzeaz gainera, artikulu, hitzaldi zein blogetako testuetarako itzuli behar izaten ditu zenbait txatal:

Beste egileen itzulpen laburrak egiten ditut batzuetan, nire artikuluetarako, eta askotan zeharkakoak (hots, gaztelaniatik, nahiz eta jatorrizko hizkuntza beste bat izan, baina baita ingelesetik eta frantsesetik ere, batzuetan). Testu historiko laburrak ere itzuli izan ditut, nire ekonomi historiako eskoletarako, horiek ere

---

<sup>82</sup> «Literaturarekin XXI. mendean» ekimenaren baitan, X. Olarrarekin eta U. Urrutikoe-txearekin izandako solasaldia: <https://www.youtube.com/watch?v=GL2RxK9QIKA>.

zeharka, gehienetan. (...) Esan bezala, ez dut sekula liburu osorik itzuli, bai ordea pasarteak edo ipuin motzak, eta testu profesionalak, ez literarioak. Kasu guztietan nire premiek edo gurariek bultzatu naute lan hori egitera.

(Zaldua, 2013)

Autoitzulpenak ere egiten ditu euskarazko lanak gaztelaniara itzuliz eta alderantziz: «gutxiagotan, gutxiago idazten baitut gaztelaniaz azkenaldion» diosku (Zaldua, 2013). Honela azaltzen du auzia, itzulpena idazketari jarraitutasuna ematen dion ekintza balitz bezala ulertuta:

Zergatik? Alde batetik, gaztelania ere nire hizkuntza delako (ama hizkuntza, gainera), eta, ondorioz, sorkuntza-prozesuaren nolabaiteko jarraipena delako niretzat itzulpena. Bestetik, lana hobetzeko edo bere akatsak zuzentzeko aukera ematen didalako autoitzulpenak (hori, neurri batean, sorkuntzaren jarraipen-izaera horrekin lotuta dago). Gainera, merkeagoa izan ohi da espainiar argitaletxeentzat, eta, ondorioz, horrek argitalpena bera errazten du. Azkenik, beste batek egingo balu, zuzentzeko orduan gaizki pasatuko nuke, nire ahotsa testuan aurkitzea gehiago kostatuko litzaidakeelako, nolabait; zuzenketa lana nekosoegia bihurtuko litzaidake ziurrenik. Horretarako, nahiago neuk egin.

(...)

Niretzat ez da ariketa. Nire testuak autoitzultzen ditudanean haien zabal-kuntza dut gogoan, zer esanik ez; testu historikoak itzultzen ditudanean, nire jardura profesionalaren beharrak; eta testu literario txikiak itzultzen ditudanean, normalean, saiakera-testu txikitian sartzeko komeni zaizkidalako (adibidez, Volgako Batelariak edo Oharrak & Hondarrak blogetako artikuluetan, testu guztia euskaraz egon dadin, edo *Ese idioma raro y poderosoko* euskal idazleen pasarteak gaztelaniaratzean).

(Zaldua, 2013)

Solasaldi zein mintegietan, blogetan zein jendaurrean... sarri plazaratu izan ditu Iban Zalduak bere gogoetak itzulpenaren inguruan; baita fikzioan ere, jarraian aztertuko dugun moduan.

21 ipuinek osatzen dute Iban Zalduaren *Idazten ari dela idazten duen idazlea, edo literatura gaixotasun gisa* liburua (2012). Ipuinek literatur sistema dute gaitzat: idazleak, itzultzaileak, kritikariak... dira protagonista (eta sariketak, argitaletxeak, kongresuak, liburu-dendak... agertoki). Zalduak bere buruaren erretratua ere egiten du ipuin-liburuan (Asurmendi, 2013: linean), eta ildo horretan ezinbestekoa zen itzulpena ere bertan agertzea. 21 ipuinetako hirutan agertzen zaizkigu itzultzaileak: «Zergatik? Imajinatzen dut itzulpena

oso presente dugulako, euskal idazle bezala. Egoera literario diglosiko batean bizitzeak eta nire familiako egoera linguistikoak berak eragina izango dute horretan, ziurrenik» (Zaldua, 2013).

Ipuin-liburuko bigarren ipuina da «Itzulpengintza» izenburuduna; bertan, Zalduak autoitzultzaile legez izandako esperientzia azalarazten du, bai eta modu karikatureskoan adierazi ere: etengabe zuzentzen aritzen den idazle obsesibo gisa aurkezten du narratzaileak bere burua, eta liburuak bukatutzat editoreen temaren ondorioz ematen dituela azaltzen du (Zaldua, 2012: 11). Azken nobelaren gaztelaniazko bertsioa berak egin zuen: «jakina da idazleok ez ditugula geure lanen itzulpenak egiten, bertsioak baizik» (*idem*). Ipuineko protagonistak frantseserako bertsioa egiteko, gaztelaniazkotik abiatzeko eskatzen dio itzultzaileari, hobea dela-eta; frantsesez kotik abiatzeko ingelesezkoari, ingelesez kotik abiatzeko hungarierazkoari... gauza bera gainerako hizkuntza guztiekin (12. or.). Bukieran, azkeneko bertsiotik egiten du itzulpena euskarara, eta, editoreari pasatuta, inoizko libururik onena idatzi duela jakinarazten dio (*idem*).

Zenbait idazlek joera izaten dute itzulpenetan sormen-lanetan izandako hutsuneak zuzentzeko, eta horixe da Zalduaren kasua ere, gorgoko aipuan irakurri dugunez.

Kafka idazlearen biografiaren birsorkuntza bat da «Kafkaren itzultzailea» ipuinaren hasiera: Tel Avivetik hurbil zegoen kibbutz batean gorde omen zen bere azken urteetan (eta ez zen Vienako erietxe batean hil) (21. or.). Hortik abiatzen da narrazioa, eta hiru itzultzaile agertzen dira. Lehenbiziko itzultzailea Kafkaren maitale izandako Milena da, eta emakume horrek lagundu omen zion Kafkari jendeari hilik zegoela sinetsarazten eta ezkutuko gordelekura bidaiatzen. Itzulpenak elkartu zituen Kafka eta Milena burgesia txekiarreko emakume ezkondua, eta azken hori zen «Kafkak ezagutu zuen pertsonarik ausartena eta ziurrena, zalantzarik gabe» (25. or.), «erabakimen handiko emakumea» (26. or.). Kafkak kibbutzean idatzitako hiru koadernoren berri jakiten du narratzaileak (28. or.), hebreeraz idatzita daude, eta adituek, Kafkarenak diren galdetuta, «iruzurra direla» (29. or.) erantzun izan dute. Testuak alemanera itzultzeko proposamena egin zioten Ernst izeneko pertsonaiari, «egilearen idazkera ahalik eta hobekien imitatuz» (29. or.), «Eta, behin itzulpena eginda, hogeita hamarreko eta berrogeiko hamarraldietako papera eta idatz materialak erabiliz, testu horiek transkribatzea, Kafkaren letra zehatz-mehatz imitatuz» (29. or.). Ernst da ipuineko bigarren itzultzailea: Kafkaren testu argitaragabeen itzultzailea, alegia. Bada, Ernstenean, jolasetik gaixotasunera egiten du itzulpenak:



Une batetik aurrera testuen itzulpenak planteatzen zizkion arazoez hasi zitzaidan mintzatzen, batik bat: hasieran olgeta bezala aipatzen zuen kontua, saiakera haiek denbora-pasa soil gisa egingo balitu bezala, baina ni gero eta kezkatuago nengoen, eta testu horiek obsesio bihurtzeko arriskuaz ohartarazi nuen behin eta berriro. Alferrik.

(Zaldua, 2012: 31)

Hainbestekoa da itzulpenarekiko obsesioa, ezen Ernestek karrera profesionala ere alde batera utzi baitzuen (33. or.): «gero eta deskonektatuago zegoen errealtatetik» (33. or.). Narratzaileak Ernestez duen azken berria da ospitale psikiatriko batean sartu zutela (33. or.). Baina Ernestek berak itzulitako eta transkribatutako testuen jabe da orain narratzailea, hain zuzen ere ipuineko hirugarren itzultzailea: Kafkaren testu ineditu itzuli horiek euskaratzeko beta hartzen duena: «bururatu zait agian euskarara itzuliz gainditu ahal izango dela testu bikain hauen kontra altxatu den isilunezko murrua, literaturaren historiaren parte ezinbesteko bihur daitezen behingoz» (35. or.), eta itzulpengintzaren langintza «gogor eta, aldi berean, gozagarriari» ekiten dio (35. or.).

Ipuin horretako lehenbiziko itzultzailea «maitalearen irudian» ageri da, bai eta «iruzurgile gisa» ere. «Iruzurgile eta faltsifikatzailearen ideia» errepikatu egiten da bigarren itzultzailearenean, eta beste iruditeria bat ere azaleratzen da; hain zuzen ere, «itzultzaile obsesibo eta isolatuarena». Hirugarren ipuinean, itzultzaileak bere lana deskribatzeko bikoiztasuna darabil: gogorra izanagatik gozagarri zaiola baitio. Bestalde, itzulpena obra baten biziraupenerako bide bezala ageri da; autorearen obrari jarraikortasuna ematen dion bide bezala, alegia. Zalduak berak ere halaxe bizi du bere testuen itzulpena.

Azkenik, «Idazlea irakurketa tailerlean» ipuinean Iban Zalduak irakurle-klubeko gidari gisa izandako esperientzia agertzen du. Autoreak berak jakinarazi izan du sarri irakurle-taldean kide gutxiago agertzen direla itzulpenak lantzen diren saioetan.<sup>83</sup> Bada, horixe berori kontatzen da ipuinean ere:

Gaurko itzulpen bat irakurri behar zuten, Jane Austenen Harrotasuna eta aurrejuzkuak, 1813ko nobela ingelesa, Ana Isabel Moralesek bikain itzulia. Ez daki zergatik, baina jende gutxiago etorri ohi da itzulpenak dauden egunetan, eta horrek kezkatzen du koordinatzailea, euskal itzulpenak gero eta hobeak direlako. Baina, irakurleek, antza, nahiago dituzte, euskaraz irakurtzeko behintzat, euskal-

<sup>83</sup> EIZIEeren webgunean irakurgai eta entzungai dago, berbarako, Literaturia 2012 azokan «Idazlearen eta irakurlearen artean, itzultzailearen itzala» mahai-inguruan Iban Zalduak esandakoa: [http://www.eizie.org/Jarduerak/Lit\\_Itzul\\_Sustapena/literaturia2012](http://www.eizie.org/Jarduerak/Lit_Itzul_Sustapena/literaturia2012)

dunen lanak. Agian egileekin egoteko aukera dutelako maiz –koordinatzaileak beti gonbidatzen ditu, eta haiek baietz erantzuten diote ia beti–. Edo zailagoak iruditzen zaizkielako itzulpenak.

(Zaldua, 2012: 78)

Eta obsesio horrek bultzatuta-edo betiko txiste txarra egitera doanean, «Gaur, tamalez, idazleak ezin izan du gurekin egon...» (78. or.), Jane Austin bera agertzen zaio koordinatzaileari. Azken ipuin horretan euskarara ekarritako literatur lanen harrerari buruzko gogoeta dugu, eta, hain zuzen ere, euskal itzulpengintzari buruzko iritzi orokorra eskatuta, autoreak ardura hori berori adierazten du:

Zaila da laburtzea halako galdetegi batean. Oro har, EHUko azkeneko ikastaroan entzun zenidana esango nuke:<sup>84</sup> asko egin dela aurrera itzulpenen kalitatean; itzulpenen harrera, ordea, ez dela guztiz normalizatu, kasuak kokatzea zaila den arren; hutsune asko dagoela itzulpen literarioaren merkatuan, halabeharrez; eta aldaketak sumatzen ari direla, kalitatearen alorra alde batera utzita, eskaintako izenburuen tipologian (“midcult” mailakotzat jo daitekeen itzulpen gehiagorekin). Sendo ikusten dut, edonola ere, itzulpen literarioaren panorama, duela hogeitau urte baino dezente sendoago.

(...)

Nik uste dut irakurleok asko zor diegula itzultzaileei eta urte hauetan guztietan burutu duten lanari (horretan oso nator bat Anjel Lertxundirekin), eta esango nuke euskal literaturaren egungo indarraren zati bat horren ondorio dela.

(Zaldua, 2013)

Horiek horrela, esan dezakegu Zalduaren ipuineko pertsonaiek, oro har, Zalduaren beraren diskurtsoa eta itzulpen-esperientziak islatzen dituztela. Gauza bera gertatzen da Kirmen Uriberen kasuan, jarraian ikusiko dugunez, itzulpenaz duen pertzepzioa darama fikziozko pertsonaia itzultzaileetara.

«Ikasteko» itzultzen du Kirmen Uribek: «Batez ere poesian, ikusi nuen euskaraz nola soluzionatzen ziren [autoreen] beren poemetan agertzen ziren

---

<sup>84</sup> 2013ko uztaillean EHUren XXXII. Donostiako Uda Ikastaroen programan antolatutako Azkenaldian euskarara itzultitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak ikastaroa aipatzen du Zalduak, «Euskaratutako literaturaren harreraz zenbait gogoeta» izenburuko mahai-inguruan parte hartu baitzuen. Hona hemen Gorka Bereziartuak idatzitako kronika: <http://www.argia.com/blogak/boligrafo-gorria/2013/07/23/zein-eragozpen-dago-euskarazko-itzulpenak-irakurtzeko/>

problemak». Nolabait esan, idazten ikasteko ariketa da itzulpena Kirmen Uriberentzat (2013). Itzulpenarekiko harremana du, halaber, bere lanak itzuli diren aldetik. Bi hautu egin izan ditu Uribek: poesiaren itzulpenetan, hizkuntza ezagutu izan duenean, itzulpenean parte hartu izan du; ostera, narratibaren kasuan, euskal itzultzailearen aldeko apustua egin izan duela diosku (Uribe, 2013). Gustuko du idazle gisa itzultzaileekin izan duen harremana, itzultzaileak literatur agente batek baino lan handiagoa eta gertukoagoa egin dezakeela-eta (Uribe, 2013). Irakurketei buruz, honela dio: «Euskaraz itzulpena sormena baino gehiago irakurtzen dut. Nire irakurketen gehiengo itzulpena dela esango nuke. Datu inportantea da, horrek badu eragina sormenean ere»; izan ere, asko ikasten omen da itzultzaileenetik: «Itzultzaileak lagundu du euskara edertzen eta euskararen maila igotzen. Gure estiloan ere eragina izan du, guk askoz lakarrago idatziko genuke. Itzultzaile batek soluzio asko ematen dizkizu zuk gero idazteko» (*idem*).

*Mussche* eleberrira ekarri du itzultzailea Uribek: 1937an Belgikan erbesteratutako Karmentxu Cundin gerrako haurraren istorioarekin abiatzen da, eta, hala, Espainiako Gerra Zibiletik Bigarren Mundu Gerrako testuingurura garamatza Kirmen Uribek, hain zuzen ere Robert Mussche idazle-itzultzaile flandiarrarenera (gaztetan hartu zuen beronek etxean Karmentxu Cundin). Hauxe zioskun Uribek Robert Mussche pertsonaiari buruz:

Norberak hautatzen ditu pertsonaiak, direnak direlako, eta norberak hautatzen du zer joko ematen dizuten nobelan. Gero moldatu egiten dira. Mussche, benetakoa bada ere eta datu batzuk biografikoak badira ere, gehiena nire uzta da. Itzultzailea zela eta... Egia esan horrek erakarri ninduen nobela idazten hasteko. Nor da Mussche? Bada, euskal haur bat jasotzen duen itzultzaile flandiar bat. Itzultzaile izateak, hizkuntzak menderatzeak, horrek asko erakarri ninduen.

Itzultzailea oso pertsonaia erakargarria da, umila da, itzalean dago, bereganatu egiten du literatur tradizio unibertsala. Idazlea egolatragoa da... Ez pentsa, igual gehiago gustatzen zaizkit itzultzaileak, oso polita da besteen ahotsa partekatzea.

(Uribe, 2013)

Hain zuzen ere, eleberraren azken kapituluan autorea bera agertzen da kontakizunean, eta protagonistaren izaeraren sintesia eskaintzen digu, eleberrria idatzi izanaren justifikazioarekin batera:

2010eko azaroaren 28an jaio zen gure alaba Arane. 2011ko apirilaren 24an hil zen nire lagun Aitzol Aramaio. Elkarrekin egon ginen azken aldietako batean hauxe esan zidan Aitzolek:

–Heroi baten istorioa kontatu behar duk.

–Baina niretzat ez zagok heroirik. Pertsonen alde hauskorra gustatzen zaidak niri, ez balentriak. Beldurra ematen zidatek heroiek.

–Ez nauk halako heroiez ari. Jende arruntaz ari nauk. Heroiak zaudek hor zehar, lehen eta orain, hemen eta mundu zabalean; heroi txikiak, jendea laguntzen dihardutenak.

Isildu egin nintzen orduan. Gaur egun arrazoia ematen diot. Heroiak daude hor zehar, lantzean behin hil egiten zaizkigunak.

Bada, hementxe duzu heroi baten istorioa, nire bihotzeko laguna.

(Uribe, 2012: 194)

Itzultzailea heroi arrunta da, hortaz, Uriberenean; pertsonen alderdi hauskorra erakusteko modukoa. Hemen ere, Thiemek (1995) zioen gisan urruti dago itzultzailea «Connan itzultzailea» heroiaren pare agertzetik; baina, Kirmen Uribek azaldu legez, askotarikoak dira gaur egungo gizarteak onartzen dituen heroiak, eta horretan itzultzaileak heroi izatera ere iragan daitezke. «Heroi» kontzeptuaren definizio-aldaketak dakar, nolabait, itzultzailearen beraren irudi-aldaketa. Horrez gain, Thiemek aipatzen zuen «When not onlly invisible, we appear as marginal figures» (1995: 207) hura atzean utzita, figura bazterrekoa izatetik eleberriko protagonista izatera igaro da hemen.

Eleberrian iritzi sendoko pertsonaia gisa aurkezten zaigu Robert Mussche (Uribe, 2012: 19), mintzatzen denean xarma handia du (*idem*), jendearekin ondo geratzeko dohaina du (35. or.) eta dagokion entzuleari egokitutako hitzak erabiltzen daki (*idem*). Askatasun-gosez bizi den pertsonaia da, eta haren nahia: «munduan zehar libre ibiltzea zen, inolako loturarik gabe» (41. or.). Pertsonaia honen langintzaz denaz bezainbatean, bankuko langilea da, baina handik bota egiten dute, dirua lapurtzea egotzita (86. or.); ordutik aurrera, kazetari (73. or.) eta itzultzaile ibiliko da. Bestelako egitekoen artean, gerrako haurrentzat antolatutako eskoletan gaztelania-eskolak eman izana ere aipatzen da narrazioan, eta horretarako diktaketa-koaderno bat osatu izana bere gustuko idazleen esaldiekin, egile kutunen esaldiak kopiatzeko ohitura baitzuen (63. or.). Harreman pertsonalei dagokienez, «solasaldietan» oinarritutako harremanak dituela nabarmendu daiteke; eleberriarren ardatzetako bat dira Robert Mussche eta Herman Thierry lagunak (azken hori ere idazlea) dituzten elkarrizketa-hausnarketak. Harreman sentimentaletan ere bide bereetik jokatzeko du. Honela azaltzen du Yvonnek (Roberten maite-lagunak) euren harremana, Hermanekin hizketan ari dela:

–Ez dakit Robertek maite nauen –diotso Yvonnek, gaia aldatuz.

(...)

–Ez duela nirekin harremanik nahi. Berarentzat andre ederra naiz, azkarra, kultua. Solaskidea besterik ez. Kakatzarra. Ez da, gero, musukatzeko gai, ez du laztanik ematen, ez du...

(Uribe, 2012: 75)

Lehenago ere aipatu dugunez, itzultzailea isolamenduarekin lotu izan da sarri fikziozko lanetan; bada, eleberri honetan aldaketa-zantzuak hauteman daitezke: gizarte-harremanetarako arazorik ez du batere Robert Musschek; besterik da, ostera, bere maitasun-harremanak nola interpretatzen ditugun.

Istorioak aurrera egin ahala, Robert Mussche, bere ohiko bizimodua utzita eta engaiamendua bidelagun, erresistentzian sartzen da (117. or.). Horra hor itzultzaile engaiatuaren, aktibistaren eta eragile aktiboaren irudia, hain zuzen ere Logiek deskribatzen duena: «al traductor se le reconoce hoy como una figura que toma forma activa o que, por motivos políticos, toma partido» (2005: 43).

Orduan, gordean dabilela aipatzen da lehenbizikoz itzulpena:

Egunak bukaezinak dira, nire itzulpen lana amaituta daukat, baina liburua hain da ergela, ezen erabat amorratuta bainago bertan ageri diren sentimendu hain ez naturalekin. Eta gu geu benetako tragedia bat biziz bitartean, egiazko bizitzatik ateratako tragedia. Bada, horrexegatik nago hain haserre egile burges honek idatzitako estilo ariketa huts hauekin. Ez diot itzulpen lan honi inolako probetxurik ikusten, baina jarraitu egingo dut bi arrazoiengatik: lehena, denbora igarotzen laguntzen didalako; bigarrena, sos batzuk irabazteko balio digulako, hain da badaezpadakoa etorkizuna.

(Uribe, 2012: 105-106)

Autorearekin identifikatu ez eta itzulpen engaiatua egin ezinaz kexu da Robert. Testu-txatalean argi azaltzen denez, bi balio ditu itzulpenak une horretan berarentzat: batetik, denbora-pasarako darabil; bestetik, diru-iturria da.

Roberten itzulpen-hizkuntzak ere aipatzen dira eleberrian, bai eta lanbi-deari buruzko alderdi positibo bat azpimarratzen ere, etxetik lan egin ahal izatea. Hain zuzen ere:

Onea apartamentuan bertan lan egitea zen, egunero lantokira joan behar izan gabe. Hermanek lortu zion horretarako lan aproposa: itzulpenak egingo

zituen. Alemanetik, frantsesetik eta gaztelaniatik nederlanderara itzultzeko nor zen Robert eta idazlea zen, ongi taxutuko zuen lan hori. Bruselako Cafe de Parisen geratzen zen astean behin Hermanekin eta hark pasatzen zizkion itzulgaiak.

(Uribe, 2012: 113)

Nederlanderaz idazteari (eta itzultzeari?) buruzko gogoeta ere egiten du halako batean:

«Nire hizkuntza ez da aberatsena», ebatzi du Robertek. «Zergatik idatzi nederlanderaz, Frantziako eta Alemaniako tradizio nagusien bitartean dagoen hizkuntzan?», galdetu dio bere buruari. «Munduan kokatzen nauelako pertsona gisa», esan du ahapeka, lurrean birrintzen diren euri tantei begira doala, ukabilak estutuz. «Ganteko Ferrerlaan kaleko langileen hizkuntzarik gabe ez nintzen ni neu izango».

(Uribe, 2012: 119)

Gatozen berriz itzulpengintzari buruzko irudietara, ezen Robertek ez du itzulpengintza ekonomia-iturri eta denbora-pasatzat jotzen soilik: ikasi egiten du itzulpengintzaren langintzan, itzulpengintzaren baliagarritasun literarioari eta estilistikoari gorazarre egiten dio:

Itzulpengintzaz gogoetan jardun du kafetegiko mahaitxoan. Egun luzeetan idazle horien laguntasuna baino ez du izan Robertek. Idazle horien munduan sartuta ibili da, itzulgai ziren eleberriotako ahotsak entzuten. Eta ahots horiek laguntzen diote urratsak aurrera ematen, bizidunen bozak baino areago. Bakardadeak behartu egiten du ez dauden horien konpainia izatera, aspaldi ikusi ez dituzunak, hildakoak, hortxe bertan daude, egunero kaletik gurutzatzen dituen pertsonen maila berean, beraiek bezain benetakoak dira. Urteetan aurrera egin ahala antzeko zerbait gertatzen da, bizi direnenak eta hildakoenak, horien guztien ahotsak izaten ditu norberak gomutan. «Bitxia da», pentsatu du bere bostean, «baina klandestinitateak lotu nau literaturara gehien». Bankuko lana utzita, sekula baino ordu gehiago igarotzen ditu irakurtzen eta idazten. Kanpoko idazle horiek guztiak nederlanderaz ipiniz ikasi egiten du Robertek. Gustuko du erbesteko hizkuntza horietan esaten dena bere hizkuntzan berresatea, inork zanpatu gabeko lurralde batean sartzea bezalakoa da berarentzat. Itzulpengintzak paisaia ezezagunetara zabaltzen dizkio leihoak edo, gauza bera dena, egundo idatzi gabeko esaldietara.

(Uribe, 2012: 118-119)

Literaturarekiko eta itzulpenarekiko lotura afektibo hori berori autorearen habitusaren isla da, nolabait, arestian aurreratu dugunez: Uriberen ustez,

batetik, itzultzearen langintza ikasketa-langintza da euskarazko idazkuntzan; bestetik, itzultzailea munduan pausoak emateko bidelaguna da, eta haren alderdi humanoa izugarri ederra da.

Saizarbitoriak ere egina du itzulpenari buruzko gogoetarik (2012), eta fikzioan ere ageri da hala egin izana. Soziologo lanetan aritu izan da Saizarbitoria, eta, idazle-bizimoduari dagokionez, «amateurra naiz» dio (Saizarbitoria, 2015); haren hitzetan, libre izan duen denbora eman izan dio idazteari, eta, gainera, bere lan profesionala ere atsegin zitzaiola-eta ordu asko ematen zizkion hari ere. Besteak beste, horregatik ez omen zaio itzultzeari atxiki; alegia, langintza profesionalak utzitako denbora guztia idazteari eman nahirik (*idem*). Izan du, edonola ere, itzulpenarekiko loturarik: lantoki zuen dokumentazio-zentroan, esaterako, beren-beregi izaten zuten horretan ari zen jendea, baina gerora «hori nolabait ere antolatu egin zen, eta taldeak eta etxe profesionalak sortu ziren, eta hori asko aldatu zen» (*idem*). Idazletza eta itzulpena lotzeari buruz galdetuta, hauxe aitortzen du Saizarbitoriak itzultzeaz: «ez dut trebetasunik. Idazle lanean, gogorrena egiten zait, hain zuzen ere, forma zaintzea, zuzentzea, etab. Beraz, errespetu guztia itzultzaileei, baina oso urrutiko kontua egiten zait» (*idem*). Ez du sekula inoren lanak itzultzeko lanik hartu, ezta ariketa literario gisa ere, eta «oso nekoso» egiten zaio itzulpen-jarduna (*idem*). Itzulpenak euskaraz irakurtzeko lana hartu izan du, ostera: «irakurri izan dut baina interes horrekin, hizkuntzaren aldeko interesarekin, obraren interesarekin baino gehiago» (*idem*). Bere lanen itzulpenei buruz galdetuta, oro har, itzultzaileen esku utzi izan dituela dio Saizarbitoriak: «gehienetan itzulpenak, salbuespenen bat kenduta, ia begiratu ere ez nituela egin esango nuke» (*idem*). Kasuren batean, baina, itzulpena Sari Nazionalaren testuinguruak baldintzatu izan du, eta orduan bai, parte hartu izan du itzulpenetan:

Sari nazionalerako egin behar eta behin baino gehiagotan gertatu izan zait nobela bat, *Gorde nazazu lurpean* adibidez, zatika eman izan beharra garaiz iristeko. Orduan, testu hori neronek neurea egin izan dut, hori bai; zeren eta kontuan hartu behar da nik ere badudala nire gaztelera bat ere.

(Saizarbitoria, 2015)

Itzulpenaren gaia, baina, interesekoa zaio, eta sarri gogoetatu izan du itzulpenaren inguruan. Adibidez, *Aberriaren alde eta kontra* saioan atal bat eskaintzen dio: «Itzulpenaren inguruan» (2000: 64-77). Bertan egiten diren hainbat gogoeta agertzen dira, halaber, aztergai dugun *Martutene* eleberrian, geroxeago ikusiko dugun moduan eta autoreak berak aitortzen duen eran:

«horretan esan beharreko guztia uste dut *Martutenen* itzultzailea den pertsonaia batek esaten duela; askotan itzultzailearen arazorik handiena iruditzen zait dela testuari fidela izan beharra, fideltasun askotan alferrikakoa; nik hori argi ikusten dut, eta adibideak ematen ditut *Martutenen*» (Saizarbitoria, 2015). Izan ere, *Martutene* eleberriko pertsonaietako bat itzultzailea da. Bada, eleberrian, bai Juliak, bai Martin idazleak, sarri egiten dute gogoeta itzulpenaz, aurrerago zehatz azalduko dugunez.

Interesgarri zaio itzultzailearen pertsonaia Saizarbitoriari:

Martutenen ikusten da gaiak kezkatzen nauela eta interesatzen nauela, eta pentsatzen dut itzultzailea pertsonaia bezala ere interesantea dela: ez da idazlea bezain narzisoa, sanoagoa da, ez da hain neurotikoa beharbada, eta idaztearen lanik teknikoena edo hartzen duena da; edo, idazleek ez bezala, onartzen duena literatura unibertsalak ez dituela behar; ezen, idazleak, nolabait ere gaixoak gara: zer ematen diogu guk munduari gure testutxo bat gehiago erantsita, ezta? Hainbeste dagoenean ez da dena irakurriko, klasikoak hor daude, eta abar eta abar... zer gehitzen diogu guk... Baina hala eta guztiz ere hor jartzen gara. Nik ezagutzen ditudan itzultzaile gehienek idazleek baino hobeto idatziko lukete; baina hori jada psikologian sartzea litzateke...

(Saizarbitoria, 2015)

Gatozen, beraz, *Martutene* eleberria aztertzeraz. *Martutenen* bi bikoteren eta haien inguruko pertsonaien istorioak kontatzen dira. Batetik, Martin eta Julia ditugu (idazlea eta itzultzailea); eta, bestetik, Pilar eta Abaitua (neuroziturujaua eta ginekologoa). «Pertsonaien bizitzan oinarritutako nobela» dela dio Kortazarrek, bai eta Martinek eta Juliak, idazle eta itzultzaileak, «gizartearen errepresentazioaren muga» osatzen dutela ere (Kortazar, 2012: linean). Bada, muga hori iruditzen zaigu interesgarria, ezen horixe ari baikara aztertzen kapitulu honetan: itzultzaileak nola dauden fikzioak irudikatzen duen gizartean txertatuta eta irudikatuta, eta, zehatzago, horren islarik badenetz euskal literaturan. Bada, Kortazarrek dioenez, «(...) zergatik da Julia itzultzailea? Errealitate den testuaren isla bat emateko, jakinda itzulpen batean ezinezkoa dela testuaren originala ematea» (*idem*).

Colberten ustez, gainera, itzulpena da bidea eleberrian Euskal Herriko harreman intrakulturalak esploratzeko; halaber, euskara eta gaztelania eleberrian errepresentatuz «Saizarbitoria explora el complejo bagaje cultural que conlleva cada idioma y la influencia de un idioma u otro en la percepción de la realidad vasca» (2016: 349). Are gehiago, Colbertek dioenez, itzulpenak berak jartzen du auzitan Euskal Herriak bizi duen nortasun-krisia:



La traducción literaria, y más ampliamente el recuento de historias, pone en relieve la crisis identitaria representada por la novela. El euskera sirve de amparo para las creencias en la identidad primordial, mientras que la traducción expone a las miradas escépticas y provoca un autoexamen cargado de mala conciencia producida por la violencia separatista.

(Colbert, 2016: 349)

Literaturak eta itzulpenak elkartutako bikotea dira Martin eta Julia. Hain zuzen ere, literatur itzulpenari eskainitako ekitaldi batean egin zuten topo. «Atarikoa»n bertan ematen zaigu horren berri, eleberraren hasiera-hasieran, (9. or.). Saizarbitoriaren esanetan, itzultzaileak eta idazleak asko dute elkarri esateko, sarri bi idazleek elkarri baino askoz gehiago; mundu bertsua da biena, eta biak dira irakurle, baina irakurketak osagarriak dira (Saizarbitoria, 2015).

Martin, *Martutene* eleberriko pertsonaia eta idazlea, Saizarbitoriaren ispi-lutzat edo alter egotzat jo dute hainbat kritikaririk (cf. Asurmendi, 2012: linean). Saizarbitoriak berak onartu egiten du pertsonaia horrek baduela bere-tik, baina beste pertsonaia batzuen neurrian: «Martin karikaturizatuagoa ageri da, Juliaren ikuspegitik zirriborratzen delako. Benetako Martin ez da horrela izango. Baina idazle den neurrian gauza asko ditu nireak, baina Abaituak ere asko du niretik eta Juliak ere bai» (Agirre, 2012: linean).

Aldekoa kritikariaren hitzetan, Martin «idazle malenkoniatsua» da (Aldekoa, 2013: linean), eta eleberrian pertsonaia frustratu legez aurkezten zaigu: «Zoriontsua da bere burua dezepzionatutzat, galtzailetzat, ezulertutzat azalduz. Arrandiaren eta punpeziaren aparra iristen ez den hondartza urrun horretatik begiratzen omen dio munduari» (106. or.). Idazle frustratua ere bada hein batean; batetik, zapuztuta dago, orain arte eleberririk idatzi ez duelako:

Konturatzeko parada izan zuen zenbateraino zegoen frustratua ez zelako oraindik benetako nobela bat idazteko gai izan, ipuinlaria besterik ez zelako. «Ipuin eta nouvelle idazle» bezala definitu zuen Lourdes Arregi irakasleak, eta horrela ageri da, beraren etsigarri, Euskal idazleak plazara liburuan.

(Saizarbitoria, 2012: 14)

Bestetik, idazleen belaunaldi berriekiko uzkur ageri da, idazten baino plazan ematen dutela-eta denbora gehiago: «azken finean idazteak berak urruntzen ditu jardun literariotik» (106. or.) dio, bai eta «Idazle gaztearen ametsa ez da jadanik gerora oroituia izatea, arrakasta nahi du, dirua eta fama, lau izarreko sukaldaria agurtzera etor dakion mahaira» ere (*idem*). Nolabait,

eremuko agente kontserbatzailea da Martin idazlea, berrikuntzari mesfidantzaz begiratzen diona.

Jendaurrean hitz egitea kosta egiten omen zaio Martini, halaxe aitortzen du pertsonaiak berak jendaurreko ekitaldi batean (Saizarbitoria, 2012: 9). Baina ez du lotsarik, esaterako, hizkuntzak praktikatzeko, akatsak eginda ere. Itzultzailearen kasua bestelakoa da, Juliak ez baitu bere ahotsa entzun dadin gura izaten:

Martin berriz ez da haserre bere ingelesa praktikatu ahal izanik. Herri guztietan egon ohi diren pertsonaia bitxi hori dirudi, bertakoeekin harremanik ez eta plazan agertzen den lehendabiziko kanpotarrari beroa emateko salto egiten diena. Lagun mordoak dauka Donostiako ingeles eta amerikar kolonian. Joera horri esker konpontzen da hizkuntzetan, Juliari gertatzen zaionaz bestera, ikasteko ahalegin handirik egin gabe, ez duelako inolako eragozpenik erabiltzeko, egia den arren hala moduz hitz egiten ikasita, ez duela sakontzen.

(Saizarbitoria, 2012: 103-104)

Martin idazle obsesibo gisa aurkezten digu Juliak. Bere baitarako gordezten da sarri; «izenondo bila» dabilela esaten dute Juliak eta Harrik (220. or.):

Kontatu zion Martin gizon konplexuegia zela, elkarbizitzarako zaila, idaztearekin obsesionatua zegoenez. (...), beti kostatu izan zaio idaztea, oso zorrotza eta estua delako bere buruarekin, demasekoa ere bai, eta hala esan zion poeta gazteari eta, bide batez, baita aspertu samarra zegoela beti Martini buruz hitz egin beharraz.

(Saizarbitoria, 2012: 307)

Diru-kontuez ezazola aurkezten zaigu Martin; haren aldean, lurtarrago eta praktikoago irudikatzen da Julia eguneroko bizimoduko betebeharreran (219. or.).

Julia itzultzaileak (eta, halaber, Martinen bikotekideak) Martinen liburuaren itzulpena egiten du, Martinen etxean bertan:

Ez zitzaion gaizki iruditu Martinek eta biek sala handia konpartituz lan egiteko proposamena egin zionean. Espazioa norberaren garaierara edukiko zuten apalategiez bananduko zuten eta horrela elkarri trabarik egin gabe gertu egongo ziren elkarri kontsultak egin ahal izateko zalantzak zeuzkatenetan. Martinek berak, noski, liburutegi noblean gordetzeko aukera zeukan nahi izanez gero, eta bera baldintza okerragoetarako ere egokitua zegoen.

(Saizarbitoria, 2012: 161)

Idazle-itzultzailearen arteko harremanaz hitz egiteko abagunea ematen digu aurreko pasarteak; izan ere, euskal idazleen artean badira itzultzaileak gertukoa izan behar duela aitortu diguten idazleak (Atxaga, 2013). Praktikan ere halaxe gertatzen dela esan genezake,<sup>85</sup> eta itzulpena etxe berean egiten delako adibide da Saizarbitoria bera: alabak egin du *Martutenen* gaztelaniako bertsioa. Itzultzailean hurbiltasun beharra ezinbestekoa dela dio, itzultzaileari alferreko lan asko aurrezten diola:

Ezinbestekoa iruditzen zait. Ezinbestekoa eta errentagarria; kalitateaz aparte, denbora asko irabaziko luke itzultzaileak idazlearen gertutasun hori edukita. (...) Askotan ikusten dut ona litzatekeela itzultzaileak idazlearekin harremana izatea baina horretarako beharrezkoa da idazleak hartzen duen hizkuntza menderatzea edo ezagutzea. Eta kasu horretan, harremana balego idazlearen eta itzultzailearen artean, nik uste itzultzailearentzat lana asko erraztuko litzatekeela. Zeren nik nire esperientzian ikusi dut, adibidez, itzultzailearen batekin, alferrikako lana jatorrizko testuari fidela izateko.

(Saizarbitoria, 2015)

Aurrerago ikusiko dugunez, gogoeta horrek isla zuzena du *Martutenen* ageri zaigun Julia fikziozko itzultzailearen gogoetetan.

*Martuteneko* idazle-itzultzaileen harremanaz ari garela, badirudi Martin mesfidati agertzen dela zenbaitetan Juliarekin; Juliaren ustez, itzultzailearen egitekoa betetzen ez dabilelako mesfidatzen da Martin (93, 381. or.). Hona hemen pasarte labur bat, ideia horren argigarri: «Hemen da. Mahai ondora inguratu zaion arte ez da presentziaz konturatu eta irudipena du ez ote zaion oin puntetan hurbildu langilea alferkerian harrapatu nahi duen nagusiaren antzera» (93. or.). Itzultzaileaz fio ez den idazlea da Martin, zelanbait. Halaber, itzultzaileak proposatzen dituen aldaketa, txertatze zein zuzenketeekin mesfidati agertzen da; zakar erantzuten dio Juliari, esaterako, itzulpenerako istorioan aldaketa bat gehitzea proposatzen dionean (230-231. or.).

Martinek arrandiaz tratatzen ditu bere itzulpenak, sarri oparitu ere egin izan ditu (498. or.); baina, era berean, itzulpenak dakarrenaren beldur da: itzulpenak dira beste eremu batzuetarako sarbide, eta dudatsu egoten da idazlea, eremu horietako harrera zein izango ote den:

---

<sup>85</sup> Bernardo Atxagaren azken lanak haren emazte Asun Garikano itzultzaileak aldatu ditu gaztelaniara.

Zergatik ez dio amerikar gazte xarmant horri itzulia dagoela aitortzen? (...) Juliak badaki bere ingurukoek irakurri dutela jakiteak, erdaraz denean batez ere, euskaraz besterik baita oraindik, deseroso sentiarazten duela, eta garai batean, gaztelaniara itzuli zuten arte idazle kontsiderazioaz disfrutatu ahal izan zuen bere lanak merezi zezakeen iritziaz askorik kezkatzeko motiborik gabe, ezagunen artean inork gutxiak duelako irakurtzeko, are gutxiago euskaraz irakurtzeko ohiturarik. Lagun askok hizkuntzaren aitzakia erabiltzen dute oraindik ez dutela irakurri esateko, Julia da horren lekuko, zeinen damu diren irakurri ezina, ez dakitela nahikoa euskara esaten diote kalean, zerbait argitaratu duela edo argitaratzeko dagoela jakin duelako, eta berak ongi darama hori, irakurriko balute dezepzionatu egingo lituzkeela pentsatzen baitu.

(Saizarbitoria, 2012: 110)

Hori ere autorearen habitusaren isla da, eta Saizarbitoriaren beraren bizi-penetik letorke. *Aberriaren alde eta kontrari*an plazaratu zuen idea, esaterako, eta salbuespenak salbuespen, zioen bere ustez «batez ere barne kontsumorako itzultzen direla euskal nobelak gaztelaniara» (73. or.).

Julia pertsonaiari dagokionez, Saizarbitoriaren beraren hitzetan, Juliak euskal emakumearen paradigma berriari erantzuten dio: «Egiatiak dira, benetakoa, egiten duten horretan sinesten dute. Uste dut Juliak osagarri horiek badituela» dio (Agirre, 2012).

Literaturak batu zituen, arestian aipatu bezala, Julia eta Martin. Bada, Juliak sarri oparitzen dizkie euskarara itzultitako liburuak ingurukoek, euskarazko itzulpenak zabaltzeko joera du: «Frisch ezaguna entzuna egiten zaio Harriri, baina ez omen du irakurri. Julia, berriz, ziur da *Homo Faber* euskaratua oparitu ziola, esan baitzion euskara herdoiltzen ari zitzaizola eta irakurri behar zuela» (124. or.). Halaber, joera du aurreiritziak alde batera utzita literatur lanak gozarazteko nahia sustatzeko: esaterako, Harri konbentzitu egin zuen, aurreiritziak alde batera utz zitzala esanda, Jon Juaristiren *El bucle melancólico* irakurtzeko «liburua hagitx ongi idatzia dagoela eta egilea polemista handia dela eta polemista handiek erasotzen dituzten jarrerak hobeto ulertzen laguntzen duela argudiatuz» (22. or.); eta, ez hori bakarrik, Martini ezezagun zaizkion emakumezko idazleak ere deskubriarazi dizkio (109. or.). Ildo horretan, itzultzailea kulturarteko zubigile da, bai eta elkarturik egon ez diren munduen arteko bitartekari; atek eta bideak irekitzea da haren asmoa, nolabait. Bada, hain zuzen ere, «parte hartzen duten itzultzaileekin», «itzultzaile eragileekin», «ikusgai dauden itzultzaileekin» lotutako ideiak dira horiek: literatur lan jakinen zabalkundea egitea, ohiko kanonizazioak zalantzan jarrita atzerriko lan berriak ezagutzera ematea, lanen berrirakurketak egitea...

Martinek eskaini zion Juliari harentzat itzultzaile aritzeko aukera, eta onartu egin zuen Juliak, aurretik zuen lana (administrazioko itzultzailea zen) aldi baterako utzita: «(...) eta aurrerago, asmo horrekin Martinekin denbora gehiago pasatzeko aukera emango zionez, lana utzi eta bere ipuinak itzultzeko eskaini zion aukera onartzeko» (314. or.). Hainbat jakingarri ematen ditu idazleen eta itzultzaileen arteko harremanez eta lanbideaz:

Liburu horrekin irabazi zuen Euskadi Sariak diru hornidura gehigarria du itzulpenarako eta Martinek animatu egin zuen proposamen eskuzabal batekin, laguntza honetaz gain sariaren beraren dirua eskaini baitzion itzulpenaren kargu egin zedin, itzultzaileek lana behar litzatekeen moduan egiteko normalean izaten ez dituzten baldintzetan beraz (Begiak Euskadi Sariarekin ematen duen brontzeko estatuatxo batera doazkio, arbola bat, hagina beharbada, punta aldera giza aurpegi bat duena, eta astuna denez eta azpia feltroz estalia, galeriako atea zabal edukitzeko erabiltzen dutena, baina sariei zeinen garrantzi gutxi ematen dien erakutsi ahal izateko plazera sarituari berari uztea erabaki du). Askotan egin ohi den galderari buruz berriz, alegia, zergatik ez dituen Martinek berak bere lanak itzultzen, bi ipuinekin izandako esperientziak baliatzen da ezinezkotzat jotzeko. Lana nekea eta aspergarria egiten zitzaion, egile izateak baimentzen zuenez etengabe traizionatzen zuen testua, eta zailtasunak aldentzearen, edo hobetu asmoz, hainbeste urruntzen zen jatorrizkotik non une batetik bestera birsortze bat bilakatzen baitzen emaitza, lehenengo bertsioa baino hobea agian, inondik inora ez jatorrizkoa. Ezinezkoa zitzaion, oroz gain, sortzeko ahalmen handiagoa eskatzen zuten lanak zeuzkalako zain. Hori esan zion proposamena onartzeko konbentzitu zuten. Idazlea da, kaka-idazlea ziur asko, baina idazlea azken finean, eta ez itzultzailea. Juliari dagokionez, berriz, eskaintzak Diputazioan eszedentzia eskatu ahal izateko ametsa betetzeko parada ematen zion, eta denboraldi batez behintzat Itzulpen Sailean administrari bezala lan egiteari uztekoa. Administrari bezala, ez itzultzaile bezala, hori lehenik eta behin utzi nahi du argi, berak ez duelako beharrezkoa den titulaziorik. Bizimodu korapilatsu samarra izan da berea, eta hau dela eta bestea dela ezin izan zuenez ikasketa formalik egin, lanpostu adinistratibo baterako aurkeztu ahal izan zuen bakarrik. Noski, itzultzaileon lana, salbuespen bakan batzuk izan ezik, ziur asko inork irakurriko ez dituen testu administratibo aspergarriak gaztelaniatik euskarara ekartzea, besterik gabe, elebitasunaren legea betetzeko, ez da izugarri esker onekoa ere.

(Saizarbitoria, 2012: 112-113)

Pasarte horretako zenbait ideia nabarmendu gura ditugu, eta gure itzulpen-eremuarekin lotu. Lehenbizi, ari gaitezen literatur itzulpenen ohiko ordainsariez; izan ere, zabal dabil gurean (bai eta atzerriko itzultzaileen artean), salbuespenak salbuespen literatur itzulpenak egiteko baldintzak ez direla onak

izaten, urriak direla literatur itzulpen ondo ordainduak. Bigarrenik, idazleek euren lanen itzulpenak itzultzaile profesionalen eskuetan uzteko goranzko joera islaturik dago pasartean: gero eta gehiago dira bestelako lanetan ibiltzea gurago dutelako, itzultzaileen profesionaltasunaren aldarri egin gura dutelako zein testu beraren bueltan bertsoiak egiten ibili gura ez dutelako, testuak itzultzaileen esku uzten dituzten idazleak (adib. Uribe, Alonso, Arrieta). Atal honen hasieran azaldu dugunez, Saizarbitoria ere horren adibide da. Hirugarrenik, administrazioko itzultzaile gisa egin beharreko lanarekiko gaitzespena ageri da: diru-sarrera gisa ondo dago, baina han itzuli beharreko testuak ez dira literatur testuak bezain atseginak. Eta, laugarrenik, buka dezagun itzultzaileen profilaz eta itzulpen-ikasketez egiten den aipamen horrek: berriazko itzulpengintza-ikasketarik egin gabekoak dira gurean itzultzaile ari diren gehienak. Horrek eraman dezake, beharbada, Juliak bere burua «itzultzaile» gisa aurkeztu beharrean «aldikako itzultzaile» gisa aurkeztera (112. or.). Sentipen hori loturik egon daiteke, era berean, itzultzaile-lanez gain bestelako lanak ere egitearekin, eta lanaldi osoz itzulpenari ekin ezinda ibiltzearekin; itzultzeaz gain, kasurako, liburutegia katalogatzen eta Martinek liburuetan azpimarratutako pasarteak transkribatzen ditu Juliak. Lan horiek lagundu egiten diote itzulpenak eskatzen duen kontzentrazio aspergarria arintzen zein atsedean hartzen (102-103. or.).

Juliak gogoan duen kezketako bat, eleberri osoan zehar etengabe azaltzen dena zera da: Martinen ipuin-liburua itzultzen bukatuta lehengo lanera bueltatuko ote den. Juliak aske izan nahi luke, horretarako bidea, hots, lotura afektiboak direla eta Martinengandik, tradizioetik, mendekotasunetik askatzeko bidea, alderdi ekonomikoa berrmatuta administrazio-itzultzaile legez aritzea da, baina lana bera ez da hain aberasgarria (114. or.).

Juliaren benetako ametsa berak hautatutako lanak itzultzea eta idazlea izatea da. Hona hemen nola azaltzen den ideia hori Juliaren eta Harriren arteko elkarrizketa batean:

(...) Diputaziora itzultzeko asmorik daukan galdetu dio. Kasik ziur dago baietz baina ez dakiela erantzun dio ez esatearren Martinengandik banandu nahi duela, profesionalki besterik ez balitz ere.

–Gustatuko litzaidake lanik egin behar ez izatea.

–Zer egingo zenuke loteria tokatuko balitzain?

Inoiz ez dio bere buruari galdera arrunt hori egin. (...) Egia da ordea azken boladan fantasian aritu ohi dela: Gaztetxoentzako Euskal Herriko historia bat

idaztearekin, Gombrichen *Munduaren Historia Laburra*-ren estiloan. Frischen *Fragebogen*, *Galdetegiak* euskaratzea, *Verhör*, *Galdeketak* alegia eta *Montauk* akaso. «Bihotzean» itzuli bitartean indarkeriarekiko jarreraz zirriborratuz joan den notak ordenatzea eta haietan sakontzea. Eta idazteari buruz idaztea, euskaraz idazteari buruz. Kubara bidaiatzea.

Harriri harrigarria gertatuko litzaioke noski idazle pretentsioak dituela entzutea. Idazlea Martin da. Ziur dago asmo ezkuuon berri emango balio Martini kontatuko liokeela, eta ondorioz honen adarra jasan beharko lukeela.

(Saizarbitoria, 2012: 444-445)

Antzeko azalpenak ematen dizkio Juliak Kepari eleberriaren bukaera aldean; itzultzea dela irakurtzeko modurik onena adierazten dio, bai eta bera ez dela itzultzaile profesionala ere, eta:

Ez daki zergatik aitortzen dion Kepari orduan egin ez zuena: hileroko gutxieneko bat izatea nahi lukeela, zenbateko apala, alokairu bat ordaintzeko adina eta ezer gutxi gehiago, larritasunik gabe –gaztetxo baten ama da– gustuko dituen gazetan aritu ahal izateko. Itzulpen literarioan astitsu saiatzearen, esaterako. Baita idazten ere. Euskal Herriaren historia bat idaztea dauka pentsatua Gombrichen *Munduaren historia laburra*-ren tankeran, gauetan Zigorri kontatu izan dizkionak baliatuz. Irakurtzeko denbora gehiago izatea. Piano eskolak hartzeko. Bere egitasmoak kontatu dizkio beraz, bere desioak hobeto esan, beste inorekin erdizkatu ez dituenak.

(Saizarbitoria, 2012: 715)

Norberak hautatutako itzulgaiei ekitea eta idaztea ments du, hortaz, Juliak. Bada, ordurako, dagoeneko erabakirik dauka: «ez du haren lanik inoiz gehiago itzuliko» (438. or.); eta gura dituen lanak itzultzeko hautua egiten du: *Montauk* eta *Fragebogen* (335, 629. or.). Harrigarria da, halaber, errazago egiten zaiola beste lan batzuk itzultzea, Martinen idatziak itzultzea baino: «Zergatik gertatzen ote zaion errazago *Montauk* euskaratzea *Naufraoen istorioak* itzultzea baino, bere buruari» (585. or.). Horren arrazoia idazleak itzulpenaren xede-hizkuntza ezagututa itzulpenarekin eroso ez sentitzeko aukera izan liteke; agian, «Juliak Martin dezepzionatzeko beldurra izaten zuen Martinen testuak ahosgora irakurtzean» (637. or.). Eta arrazoia eleberriaren gaia ere izan daiteke, euskal gatazka testuinguratu eta eremutik kanpoko jendeari modurik onenean azaldu beharra, alegia. Ziurgabetasun horrek, halaber, itzulpen-lan nekoso bukaezinaren pertzepzio negatiboa areagotu dezake. Hain zuzen ere, itzulpena ezin bukatuzko lan neketsu legez agertzen da eleberrian (ideia hori

ere Saizarbitoriaren habitusaren isla da), eta sarri errepikatzen den ideia da itzulpenean aurreratu ezina: «*Bihotzean min dut*-en itzulpenean ez du aurrera egiten, eta horretan Martinek ez du errurik» (159. or.); «Denbora gehiegi ari zaio hartzen «Bihotzean» itzultzeak eta hori, lanaren zailtasun intrintsekoetz landa, baten bat bai baitu, ia perpaus bakoitzean, bere kasa, espekulazio alferrikakoetan galtzeko joera daukalako» (215. or.); «*Bihotzean min dut*-en itzulpenaz interesatzen denez, ez duela aurreratzen aitortu dio ezinbestean» (284. or.). Ildo horretatik ari da, Colbert:

Y, en última instancia, el recuento a través de la traducción llegará a ser una tarea si no imposible, incompleta, fracasada. Al abarcar la cuestión del terrorismo, y cómo los vascos deben actuar ante él, la traducción de Julia se encuentra con una barrera infranqueable, una materia que no se puede contar como quiere ella.

(Colbert, 2016: 351)

Paratestuaren itzulpenak (izenburuarenak, kasurako) edo paratestuak gehitu beharrak ere ekartzen dio buruhausterik itzultzaileari; ondoko pasarte honetan, esaterako, hitzaurre baten beharraz ari da itzultzailea: «Juliaren iritzia da ongi letorkiokeela narrazioa bere testuinguru historikoan kokatuko lukeen sarreraren bat» (227. or.). Itzultzaileak sarri egiten ditu testuinguru historikoa kokatzen laguntzeko proposamenak; nolabait, bitartekari izan nahi du. Beste honetan, oharrak gehitu beharraz ari da:

Ezinbestekoa gertatzen da, beraz Juliak amerikar gazteari *Xabiartxoren eriotza*-ren argumentuari buruz zerbait esatea, itzulpenean ahalik eta hitz gutxienetan orri oinean egin beharko duen bezala, gaztelerazko irakurleak jakin dezan Lizardik atea irekiarazten diola kanturik entzun nahi ez duen emazteari, neska-mutikoez sehaska inguruan gabon kantak kanta ditzaten, hauei nola esaten dien ez kezkatzeko umeagatik, ez dela esnatuko eta sakon lokartuta dagoenez, eta neska amerikarrak begiak lausotuta «it's so moving» esan baitu.

(Saizarbitoria, 2012: 229)

Itzultzailearen ikusgaitasunarekin lotuta, frantsesaren itzulpen-sisteman itzultzailearen izena azalean agertzea bera nabarmentzen da *Martutenen*:

Ale bat geratzen zaie. Sotiltasunez argitaratua. Azal matea, beix kolorekoa, argazki, marrazki eta apaingarririk gabekoa, Max Frisch besterik ez, *Montauk*, Un récit, Traduit de l'allemand par Michèle eta Jean TAILLEUR, nrf, Gallimard.

(Saizarbitoria, 2012: 257)



Halaber, itzultzailearen ikusezintasuna goratzen da azken horretan: ez da itzultzailearik egon denik igarri behar, «erraz», «arin» irakurtzen den itzulpena da egokiena. Eta, horri lotuta, hona hemen itzultzaileen lanaren gizarte-harresi buruzko pasarte bat:

Abaituari esker txarrekoa iruditzen zaio itzulpen lana, testu itzuli bat erraztasunez irakurtzerakoan inor gutxi oroitzen delako itzultzaileaz, halaxe dio. Sendagileei, zorionez, alderantziz gertatzen zaiela. Normalean, gauzak ongi badoaz, naturak horrela nahi duelako izan ohi dela, eta beroriek hartzen dituztela merituak. Umiltasun adierazpen bat, Juliak nola hartu ez dakiena.

(Saizarbitoria, 2012: 508-509)

Juliaren beste obsesioetako bat da Martinek ez dezala Julia fikzioan erabili; hargatik, Martinen ordenagailuan ibiltzen da zelatan (95. or.). Ikusezin izan gura du Juliak, antza, Martinen irakurleen begietara. Ikusezintasanarekin batera, fideltasunaren gaia da fikziozko itzultzaileenean sarri agertzen den auzietako bat, eta *Martutenen* ere garrantzi handia duela begitantzen zaigu. Julia ez zen Martinekiko fidela izan bikote-harremanean, idazketa-tailerreko poeta gazte batekin afera bat izan zuen duela zazpi urte, abandonatua sentitzen baitzen orduan (280, 306. or.). Martinek aferaren berri izan zuen, baina ez abandonatzeko erregutu zion Juliari, eta azken horrek barka ziezaion erregutu zion. Edonola ere, eleberrian sarri gogorarazten da «infidelitate» hura. Maitaleak Juliari bidalitako poemaren harira («oi zu, leial beste inor bezain leial», 308. or.), «Zergatik dio idiota horrek “Zu, fidela inor baino fidelago” adarrak jartzen bazenizkidan?» (660. or.) galdetzen dio Martinek Juliari, edo barre egiten dio, nola engainatu ote zuen gazte poeta kurtsi harekin... Infidel-tasunaren harira, desleialtasuna gizonarengandik edo emakumearengandik datorren, harrera ezberdina izaten duela gogoetagai da eleberrian:

Juliak onartu egin zuen gizon gaztea irain zezan, bera iraintzea. Puta bat zela oihukatzen zion, berak, Flora Ugalde deskribatu duen bezala, belarriak bi eskuez estaliz sofán uzkurtuta barkatzeko, ahanzteko erregutzen zion bitartean. Zertarako esan hark ere abenturak izan zituela, gizon abenturak baino ez baitziren. Bitxia da nola barneratzen den hori, gizonaren eta emakumearen infidel-tasunak ez direla berdin. (...) Gainera hark izan zituen abenturak ezkutukoak ziren inongo zalantzarik gabe, antibiotikoak hartzera behartu zituen barne, berak, zelatatu ordez, begiak itxi ohi zituelako. Hark ordea ebidentziaren frogaz zeukan, eta bere aitortpena. Zenbat aldiz ez zion Villa Floreseko txartela begien aurrean jarri, eta sarkasmoz, bertso trakets haiek «fidela zu, inor baino fidelago» errezitatu.

(Saizarbitoria, 2012: 317)

Eta hain ezberdin tratatzen dira gizonen eta emakumeen desleialtasunak bikote honetan, non konturatzen baikara Juliak bere fideltasunik eza onartu, barkamena eskatu eta Martinen etengabeko gaitzespenak pairatu artean, Martinek isil-gordean darabiltzala bere maitasun-afera sekretuak. Horien berri badaki, ordea, Abaituak: «Abaituak baluke sekretu profesionalaren pean dakien esateko bat: infekzio benereoa sendatu ziola eta idazleak adarrak jar-tzen dizkiola» (245. or.). Itzultzailearen eta idazlearen irudien irakurketa egite aldera, esan dezagun, beraz, itzultzaileak fideltasunik eza onartzen duen arren, idazleak gorde egiten duela. Esan dezakegu *Martutenen*, Canoren *Twist* eleberrian bezala, itzultzailearen iruditerian garrantzizkoa den ideia bat dakarrela idazleak: itzultzailea idazlea bezain desleiala da.

Itzulpen-prozesuan gertatzen diren desleialtasun eta traizioen inguruko gogoeta espezifikoa ere aurki daitezke *Martutene* eleberrian. Hona hemen gaiari lotutako pasarte gogoangarri bat:

Itzultitako testu batean ez omen genuke itzultzaileaz oroitu beharrik, eta honetan edonon dago present ikusten denez. El texto chirría. (...)

#### TRADUTTORE TRADITORE.

Eta bere hitzekin amerikarraren nahigabe demasari motibo berriak erantsita plazer hartuko balu bezala, itzultzailearen zabarkeria erakutsiko lukeen adibide bila pasatu ditu orriak. (...)

Juliak onartzen du velluda chaquetak ez duela oso ondo ematen belarrira, baina harritzen da paragrafoan gehien interesatzen zaiona hori izatea. Bestalde, ikusi behar litzateke jatorrizko bertsiotan nolakoa den jaka hori, zuria ez eze. (...)

Idazlearen iritziz itzulpen arazoa gainditzeko modurik errazena Maxek edozein jaka mota eusten duela esatea omen litzateke. Larruzko jaka bat edo trikotazkoa, kirrinka egingo ez lukeen edozein motatakoa, idazleari ez bailitzaiokoe axola, jaka shaggy jacket bat izatea, jatorrizko alemanean itsuan aukeratuko baitzuen edo, besterik gabe, perpausaren erritmoari zegokiolako. Jaka motak pertsonaia definitzen lagunduko balu bakarrik izango litzateke beharrezkoa, espainieraz panazko batek bezala adibidez, jaka sozialistaren edo ezformalaren baliokide bat aurkitzea. Belarrarian min emango ez lukeen zerbait nolana ere. Julia ados legoke originaletan egiten duen aldaketarik txikiak funtsa traizionatzen duela esaten diolako ez balitz. Idazlearen eta itzultzailearen arteko bitarte gaindiezina.

(Saizarbitoria, 2012: 161-163)

Pasarte horretan itzultzailearen lana igarri behar ez delako ideia ageri da, itzultzailearen eskua igartzen denetan zerbait oker dagoelakoan eta traizio egin

duelakoan. Jatorrizko testuarekiko fideltasun beharraz ere ari dira: Martin aldaketa txiki baten alde dagoen artean, Juliak gisa horretan originala traizionatzen dela adierazten du; kontraesankorra da, nolabait, Martinen jokaera, ezen itzultzaileak bere testuetarako egindako proposamenak ez baitzituen gogo onez onartzen, arestian ikusi dugun moduan. Itzulpenarekin lotutako eztabaidetan, oro har, itzultzaileak atzerritararenean aurkitzen du konplizitatea, etxeko idazlearenean baino gehiago (163. or.).

Aurreko gogoetak *Montauk* eleberriaren bertsioren azterketatik datoz; izan ere, sarri konparatzen dira hizkuntza ezberdinetan idatzitako bertsioren itzulpenak:

Julia pozik dago opariekin. Frantseseko *Montauk*-en erraz aurkitzen du izenburutzat CHECK OUT duen paragrafoa: (...).

«Velluda y blanca chaqueta» berriz, «veste blanche à poils» da frantsesez. Maizter gazteak asmatu egin du, antza, zertan ari den, eta ahapeka baina begiak zabalik eta hatz arina altxatuta «you should translate it» esan dio.

(Saizarbitoria, 2012: 278-279)

Bertsioak konparatzen ibiltzearena obsesio modukoa da, eta itzulpena «egia adierazi beharrekina» ere lotzen da:

*Montauk*-en fotokopiak astindu ditu airean eta gaztelarazko itzulpenaz hitz egin nahi duela dio salara ia korrika itzuliz. I'm so angry. Benetan du haserre egoteko itxura, eta orriak pasatzen dituen indarrarekin badirudi lotzen dituen plastikozko espiraletik aterako dituela atzeman duen traizio barkaezin baten bila, dioenez. Traduttore traditore. (...).

Gutziz bestelakoa omen da egia, dolutzen da. Benetan gertatzen dena omen da Maxi min ematen diola, hain zuzen, Lynnek jakiteak nolako disparte ordaindu behar izan duen. Neskak astebetean irabazten duenaren halako bi kasik. Argi eta garbi ageri da ingelesezko bertsiotan, Frischek berak berrikusia, baina ezin die testua gaztelarazkoarekin erkatu liburua Harriri utzi ziolako –amorrazio aieruz esana– baina ziur da horrela dela.

(Saizarbitoria, 2012: 216)

Desleialtasunak eta itzultzean egin daitezkeen akatsak tarteko, itzultzailearen erantzukizunaren jakitun da Julia: «Neskak erabat esker oneko dirudi onarpenaz, eta Julia berriz nahasi antzean sentitu da itzultzailearen itzalak horren eragin luzea izan dezakeelako, nahiz berari ere akatsa penagarria irudi-

tzen zaion (...)» (217. or.). Hala, akatsak zuzendu beharrak eta bertsioak hobetu beharrak itzulpen berriak behar diren ustea indartzen du:

Grazia egin dio Abaituari *Montauk*-en gaztelerazko bertsioaren akatsez hitz egiterakoan Lynnek erakutsi duen haserreak, itzultzaileak pertsonalki kaltetu duela baitirudi. Kepak arrazoia eman dio ordea, oso haserre bera ere. Itzulpenaz hitz egin dute beraz, Kepak gaia menderatzen duelako, nola ez. Frisch guztia, *Montauk* barne oso ongi itzulia omen dago frantsesera. Horren harira Juliaz, idazlearen lagunaz mintzo dira gero, neska amerikarrak euskaratzeko konbentzitu nahi omen duelako eta Kepak, noski, oso ideia ona deritzo gaztelerazko bertsioa hobetu daitekeenez eta, batez ere, edizioa aspaldidanik agortua dagoenez eta emakume horrek, idazle arraro horren laguna izanagatik, oso ederra iruditzeaz gain, dena ondo egiteko itxura omen duelako. Neska amerikarraren poz adierazpen nabarmenak berriro, gehiegizkotxoak ere, iritzi berekoak direlako berriro.

(Sazarbitoria, 2012: 245)

Baina itzultzaileari zalantzak sortzen zaizkio zenbaitetan, eta itzulezintasunari buruzko gogoetak azalarazten ditu: «(...) Ez daki nola itzuliko lukeen. Jaka ile luzedun zuria nahiago peluxeakoa baino, edonola ere» (335. or.). Badirudi itzulpena etengabeke zalantza-egoera bat dela. Itzulezintasuna da itzultzailearen beldur etengabeetako bat, askotan ezin baitu soluziorik aurkitu: «Izenik gabe geratu den sasipoeta gaztearekin euskaratu beharra egokitu zitzaion tailerrean, eta ezin izan zuten beti gaizki itzultzen den sympathyrentzat hitz egokirik aurkitu. In the primal sympathy» (651. or.).

Euskararen espezifikotasunari lotutakoak (genero-marka esaterako) edota, jolas itzuli-ezinak eta elebitan emandako lanak itzultzeko zailtasuna ere aipatzen dute idazle eta itzultzaileak idazlearen hizkuntza-hautuari buruzko gogoe-tarekin batera (232-234).

Formaren garrantziak ere badu tarterik itzultzailearen gogoetan:

«ANAGRAMA» ZER DEN ohetik oihu. Mutilak hartua du zalantzak hiztegi argitzeko ohitura eta nolanahi ere ez dio hitzen esanahiaz hainbestetan galdetzen jadanik. (...) Adibideei buruz, berriz, agerikoena eskolan ikasi zuen Amor Roma baina Zigorrek euskaraz behar ditu. Ez zaio bat bera ere bururazten. Erdaraz datorkio gogora berriz «azar», «raza» mintegiko azken egunean irakasleak anagramekin jolasten duten esaldiak itzultzearen zailtasunaz jarduterakoan José Miguel Ullanen bertso batzuk ariketa bezala jarri zituelako, (...). Azkenean «ate» «eta» aurkitu du eta Zigorrek «ogi» «igo» eta «gora»tik

«garo» eta «ore»tik «ero». Lehena aurkituz gero ondorengoak erraz ateratzen dira. «Erraz», «zerra».

(Saizarbitoria, 2012: 295)

Juliak itzulpenean izan ohi duen beste arazo bat da bere ahots propioa isildu beharra: «Horregatik, itzuli bitartean bere ahots propioa isildu behar du. Itzuli baino nahiago luke itzultzen ari denaz idatzi. Nahi luke berari eta bera bezalakoei gertatu zaienaren istorioa idatzi» (284. or.), eta autorearen erregistroa errespetatu ote duen, horixe galdetzen dio bere buruari:

(...) eta zalantza horretan dago, alegia, testua bere egiazko erregistroan interpretatzen ari ote den ez jakitean, irakurtzeak sortzen dion korapilo nagusienetakoa. Arazo hori da daukana, neurri batean, *Bihotzean min dut* itzultzerakoan.

Gehiago ere badu, izenburutik hasita. Itzulpen literalari «Me duele el corazón» kardiopatia kutsua hartzen dio. Norbaitek «Duéleme el corazón» itzuli du ukitu literario hala moduzko bat eman nahirik. Probisionalki «Me duele el alma» utzi du. «My heart is broken?», «It hurts my soul?». Martinen ipuin edo, nahiago bada, nouvellarik ezagunena da.

(Saizarbitoria, 2012: 224-225)

Saizarbitoriak berak bere lanen itzulpenari buruz egindako gogoeta islatzen da, halaber, fikzioan; izan ere, halakoak baitira haren lanetako asko, elebidunak edo eleaniztunak:

Bestalde, nahi lukeen baino gehiago baldintzatzen duen arazo subjektibo horretaz gain, itzulpenak arazo larri bat dauka, alegia, jatorrizko testuan darabilkien euskara eta gaztelera situazioen arabera tartekatzearen jolasa, dena hizkuntza batera ekarriz galdu egiten dela ezinbestean. Lost in translation. Hizkuntza baka-rreko testuak berdindu egiten ditu xehetasunak, hizkuntza bat ala bestea erabiltzea, esaten diren hitzak baino garrantzitsuago gerta bailiteke giro bat adierazteko, eta galera hori ez da konpontzen oinean «en castellano en el original» jarrita.

(Saizarbitoria, 2012: 227)

Euskal itzulpen-eremuari buruzko aipamenik eta antzeratzerik ere bada. Hona hemen Josu Zabaleta euskal itzultzaileari egindako ondoko keinua, esaterako:

MAUPASSANTEN ITZULTZAILEA gizon bizarduna da, ahots sakonekoa, gizonetzko euskaldun batzuen begirada samur eta malenkoniatsua dau-

kana. Bere azalpena gustatu egin zaio Juliari, oso praktikoa delako, zati konkretuek ematen dizkioten zailtasun zehatzez hitz egiten du. Paragrafo bat proposatu du eta ikasleen bertsioak konparatu eta eztabaidatu dira. Arazoa, une oro, proposatutako testuaren arabera gai linguistikoetatik haratagoko edukiak eztabaidatzen direla. Arazo erlatiboa, nolana ere, gauza interesgarriak esaten baitira gehienetan.

(Saizarbitoria, 2012: 446)

Edo euskarara ekarritako eta oraindik itzultzeko falta diren obren aipamenok:

Max Frisch ongi baino hobeto ezagutzen dute Harrik eta Martinek, mirespeanean bat egiten duten idazleetakoa bat baita. *Stiller* irakurri dute, *Homo Faber*, euskaratua dagoena, *Demagun Ganterbein dudala izena*, *Gizona Holozenoan*, *Udazkena Pekinen*, *Zailak* edo *J'adore ce qui me brûle*, antzerkiak ez baina nobela guztiak irakurriak zeuzkatela uste zuten, eta halaz guztiz ez zekiten deus *Montauk*-ez.

(Saizarbitoria, 2012: 123)

Itzulpen-politikak hizpidera dakartza Saizarbitoriak harekin itzulpengintzaz izandako elkarriketan, eta, ikusten dugunez, gaiaren ardura islatu du *Martutenen*:

Nik esango nuke literatura klasikoak gazteleraz dudarik gabe gehiago irakurri ditudala. Iruditzen zaidana da hor hutsune handi bat dagoela. Nik politika aldutuko nuke: literatura unibertselean eta literatura nazionaletan hainbat testu daude batez ere gaztelerara itzuli gabeak, asko eta asko, eze gaztelerara, uste ez arren, gutxi itzultzen da, eta hutsune oso inportanteak daude; alegia, badaude idazle oso inportanteak, europarrak, amerikarrak... gaztelerara itzuli ez direnak. Bada, ni hortik hasiko nintzateke: gaztelerara eskaintzarik egin ez duten autoreak euskarara ekartzen.

(Saizarbitoria, 2015)

*Martutene* eleberriko itzulpenaren trataera hau da, labur esanda: etengabe dago ber-bertan, dela liburu-alean bertan, bukaerako hiztegitxora jo behar dugunetan zein guk geuk itzulpen-ariketa egiten dugularik irakurtzean, dela pertsonaia idazlea eta itzultzailea eta haien harremanak irudikatzen direnean. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa itzulpenak duen garrantzia ez eze, eleaniztasunak norberarengan eragindako itzulpena ere agertzen digu Saizarbitoriak. Hain zuzen ere, Saizarbitoriaren hitzak ekarrita, «hizkuntzak diskur-

tsoa bera baldintzatzen du», eta hori are nabarmenagoa da pertsona eleaniztunen kasuan (Saizarbitoria, 2015). Euskal Herria kanpora azaldu beharrak eragindako itzulpen-arazoak dira aipagai, eta «errepresentazioaren mugak» nabarmetzen dira, itzulezintasuna izanik etengabe erreplikatzeko den auzietako bat. Itzultzailearen egoeraz denaz bezainbatean, literatur itzultzaile ez profesionala idazlearenetik askatu guran ageri da, bere ahotsa erreprimituta eta duen erantzukizunaren jakitun: traiziogiletzat hartuko ote duten itzulpenean esku hartzen baldin badu, ez baita oraindik itzultzailearena medikuarena (berbarako) bezalako profesio ongi baloratua. Bestalde, Saizarbitoriak berak aitortzen duenez, «Juliak argi ikusten du berak ez duela geniotasunik ezer berria esateko literaturaren munduan, eta interesa du idazle handien munduan sartzeko eta itzulpen literarioa egiteko. Juliari ez zaio hainbeste interesatzen itzulpen administratiboa, denboraz beti mugatua, presaka eta korrika, ez beti norberak nahi lukeen bezain ondo egitera behartuta» (Saizarbitoria, 2015). Idazlearen eta itzultzailearen irudiak direla eta, «Julia pertsonaia sanoagoa da, Martin neurotikoagoa» (*idem*). Saizarbitoriaren ustez, itzultzaileak «Ez dira hain neurotikoak idazleak bezala, arrazionalagoak dira, ikusten dutenak zer emateko gai diren», eta, ildo horretatik, «Juliak onartzen du bere funtzioa literaturan» eta «Emakume zintzoa da, nobelako pertsonaia interesantea» (*idem*).

Fikzioan itzultzaileak ageri dituzten sei kontakizun dira bigarren milurtekoan agertutakoak; bada, esan dezakegu euskal itzulpen-eremu eta literatura itzuliaren barne-eremua egonkortzen ari diren garaian bikoiztu egiten direla fikziozko itzultzaileen agerpenak, edota itzulpenaren errepresentazioa hazten ari dela denborak aurrera egin ahala eta euskal literatura itzuliak osatzen duen barne-eremua definitzen ari den heinean, eta, era berean, esan dezakegu itzulpena eta literatura bera definitzeko-edo eremuan birkokatzen ari direla idazleak, edo posizionamenduak definitzen ari direla, oro har. Eremuen edo barne-eremuen mugetan gertatu ohi diren borroka edo tentsioen isla da hori, nolabait. Bada, idazleek beren esperientziak azaleratu dituzte fikzioan, eta joera hori bat dator Deslislek dioenarekin; itzultzaileak baliatu dituzten autore gehientsuenek esan dezakete zaila dela onartzea eurak ere ez direla itzultzaile, baita idazten ari direnean ere (2012: 17). Beharbada are nabarmenagoa da auzia euskal literatura itzulia osatzen duen barne-eremu transnazionalaren kasuan; izan ere, euskal idazle garaikideek, eleaniztunak izaki, autoitzulpenak egin izan dituzte, euren lanen itzulpen-prozesuan parte hartu izan dute, itzultzaile dira lanbidez, enkarguzko itzulpenak egiten dituzte, ariketa legez egiten dituzte itzulpenak euren idazletza-jardunean, itzulpenen bidez (eginez zein irakurritz) aberastu dute euren hizkuntza eta estiloa...

Zergatik egin du gora, baina, errepresentazioak? Bi arrazoi nagusi egon litezke oinarrian. Batetik, egituratzen eta bereizten ari den barne-eremuan posizioa hartu beharra; hots, barne-eremua bera autonomizatzeak eta idazleak eremu batean edo bestean zein sormen- eta itzulpen-praktikan (edo bietan), kokatu beharrak, gaiari buruzko kontzientzia eta pentsamendua areagotu eta agerrarazi du. Bestetik, badirudi euskal literaturan ere idazletza-esperientzia literaturan agerrarazteko joera hazi egin dela azken urteotan,<sup>86</sup> eta, idazleek gertuko jardura dutenez gero, ia ezinbesteko gaia dute; gisa horretan, egoera diglosikoan bizi den literaturaren eta hizkuntzaren kezka sortutako antsietateak plazaratzen dituzte oro har. Ildo horretan, baieztatu egin dezakegu korrelazioa dagoela autoreek antzeratzen dituzten eta bizi dituzten itzulpen-eremuen artean, eta eremuaren egitura bera ikusgai bihurtu ahala eta eremuak berak bere esparruari buruzko ikerketa sustatu duen aldetik, legitimazioa eta onepena lortzeko pausoak egin dituela, eta horrek, esan bezala, eragin egin duela euskal literaturaren esparruko autoreen artean.

---

<sup>86</sup> Iban Zalduak gaiari buruz jardun du bere blogean. Paulo Kortazarrek ere aipatzen du auzia *Insula* aldizkarian (797. zk.) Harkaitz Cano eta Kirmen Uribe autoreekin solasean.



## 6. GOGOETA BAT EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN FUNTZIOEN INGURUAN

Sapiro (2014: 94) azpimarratzen duenez, itzulpena hainbat funtzio betetzen dituen gizarte-praktika da: funtzio ideologikoa, ekonomikoa eta kulturala. Hiru funtzio horiek aletuko ditugu datozen lerroetan, euskal literatur itzulpenaren barne-eremuak literaturaren espazioan dituen eraginak nabarmendu nahirik.

Sapiroren esanetan, itzulpenaren funtzio ideologikoa munduari begiratzeko modu jakin bat zabaltzeko nahiari zor zaio, eta, zentzu horretan, literatur lanen zirkulazioa kanpo-faktoreek baldintza dezakete; adibidez, erregimen autoritarioen irizpideek. Hori dela eta, Sapiro literatur lan itzulien balizko zirkulazio motez ari da: zirkulazio ofizialez eta ez-ofizialez, alegia (Sapiro, 2014: 94-95). Horrez gain, itzulpen batek jatorrizko lanaren funtzioan ere eragin dezake; are gehiago, jatorrizkoaren hasierako funtzioa alda dezake. Bada, ildo horretan, Rubio Tobarren ustez (2013: 123), jatorrizko testuan ikusezinak diren zenbait alderdi azalera ditzake itzulpenak; izan ere, itzulpena jarduera politikoa ere bada, hizkuntzaren, identitatearen eta kulturaren eraikuntza-tresna, Venutik ondo adierazten duenez: bai itzulgaiak hautatzea, bai itzulitzeko erabili beharreko estrategia diskurtsiboak aukeratzea lagungarri dira nazio-identitateak sortzeko (Venuti, 2013: 119). Gurean ere bide hori egin du itzulpenak hein handi batean, eta XX. mende erditik aurrera euskal literatura autonomizatzen hasi zenez geroztik, xedeetako bat euskal testuen kapitala eta estatua handitzea izan da; hara hor zergatik handitu diren, besteak beste, euskarara egindako itzulpenen kopuruak garai horretan, literatur sistema gazteetan, minorizatueta edo aldaketa-prozesuetan murgilduta daudenetan espero zitekeen bezala (cf Jaka, 2005). Edonola ere, Santanak (2015) eskaintzen

dituen datuei erreparatuz gero, euskarazko itzulpenen ehunekoa (2003-2009 tarterako) % 22,2 da, eta gaztelaniazkoen kopurua, aldiz, % 36,3 (aldea ez da hain handia, hortaz). Datu interesgarria deritzogu, espainiar literaturak gainarako iberiar literaturen aurrean duen egoera hegemonikoa kontuan hartuz gero; gure ustez, kasu honetan ez da interesgarria itzulpenen ehunekoen kopuruari begiratzea, ezpada prozesu motei, eragile motei eta literatur eremu bakoitzean sortzen eta saretzen diren harremanei eta dinamikei.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetarako itzulpenari dagokionez, norabide horretan ere funtzio ideologiko argia betetzen du itzulpenak, eta, Casanovak gogorazi zuen moduan, naturalizazioaz harago (nazionalitate-aldaketaren zentzuan), itzulpenak *littérisation* delakoa edota literatura jakin bat «literatura» gisa berrestea dakar, hau da, erakunde legitimatzaileen aurrean kapital literario propioa sortzea (Casanova, 2004: 133). Beste literatura zentralago batzuek izan ohi ez duten beharrizana da hori. Manterolak egindako tesiaren fruitu da ELI katalogoa (<http://www.ehu.es/ehg/eli/>),<sup>87</sup> abiapuntu ona euskaraz sortutako eta beste hizkuntza batzuetara itzultitako literatur lanen bilakabidea aztertzeke. Katalogoan euskal literatura jasotzen duten hizkuntzak eta merkatuak zein diren kontsultatu daiteke, eta datu horrek adieraz dezake, kasurako, merkatu batzuetan euskal literatura onartu dela edo ikusgai egin gura dutela, baina ez hori bakarrik: datu horrek bestelako erabaki estrategikoak ere ageriraz ditzake, nazio bateko, estatu bateko edo atzerriko erakunde edo eragileek hartutakoak, itzultitako lanen erabilera ideologikoak agerian utziaz. 2010era arte 480 izenburu ditugu 38 hizkuntzatarata itzuliak; edonola ere, errealitateak ezberdinak dira xede-hizkuntzei dagokienez eta itzultitako 161 autoreen eraginari eta irismenari dagokionez; izan ere, gaztelaniara itzultitako lanek osatzen dute ia ekoizpen osoaren erdia, eta horrek argi adierazten du, Manterolak berak (2014: 241) azaltzen duenez, euskal literatur sistemaren mendekotasuna sistema espainiarrarekiko. Bestalde, Manterolak (2014: 242) emandako datuen arabera, aztertutako liburuen % 46,66 daude itzultita euskaratik zuzenean. Iberiar literaturen dependentzia- eta interdependentzia-mailen zein autonomia sistemikoaren graduen analisiak duen garrantzia azpimarratu izan du Santanak (2012 & 2015), eta badirudi euskal eta galiziar literaturek gaztelaniaren bitartekaritza handia darabiltela atzerriko literatura euskarara ekartzeko zein penintsulako gainerako hizkuntzetatik itzultzeko (Santana, 2012: 247); ez da hala gertatzen katalanaren kasuan, non, antza denez, bitartekaritza txikiagoa baita.

---

<sup>87</sup> Katalogoa orain NordaNor datu-basean txertatuta dago.

Gaztelaniarekiko interferentzia hori Zubillagak (2014) egindako ikerketan ere azaleratzen da: alemanetik euskarara itzulitako Haur eta Gazte Literaturaren azterketa egin du Zubillagak, eta, haren hitzetan, badirudi oraindik ere zeharkako itzulpen asko egiten direla eta interferentziak maila linguistikoan ere agertzen direla (Zubillaga, 2014: linean).

Gaztelaniaren interdependentzia horrek, gure ustez, erabilera ideologikoak izan ditu euskaratik egin izan diren itzulpen-prozesuei, aurkezpenei eta ikusgaitasunei dagokienez. Bi joera nagusi daude: euskal literatura ikusezin bihurtzeko joera nabari da, batetik, bertsioak eremu espainiarretik pasa direnen kasu batzuetan; bestetik, erabilera ideologiko hori orekatzeko baliatutako estrategiak ageri dira (horiek ere ideologikoak), euskal literatur eremutik bertatik sustatutakoak. Azken horiek lurraldetasuna nabarmentzen duten proiektuak indartzeko estrategiak dira, esaterako, lehenago aipatu izan ditugun bildumak, hala nola Nevadako Unibertsitateko Center for Basques Studies-ek kaleratzen duen «Basque Literature Series» bilduma. Joera beraren adibide dira, bestalde, euskarara egindako itzulpenen kasuan, euskal literatur eremuko zenbait argitaletzek hartutako erabakiak: Espainiako hainbat lekutan une berean argitaratzea Iberiar penintsulako hainbat hizkuntzatarara itzulitako obrak edota gaztelaniara itzulita ez dauden obrak itzultzeko hautuak egitea, adibidez. Hortaz, Santanak (2015) zioenaren bidetik, baieztatu egin dezakegu itzulpenak funtzio ideologikoko tresnak izan daitezkeela gure eremuetan, bai desplazamenduaren alde egiteko, bai ezberdintasuna isilarazteko, bai ezberdintasuna gordetzeko eta ikusarazteko.

Funtzio ideologikoz gain, euskal literatur itzulpenak, giza jarduera den aldetik, funtzio ekonomikoa ere badu: euskal literatur itzulpena euskal merkatu editorialaren parte da, eta, zentzu horretan, funtzio ekonomiko espezifikoak du. Argitaletxeetako motibazio bakarra ez bada ere, irabazpideak badu bere garrantzia, eta itzulpenak egiten direnean, besterik ez bada ere, galerarik ez izatea edukitzen dute argitaratzaileek buruan; oro har, mundu globalizatuan, argitaratutako itzulpenekin ere ahalik eta irabazi handienak lortu gura izaten dira, baina (Sapiro, 2014: 95). Ez dugu ahaztu behar, ordea, euskal literatura itzuliaren eremua hizkuntza eta kultura minorizatu baten espazioan kokatzekoa dela, hari lotutako arazoak tarteko direla: merkatu txikia eta diglosia, alegia (Jarillot & Uribarri, 2011: 190-198). Oso kontuan hartzekoa da 850.000 euskaradun inguru izango direla eta, Zubiri soziologoaren kalkuluen arabera, ohiko irakurleak 15.000 edo 20.000 inguru direla (2013: 51-68). Gainera, egitura administratibo bateko baino gehiagoko osatzen dute euskal literaturaren espazioa, eta horrek eragin egiten dio itzulpenen argitalpenari

(argialetxeek laguntzak eskatu behar dituztenean, esaterako; non duen egoitza argialetxeak, bertako administrazioarekikoak dira harremanak). Bada, oro har, euskal literatura itzulia mezenazgoari edo gobernuko laguntzei esker da posible, eta horren adibide da, kasurako, euskal literatura itzuliaren erdigunean koka daitekeen «Literatura Unibertsala» bilduma, esaterako, ekimen instituzionala izatea eta diru publikoz hornitzea. Erakundeen laguntzarik gabe, euskal argialetxeentzat ezinezkoa litzateke, gaurko merkatu editorialean, gisa horretako bildumei eustea eta itzultzaileentzako baldintza eta kontratu duinak mantentzea. Euskal autoreei dagokienez, lehenago ere aipatu dugunez, itzulpena garrantzitsua izan da haien profesionalizaziora bidean, nahiz eta genioenez, % 10 inguru bizi dira soil-soilik literaturatik; bada, gehitu gura genuke liburua laguntzeko politika autonomikoek bultzada eman diela autore horien autonomia ekomomikoari; halaber, badira zenbait autore itzulpenak egitea iturri ekonomikoak izateko bide izan dutenak, 2013ean itzultzaileei pasatu genizkien inkestetan ondorioztatu daitekeenez.

Azkenik, euskal literatur itzulpenaren funtzio kulturalari buruzko ohar batzuk egin gura genituzke. Sapiroren esanetan, itzulpenek legitimazio-prozesuetan eragin dezakete, subertsio-tresnak izan daitezke, nazio «txiki»en literaturak nazioarteko eszenara ager daitezke, edota argialetxeen kapital sinbolikoa handitzeko modua izan daitezke; izan ere, beste hizkuntza batera itzulia izatea kontsakrazio-bidea izan daiteke idazle batentzat, eta, alderantzizko norabidean, ospe handiko autore baten itzulpena egitea «autolegitimizatzeko» modua da itzultzailearentzat berarentzat ere. Kultur mailaz harago, baina, itzulpenak idazketa-ariketa izan daitezke autoreentzat (2014: 94-96), edo, Gémarrek azpimarratzen duen moduan, itzulpenak hizkuntzazko ekarpenak dakartzkio xede-hizkuntzari (Gémar, 1990: 24). Hizkuntza aberasteaz gainera, itzulpenak hizkuntza handien nagusitasuna orekatzen lagundu duela dio (*idem*: 249). Bassnetek, bere aldetik, ideia bera azpimarratzeaz gain, gehitu egiten du itzulpenaren funtzioetako bat hizkuntzaren eta beraren aldaeren estatusa goratzea dela, eta, hala, hizkuntza bernakuluen estatusa handitzen dela (Bassnett, 2002b: 59). Gurean batez ere hizkuntza-ekarpenaz jardun da, eta, arestian aipatu dugunez, euskal idazle garaikideek goratu egiten dute euskal itzultzaileen jarduna, hizkuntza-erregistroei eta estilistikari dagokienez ekarpen handiak egin izan dituztelako. Ez hori bakarrik: idazle batzuek erudizat darabiltzate itzulpenak, euren idazketa-prozesuetan lagungarri.

Egiazki, hasi dira gaiari buruzko ikerketa-lanak euskal itzulpen-eremuan. Etxeberrriak (2012) konparatu egiten ditu, esaterako, itzulitako literatur testuak eta euskaraz sortutako literatur testuak: karakterizatu egiten

ditu bi corpusak, aztertu ahal izateko zer neurritan eragin dezaketen itzulpenek hizkuntzaren garapen lexikoan, morfosintaktikoan eta estilistikoan. Bada, Etxeberriak egindako zenbait ikerketaren argitan, itzultzaileek hiztegietako, gramatiketako... arauak gehiago zaintzen dituzte, eta ekidin egiten dituzte, ahal den neurrian, onartutako maileguak (2014);<sup>88</sup> bestalde, zehaztasunerako joera handiagoa dute itzultzaileek, Etxeberriaren beraren hitzetan (*idem*): «una mayor tendencia a la precisión, el detalle y el matiz en el plano semántico en el euskera de las traducciones». Azkenik, itzultzaileen eta autoreen testuen antzekotasunak itzultzaileen maila onarekin lotzen ditu Etxeberriak:

El peso de la traducción en el sistema literario de destino se refleja no solo en la influencia que ejerce en la configuración de los cánones literarios o en la importación de nuevos temas, corrientes y estilos, sino también en su carácter de vía de entrada de nuevos modos de expresión y recursos lingüístico-estilísticos. Y es que, durante el proceso de traducción de un texto, el traductor debe hacer frente a los numerosos obstáculos y desafíos que le imponen el texto y la lengua de origen. El traductor no puede o no debe hacer trampas, no puede o no debe eludir las complejidades que le presenta el texto de partida. Las soluciones y los recursos léxicos y estilísticos que propone el traductor en estos trances quedan a disposición del resto de hablantes de la lengua meta, y pasan así a enriquecer el patrimonio de dicha lengua.

(Etxeberria, 2014)<sup>89</sup>

Hizkuntza-ekarpenez gain, bestelako kultur eta literatur ekarpenak ere azpimarratzekoak dira, funtsezkoak izan baitira itzulpenak, esaterako, euskal literatur historiografiaren eraikuntzan (zenbait generoren fundazioan, esaterako). Itzulpenek eragina izan dute, halaber, zenbait idazleren inspirazio-iturrietan zein eraginetan. Badira itzulpena sorkuntzarako bidetzat darabilten euskal idazleak, Aurelia Arkotxaren kasuan ikus daitekeenez.

Tobarren ustez tarte txikiak eskaini izan zaizkio oro har itzulpenari literatur historietan (Tobar, 2013: 243). Baina hemen aipatu diren euskal literaturari buruzko historiografietan itzulpena ageri, ageri da, eta errepresentazioa, hots, itzulpenari eskaintzen zaion tarte eta diskurtsoa lantzen den literatur aroaren eta historiografia egiten den ikuspegi metodologikoaren araberakoa da. Halaber, kapitulu honetan ikusi dugunez, nork bere ikuspegitik, nork bere

<sup>88</sup> Argitaratu gabeko hitzaldia, egileak utzita.

<sup>89</sup> Argitaratu gabeko hitzaldia, egileak utzita.

habitusari eutsita, historiografoek itzulpenaren askotariko funtzioak agerrazi dituzte.

Itzulpenari buruzko aipamenak ageri dira, bai, literatur historiografietan, baina, historiografiaz historiografia ikusi dugunez, itzulpenei buruzko aipamenak eta balioespenak nabarmen murrizten dira historiografoak XX. mendetik aurrerako literaturaz ari direnean. XX. mendea baino lehenagoko itzulpenei buruzko oharra, gainera, zehatzagoak dira; testu zehatzei buruzkoak dira, eta ia gehienetan ohar linguistikoak. XX. mendetik aurrerako itzulpenei buruzko oharra, ostera, orokorragoak dira, eta itzulpenak multzotan iruzkintzen dira; nolabait, joerez ari dira gehiago. Historiografietan literaturaren ikuspegi konparatibista agertzen hasten denean, euskal literaturako zenbait testuren orijinaltasuna zalantzan jarri eta itzulpenak izan daitezkeela jotzen hasten dira zenbait historiografo. Bestalde, periferiako generoak zenbat eta gehiago kontuan hartu, orduan eta aipamen gehiago egiten zaie itzulpenei.

Euskal historiografoek itzultako testuak euren lanetan sartu izanari buruzko gogoetak direla-eta, eta, hortaz, euskal itzulpengintzak euskal literaturaren eraikuntzan izandako funtzioari buruzko gogoetari gagozkiolarik, gogoratzekoa da Mitxelena argi agertzen duela hasiera-hasieratik: berea zenbait garaitarako euskal literatur historia bat baino euskal testuen historia da, eta hargatik hartu ditu kontuan historiografian txertatutako testu guztiak (itzulpenak barne); hori dela bide, itzultako testuei buruzko azalpenetan, ez da testuen literaturtasuna auzian jartzen. Beste autore batzuek, aldiz, itzulpenen literaturtasuna edo balio literarioa auzitan jartzen dute, kasurako Sarasolak, Haritshelharrek eta Mujikak (azken horrek bietarik egiten du; alegia, zenbait testuri balio literarioa esleitzen die, eta bestetan ez, baina irizpideak azaldu gabe); edonola ere, denek ere denek txertatzen dituzte itzulpenak euren historiografietan. Villasantek, adibidez, zalantza agertzen du txertatu behar ote lituzkeen, baina zalantza diskurtsiboa da, baliatzen dituen hitzetatik ondoriozta daitekeena, nolabait; ez du gaiari buruzko berariazko gogoeta metodologikorik egiten. Sarasolak adierazten du lehenengoz gure corpuseko historiografien bilakabidean itzulpenak historiografian txertatzeari buruzko zalantza esplizitua; baina, halaber, justifikatu egiten du txertatu izana: haren ustez, itzulpenek ez dute balio literarioa, baina bere historiografian txertatu egiten ditu gure literatur sistemaren ezaugarriak direla eta; izan ere, azaltzen du ez dela hala egiten bestelako literaturetan. Orpustanek ere gogoeta esplizitua egiten du, eta itzulpenak txertatu izana justifikatzeko bi arrazoi nagusi ematen ditu: itzulpenak garai jakin bateko adierazle izatea eta idazmolde edo dialekto zehatz baten adierazle izatea. Neurri batean edo bestean, balio eta era-

gin literario askotarikoak esleitzen dizkiete itzulpenei gainerako historiografoek (Juaristi, Urkizu, Aldekoa), nahiz eta gaiari buruzko gogoeta metodologiko espezifikorik egin ez. Hala egiten dute, aldiz, López Gasenik eta Olaziregik: itzulpenak literatur historiografietan txertatzeari buruzko gogoeta esplizitua egiten dute, eta euren historiografietan itzulpenari tarte egiten diote itzulpena literatur sistemako azpisistema bat dela eta.

Itzulpenaren errepresentazioei dagokienez, batetik, literatur historiografiek historia literario izatetik literatur historia izatera egindako bidean (ikusi Toledo, 2010), oro har, itzulpen- eta sormen-lanak ez banantzetik itzulpenaren eta sormenaren eremuak bereiztera jo dute historiografoek; are gehiago, literatur itzulpena euskal literaturaren barruan genero bat balitz bezala agertzen da López Gasenirenean eta Olaziregirenean.

Beste alde batetik, oro har, itzulpenak norberaren gustu estetiko eta linguistikoen arabera aintzatestetik (gogora ditzagun, esaterako, Orixeren balioespenak) historiografiak eraikitzeko baliatutako metodologiaren eta teoriaren araberako diskurtsoak baliatzera igaro dira historiografoak (itzulpen-ikasketen bidetik, zehazki, teoria polisistemikoen araberako azterketa sustatu da batez ere). Orixek, kasurako, bere gustu linguistikoei buruzko oharrak eta balioespenak egiten zituen, eta, Mitxelenak, ostera, itzulpenaren prozedura linguistikoari begiratzen zion. Aipatzekoa da, halaber, Mitxelenak egindako oharrak baliatu izan dituztela aurrerantzean gainerako historiagile askok eta askok XX. mendea baino lehenagoko testuak iruzkintzean. Aztertutako lehen historiografietan itzulpenaren funtzio linguistikoa soilik agertetik, bestelako funtzio batzuk azalarazteko joera nabari da historiografietan aurrera egin ahala (batez ere funtzio kulturalak nabarmendu izan dira; baina ez hori bakarrik, Olaziregiren azken historiografian, esaterako, itzulpenak literatur eremuan betetzen duen funtzio ekonomikoa eta sinbolikoa ere ikusarazten direla ikusi baitugu).

Etxaniz Erlek dioen modu-moduan, «Euskararen egoerak, eremu urriko hizkuntza, populazio gutxikoa eta inguruko hizkuntzetatik nahiko berezia izateak izugarritzko pisua izan du gure literaturaren garapenean» (2010: 826), hala, «sortzaileek euskara bera izan dute kezka eta idazlanak plazaratzearen arrazoi nagusia» (*idem*). Ideia horri berari euts dakioke itzulpenek literatur historietan izandako agerpenari begiratuta: euskal itzulpenaren historiografietako errepresentazioa ere euskararen eta euskal literaturaren egoerari zor zaio. Aztergai dugun aroa baino lehenago, Orixek, kasurako, itzulpena hizkuntzaren gaitasunaren frogagarritzat jotzen zuen, bai eta euskara jasoagoa eta euskara zientifikoa lortzeko tresnatzat ere; testu bat jatorritzkoa edo itzulia zen ez

zen garrantzizkoa Orixeren ustez, hizkuntza bera zen helburua. Guri dagokigun aroan sartu berritan, antzeko ideiar eusten zion Mujikak bere historiografian: hizkuntza zorrozteko tresna gisa aurkezten zuen itzulpena, eta sormen-lanei balio literario handiagoa ematen zien itzulpenen aldean. Bide horretan, «euskal» kultura eta literatura agerrarazi beharrez balioetsi izan dira, gainera, itzulpenak zenbait historiografiatan: Villasantek, esaterako, itzulpenak edo egokitzapenetako bertakotzea modu positiboan aintzatesten zituen, eta, nolabait, itzulpen sortzailearen alde lerratzen zen. Oro har, idazleak eta sortzaileak goratu izan dira historiografia horietan. Ildo berean, Juaristiren historiografian, esaterako, gaur egun arte iraun duen ideia bat ageri da: poesia itzultzeko poeta hobesten da; sortzailea, hortaz. Villasantek itzulpenaz plazaratzen duen beste ideia bat hauxe da: itzultzaileak errazago du formari erreparatzen, ez duelako sortzen baliatu beharreko indarrik xahutu behar. Ikusten dugunez, itzulpena prozedura formaltzat jo izan da, eta hala balioetsi da literatur historietan, hizkuntza batetik besterako hizkuntza-aldaketa balitz bezala. Denborak aurrera egin ahala, arean aldatu da ikuspegia, eta hizkuntza zorrozteko tresna izateaz gain, euskal literaturan lehenago jorratu gabeko hainbat literatur esparru jorratzen hasi izana ere agerrarazi dute zenbait historiografok; horrela egin zuen Mitxelena, esaterako, itzulpen profanoen kopurua handitzen hasten denekoa aipatu zuenean. Nolabait, itzulpenaren funtzio literarioa agertzen hasi zen Mitxelenarenean. Edonola ere, oro har, Casenavek definitutako historiografien eguneratze teorikoa gertatu aitzineko historiografiatan, ia historiografia gehienetan, itzulpenaren balio linguistikoa goratu eta itzulpenaren balio literarioa ukatzen da; Sarasolaren historiografian, adibidez, itzulpena obra baten legitimazio-bidea dela onartzen bada ere, lan zehatzak itzulpen izatea baliatzen du historiagileak lan horiek jatorrizko euskarazko literatur lanekin erkatzean itzulpenen balio literarioa ukatzeko; beraz, aldi berean izango litzateke itzulpena literatur lan baten balioaren goraiptzaile eta ukatzaile. Baina, halatan ere, Sarasolak, euskal literatur lanak zenbatesten dituenean, aintzat hartzen ditu itzulpenak. Arestian aipatu dugun moduan, ordea, azaldu egiten du beste herrialde batzuetako literatur historietan ez liratekeela kontuan hartuko, eta euskal literaturaren kasuan hala egiten dela literatur sistemaren ezaugarriak direnak direlako. Ikus dezakegunez, itzulpenak dagokigun literatur sistema txikiaren edo mendekoaren errepertorioa eta historia betetzeko eta osatzeko tresna gisa baliatu izan dituzte zenbait historiografok (nahiz eta ez duten esplizituki zehaztu). Gure ustez, hala egin izanaren arrazoia, seguruenik, historiografiak eraikitzeke eredu nagusia eredu nazionala izatea da, Casenavek zehaztu bezala (2012: 21); nolabait, euskarara egindako itzulpenak euskal literaturaren barneko osagitzat jo izan dira euskal literatura bat badela



frogatu eta justifikatu beharrez, euskal testuen corpora handitzeko; alabaina, eta arestian azaldu dugunez, horrela egitea zilegi ote den esplizituki plazaratu izan dute autore batek baino gehiagok. Horiek horrela, euskarara egindako itzulpenek funtzio sinboliko nabarmena bete izan dutela esan dezakegu, literatur esparrua bera autonomizatzen eta normalizatzen hasi arte bai, behintzat; eta geroago ere bai. Geroago etorri dira euskal historiografietan itzulpenaren beste funtzio batzuk agerrarazteko ahaleginak, batez ere literaturari ikuspegi sistemikotik begiratzeko ahaleginetik eta literatura konparatua egitetik: zenbait literatur historiografiatan zalantzan jarri da, hainbat lanei erreparatuta, sormenaren eta itzulpenaren arteko muga edo zenbait obraren orijinaltasuna, esaterako; halaber, itzulpenaren balio literario askotarikoei (eraginak, erreperitorioak osatzea eta aberastea...) buruzko aipamenak agertzen hasi dira.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenaz denaz bezainbatean, 1980ko hamarkadaz geroztik egindako literatur historiografietan hasten dira aipamenak agertzen. Historiografien banakako azterketetan ikusi dugunez, Urkizuren historiarekin hasten da, nolabait, joera hori (historiografia beren-beregi kanpora begira idazten denean); baina, batez ere Olaziregik integratzen ditu euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenen aipua modu sistematikoan, bai Urkizuren historiografian, bai berak zuzendutakoan; ez hori bakarrik, beste literatur eremu batzuetan kritikak euskal literaturaz egindako aipua ere ekartzen ditu Olaziregik. Euskal literaturaren «sistema» itzulpen bidez zabaltzeko edo sistema eremu zabalagoztat jotzeko ahalegina dakusagu hor.<sup>90</sup>

Era berean, Urkizuren historiografian ikusten hasten da itzulitako obren arabera ere egiten direla literatur joeren sailkapenak eta deskribapenak, eta Urkizuren historian agertzen da lehenbizikoz itzulpenak molde tradizionaleri aurre egiteko tresnatzat baliatu izana. Lehenago esan bezala, modu horretan hasten dira itzulpenaren zenbait funtzio literario historiografietan agerrarazten. Izan ere, aurreko historiografietan batez ere itzulpenen balio fundazionala, pedagogikoa eta dialektologikoa nabarmendu izan baziren ere, geroagoko historiografiatan bestelako funtzioak ere hasten dira agerrarazten. Olaziregiren kasuan, adibidez, itzulpenen funtzio ekonomikoa eta sinbolikoa ere aintzatesten dira; Aldekoak zenbait generoren fundazio-testutzat ez eze, eragin literarioak ere bistaritzen ditu autoreek egindako itzulpenen bitartez: itzulpenak autoreen pentsamolde, lan eta ideiekin duten lotura azalduz aipatzen

<sup>90</sup> Hara hor, esaterako, «itzulpenaren sistema» kontzeptuaren ordez «eremu» kontzeptua baliatzeko beharra.

ditu. Aldekoarenean ere itzulpenari lotutako funtzioak batez ere ideologikoak, pedagogikoak eta literarioak dira, ez hizkuntzazkoak.

López Gasenik egiten du, bestalde, itzulpengintzaren ikusgaitasunaren aldeko ekarpen handienetako bat historiografietan: beste genero bat balitz bezala txertatzen du Olaziregik editatutako literaturaren historian. Even Zoharren postulatuei jarraikiz, literatur errepertorioa osatzeko baliabidetzat dakusa López Gasenik itzulpena, eta itzultitako literaturak periferian egoteko joera duela onartzen badu ere, gurean zenbait itzulpenek posizio zentrala bete dutela ikusarazteko saioa egiten du: «Gure literaturaren historian, ordea, oso ohikoa da itzulpenak behin eta berriz agertzea gainontzeko testu literarioen ondoan, nahiz eta itzulpen horiek, askotan, literatur testuen itzulpenak ez izan. Itzultzaileak ere idazleen pare agertu ohi dira, eta halakotzat hartuak izan dira» (López Gaseni, 2010: 845).<sup>91</sup> López Gaseniren ustez, itzulpenak gure historiografietan sarri erdiguneko posizioan agertu izana une jakin batean insituzioari oso loturik egotearekin lotu behar da: «testu kanonikoak izan direla, kanonikotasun horren arrazoiak, “beren estatusa aldatu” izana, garbiegi azaldua izan ez den arren» (*idem*: 845-846). Arrazoen bila ari dela zehaztasun gehiago ematen ditu: «Normalean, Leizarragaren kasuan bezala, hizkuntza-eredu gisara hartu izana euskalkiren edo hizkuntza-aldaeraren batean eta, horrekin batera, irakurleen artean nolabaiteko arrakasta izana, *instituzioan* eliza nagusi zen garaietan» (*idem*: 846). Ildo horretan, testu erlijiosoaren itzulpenak, sasi-itzulpenak eta literatura didaktikoaren kasuak azaltzen ditu, eta dei egiten du adibide gisa baliatu dituen kasuen antzeko beste kasu batzuen azalpen sistemikoak emateko beharrari dagokionez: «erakusteko nola eta zergatik zenbaitetan ohikoak ez diren zenbait testu erdiguneko posizioak erdietsi dituzten, hizkera literarioak sortzen edo hobetzen lagundu duten, errepertorio eta erdu berriak ekarri eta zaharkituta zeudenak berriro dituzten» (*idem*: 851-852). Aurreko ataletan ikusi dugunez, badira aztertu ditugun historiografietan López Gasenik proposatzen duen bidean argi egin dezaketen zenbait zantzu: itzulpen intralinguistikoak, exilio-garaian egindako itzulpenak, antzerki-testuen itzulpenak aztertzeak literaturaren eta euskal itzulpengintzaren historiako berrirakurketak ekar ditzaketen ustekoak gara.

---

<sup>91</sup> Edonola ere, gure ustez irizpide filologikoen arabera literaturaren historiari atxikitako itzulpenen datu arkeologikoak gorde izanak, on egin dio, zelanbait, itzulpen historiari: bestelako sistemetan aipatuko ez liratekeen testuak zerrendatuta eta izendatuta geratu dira, ezen, irizpide literariotik soilik egin izan balitz bilketa, agian ez genuke hainbeste itzulpenen berririk izango.

Ildo berean, garai bateko itzulpen-testuei buruzko ohar zehatzen aldean, joerak eta testuen arteko harremanak deskribatzea falta da oraindik, bai eta sareak identifikatu eta eremuaren bilakabidea agerraraztea ere. Izan ere, historiografien bilakabideari begiratuz gero, berritze metodologikoa gertatu aurreko historiografietan datu arkeologiko hutsak edo datu arkeologikoen zerrendatzeak jasotzen ziren batez ere. Egia da, halaber, itzulpen historiari buruzko azalpenak eta kritika gehiago jasotzen dela berritze metodologikoz geroztiko literatur historietan, baina itzulpen-ikasketen ikuspegitik sakontasun handirik gabe egiten dira, eta, gainera, Casenavek zehaztu bezala, aro garaikidean jartzen dute arreta, XX. mendea baino lehenagoko testuei buruzko iruzkinak ez direlarik ia aldatu historiografien bilakabidean. Bide beretik, denborak aurrera egin ahala, historiografoen balioespenak desagertu egin dira, oro har; eta, badirudi, hortaz, hizkuntzazko oharrak desagertuz joan ahala, desagertu egin direla itzulpenari buruzko oharrak.<sup>92</sup> Horrek adieraziko luke, beharbada, itzulpena balioesteko tresnak falta dituztela literaturaren historiografoak, edo «literatur eremu»aren parte sentitzen direla eta ez «itzulpen-eremu»aren parte, paradoxikoa baita itzulpenaren eremua autonomoagoa eta ikusgarriagoa bihurtu ahala, historiografietako errepresentazioa gutxitzea.

Alderantzizkoa gertatu da, ostera, aurreko kapituluan ikusi dugunez, itzultzaileak fikzioan izandako errepresentazioarekin: eremua ikusgarriagoa egin den hein berean, ikusgarriago bihurtu da, halaber, fikzioan. Zer-nolako lanetan, zer-nolako ezaugarriekin, zergatik eta zertarako?

Bada, fikziozko itzultzaileak eta itzulpena ageri direneko obren tipologia aintzat hartuta (ikusi Kaindl, 2014: eleberri postkolonialak, post-estrukturalak, thrillerrak edo best-sellerrak eta parodiak), gure corpuseko obren artean Zalduaren ipuinei, Apalategiren ipuinei eta Alonsoren eleberriko pasarteari atxiki diezaiekegu «parodia» etiketa, nolabait lanbidea modu exageratuan edo irrigarrian antzeratzen baitute. Gainontzekoak, lausotasunez, baina lan post-estrukturalen apalean koka daitezke: Sarrionandiarenak eta *Manu Militari* eleberriaren sortze-prozesuaren berri ematen den aldetik, eta *Twist* ere bai, egiletzaren heriotza jorratzen baita gaien artean. Edonola ere, azken horietan itzulpena ez da eleberriaren beraren egituraren funtsa.

Delabastitaren eta Grutmanen (2005) esparruen sailkapenaren arabera (jainkoen esparrua, esparru intergalaktikoa, nazioarteko esparrua, esperien-

---

<sup>92</sup> Hori dela bide, interesgarri deritzogu tesi honetan bertan proposatzen dugun eremuko eragileen bidezko azterketari, itzulpenek literatur eremuan duten sarea eta eragina azalera ahal izateko.

tziazkoa), errazago sailka ditzakegu gure corpuseko lanak: nazioarteko esparruan koka daiteke Mendigurenen «Bizitzako garairik onena» ipuina, eta beste guztiak, berriz, esperientziatzko esparruan sar litezke, itzultzailearen norbanako bizipenei lotuta. Izan ere, fikziozko itzultzaileak karakterizaziorako edo pertsonaiak atzerrian kokatzeko baliatzen diren zein jolas literario edo teknika narratibo gisa baliatzen diren kasu bakanak alde batera utzita, itzulpengintza oso loturik agertzen da idazleen munduarekin, edizioaren mundutik gertuko pertsonaiekin... Alegia, idazleen gaiak jorratzen direnean ageri zaizkigu itzultzaileak, oro har, euskal fikzio garaikidean.

Narratzen den ekintzan fikziozko itzultzaileek duten egitekoari begiratuta, esan dezakegu gero eta posizio zentralagoa duela euskal fikzioaren eszenan; pertsonaia ikusezin asmatua izatetik (Sarrionandiarenean), narratzaile izatetik (Arrietarenean), eta adibide gisa baliatutako bigarren mailako pertsonaia izatetik (Alonsorenean), pertsonaia nagusi izatera igaro da paperezko itzultzailea: Atxagaren «Itzultzaile bat Parisen» ipuinean, Mendigurenen «Bizitzako garairik onena» deritzon istorioan, aurkeztu ditugun Apalategiren ipuinetan, Zalduarenetan, Canoren *Twist* eleberrian, Uriberen *Musschen* eta Saizarbitoriaren *Martutenen*. Era berean, denborak aurrera egin ahala itzultzea bera langintza indefinitua izatetik eta terapiatzko ariketa gisa egitetik... lanbide izatera igaro da; beraz, itzultzaileen profesionalizazioa ere ageri da aldez edo moldez fikzioan.

Posizio zentrala izanagatik eta profesionalizatu izanagatik, itzultzailearen ahuldadea, hauskortasuna, ziurgabetasuna... ageriko irudia da; itzultzailearekin lotutako iruditeriari dagokionez, beste literatura eta kultura batzuetan agertutako iruditeriarekin bat dator euskal literaturakoa: itzultzaileen izaera obsesiboa eta zalantzatia azpimarratzea, itzultzailearen izaera bakartia (isolamendurako joera duena) eta itzultzaileek ihes egiteko duten nahia azalaraztea, itzultzaileak giza harremanetarako zailtasunak dituzten mugaldeko pertsonaia gisa irudikatzea, autoretza-nahian fokalizatzea, itzultzaileak maitale-aferekin lotzea... motibo errepikakorrak dira gurean ere.

Bada, desleialtasunarenaren ideari berriz helduta, nabarmentzeko moduko «bira» identifikatu dugu guk aztertutako corpusean. Irudi-aldaketa bat gertatu da, ez hainbeste itzultzailearen irudiari dagokiona, ezpada idazlearen irudiari datzekiona. Tradizioz traiziogilearen edo fideltasunik ezaren irudia itzultzailearekin lotu izan bada ere, Apalategiren ipuinetako batean autoreak eta itzultzaileak bata bestearen lekua hartzen duenetik aurrera (eta batez ere *Twisten* eta *Martutenen*) idazlearekin lotzen da desleialtasuna; nolabait esateko, itzultzailearen eta idazlearen izaerek bat egiten dute bi obra horietan. Bestela esanik: itzultzailearen «erantzukizuna» arindu egiten da; dagoeneko

itzultzailea ez da idazlea baino «desleialagoa», eta, are gehiago, fikziozko itzultzaileak onartu egiten du zein den bere lekua literaturan, baina zail egiten omen zaio oraindik fikziozko euskal idazleari.

Fikziozko itzultzailearen ziurgabetasuna, antsietatea, obsesioa... hainbat mailatan agertzen dira. Literatur eremuari buruzko hausnarketari lotzekoak dira, esaterako, itzulpena eta itzultzailea agerraraztea (egiazkoak ez badira ere) helburu izatea Sarrionandiarenean, eta Apalategiren eta Zalduaren ipuinetako bitan euskal literatura atzerriratzeko edo autoreak promozionatzeko bidea itzulpena dela agerraraztea. Zalduaren beste ipuin batean ageri da, halaber, itzulpenaren harrera eskasak sortzen duen ardura. Hizkuntzaren gizarte-egoe-rak, hizkuntza-arauak, normatibizazioak, zuzentasunak, itzulpen-prozedurak egokiro baliatzeak... sortzen duten antsietatea funtsezkoak dira, esaterako, Arrietaren narratzaileen edota Saizarbitoriaren pertsonaien artean. Alonsorenean nabarmen ikusten da, halaber, itzultzean hartutako erabakiak justifikatu beharrak eragiten duen obsesioa eta bertsio erabatekora iritsi ezinak sortzen duen zalantza. Itzulpenaren beraren definizioa, itzulpenaren eta autoretzaren arteko lotura ere ageri zaizkigu irudikatuta fikziozko itzultzaileen eta idazleen zalantzen artean: bertsioak hobetzeak sortzen dio ezinegon erabatekoa, esaterako, Zalduaren ipuinetako bateko pertsonaiari. Azkenik, lanbidearekiko atxikimenduaren auzia dugu: batez ere lanarekiko obsesioa eta lanbidearen alderdi ekonomikoek sortutako antsietateak irudikatzen dira, esaterako, Canorenean, Uriberenean eta Saizarbitoriarenean; itzultzaile-lanbidearen harrerari dagokionez, gaitzespen orokor moduko bat suma daiteke administrazioko itzul-pengintzarekiko, literatur itzulpengintzarekiko atxekimenduaren aldean.

Ikusi dugunez, testuinguruaren eta sasoiaren arabera aldatzen dira itzultzailearen ezinegonak eta zalantzak, baina badirudi hortxe daudela beti, eta atal honetan ikusi dugunez, itzulpen-ikasketetan eztabaidatzen diren auziak islatzen dira aztertutako fikzio-lanetan, hala nola ikusezintasuna, itzulpenaren beraren definizioari eta mugei buruzko gogoetak, fideltasuna, itzulpena beste kultura batzuetarako sarbide gisa, berritzulpena, jatorrizkoaren eta bertsioen arteko aldeak, testu itzuliaren boterea, autorearekiko identifikazioa, testuen galerak eta irabaziak... dira mintzagai.

Itzulpena fikzioan barneratzearen funtzioei dagokienez, Sarrionandiarenean argi dago fikziozko itzultzaileak eta itzulpena baliatzea jolas literarioa dela; balio sinbolikoa dauka, nolabait. Itzultzaileak funtzio narratologikoz baliatzen ditu Arrietak *Manu Militarin*; alegia, sorkuntza-prozesuaren berri emateko. Horrez gain, testuartekotasunaren bila ere badabil heterolinguis-moaren eta itzulpenaren bidez.

Pertsonaien karakterizaziorako bide ere bada, pertsonaiak idazlearen esparru geografikotik urruntzeko, pertsonaia isolatuak edo bakartuak antzeratzeko (hala da, esaterako, Mendigurenen pertsonaiaren kasuan).

Funtzio metaforikoa ere badu itzulpenak: Atxagaren «Itzultzaile bat Parisen» ipuinean itzultzea galerak onartzea da. Azkenik, gizartea antzeratzeko, kultur eta hizkuntza-aniztasuna agerrarazteko, eta Euskal Herrian gertatzen diren istorioei egiantzekotasuna emateko ere baliatzen dira itzulpena eta hizkuntza-aniztasuna euskal fikzioan.

Gure corpusari osotara begiratuta, ez dugu narrazioaren mekanikan itzulpena giltzatzen daukan istoriorik: denak ere orokorrean hartuta, itzulpenak eta hizkuntza aniztasunak, batez ere idazleen testuinguruan gertatzen diren istorioetan pertsonaiak eta testuinguruak kokatzeko eta deskribatzeko tresna gisa baliatzen dira. Dena den, itzulpena ez da jarduera linguistiko hutsa, terapia ere bada, esku-hartzea, posizioak hartzea, kulturarteko bitartekari egitea, gatazka-zen azalpenak ematea...

Labur-labur azalduta, nola errealitatean hala fikzioan, itzultzailea bestelako helburuekin itzultzetik itzultzaile profesional izatera igarotzen ari da oro har; gero eta irudi ikusgarriagoa da, erdiguneko subjektua, instituzio bateko pieza, baina oraindik ere hauskorra. Hala, euskal idazleek bizi duten kultura-, gizarte- eta hizkuntza-aniztasunaren, eta horiekin lotutako esperientzien isla dira fikziozko itzulpenaren agerpena eta biderkatzea.

## 7. AZKEN HITZA

Lan honetan frogatu uste dugunez, itzulpenaren soziologiak ezinbesteko tresnak eskaintzen ditu euskal itzulpen-produktuak kokatzeko eta ezaugarritzeko ez ezik, baita euskal itzulpengintzaren espezifikotasunak kontzeptualizatzeko ere. Are gehiago, ausartu gaitezke esatera euskal itzulpengintzaren esparruko testuak eta fenomenoak ikertzeko funtsezkoak direla itzulpenaren soziologiak eskainitako tresnen bidez lor daitezkeen emaitzak. Izan ere, eta lan honetan ikusarazi nahi izan dugunez, Pierre Bourdieuren soziologiatik ekarritako «eremu», «habitus» eta «kapital» kontzeptuak berebiziko tresnak dira gizarte-egituren banaketak eta errepresentazioak, balio objektiboen eta sinbolikoen artikulazioak eta egituren eboluzioa deskribatzeko, Wolfek dioen moduan (2007: 1-7).

Itzulpen-jarduna gizarte-jarduera gisa definitzeak itzulpena hizkuntza batetik besterako komunikazio-tresnarako baliabide izatetik harago garamatza eta jarduera horren askotariko funtzioak bistaratzeko balio du, besteak beste. Sapirorekin bat (2014), gizarte-eremuek funtzio ekonomiko, ideologiko eta kulturalak dituzte; hala, merkatu- edo politika-legeetatik harago, adibidez, funtzio edo balio sinbolikoa ere izaten dute. Berebiziko garrantzia du horrek gurean, lotura zuzena baitu darabilgun hizkuntzaren eta kulturaren estatusarekin eta eremuko agenteen ideologiarekin edo identitatearekin; izan ere, Bourdieuk dioenarekin bat (1991), ekoizpen urriko eremuetan kapital sinbolikoak indar handiagoa izan ohi du beste eremu batzuen aldean.

Euskal literatura itzuliaren (barne-)eremua eremu eleaniztuna da, eta darabiltzagun hizkuntzetako bat txikia; bada, itzulpenerako A hizkuntza edo B hizkuntza edo C hizkuntza erabiltzea hautu bat da, eta hautuak aldatu egin daitezke eremuko dinamiken arabera, esaterako. Hizkuntza-hautuaren arabe-

rako eragileen pertzepzioak, jarrerak eta jardunak, esaterako, habitus nozioari jarraikiz azal daitezke. Habitus nozioaren bidez azal daitezke, halaber, zenbait eragileren posizio-aniztasunak edo posizio-aldatzeak; aldez edo moldez, horiek ere ezaugarritu ditzakete itzulpen-aro jakinak, eta, hargatik, euskal literatura itzuliaren eremu garaikideko partaide diren euskal itzultzaileen eta idazleen habitusaren ezaugarri batzuk deskribatu ditugu lan honetan, datuak eskura izan ditugun etapetan. Ildo horretan, oso kontuan hartzekoa da euskal literatura itzuliaren eremuko zenbait eragileren kokapen-aniztasuna: idazle batzuk, esaterako, itzultzaile dira, eta baita akademiko ere; bestalde, badira sorkuntza egiteko itzulpena bitarteko gisa darabilten idazleak. Bada, hain zuzen ere, posizio bakoitza zerk ezaugarritzen duen eta posizio bakoitzetik zer nolako diskurtsoa sortzen den interesgarria da oso, horrek baldintzatu egiten baitu itzulpen-jarduna eta itzulpenari buruzko pertzepzioa, norbanakoarena eta taldearena.

Gogoan hartzekoa da itzultzaileak ez duela hizkuntza batetik besterako hizkuntza-aldaketa neutroa egiten, itzultzea bera hautu bat da. Itzultzailea ekoizpen-baldintza jakinen mende aritzen da, izan merkatuari dagozkion baldintzen mende, izan hartzaileei dagozkien baldintzen mende, izan babesten duen erakundearen mende, izan norberak bere buruari ezarritakoen mende; Boschettiren ideiak ekarrita (2010: 99-109), literatur ekoizpenari eragiten dioten kanpo-baldintzak hauek dira: erregimen politikoa, merkatua, prentsa eta lanaren banaketaren eboluziotik jaiotako gizarte-mikrokosmosak, hots, batez ere jarduera intelektualen eremuak. Hala, albo-eremuekiko mendekotasunaz gain, beste eremu batzuekiko autonomiaren edo beste eremu batzuek hautemateko moduaren arabera ere deskribatzekoa da euskal literatura itzuliaren (barne-)eremua.

Gurean, historiografia literarioak aletzean ikusi dugunez eta Lasagabasterrek literatur eremuaren autonomizazioaz dioenari jarraikiz (Lasagabaster, 2007), esan dezakegu, adibidez, XVIII. mendera arte, seguruenik bat datozela eremu erlijiosoak, literarioak eta itzulpenaren eremuak hartutako esparruak. Ildo horretan, esan dezakegu, halaber, XX. mendean egin zirela, adibidez, literatur eta itzulpen-eremuak bereizteko lehen pausoak, eta XX. mendetik aurrera hasi zela, adibidez, autonomizazioa, eremu bakoitzak bere berezko egiturak sortuta. Guk, hain zuzen ere, aro horri begiratu diogu lan honetan.

Esan dezakegu oro har XX. mende erditik aurrera euskal literatura itzuliaren xede nagusietako bat euskarazko testuen kapitala eta estatusa handitzea izan dela, bai euskarara egindako itzulpenen bidez (euskaraz ere posible dela frogatzeko hasiera batean, kultur oinarri diren testuak biltzeko gerora), bai



euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako testuen bidez (euskal literatura bat badela ikusaraztea izanik helburua). Bestela esateko, euskal literatura «literatura» gisa berrestea da, hein batean, euskal literatura itzuliaren eremua-  
ren funtzioetako bat, hots, Casanovak (2004: 133) dioen moduan, erakunde legitimatzaileen aurrean kapital literario berezkoa sortzea. Baina agerikoa da, halaber, Santanarekin (2012 & 2015), Manterolarekin (2014) eta Zubillagarekin (2014) bat, euskal literatura itzuliaren sistema espainiarrarekiko lotura: gaztelaniaren bitartekaritza handia da atzerriko literatura euskarara ekartzeko eta euskal literatura atzerriratzeko; ildo horretan, zenbait erabilera ideologikotarako baliatzen da itzulpena (bai lurraldetasuna nabarmentzeko estrategien bidez, bai lurraldetasuna ezabatzeko estrategien bidez; hots, ezberdintasuna isilarazteko zein ezberdintasuna ikusarazteko).

Eremu ekonomikoarekiko harremanetara igarota, euskal literatura itzuliaren eremua mezenasgoari eta gobernuko laguntzei esker da posible, eta euskal literatura itzuliaren eragin ekonomikoa hizkuntza bati eta kultura txiki bati dagokien ekoizpen urriko merkatu batean kokatzekoa da. Kasu askotan kapital kulturalak eta sinbolikoak kapital ekonomikoak baino indar handiagoa badute ere, ez da ahaztekoa liburua laguntzeko politika autonomikoek bultzada eman izan diotela sarri zenbait euskal idazleren autonomia ekonomikoari, adibidez.

Euskal literatura itzuliaren funtzio kulturalaz denaz bezainbatean, batez ere hizkuntzari lotutakoa nabarmendu izan da; euskal idazle garaikideek aspaldion aldarrikatzen dutenez, euskal itzultzaileen jardunak elikatu egin du euskarazko hizkuntza-erregistroen eta estilistikaren aberastasuna, eta ereduzko testuak sortu dira hizkuntzari dagokionez. Euskal literatur historiografien eraikuntzan, garai jakin batzuetako testuen urritasunari iskin egin eta itzulpenak ere barne hartuta literatura bazela agertzeko baliatu dira, zenbait genero literarioren fundazio-testutzat jo izan dira; baina, literatura garaikideari dagokionez, gero eta gehiago azpimarratzen da itzulpena autoreen lanaren osagarri eta eragingarri, autoreen obra kokatzeko eta literatur joerak ezaugarritzeko, adibidez; izan ere, itzulpenek eragina izan dute zenbait euskal idazleren idazkeran ez ezik, baita inspirazio-iturrietan. Are gehiago: itzulpena bera gogoetagai izan dute euskal idazleek, bai eta gogoeta hori fikzioa egiteko baliatu eta fikzioan agerrarazi ere. Nolabait, maila sinbolikoan, pertsonaiak atzerrian kokatzeko zein pertsonaiak karakterizatzeko baliatu izan dute euskal autoreek itzulpena, edota euskal gizartea antzeratzeko. Bestalde, itzulpena bera funtzio metaforikoz eta narratologikoz baliatu dute zenbait euskal autorek euren testuetan.

Honaino iritsi gara euskal itzulpengintza garaikideari itzulpenaren soziologiak eskainitako marko teoriko-metodologikoa baliatuta, baina, noski, iker zitezkeen arloetako batzuei begiratuta soilik. Ugariak dira lan honetan aipatuagatik sakondu ez ditugun eragileen eta erakundeen sareak, eta soziologiaren argitan aztertzeke dago, adibidez, itzulpenarekin zerikusia duten argitaletxe, editore zein azokek eratzen duten kultur bitartekarien sareak nola eragiten duen euskal literatura itzuliaren eremuan, edota zer-nolakoa izan den, argitaletxeka, itzulpen-corpusaren bilakaera. Gisa horretako lanek, noski, aberastu, osatu, baieztatu edo ezeztatu egin ditzakete orain arte egindako lanetatik abiatuta hemen esan direnak. Ildo horretan egingo du aurrera euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren ikerketak berak. Bada, bide beretik, eremuko ikerketa-esparruan jasotako corpusaren bilakabidea ere hortxe dago, nork ikertu zain. Horrekin guztiarekin batera, itzulpenari buruzko diskurtsoak ere aztergai dira; guk hemen euskal literatur eremuko historiografoen eta zenbait idazleren habitusak izan ditugu aztergai, baina esan beharrik ez dago beste esparru batzuetakoak ere aztertzekeak lirartekeela: kazetariak, politikariak, irakasleak, liburuzainak... Itzulpenaren harrera ere jorrazteko ikerlerroa da, noski: itzulpen-kritiken azterketa, itzulpenak testuliburuetan izandako agerpena, literatura itzuliaren irakurketari buruzko azterketak... Galdera handia da honako hau ere: nola eragin dute aurreko horretan guztian kultur politikek? Izan ere, erakunde publikoek (edo pribatuak, mezenasgoaren bidez, esaterako) itzulpenean izandako eragina ere beste ikerlerro bat da: nolakoa izan da, adibidez, itzulpen-politiketan eta laguntzetan gertatutako bilakaera? Horrez gainera, nazioarteko sariak eta kontsakrazio-bideak nola moldatzen dute gurera ekarritako literatura? Horiek guztiak ikerlerro batzuen adibideak besterik ez dira. Jakina da, halaber, beste garai batzuetako itzulpen-eremuak kokatzea dela etorkizuneko lan-ildoetako bat, euskal testu itzulien historiografia baterako pausoak emango baditugu. Horretarako, beste eremu batzuetako ikertzaileekin aritu behar da hartu-emanetan, ezen zenbait hizkuntzalarik eta euskalarik, gero eta agerirago dakarte zer-nolako eragina izan duen itzulpenak euskararen historiako zenbait testutan.

Artean euskal literatura itzuliaren historiak aurrera jarraitzen du: itzulpen-proiektu batzuek aurrera egiten dute; beste batzuk bukatutzat ematen dira; erakundeek literatura unibertsala euskarara ekartzeko zein euskal literatura nazioartekotzeko politikak eta proiektuak sustatzen jarraitzen dute; idazleek itzulpenaz gogoeta egiten eta idazten jarraitzen dute; itzultzaile berriak ageri dira fikzioan... Bada, etorkizunerako ikergaiak ez dugu falta: bestelako bilakaera izango ote da hemen azaldu dugun guztiaren aldean? Konparaziorako tresna txiki bat eskaini izana, hori baino ez dugu espero.

## 8. BIOBLOGRAFIA

- ACCARDO, A. (1997): *Introduction a une sociologie critique, Lire Bourdieu*, Le Mascaret, Bordeaux.
- ACCARDO, A. & Corcuff, P. (1986): *La sociologie de Bourdieu. Textes choisis et comentés*, Le Mascaret, Bordeaux.
- AGIRRE, J. (2012): «Saizarbitoriarekin solasean, “Martutene” nobela berriaren harira» in *Gara*, 2012-4-15; linean: [http://www.erein.eus/media/recortes\\_prensa/recorte\\_prensa833\\_3.pdf](http://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa833_3.pdf) (kontsulta-data: 2014-09-04).
- AGUIAR E SILVA, V. M. (1972): *Teoría de la literatura* (trad. García Yebra), Gredos, Madrid.
- ALDEKOA, I. (2008): *Euskal Literaturaren Historia*, Erein, Donostia.
- (2013): «Martutene: La escritura o la vida» in *Insula*, 797, 21-23.
- ALEGRIA, E. (2008): «Itzulpengintza iparraldean» in *Senez*, 35; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20081028/alegria> (kontsulta-data: 2016-08-16).
- ALONSO, J. (1995): *Katebegi galdua*, Susa, Zarautz.
- (2013): «Jon Alonso: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- ALONSO, I. (2010): *Erdigune literarioak irakaskuntzan*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- ANDERSON, J. (2005): «The double agent: aspects of literary translator affect as revealed in fictional work by translators» in *Fictionalising translation and*

*multilingualism* (Delabastita, D. & Grutman, R. ed.), Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen, 170-182

APALATEGI, U. (2005): «Iparraldeko azkenaldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa)» in *Lapurdum*, 10, 1-18; linean: <https://lapurdum.revues.org/32> (kontsulta-data: 2016-08-16).

— (2010): *Fikzioaren izterrak*, Susa, Zarautz.

— (2013): «Ur Apalategi: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.

ARKOTXA, A. (2013): «Aurelia Arkotxa: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.

ARRIETA, J. A. (1987): *Manu Militari*, Elkar, Donostia.

— (2013) «Joxe Agustin Arrieta: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.

ARRULA, G. (2012): «Idazlearen eta irakurlearen artean, itzultzailearen itzala» in *Elearazi (hiru urtetako aukeraketa bat: itzultzaileak mintzo* (Arrula, G. & Sarriugarte, D. ed.), autoedizioa.

— (2013): «Irakurle txokoen 3 e-ak» in [www.elearazi.eus](http://www.elearazi.eus); linean: <http://elearazi.eus/2013/06/09/irakurle-txokoen-3-e-ak-cleberria-egungoa-etaxtekoa/> (kontsulta-data: 2016-01-26).

ASURMENDI, M. (2012). «Milioi bat begiraturi begirasuna» in *Berria*, 2012-10-07; linean: <http://kritikak.armiarma.com/?p=5556> (kontsulta-data: 2014-09-04).

— (2013): «Literatoaren biluzte emozionala» in *Berria*, 2013-04-07; linean: <http://kritikak.armiarma.com/?p=5776> (kontsulta-data: 2014-09-02).

ATXAGA, B. (1997): «Un traductor en Paris» in *Cuentos apátridas*, Ediciones B, Barcelona, 13-80.

— (2013): «Bernardo Atxaga: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.

AUZMENDI, L. (1988): «Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkar-tea» in *Senez*, 7, 237-244; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19890130/auzmendi/inprimatzeko> (kontsulta-data: 2016-08-12).

- BARNETT, I.: «The translator as Hero»; linean: [http://www.biblit.it/translator\\_hero.pdf](http://www.biblit.it/translator_hero.pdf) (kontsulta-data 2014-05-15).
- BASSNETT, S. (2002): «La traducción como remembranza» (itz. Martin Ruano, M. R. & Torres del Rey, J) in *Cartografías de la traducción, Del Post-estructuralismo al multiculturalismo* (Álvarez, R. ed.), Ediciones Almar, Salamanca, 59-76.
- BEHINOLA (2009): «Hiru euskal argitaletxe itzulpengintza inguruan»; linean: <http://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/hitz-eta-pitz-5.pdf> (kontsulta-data: 2016-05-23).
- BEN-ARI, N. (2010): «Representations of translators in popular culture» in *Translation and Interpreting Studies*, 5-2, 220-242.
- (2014): «Reaching a dead-end – and then?» in *Transfiction. Research into the realities of translation fiction* (Kaindl, K. & Spitzl, K. ed.), John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia, 113-123.
- BIBLIOTHÈQUE PUBLIQUE D'INFORMATION & CORCUFF, P. (2004): *Pierre Bourdieu: les champs de la critique / colloque organisé par la Bpi en 2003 dans le Centre Pompidou à Paris*. BPI & Centre Pompidou, Paris.
- BIGURI, K. (1992): «Literatur itzulpena graduondoko irakasgai Beljikan» in *Senez*, 13; linean: [https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/biguri\\_1](https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/biguri_1) (kontsulta-data: 2020-03-07).
- BILBAO TELLETXEA, G. (2006): «Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean» in *Senez*, 30; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20061220/gjidor> (kontsulta-data: 2016-08-19).
- BOLTANSKI, L. (1975): «La constitution du champ de la bande dessinée» in: *Actes de la recherche en sciences sociales*, 1, 1-1, 37-59.
- BORDA, I. (2013): «Itxaro Boda: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- BOSCHETTI, A. (2010): «L'explication du changements» in *Bourdieu et la littérature* (Martin, J.P. dir.), Éditions Cécile Defaut, Nantes, 93-111.
- BOURDIEU, P. (1979): «Les trois états du capital culturel» in *Actes de la recherche en sciences sociales*, 30, 3-6; linean: [http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss\\_0335-5322\\_1979\\_num\\_30\\_1\\_2654](http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss_0335-5322_1979_num_30_1_2654) (kontsulta-data: 2017-04-17).

- (1980): «Le capital social» in *Actes de la recherche en sciences sociales*, 31, 2-3; linean: [http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss\\_0335-5322\\_1980\\_num\\_31\\_1\\_2069](http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/arss_0335-5322_1980_num_31_1_2069) (kontsulta-data: 2017-04-17).
- (1984): «The Market of Symbolic Goods» in *The field of Cultural Production: Essays on Art and Literature*, Columbia University Press, New York, 112-144; linean: <http://web.mit.edu/allanmc/www/bourdieu2.pdf> (kontsulta-data: 2017-04-17).
- (1990): «El campo literario. Prerrequisitos críticos y principios de método» (itz.: Desiderio Navarro) in *Criterios*, 25-28, 20-42; linean: <http://www.criterios.es/pdf/bourdieuCampo.pdf> (kontsulta-data: 2017-04-17).
- (1991): «Le Champ littéraire» in *Actes de la recherche en sciences sociales*, 89, 3-46.
- (1992): *Les règles de l'art*, Seuil, Paris.
- (2013): «Séminaires sur le concept de champ, 1972-1975» in *Actes de la recherche en sciences sociales*, 200, 4-37.
- BOURDIEU, P. & WACQUANT, L. (1992): *Reponses: pour une sociologie reflexive*, Editions du Seuil, Paris.
- CANO, H. (2011): *Twist*, Susa, Zarautz.
- (2013): «Harkaitz Cano: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- CASANOVA, P. (2004): *The World Republic of Letters* (trans. M.B. DeBevoise), Harvard University Press, Harvard, MA.
- CASENAVE, J. (2012): *Euskal literaturaren historiaren historia*, Utriusque Vasconicae, Donostia.
- CHESTERMAN, A. (2006): «Questions in the sociology of translation» in *Translation studies at the interface of disciplines* (Ferreira Duarte, J., Assis Rosa, A., & Seruya, T. ed.), Benjamins Translation Library, 68, Amsterdam & Philadelphia, 9-27.
- COLBERT GOIKOA, D. (2016): «Traducción y auto-exégesis en Martutene de Ramon Saizarbitoria» in *Pasavento: Revista de Estudios Hispánicos*, IV, 2, 347-363.
- COLLONBAT, I. (2003): «Pseudo-traduction: la mise en scène de l'altérité» in *Le langage et l'homme*, 38, 1, 145-156; linean: <http://www.lli.ulaval.ca/>

- fileadmin/llt/fichiers/departement/personnel/professeurs/isabelleCollombat/langageHomme.pdf (kontsulta-data: 2014-05-18).
- CORCUFF, P. (2004): «Habitus et défi de la singularité individuelle» in *Pierre Bourdieu: les champs de la critique / colloque organisé par la Bpi en 2003 dans le Centre Pompidou à Paris* (Bibliothèque publique d'information & Corcuff, P. ed.), BPI & Centre Pompidou, Paris, 163-173.
- CORTÁZAR, J. (1959): «Las babas del diablo»; linean: <http://www.literatura.us/cortazar/babas.html> (kontsulta-data: 2014-08-26).
- DELABASTITA, D. & GRUTMAN, R. (ed.) (2005): *Fictionalising translation and multilingualism (Special Issue of Linguistica Antverpiensia New Series 4/2005)*, Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen.
- (2005): «Introduction: Fictional representations of multilingualism and translation» in *Fictionalising translation and multilingualism* (Delabastita, D. & Grutman, R. ed.), Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen, 11-34.
- DELISLE, J. (2002): *Portraits de traductrices*, Presses de l'université d'Ottawa, Ottawa.
- (2012): «Les traducteurs de papier. Traducteurs et interprètes dans la littérature québécoise» in *Traduire*, 226; linean: <http://traduire.revues.org/136> (kontsulta-data: 2017-04-17).
- DEL OLMO, K. (2012): «Itzulpengintza Euskal Herrian; Urrezko aroaren hasiera: XX. mende amaieratik XXI. mende hasierara» in *Auñamendi Eusko Entziklopedia*; linean: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee154049/143433> (kontsulta-data: 2016-08-11).
- DE MAESENEER, R. (2000): «Sobre la traducción en 'Corazón tan blanco' de Javier Marias» in *Especulo. Revista de estudios literarios*, Universidad Complutense de Madrid; linean: <http://www.ucm.es/info/especulo/numero14/jmarias.html> (kontsulta-data: 2014-05-20).
- DESPRES, A. (2015): «Un intérêt artistique à construire» in *Actes de la recherche en sciences sociales*, 206-207, 51-67.
- D'HULST, L. (1995): «Pour une historiographie des theories de la traduction: questions de méthode» in *TTR: traduction, terminologie, rédaction*, 8, 1,

13-33; linean: <http://id.erudit.org/iderudit/037195ar> (kontsulta-data: 2017-04-17).

EGAÑA, I. (2013): *Kritikarako hurbilketa literaturaren soziologiatik. Egunkari eta aldizkarietako euskal literatur kritiken analisisa (1975-2005)*, UPV/EHU; linean: [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibon\\_Egana\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibon_Egana_TESIA.pdf) (kontsulta-data: 2016-03-07).

EIZIE, ITZULTZAILE ESKOLA & HAEEKO ITZULTZAILE ESKOLA (1989): «Itzultzaile ikasketen diseinua (Euskal Herriko Unibertsitateari proposamen-dua)» in *Senez*, 8, 77-100; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19900110/ikasketak> (kontsulta-data: 2016-08-11).

EIZIE ETA BESTE LAU ELKARTE (1992): «Espainiako itzulpen eta interpretaritzaren estatutu profesionala» in *Senez*, 13; linean: [https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/estatutu\\_profesionala](https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/estatutu_profesionala) (kontsulta-data: 2020-03-07).

ETXANIZ ERLE, X. (2011): «Euskal literaturaren historia; begirada berriaz» in *Euskera*, 55, 2, 823-839.

ETXEBERRIA, I. (2012): «Euskarara itzultitako literatur testuen hizkuntza-ezaugarriak eta euskaraz sortutakoena konparatzeko metodologia-proposamen bat» in *Hitzen artean: Axun Aierbe Gogoan* (Garcia Murga, F. & Madariaga Pisano, N. ed.), Udako Euskal Unibertsitatea, 153-174.

— (2014): «Pana y terciopelo en la literatura vasca traducida y no traducida. Aspectos lingüístico-estilísticos resultantes de la comparación de dos corpus» hitzaldi argitaragabea, I Coloquio Internacional Hermeneus, Universidad de Valladolid, Soria.

FELTRIN-MORRIS, M. (2005): «No book to call one's own: Perspectives on translation and literary creation in Francesca Duranti's *The House on Moon Lake*» in *Fictionalising translation and multilingualism* (Delabastita, D. & Grutman, R. ed.), Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen, 255-263.

FERREIRA DUARTE, J., ASSIS ROSA, A. & SERUYA, T. (ed.) (2006): *Translation studies at the interface of disciplines*, Benjamins Translation Library, 68, Amsterdam & Philadelphia.

GABIRIA, J. (2013): «Julen Gabiria: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.



- GANDARA, A. (2016): «Latorrizko danborra vs Manu militari: transtestualitatea hizpide» in *Hire bordatxoan: Txipi Ormaetxea omenduz*, UPV/EHU, 107-124.
- GANDARA, A. & IBARLUZEA, M. (2018): «Representaciones transtextuales y heterolingües (para la memoria) en la novela Manu Militari» in *Fontes*, 125: 191-220.
- GARMENDIA, M. (1989): «Itzulpen sariketak eta beste» in *Senez*, 8, 237-240; linean: <http://www.eizie.eus/en/Argitalpenak/Senez/19900110/garmendia2> (kontsulta-data: 2016-08-19).
- (1992): «Itzulpengintza masterra: planifikazio baten beharra» in *Senez*, 13, 151-154; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19930101/garmendia> (kontsulta-data: 2017-01-13).
- GEAY, B. (2004): «Classes et classements sociaux. Le dynamique scientifique des travaux de Pierre Bourdieu sur les classes sociales» in *Pierre Bourdieu: les champs de la critique / colloque organisé par la Bpi en 2003 dans le Centre Pompidou à Paris* (Bibliothèque publique d'information & Corcuff, P. ed.), BPI & Centre Pompidou, Paris, 99-114.
- GÉMAR, J. C. (1990): «La traduction est-elle civilisatrice? Fonctions de la traduction et degrés de civilisation» in *Meta*, 35, 1, 247-257.
- GOUANVIC, J. M. (2005): «A Bourdieusian Theory of Translation, or the coincidence of Practical Instances» in *The Translator*, 11, 2, 147-166.
- (2010): «Outline of a Sociology of Translation Informed by the Ideas of Pierre Bourdieu» (itz. Schultz, L.) in *MonTI 2 Applied sociology in Translation Studies*, 119-129.
- GRUTMAN, R. (2002): «Les motivations de l'heterolingüisme: réalisme, composition, esthétique» *Eteroglossia e plurilingüismo letterario II. Plurilingüismo e letteratura, Atti del XXVIII Convegno interuniversitario di Bressanone* in (Brugnolo, F. & Orioles, V. ed.), Il Calamo, Roma, 329-349.
- (2009): «Le virage social dans les études sur la traduction, une rupture sur fond de continuité» in *Texte, revue de critique et de théorie littéraire – Carrefours e la sociocritique* (Glinöer, A. dir.), 45-46, 135-152.
- HEILBRON, J. & SAPIRO, G. (2002): «La traduction littéraire, un objet sociologique» in *Actes de la recherche en sciences sociales*, 144, 3-5.

- HERMANS, T. (2001): «La traducción y la importancia de la autoreferencia» (itz. M. Martín Ruano, R. & Torres del Rey, J.) in *Cartografías de la traducción, Del Post-estructuralismo al multiculturalismo* (Álvarez, R. ed.), Ediciones Almar, Salamanca, 119-139.
- IBARZABAL, A. (1992): «Literatur itzulpenezko mintegia» in *Senez*, 13; linean: <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/ibarzabal> (kontsulta-data: 2020-03-07).
- IBARLUZEA, M. (2011): *Literatur itzulpenaren kritika. Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren azterketa*, Santi Onaindia Beka 2009 - Labayru Ikastegia & Amorebieta Etxanoko Udala, Bilbo.
- (2013): «Literatura Unibertsala bildumaren bideak» in *Lapurdum*, XVII, 93-107; linean: <http://lapurdum.revues.org/2418#tocto1n5> (kontsulta-data: 2016-08-16).
- (2014): «Literatura Unibertsala bildumako hitzaurreen azterketa» in *Euskera*, 58, II, 687-701.
- (2015): «The Translation Habitus of Contemporary Basque Writers» in *Estudios de traducción*, 5, 59-75.
- (2016): «Urretabizkaiaren eta Sarrionandiaren itzulpen-habitusak» in *Fontes Linguae Vasconum*, 122, 153-167.
- (2017): *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremauren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*. Doktorego tesia. UPV/EHU: Gasteiz. ADDI: [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/26629/TESIS\\_IBARLUZEA\\_SANTISTEBAN\\_MIREN.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/26629/TESIS_IBARLUZEA_SANTISTEBAN_MIREN.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- IPARRAGIRRE, P. (2008): «Umorea eta bizitzaren arazoak» in *Argia*, 2139, 2008-06-01; linean: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2139/bizitza-homeopatikoa> (kontsulta-data: 2014-05-14).
- JAKA, A. (2005): «Translating Basque Literature» in *Transcript*, 20; linean: <http://www.transcript-review.org/en/issue/transcript-20-basque/translating-basque-literature> (kontsulta-data: 2016-01-26).
- (2012): *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, Euskaltzaindia, Iker 28, Bilbo.
- JARILLOT, C. & URIBARRI, I. (2011): «Politiques de la traduction dans un environnement multilingüe: le cas basque» in *Traduction et partages: que pen-*

*sons-nous devoir transmettre* (Dampiere, E., Melzger, A. & Poulin, I. ed.), Université Michel Montaigne, Bordeaux, 190-198.

JIMENEZ, Edorta (2014): «Apustu gogorra» in *Euskaldunon egunkaria*, 1996-02-24; linean: <http://kritikak.armiarma.com/?p=2613> (kontsulta-data: 2014-05-14).

JUARISTI, J. (1987): *Literatura vasca*, Taurus ediciones, Madrid.

KAINDL, K. (2014): «Going Fictional! Translators and interpreters in literature and film» in *Transfiction. Research into the realities of translation fiction* (Kaindl, K. & Spitzl, K. ed.), John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia, 1-26.

KAINDL, K. & SPITZL, K (ed.) (2014): *Transfiction. Research into the realities of translation fiction*, John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia.

KORTAZAR, J. (2012): «Bost pertsonaia, hiru liburu, sinbolo bi, egilea eta gizartea» in *El Correo*, 2012-04-28; linean: <http://kritikak.armiarma.com/?p=5462> (kontsulta-data: 2014-09-04).

LASAGABASTER, J.M. [1982] (2002): «Literatura vasca y bilingüismo: vasco y castellano en la novela *Ehun metro*, de R. Saizarbitoria» in *Jesús María Lasagabaster, Las literaturas de los vascos*, (Toledo, A. ed.) Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

——— (2007): «Sobre la historia de la literatura vasca: diagnóstico y perspectivas» in *ASJU*, XLI-1, 237-248.

LOGIE, I. (2003): «Plurilingüismo y traducción en la obra de Julio Cortázar» in *Ciberletras: Revista de crítica literaria y de cultura*, 10; linean: <http://www.lehman.cuny.edu/ciberletras/v10/logie.htm> (kontsulta-data: 2014-05-16).

——— (2005): «Una escena de traducción en América Latina: “Las dos orillas” de Carlos Fuentes» in *Fictionalising translation and multilingualism* (Delabastita, D. & Grutman, R. ed.), Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen, 35-46.

LÓPEZ GASENI, J. M. (2002): *Historia de la literatura vasca*, Acento ediciones, Madrid.

——— (2010): «Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan» in *Euskera*, 55, 2, 841-852.

- «Literatura itzulia» in *basqueliterature.com*; linean: <http://www.basque-literature.com/basque/historia/itzulia> (kontsulta-data: 2016-08-10)
- MAIER, C. (2007): «The Translation as an Intervenient Being» in *Translation as Intervention* (Munday, J. ed.), Continuum, London & New York, 1-17.
- MANTEROLA AGIRREZABALA, E. (2014): *La literatura vasca traducida*, Peter Lang, Berna.
- MARTIN, J. P. (2010): *Bourdieu et la littérature*, Éditions Cécile Defaut, Nantes.
- MASPOCH BUENO, S. (2013): «El traductor en el Quijote», Coloquio sobre La construccion del personaje en Cervantes, Castro del Rio, 12-14 de noviembre de 1993 in *Actas II- Asoc. Cervantistas*; linean: [http://cvc.cervantes.es/literatura/cervantistas/congresos/cg\\_II/cg\\_II\\_28.pdf](http://cvc.cervantes.es/literatura/cervantistas/congresos/cg_II/cg_II_28.pdf) (kontsulta-data: 2014-05-18).
- MAUGER, G. (2004): «Champ, habitus et capital» in *Pierre Bourdieu: les champs de la critique / colloque organisé par la Bpi en 2003 dans le Centre Pompidou à Paris* (Bibliothèque publique d'information & Corcuff, P. ed.), BPI & Centre Pompidou, Paris, 61-74.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, X. (1984): «1. Itzultzaile Eskola» in *Senez*, 1, 1984, 19-26; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19840101/xabier> (kontsulta-data: 2016-08-10).
- (1989): «Euskal Itzultzaileen Ikasketak: Hamarkada baten ikuspegia» in *Senez*, 8, 15-26; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19900110/mendiguren> (kontsulta-data: 2017-04-17).
- (1995): *Euskal Itzulpenaren Historia Laburra*, Elkar, Donostia.
- MENDIGUREN ELIZEGI, X. (1996): «Jarraipena eskatzen duen opera prima» in *Argia*, 1996-03-10; linean: <http://kritikak.armiarma.com/?p=3417> (kontsulta-data 2014-05-14).
- (2008): *Bizitza homeopatikoa*, Susa, Zarautz.
- (2013): «Xabier Mendiguren Elizegi: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- MITXELENA, L. (2011): «Historia de la literatura vasca» in *Luis Michelena. Obras completas. XIII. Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX*, (Lakarra Andrinua, J.A. & Ruiz Arzallus, I ed.), UPV/EHU & GFA.

- MIHALACHE, I. (2005): «Le jeu de scène: traductions et traducteurs à travers les cultures et les genres littéraires» in *Fictionalising translation and multilingualism* (Delabastita, D. & Grutman, R. ed.), Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen, 139-154.
- MUJICA, L. M. (1979): *Historia de la literatura euskerika*, Luis Aramburu editor, San Sebastian.
- MUNDAY, J. (2008): *Introducing Translation Studies. Theories and applications 2nd ed.*, Routledge, London and New York.
- NAVARRO, K. (1984): «2. Itzultzaile Eskola: Orainaldia» in *Senez*, 1, 1984, 27-33; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19840101/koro> (kontsulta-data: 2016-08-10).
- OLAZIREGI, M. J. (1998): *Literatura eta irakurlea: testu-estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*, UPV/EHU; linean: [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/MARIA\\_JOSE\\_OLAZIREGI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/MARIA_JOSE_OLAZIREGI.pdf) (kontsulta-data: 2017-01-18).
- (2002): *Euskal eleberraren historia*, Labayru Ikastegia & Amorebie-ta-Etxanoko Udala, Bilbo.
- (ed.) (2012): *Basque Literary History*, Center For Basque Studies - University of Nevada, Reno.
- ORIXE (1927): *Euskal Literatura'ren atze edo edesti laburra*, Utrisque Vascini-cae, Donostia.
- ORPUSTAN, J. B. (1996): *Précis de littérature basque*, Izpegi, Baigorri.
- PEGENATUTE, L. (2012): «The Poetics of Translation According to Javier Marias: Theory and Practice» in *TTR: traduction, terminologie. Rédaction*, 25, 2, 73-116.
- PEREZ, R., ABAITUA, J. & KALTZAKORTA, X. (1992): «Deustuko Postgraduko Itzulpen Masterra» in *Senez* 13, linean: [https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/perez\\_abaitua\\_kaltzakorta](https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19930101/perez_abaitua_kaltzakorta) (kontsulta-data: 2020-03-07).
- PYM, A. (1998): *Method in Translation History*, St Jerome Publishing: Manchester.
- ROJO COBOS, F. J. (2008): «Manu militari (1986)» in *Euskal Literaturaren Historia. Idazlanak*; linean: <http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=840> (kontsulta-data 2014-08-18).

- ROUSSEL, V. (2004): «Reproduction, changement et crise» in *Pierre Bourdieu: les champs de la critique / colloque organisé par la Bpi en 2003 dans le Centre Pompidou à Paris* (Bibliothèque publique d'information & Corcuff, P. ed.), BPI & Centre Pompidou, Paris, 135-145.
- RUBIO TOBAR, J. (2013): *Literatura, Historia y Traducción*, Ediciones de La Discreta, Madrid.
- SAIZARBITORIA, R. (2000): *Aberriaren alde eta kontra*, Alberdania, Irun.
- (2012): *Martutene*, Erein.
- (2015): «Ramon Saizarbitoria: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- SANTANA, M. (2012): «Los mercados de las literaturas en España: la producción literaria» in *Revista de Alces XXI*, 0, 231-251.
- (2015): «Translation and Literatures in Spain, 2003-2012» in *1611 Revista de Historia de la Traducción*, 9, linean: [http://ddd.uab.cat/pub/1611/1611\\_a2015n9/1611\\_a2015n9a4/santana.htm](http://ddd.uab.cat/pub/1611/1611_a2015n9/1611_a2015n9a4/santana.htm)
- SAPIRO, G. (2010): «L'autonomie de la littérature en question» in *Bourdieu et la littérature*, (Martin, J. P. dir.), Éditions Cécile Defaut, Nantes, 45-61.
- (2014): *La sociologie de la littérature*, Editions La Decouverte, Paris.
- SARASOLA, I. (1976): *Historia Social de la Literatura Vasca* (trad. Jesús Antonio Cid), Akal, Barcelona.
- SARASOLA, B. (2010): «Literatur mundu miserablea» in *Berria*, 2010-10-31; linean: <http://kritikak.armiarma.com/?p=4990> (kontsulta-data: 2014-08-28).
- SARRIONANDIA, J. (1985): *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruñea.
- (1991): *Hezurrezko xirulak*, Elkar, Donostia.
- SIMENONI, D. (2004): «Le traducteur, personnage de fiction» in *Spirale: arts, letters, sciences humaines*, 197, 2004, 24-25.
- SIMON, S. (2006): *Translating Montreal*, McGill-Queen's University Press, Montreal.
- SIOUDA, A. (2012): «La traduction comme substitute d'amour, thérapie et art de la relation» in *Traduire*, 226, 21-38.

- THIEM, J. (1995): «The translator in postmodern fiction» in *Translation and literature*, 4, 2, 207-218.
- TOLEDO LEZETA, A. M. (2009): «Hizkuntzak eta aldaerak euskal narratibaren sorreran» in *ASJU*, 43, 847-860; linean: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/view/1766> (kontsulta-data: 2014-09-04).
- (2010): «Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpi-deak» in *Euskera* 2010, 55, 2, 767-800.
- URIBE, K. (2012): *Mussche*, Susa, Zarautz.
- (2013): «Kirmen Uribe: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- URKIZU, P. (2000): *Historia de la literatura vasca*, Uned, Madrid.
- URRETABIZKAIA, A., 2013, «Arantxa Urretabizkaia: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- URZELAI, J. & AUZMENDI, L. (1989): «Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ibilbide historikoa: sorrera, emandako pausoak eta gaurko egoera» in *Senez*, 8, 27-31.
- VENUTI, L. (2004): «How to read a translation» in *Translation Changes Everything, Theory and Paractice*, Routledge, London & New York.
- (2013): *Translation changes everything*, Routledge, London & New York.
- VILLASANTE, L. (1979): *Historia de la literatura vasca* (2ª edición revisada y completada), Editorial Aranzazu, Burgos.
- VIZCARRA, F. (2002): «Premisas y conceptos básicos en la sociología de Pierre Bourdieu» in *Estudios sobre las Culturas Contemporáneas*, VIII, 16, 55-68; linean: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=31601604> (kontsulta-data: 2017-04-17).
- WAKABAYASHI, J. (2005): «Representations of translators and translation in Japanese fiction» in *Fictionalising translation and multilingualism* (Delabastita, D. & Grutman, R. ed.), Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken, Antwerpen, 155-169.
- WOLF, M. (2007): «Introduction. The emergence of a sociology of translation» in *Constructing a Sociology of translation*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Philadelphia, 1-36.

- (2011): «Mapping the field: sociological perspectives on translation» in *International Journal of the Sociology of Language*, 207, 1-28.
- ZABALETA, J. (1986): «Euskal itzultzailearen egoera eta iritziak» in *Senez*, 5, 15-60; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19860101/zabaleta> (kontsulta-data: 2016-08-12).
- (1989): «Itzultzaile ikasketen etorkizunerako argibideak» in *Senez*, 8, 61-76; linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19900110/zabaleta%202> (kontsulta-data: 2016-08-12).
- ZABALONDO, B. (1988): «Itzultzaile eskolen berri» in *Senez*, 7; linean: <http://www.eizie.eus/en/Argitalpenak/Senez/19890130/zabalon> (kontsulta-data: 2016-08-12).
- ZALDUA, I. (2012): *Idazten ari dela idazten duen idazlea, edo literatura gaixotasun gisa*, Elkar, Donostia.
- (2013): «Iban Zaldua: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak», argitaragabea.
- ZUBILLAGA, N. (2014): «Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura. Tesiaren ideia nagusiak» in *Senez*, 45; linean: [http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20141028/11zubillaga/senez45\\_zubillaga.pdf](http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20141028/11zubillaga/senez45_zubillaga.pdf) (kontsulta-data: 2016-01-26).
- ZUBIRI, H. (2013): «Euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren aztergai. Soziolinguistikako datuetatik eta irakurketa-ohiturei buruzko ikerketetatik abiatuta» in *Uztaro*, 87, 51-68.
- ZULOAGA, E. (2011): «Fikzioaren izterrak» in *Maiatz*, 53, 80-81.
- (2012): «Twist» in *Maiatz*, 54, 95-96.